

**Henry James**

# **Europarrak**

**euskaratzailea: Irene Aldasoro**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Irene Aldasoro.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1997  
Jatorrizkoaren data: 1878

Henry James euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=115>

# Hitzaurrea

Europara bizitzera etorri (1875) eta hiru urte eta erdiko tartean idatzi zituen Henry Jamesek fikziozko bere lehendabiziko lau obra garrantzizkoenak —*Roderick Hudson* (1875), *The American* (1876-77), *Daisy Miller* (1878) eta *Europarrak* (1878)—, aldizkarietan atalka argitaratuak denak. Jamesen ibilbide literarioaren lehen garaiko eleberri labur bat da, beraz, *Europarrak*, lehen fase horretako eleberri nagusia baino —*The Portrait of a Lady* baino— bi urte lehenago idatzia.

«Atlantic» aldizkariako argitaratzaile William Dean Howellsek, *The American* argitaratu eta gero, beste eleberri bat egiteko enkargua eman zionean —aurrekoaren amaiera tristearen kritika adiskidetsu bat egin eta «musa alai»ari hel ziezaiola eskatzen zionarekin batera—, Jamesek, erantzunean, *Europarrak* izango zenaren egitasmoaren berri eman zion. Honela zioen:

Susmoa dut ezen bizitzako tragediek bahitzen didatela arreta gainerako gauzek baino gehiago, eta esanahi handiagoa dutela nire irudimenerako; beste alde batetik, ordea, uste dut ezen eguzkiaren orban bati tinko begiratzuz gero prismaren koloreak ikusteko gai naizela. Izan daitekeen eguzki-orban distiratsuena izango duzu 1878ko lau ataleko istorioa. (...) Ziur asko, bohemiar tankerako mutil gazte alai xarmagarri bati buruz dudan ideia bat garatuko dut. Mutila atzerri aldetik itzultzen da bere senitarteko familia puritano herdoildu aszetiko batera (1830ko Ingalaterra Berriko leku irudizkoren bat), eta bere alaitasunaren eta ausardia amoltsuaren bidez familiartekoen laztasunak leunduko ditu, haien dispepsia sendatuko du eta haien kezkak uxatuko ditu. Etxe-giroko lagunarte goibel triste bat epikureismora bihurtzearen irudi bat izango litzateke, gaingiroki esanda. (...) Baina gerta dakidake gauza onik ez ateratzea ere. Zenbat kolore eman ahal izango diodan; horretan izango da merezimendua.

Eta, atera, atera zuen, eta ez gutxi. Distiraz gainera, Jamesek agindutako txukuntasun eta perfekzio formal guztia du eleberriak. Eguzki-orban distiratsuenetako bat da, dudarik gabe. Horregatik da harrigarria Jamesek berak berehalaxe lanari «ahul eta huts» iritzi eta amari idatzitako eskutitz batean eleberria gutxietsi izana. New Yorkeko Argitalpenerako bere lan guztien bilduma prestatu zuenean ere ez zuen *Europarrak* bilduman sartu.

Baliteke kritika jakin batek urrunarazi izatea James eleberri honetatik. Izan ere, Thomas Wentworth Higginsonek 1879an hitz gogorak erabili zituen *Europarrak*-en kontra; eleberria anakronikotzat jo zuen eta Jamesen kosmopolitismoa zalantzan jarri. Honako hauek leporatu zizkion, esate baterako: zaldiz tiratutako omnibusak agertaraztea, artean halako ibilgailurik kaleetan ez zenean; erretratatzan duen familia Bostongo lagunarte onenean sarrera duena izanagatik, familiako alabak «artistarik inoiz ezagutu ez» izatea, edo familia hori bera bi atzerritarren aurrean hain harriturik eta nahasturik ibil-

tzea, 1830ean Bostonen 1878an baino europar ikasi gehiago zenean.

Gaur egun txikikeriak dirudite salaketa horiek, baina litekeena da Jamesek min hartu izatea. Jamesek ez zuen, ordea, eleberri historiko bat egiteko asmorik. Jamesek eleberrian agertzen duen Ingalaterra Berria beraren familiako oroitzapenetakoa da eta, batez ere, Emersonen eta Hawthorneren mundua. Kontuan izan behar da *Europarrak*-en garai berean idatzi zituela Henry Jamesek Emersoni buruzko saio garrantzitsu bat eta Hawthorneri buruzko azterketa bat ere. Emersonen mundua «kolorerik gabea» iruditzen zitzaion Jamesi; pasiorik, gorabeherarik eta abenturarik gabea, oso sinplea eta aldi berean oso arduratsua, moral zut altu batek gobernatua. Mundu hori da, hain zuzen, Jamesek eleberri honetan Wentworth familiaren bidez irudikatzen duena eta, begiak Europako modelotan (Turgeniev, Zola, Flaubert...) jarriarik, Felix Young eta Eugeniaren mundu konplexu eta sofistikatuagoarekin alderatzen duena.

Amerikarrak alde batean eta europarrak bestean, uste izan daiteke eleberri honetan ere

Henry Jamesen gai nagusi eta oinarrizkoa garatuko dela, Mundu Berriaren eta Zaharraren arteko talka alegia, baina *Europarrak*-en ez dago oraindik talkarik. Eleberriak tonu arina eta ehundura komikoa du nagusi, eta amerikarrek eta europarrek elkarrekiko dituzten uste okerrak, aurreiritziak, gaizki-ulertuak eta gutxiespenak dira komedia giroaren sortzaile. Gainera, maila berean jartzen dira bi munduak, hau da, ez da bat bestea baino gehiago goratzen edo beheartzten. Puritanoen zenbait alderdi ironiaz kritikatzten badira ere, onartzen da bertute miresgarriak ere badituztela. Wentworth familiak ez du ahaide europarren estiloa eta jokamoldea balioesten, baina europarrek ere ez dute balioesten Wentworth familiaren sinpletasun hipokrisiarik gabea.

Maitasun istorio alaia eta «ondo» amaitzen zena egiteko enkargua zuen Jamesek, eta, horri dagokionean, bete zuen emandako hitza. Dena den, harritzekoa da nola ez zuen Howellsi bidalitako egitasmoan Eugeniaren pertsonaia aipatu. Izan ere, lehen orrialdeetatik kentzen dio Eugeniak protagonismoa Felix Young mutil gazte

alaiari, eta bera bihurtzen da eleberriko ardatz eta nagusi. Felix batere korapilatua ez dela kontuan izanik, Eugeniaren giza irudi konplexua falta izan balitz, eleberria ezdeusa izan zitekeen; epikureismoaren eta puritanismoaren arteko kontrakotasuna gauza jakina eta hutsala gerta zitekeen. Baina Eugeniak dena aldatzen du; liburuko zenbait gai korapilatu ez ezik, halako itzal batez estaltzen du «eguzki-orbana».

Jamesek «Zirriborro bat» azpтитulua ezarri zion *Europarrak* eleberriari. Hobeto esan, «a sketch» ezarri zion; «sketch» hitzak, ingelesez, xehetasun handirik gabeko marrazki bat edo hitzezko deskribapen labur bat adierazteaz gainera, antzerki lan labur bat ere esan nahi du, eta *Europarrak*, egia esan, hiru zentzuen jabe da. *Europarrak* eleberri bat da, askotan margolan batean pentsarazten duena, eta gainera Eugeniaren «erakustaldiaren» ikusle bihurtzen gaituena.



Hitz bat esan nahi nuke itzulpen honetako elkarrizketetan erabili ditudan komatxoei buruz. Gaur egungo joera nagusia komatxoak ez, baina marrak erabiltzekoa bada ere, kasu honetan komatxoan alde egin dut. Izan ere, elkarrizketa hauek narrazioan bertan integraturik daudela iruditzen zait, eta marra erabiltzeak narrazioan nolabaiteko eten behartu bat egitea eskatuko lukeela. Erabakia hartu eta gero, ordea, gure artean ohikoak diren bi komatxoak («) astunegi gertatzen zitzaizkidan, zeren eta, elkarrizketaren barruan ere batzuetan estilo zuzena edo aipu bat agertzen denez, zenbait esaldi aurrean edo atzean lau komatxo zituela geratzen baitzen. Hala, bada, lizentzia hartu eta ingelesezko moldeari jarraitu diot: elkarrizketaren hasiera eta bukaera koma bakar batez adierazten da; autoreak komatxo artean eman dituen hitzak ere koma bakar batez ematen dira, eta aipu zuzenak, berriz, bi komatxoz.

\* \* \*

Azkenik (last but not least), eskerrik asko, Eskarne Mujika, Antton Olano eta Juan Garzia, zuen laguntza eta aholkuengatik.

**Irene Aldasoro**

# 1. atala

Interes gabeko hiri animatu baten bihotzean kokaturiko hilerri estu bat, ostatu goibel bateko leihoetatik ikusita, ez da inoiz gogoetagai pozgarria izaten; eta ikuskizuna ederrenetarikoa denik ezin esan, hilarri lizunduek eta herioaren itzalpeak elur busti motel baten freskadura alferra hartu dutenean. Baldin eta, lanbro izoztuak airea sendotu duenaz bat, egutegiak erakusten badu ezen udaberri-saso bedeinkatuak bete dituela dagoeneko sei aste, onartuko da ez zaiola ikuspegiari eragin gogohilgarririk falta. Horrexen sentipen bizia zuen maiatz bateko 12an, duela hogeita hamar urtetik gora, Boston hiri zaharreko hotel onenaren leihoetako batetik begira zegoen andreak. Bazen ordu erdi bat han zegoe-la; hau da, tarteka zegoen, egon; zeren eta aldi-ka-aldika berriro gelara itzuli eta haren luzera neurtzea egiten baitzuen pauso urduriz. Tximian su gori-goria zegoen, gar urdin labur bat zeriola, eta suaren aurrean, mahai batean eserita, mutil gazte bat, lapitz bati eragiten. Paperez-

ko orri batzuk zeuzkan mutilak zatitxo karratu berdinetan ebakita, eta, ematen zuenez, paper horiek marrazkiz —irudi bitxiz— betetzen ari zen. Bizkor eta adi ari zen lanean. Batzuetan, burua atzeratu eta marrazkiari besoa luze-luze eginda eusten zion, eta ahopeko hotsak eta txistu arin alaiak egiten zituen. Andreak igurtzi egiten zuen ondotik pasatzean, haren gona, apainduraz betea, orritsua baitzen. Andreak ez zuen mutil gaztearen lanera begirik luzatzen. Bakarrik, noizean behin, pasatzerakoan, gelaren beste aldeko apain-mahai baten gainean esekitako ispilu batera begiratzen zuen. Orduan, pixka batean gelditu eta gerria estutzen zuen bi eskuekin, edo eskuak —oso beteak eta politak zituen— ileko txirikorda anitzetara jasotzen zituen, erdi laztantzeko eta erdi txukuntzeko keinu bat eginez. Buru-azterketa araugabe haiek zirauten denboran andrearen aurpegiko malenkonia desagertu egiten zela irudituko zitzaiokeen begirale erne bati, baina berriro leihora hurbiltzen zen orduko, oso deskontentu zegoela adierazten hasten zen emakumea. Eta, izan ere, zerekin kontenta gutxi zegoen begiak jartzen zituen lekuan. Leihoko

kristalak antzigarrak gandaturik zeuden, eta beheko kanposantuko hilarriak, berriz, ihintz izoztuak bete-betean harrapa ez zitzan okertu balira bezala ageri ziren. Burdinazko hesi garai batek babesten zituen hilarriak kaletik, eta hesituraz kanpo bostondar talde bat zebilen elur urtutan ziki-zaka. Askok gora eta behera begiratzten zuten: zerbaiten zain zeudela ematen zuen. Aldian behin ibilgailu bitxi bat inguratzen zitzaien zeuden lekura; nolako ibilgailua, eta leihoko andreak, nahiz eta giza asmakizunen berri ondo zekiena izan, ordu arte inoiz ikusi ez zuen bezalakoa: omnibus handi zapal bat, kolore biziz margotua eta txintxarri dilindariz apaindua, zoluan itsatsitako kanal-antzeko batzuei atxiki-rik, bide lauzatuan aurrera arrastan zeramana, berealdiko burrunba, zalaparta eta aztarrikaz, harritzeko moduko zaldi txiki pare batek. Une jakin batera heltzen zenean, hilerriaren pareko jendeak —emakumezkoak gehientsuenak, zakutoak eta pardelak aldean— gorputz trinko bat eginda jaurtikitzen zuen bere burua ibilgailuaren gainera —itsasoan salbamendu-txalupan leku hartzeko zalaparta gogorazten zuen mugimendu

bat—, eta barru zabalean irentsirik galtzen ziren. Orduan, salbamendu-txalupa —edo salbamen-  
du-kotxea, hoteleko leihoko andreak nola-hala  
izendatu zuenez— dinbili-danbala urruntzen zen  
txintxarrots batean gurpil ikustezinen gainean,  
lemazainak (bolanteko gizonak) brankatik itxu-  
ragabe gidatzen zuela. Fenomeno hori hiru  
minutuero gertatzen zen, eta mantuz jantziriko  
emakume presati, otarre eta pardeldunen zama-  
keta aise eta erruz berritzen zen. Hilerriaren  
beste aldean adreilu gorriko etxetxo ilara bat  
zegoen, beren etxe-oste xume etxe-girokoak  
agerian zituztela. Hotelaren beste aldeko mutu-  
rrean zurezko kanpandorre luze bat ikusten zen,  
zuriz pintatua, elur maluten lauso artean. Leihoko  
andrea kanpandorreari begira egon zen pixka  
batean; inoiz ikusitako gauzarik itsusiena iritzi-  
zior, bere arrazoiak tarteko. Gorrotagarria  
zitzaion: nardagarria. Sortu zion gogaitasunak ez  
zuen inolako proporziorik ezein motibo zentzuz-  
korekin. Ez zuen gogoan kanpandorreek halako  
kezkarik inoiz sortu ziotenik.

Ez zen emakume polita; baina gogaitasun  
sorra adierazten zuenetan ere oso aurpegi inte-

resgarria eta atsegina zuen. Ez zegoen gazteenan ere; baina liraina zenez, oso tamaina egokian mamituriko soimbira aski biribila izanagatik —heldutasunaren eta malgutasunaren ezaugarri—, Hebe gerri-labur batek kopa-ardo ezpainetaraino betea eramango zukeen bezala eramaten zituen hark bere hogeita hamairu urteak. Aurpegiko azala fatigatua zuen, frantsesek esaten duten bezala; ahoa handia, ezpainak beteegiak, hortzak ezberdinak, kokotsa oso molde arruntekoa; sudur zabala zuen, eta irribarre egiten zuenean —eta irribarrez zegoen beti— sudur aldamenetako izurrak goragi igotzen zitzaizkion: begietaraino ia. Begi haiek, ordea, xarmagarriak ziren: grisak kolorez, distiratsuak, begirakune bizkorrekoak, gozoak eta lasaiak, adimenez beteak. Oso bekoki txikia zuen —hori zuen hazpegi eder bakarra—, eta ile beltz harro sarria, finki kizkurtua, zeina txirikordaturik erabiltzen baitzuen beti, hegoaldeko edo ekialdeko —atzerri urruneko— emakumeren bat iradokitzen zuela. Belarritako bilduma handia zuen, eta txandatzuz erabiltzen zituen; eta ematen zuen areagotu egiten ziotela itxura ekialdetar edo

exotikoa. Konplimendu bat egin zioten behin, haren berri jakin zuenean inoiz entzundako ezerk baino poz handiagoa eman ziona. «Emakume polita?» esan omen zuen norbaitek. «Bai zera, oso hazpegi zatarrak ditu.» «Hazpegiak ez dakit,» erantzun omen zuen bereizten zekien batek, «baina emakume polit batek bezala erabiltzen du burua.» Pentsatzekoa da ez zuela, horren ondoren, gutxiago apaindurik erabiliko.

Azkenean, leihotik erretiratu zen andrea, eskuekin begiak estaltzen zituela. «Ez dago jasaterik!» esan zuen. «Itzuli egingo naiz! Itzuli egingo naiz!» Eta bere burua suaren aurreko aulki batean erortzen utzi zuen.

«Zaude pixka batean, enetxo,» esan zion mutil gazteak leunki, paper puskatxoetan zirriborroak eginez.

Andreak oin bat luzatu zuen; oso oin txikia zen, eta arrosa formako apaingarri handi bat zeukan txapinean. Apaingarri hartan finkatu zituen une batez andreak begiak, eta hurrena beheko-suaren antrazitazko ohatze goriari begiratu zion. «Ikusi duzu inoiz su hau baino gauza nardagarriagorik?» galdetu zuen. «Ikusi duzu



inoiz gauza hain... hain *affreux*-ik?» Oso ingeles garbian mintzatzen zen, baina epiteto hori jaulki zuen moduak epiteto frantsesak erabiltzen ohi-turik zegoela erakusten zuen.

«Sua oso polita iruditzen zait niri,» esan zion mutil gazteak, une batez suari begira jarririk. «Mihitxo urdin horiek, txingar gorriaren gainean dantzari, oso deigarriak dira. Alkimista baten laboratoriko sua ematen dute.»

«Onegia zara, gizona,» adierazi zion lagunak. Mutil gazteak bere marrazkietako bat hartu eta besoa luzatu zuen, burua alde batera okertzen zuela. Mingaina beheko ezpainean hara-hona zerabilen emeki. «Ona, bai. Onegia, ez.»

«Arnegagarria zara,» esan zion andreak, txapinari begira.

Mutila marrazkiari ukitu batzuk ematen hasi zen. «Uste dut arnegatuta zaudela esan nahi duzula.»

«Bada, bai, hain zuzen ere!» esan zion lagunak barre txiki garratz bat eginez. «Hauxe da nire bizi guztiko egunik beltzena, eta badakizu zer esan nahi duen horrek.»

«Zaude bihar arte,» erantzun zion mutil gazteak.

«Bai, hutsegite galanta egin dugu. Gaur oraindik zalantza izpi bat baldin bada, bihar ez da batere izango. *Ce sera clair, au moins!*»

Mutil gaztea isilik geratu zen pixka batean, lapitzari eragiten. Eta gero, «Hutsegiterik ez da izaten» adierazi zuen.

«Egia handia, hutsegiteak ikusteko buruargitasunik ez dutenentzat. Norberaren hutsegiteak ez ikustea: horixe litzateke zoriona bizitza honetan,» jarraitu zuen andreak, bere oin politari begiratzeari utzi gabe.

«Arreba maitea,» esan zion mutilak, marrazten jarraitzen zuela, «lehen aldia duzu argia ez naizela esaten didazuna.»

«Bada, zure teoriaren arabera, ezin esango dut hutsegin dudarik,» erantzun zion arrebak egoki asko.

Mutilak algara bizi alai bat egin zuen. «Zu, behintzat, ondo argia zara, arreba maitea,» esan zion.

«Ez hainbeste, hau proposatu izateko.»

«Zuk proposatu al zenuen?» galdetu zion nebak.

Andreak burua jiratu eta begirakunetxo bat bota zion. «Zuretzat nahi al duzu merezimen-  
dua?»

«Nahi baduzu, neure bizkar hartuko dut errua,» esan zion mutilak, begiak altxatu eta irri-  
barre eginez.

«Jakina,» erantzun zion andreak, «zuk ez dituzu bereizten gauza hauek. Ez dakizu jabegoa zer den.»

Mutilak lehengo algara alaia egin zuen. «Horrekin jabegorik ez dudala esan nahi baduzu, arrazoi duzu!»

«Ez ezazu txirotasuna txantxetan har,» esan zion arrebak. «Txirotasunaz harrotzea bezain arrunta da hori.»

«Ni txiro? Oraintxe bertan bukatu dut berrogeita hamar libera emango dizkidan marrazkia!»

«*Voyons,*» esan zion andreak eskua luzatuz.

Nebak, ukitu bat edo beste gehitu eta marrazkia eman zion. Andreak marrazkiari begiratu zion, baina une bat lehenagoko haritik jarraitu zuen. «Emakume batek berarekin ezkon-

tzeko eskatuko balizu, zuk zera esango zenioke... «Nola ez, maitea; atsegin handiz!» Eta harekin ezkondu eta zoriontsu baino zoriontsuago izango zinateke. Handik hiru hilabeteren buruan, berriz, zera esango zenioke, «Gogoan izango duzu, noski, nirea izan zintezela eskatu nizun egun zoriontsu hura.»»

Mutil gaztea mahaitik jaikia zen, besoak pixka bat luzatzera; leiho aldera egin zuen. «Izaera xarmagarri baten deskribapena da hori,» esan zuen.

«Bai, bai, izaera xarmagarria duzu zuk. Hori daukat gure kapitaltzat. Horretaz konbentziturik ez banengo, ez nintzen arriskatuko zu lurralde beldurgarri honetara ekartzera.»

«Lurralde komiko honetara! Lurralde atsegin honetara!» aldarrikatu zuen mutilak, eta algara biziari eman zion.

«Omnibusera pilatzen diren emakume horiengatik egiten al duzu barre?» galdetu zion lagunak. «Zerk erakartzen dituela esango zenuke?»

«Oso gizon ederren bat egongo da barruan,» esan zuen mutilak.

«Denetan? Ehundaka etortzen dira, eta ez dirudi lurralde honetako gizonak batere ederrak direnik. Emakumeei dagokienean, berriz, komentutik irten nintzenetik ez dut hainbeste batera ikusi.»

«Emakumeak oso politak dira,» adierazi zuen nebak, «eta hau guztia oso dibertigarria. Hone-  
xen marrazki bat egin behar dut.»

Eta bizkor mahaira itzuli eta erremintak hartu zituen: marrazki-euskarri txiki bat, paperezko orri bat eta hiruzpalau lapitz. Leihoan kokatu zen gauza horiekin, eta han geratu zen kanpora begi-kolpeka, lapitzari arin eta trebe eragiten.

Irribarre distiratsua erakusten zuen lanean ziharduela. Distiratsua da, bai, une hartan aurpegi argiz bete hari zegokion hitza. Hogeita zortzi urte zituen; soinkera txiki, arin, ondo osatua. Arrebaren antz handia zuen arren, hazpegi ederragokoa zen: ile-horia, azal-zuria, bizkor-itxurakoa; dotore hezur-mamituriko begitartea zuen eta adierazpen gizatsu eta, aldi berean, ez bate-  
re serioa, begi urdin gozoak, bekain fin oso arku-  
tuak —halako bekainak, ezen andreek beren maitaleenei sonetoak idatziko balizkiete, neur-

titz mota horretako gai bihurturik baitzirate-keen— eta bibote txiki bat, gorantz bihurtua, etengabeko irribarrearen arnasak hala eraginda bezala. Bazuen haren fisonomiak zer onbera bat eta, aldi berean, zer deigarri bat. Baina, adierazi dudan bezala, ez zen batere fisonomia serioa. Mutilaren aurpegia ohi ez bezalakoa zen horretan: ez zen batere serioa eta, hala ere, konfiantzarik handiena ematen zuen.

«Ez ahaztu elur asko jartzea!» esan zion arre-  
bak. «*Bonté divine*, hau da eguraldia!»

«Marraskia zuri-zuri utziko dut, eta figura txi-  
kiak egingo dizkiot beltzez,» erantzun zion muti-  
lak barrez. «Eta izena zera jarriko diot... —nola  
da Keatsen lerro hura?— Maiatz erdiko Lehen  
Haurra!»

«Ez dut gogoan,» esan zuen andreak, «amak  
hau honelakoa zenik inoiz esan zidanik.»

«Amak ez zizun ezer txarrik esaten. Eta ez da  
honelakoa izango... egunero. Ikusiko duzu nola-  
ko egun bikaina izango dugun bihar.»

«*Qu'en savez-vous?* Bihar alde egingo dut.»

«Eta nora joan behar duzu?»

«Noranahi hemendik. Silberstadtera berriro. Printze Erregeordeari idatziko diot.»

Jiratu eta andreari begira geratu zen mutila pixka batean, lapitza hatzen artean geldi zuela. «Eugenia maitea,» xuxurlatu zuen, «hain atsegin izan al duzu itsasoa?»

Eugenia jaiki egin zen. Eskuan zuen artean nebak eman zion marrazkia. Esanahi gordineko marrazki bat zen: jende multzo errukarri bat bapore baten ganean, elkarrengana pilaturik eta bata besteari helduta, ontzia, aldaroka, beldurtzeko moduan okerturik, olatu baten sabelean azpiratzera zihoala. Zentzu handikoa zen, eta halako indar trajikomiko batez betea. Begiratu zion Eugeniak marrazkiari, eta keinu triste bat egin zuen. «Nola marraz ditzakezu horren eszena gorrotagarriak?» galdetu zion. «Sutara botatzeko gogoak ematen dit!» Eta harrika bota zuen papera. Neba paperari begira geratu zen, isilik, nora joaten ote zen. Papera lurrera erori zen kulunka, eta hantxe utzi zuen. Eugeniak leihorantz egin zuen, eskuak gerrian zituela. «Zergatik ez nauzu gaitzesten? Zergatik ez nauzu iraintzen?» galdetu zion nebari. «Uste dut hobeto

sentituko nintzatekeela orduan. Zergatik ez didazu esaten gorroto nauzula hona ekarri zaitudalako?»

«Ez zenukeelako sinetsiko. Oso maite zaitut, arreba kutuna! Oso pozik nago hemen, eta zorazten hemengo ikuspegiarekin.»

«Ez dakit zerk hartu nauen mendean. Galdu dut burua,» jarraitu zuen Eugeniak.

Mutilak lapitzari eragiten jarraitu zuen. «Oso lurralde bitxi eta interesgarria da hau inondik ere. Hemen gaude, eta nik ondo pasatzeko asmoa dut.»

Eugeniak aldentzekoa egin zuen pauso urduriz, baina berehalaxe itzuli zen atzera. «Umore ona gauza ederra da, zalantzarik gabe,» esan zuen; «zurea, ordea, gehiegizkoa da, eta ez dut uste ezer onik ekarri dizunik.»

Mutila begira geratu zitzaion, bekainak jasota, irribarrez; kolpetxo batzuk eman zizkion lapitzarekin bere sudur politari. «Zoriontsu egin nau!»

«Izan zitekeen gutxiena da hori; ez dizu besterik ekarri. Bizitza osoa fortunari mesederik txi-



kienak ere eskertzen pasatu duzu eta, ez du zurekin lan handirik hartu.»

«Zertxobait hartuko zuen, ni honelako arreba miresgarriarekin saritzeko.»

«Seriotasun pixka bat, Felix. Ez ahaztu zu baino zaharragoa naizela.»

«Honen arreba zaharrarekin, hortaz!» erantzun zuen Felixek barrez. «Seriotasuna European utzi genuelakoan nengoen.»

«Hemen aurkituko duzun itxaropena dut. Eduki kontuan badituzula ia hogeita hamar urte, eta ez zarela bohemiak ezezagun bat besterik: egunkari marrazkidun bateko berriemaile sosgabe bat.»

«Ezezaguna, nahi duzun guztia, baina ez zuk uste bezain bohemiarra. Eta sosgabea, ezta pentsatu ere! Ehun libra dauzkat sakelean, berrogeita hamar marrazki egiteko kontratua, eta gure lehengusu guztiei eta gure lehengusuen lehengusu guztiei erretratu bat margotzeko asmoa dut, ehun dolar buruko!»

«Ez duzu anbiziorik,» esan zion Eugeniak.

«Zuk, ordea, bai, baronesa maitea,» erantzun zion mutilak.

Basonesa isilik geratu zen une batean, elur bustiak ilundutako hilerriari eta zaldi-kotxe tran-balakariei begira. «Bai, nik badut anbizioa,» esan zuen azkenean. «Eta anbizioak ekarri nau leku beldurgarri honetara!» Ingurura begiratu zuen —halako biluztasun arrunt bat zuen gelak; oheak eta leihoak ez zuten errezelik—, eta hasperentxo bat egin zuen, gogoz. «Anbizio gai-xoa!» esan zuen. Hurrena, aldamenen hormaren kontra zegoen sofara bere burua erortzen utzi eta aurpegia estali zuen eskuez.

Nebak marrazten jarraitu zuen, bizkor eta trebe. Handik pixka batera arrebaren ondoan eseri zen eta marrazkia erakutsi zion. «Tira, ez al zaizu nahiko ona iruditzen bohemiar ezezagun batek egina izateko?» galdetu zion. «Atera ditut beste berrogeita hamar libera.»

Magalean zuen irudi txikiari begiratu zion Eugeniak. «Zentzu handikoa da, bai,» esan zuen. Eta berehalaxe gaineratu zuen, «Uste duzu gure lehengusuek egingo dutela horrelakorik?»

«Egin, zer?»

«Tramankulu horietan sartu eta itxura horretan ibili.»

Felix pentsatzen egon zen pixka batean. «Egia esan, ez dakit. Interesgarria izango da jakitea.»

«Ez, aberats-jendea ez!» esan zuen baronesak.

«Ba al dakizu ziur aberatsak diren?» galdetu zion Felixek alaiki.

Arreba astiro jiratu zen zegoen lekuan, begira jartzen zitzaiola. «Jaun zerukoa!» xuxurlatu zuen. «Hori da gauzak esateko modua daukazu-na!»

«Askoz hobe izango da aberatsak badira, jakina,» aitortu zuen Felixek.

«Aberatsak direla ez baneki, etorriko nintzela uste al duzu?»

Arrebaren premiazko begiradari mutilak bere begirada argitsu kontentarekin egin zion aurre. «Bai, askoz hobe izango da,» esan zuen berriro.

«Hori besterik ez dut espero haiengandik,» esan zion baronesak. «Ez dut espero buruargiak izango direnik, ez adiskidetsuak —hasieran behintzat— ez dotoreak, ez interesgarriak. Baina, esaten dizut, ziur nago aberatsak direla.»

Felixek sofaren bizkarrean etzan zuen burua, eta, tarte batean, leihoak marko egiten zion zeru-atal luzekari begira egon zen. Elurra atertzen ari zuen. Iruditu zitzaion zerua argitzen hasi zela. «Espero dut aberatsak izango direla,» esan zuen azkenean, «eta boteretsuak, buruargiak, adiskidetsuak, dotoreak, interesgarriak, eta oro har, zoragarriak! *Tu vas voir.*» Eta aurrerantz makurtu eta musu eman zion arrebari. «Begira!» jarraitu zuen, «Seinale bat irudi, hizketan ari naizen bitartean, zerua urre-koloreko bihurtzen ari da; egun bikaina egingo du.»

Eta hain zuzen ere, bost minutuan aldatu zen eguraldia. Zulatu zuen eguzkiak elur-lainoen artetik eta baronesaren gelara egin zuen jauzi. «*Bonté divine,*» esan zuen andreak, «hau eguraldia!»

«Goazen kanpora, mundua ikustera,» esan zion Felixek.

Eta handik berehala irten ziren. Giroa epeldurik zen, argiturik ez ezik, eta eguzkiak lehorturik zituen espaloiak. Kalerik kale ibili ziren noragabea, denari begira: jendeari eta etxeei, dendei eta ibilgailuei, zeru urdin distiratsuari eta kale-

gurutze lokaztuei, gizonezko presatiei eta paseoan zebiltzan neskatxa astitsuei, adreilu gorri berriei eta arbola berde-berdeei, dotoreziaren eta arlotetasunaren arteko nahasmen harrigarri hari guztiari. Ordu batetik bestera, udaberriko bihurtu zen eguna. Kale animatuenetan ere bazen halako lur eta lore usain bat. Felix oso entreteniturik zebilen. Komikoa deitu zion lurralde hari, eta ikusten zuen guztiari barrez jarraitzen zuen. Esan zitekeen Amerikako zibilizazioa egundoko txantxa-sorta baten gisa adierazten zitzaiola. Txantxak bikainak ziren izan ere, eta handia mutil gaztearen gozamina. Felixek bazuen irudiaren sena esaten zaiona, eta molde demokratikoek lehen begiratuan sortzen zioten arreta gazte bizi aurpegi-argi baten mugimenduek sortuko zioketenaren antz-antzekoa zen: arreta agerikoa eta onespenezkoa. Eta oraingo honetan, haurtzaroko txokoak berrikusten zebilkeen gazte atzerriratu desalaitugabetzat har zitekeen Felix. Zeruaren urdin moreari begira, egurats distiratsuari begira, han-hemen barreiaturiko kolore-gune ugariei begira jarraitzen zuen.

«*Comme c'est bariolé, ez?*» esan zion arrebari, biek aldian-aldian erabili premia misteriotsu bat sentitzen zutelako-edo erabiltzen zuten mintzaira atzerriko hartan.

«Bai, horixe *bariolé*,» erantzun zuen baronesak. «Ez dut atsegin kolore hau; begietan min ematen dit.»

«Bi muturrek bat egiten dutela erakusten du horrek,» erantzun zion mutilak. «Mendebaldera etorri orde, ekialdera joan garela ematen du. Zeruak Kairon bezalaxe ukitzen ditu etxe-gainak, eta alde guztietan itsatsirik ageri diren iragarki-kartel gorri-urdin horiek dekorazio mahometarra gogorazten dute.»

«Neska gazteak behintzat ez dira mahometarrak,» esan zuen baronesak. «Ezin esango da aurpegiak estaltzen dituztenik. Horrelako nabarmenkeriarik ez dut inoiz ikusi.»

«Eskerrak Jainkoari aurpegiak estaltzen ez dituzten!» egin zuen Felixek. «Gutxitan ikusten diren bezalako aurpegi politak dituzte.»

«Bai, oso aurpegi politak dituzte askok,» esan zuen baronesak, zeina oso emakume argia baitzen: emakume argiegia, behaketa zehatz

zorrotzik egin ez izateko. Ohi baino estuago lotu zitzaion nebaren besoari. Ez zegoen pozez gainezka, neba bezala. Gutxi hitz egiten zuen, baina gauza asko hartzen zuen kontuan, eta bere arteko gogoetak egiten zituen. Zertxobait asaldaturik zegoen. Pentsatzen zuen ondo lurralde bitxira etorri zela fortuna egitera. Azalean, amorru eta gogaitasun handia sentitzen zuen; oso pertsona delikatu eta milika zen baronesa. Beste garai batean, behin baino gehiagotan joan izan zen, entretenitzeagatik eta konpainia onarekin, probintziako herriren bateko feriara. Orain ere feria handi batean zegoela iruditzen zitzaion: entretenimenduak eta *désagrément*s oso antzekoak zirela. Batean irribarretsu zebilen eta bestean uzkur. Oso deigarria zen ikuskizuna, baina edozein unetan bultzadaren bat hartzeko arriskua zegoen. Baronesak ez zuen bere inguruan hainbeste jende batera eta bestera inoiz ikusi; ez zen inoiz ibili ezagutzen ez zuen jendearekin horrela nahasirik. Baina, poliki-poliki, beste feria honetakoa eginkizun serioagoa zela konturatzen hasi zen. Parke publiko handi batera joan zen nebarekin. Oso polita zen parkea, baina han zal-

gurdirik ez ikusteak harritu zuen baronesa. Arratsaldea aurrera zihoan; belar mardul berdemina eta zuhaitz enbor lirainak eguzki izpi zeharrek urrezaturik ageri ziren: urregorri meategitik atera berriak urrezaturik bezala. Andreak egurastera irten eta, beren zalgurdietan, eguzkita-koak zeharretara okerturik dituztela, oinezkoen ilararen ondotik igaro ohi diren ordua zen. Hemen, ordea, Eugeniak ez zuen ohitura horren aztarnarik ikusi, eta are harrigarriago zen falta hori, nola eta ibilbide zoragarri bat baitzihoan, oso hurrenkera egokian landatutako zumar batzuek osatzen zuten arku dotorearen artetik, kale zabal animatu bateraino, non ere, ikusten zenez, *bourgeoisie*-ko kide aberatsenen artean, oinezko ugari baitzebilen. Gure lagunak pasealeku argi hartatik igaro ziren, eta Felixek oraindik neska polit askoz gehiago hauteman zuen, eta arreba ohartarazi zuen. Ez zen, ordea, horren beharrik; izan ere, baronesak aztertutako baitzi-tuen ordurako, kontu handiz, andereño xarmagarri haiek.



«Gure lehengusuek ere horrelakoak izan behar dutela esaten dit barruak,» esan zion Felixek.

Hala espero zuen baronesak, baina ez zuen hori esan. «Oso politak, bai,» esan zuen, «baina umeak. Non dira emakumeak, hogeita hamar urteko emakumeak?»

«Hogeita hamahirukoak esan nahi al duzu?» galdetzekotan egon zen neba, zeren, askotan, Eugeniak esaten zuena eta esan gabe uzten zuena, biak, ulertzen baitzituen. Baina eguzki-sarreraren edertasuna goraiatzea besterik ez zuen egin, eta baronesak, zeina fortuna bila etorri baitzen, zera pentsatzen zuen, berriz: bere burua inorekin neurtu behar izatekotan, beretzat izango zuela mesede neska txikiekin neurtzea. Bikaina zen eguzki-sarrera. Gelditu egin ziren ikusteko. Halako kolore nahasketa zoragarririk inoiz ez zuela ikusi esan zuen Felixek. Baronesak ere ikusgarria iritzi zion; baina hori baino atsegingarriagoa zitzaion, beharbada, konturatzea ezen, bera han zegoela, mirespenez begiratzen ziola handik pasatzen zen hainbat jende itxura onekok, zeinentzat janzkera deigarriko emaku-

me dotore atzerritar-itxurako bat Bostongo kale kantoï batean naturaren edertasuna frantsesez goraiatzan ikustea ez baitzen oharkabean pasa zitekeen gauza. Eugeniari bihotza alaitu zitzaion. Halako poztasun bare bati amore eman zion. Fortuna bila etorri bazen, fortuna hori aise aurkituko zuela iruditu zitzaion. Hori agintzen zuen sartaldeko zeruaren gardentasun zoragarriak; gauzak berez etortzen direla iradokitzen zuen paseatzaileen begirada gozo lotsagabekeriarik gabekoak.

«Ez zara atzera Silberstadtera itzuliko, ezta?» galdetu zion Felixek.

«Bihar ez behintzat,» esan zuen baronesak.

«Printze erregeordeari idatzi ere ez?»

«Idatzi eta esango diot alde honetan ez dutela haren aditzerarik.»

«Ez dizu sinetsiko,» esan zion mutilak.

«Bakean utz dezazula aholkatzen dizut.»

Felixek oso umore onean jarraitzen zuen. Usadio zaharretan eta hiri pintoreskoetan hezia izanagatik, ezaugarri jator asko ikusten zion metropoli puritano txikiari. Arrats hartan, afalondoan, arrebari esan zion ezen hurrengo egu-

nean, goizean goiz, lehengusuei bisita egitera joango zela.

«Presa handia duzu,» esan zion Eugeniak.

«Zer naturalagorik,» galdetu zion Felixek, «gaurko neska polit horiek guztiak ikusita gero? Gure lehengusuak horrelakoak baldin badira, zenbat eta lehenago ezagutu eta hobe.»

«Baliteke horrelakoak ez izatea ere,» esan zion Eugeniak. «Eskutitzak ekarri behar genituen, beste pertsona batzuentzat.»

«Beste pertsona horiek ez lirateke gure ahai-de.»

«Ez dute horregatik okerragoak zertan izanik,» erantzun zion baronesak.

Nebak bekainak jasota begiratu zion. «Ez zenuen hori esan, hona etorri eta gure senitarte-koekin anaitu behar genuela adierazi zenidan lehen aldi hartan. Afekto naturalaren eragina zela esan zenuen. Eta horren aurka arrazoi batzuk atera nituenean, *la voix du sang* beste guztien gainetik zegoela aitortu zenuen.»

«Gogoan duzu hori guztia?» galdetu zion baronesak.

«Garbi-garbi! Eta oso hunkitu ninduen.»

Gelan gora eta behera zebilen Eugenia, goizean bezala; gelditu eta nebari begiratu zion. Zerbait esatera balihoa bezala egin zuen, baina ez zuen ezer esan, eta ibilian jarraitu zuen. Handik pixka batera, ordea, bestelako zerbait esan zuen, aurretik pentsatutakoa esan ez izana argitzeko bezala. «Inoiz ez diozu ume izateari utziko, neba maitea.»

«Esango litzateke zuk, andrea,» erantzun zion Felixek barrez, «mila urte dituzula.»

«Batzuetan, bai,» esan zuen baronesak.

«Hortaz, joan eta gizaki harrigarri baten etorrera jakinaraziko diet lehengusuei. Berehalaxe etorriko zaizkizu begirunea ekartzera.»

Eugeniak gelan paseatzeari ekin zion berriro, eta, gero, nebaren aurrean gelditu eta eskua jarri zion besoan. «Ez dute ni ikustera etorri behar,» esan zion. «Ez diezu utziko hori egiten. Ez dut lehen enkontrua era horretara egin nahi.» Eta nebaren begietako galderari erantzunez, jarraitu zuen. «Zu joango zara, dena aztertu eta gero niri esango didazu. Itzultzen zarenean, dena kontatu beharko didazu: nor eta zer diren, zenbat diren, zenbat gizon eta zenbat emakume,

zer adinetakoak..., den-dena. Ondo begiratu dena, eta hartu gogoan, gero niri deskribatzeko: tokia, xehetasun osagarriak... —nola esango nuke?—, *la mise en scène*. Eta gero, nire garaian, nik deritzodanean, noiz eta nola erabakitzen dudanean, neu joango naiz. Han aurkeztuko naiz: haien begien aurrean agertuko naiz!» esan zuen baronesak, buruan zuena nahiko garbi adierazten zuela, oraingoan.

«Eta zer mezu eraman behar diet?» galdetu zion Felixek, fede osoa baitzuen arrebaren antolamenduen doitasunean.

Baronesa nebari begira geratu zen —nebaren zintzo-aurpegi atseginari begira— pixka batean. Eta Felixek miresten zuen doitasunez erantzun zuen, «Nahi duzuna esan. Konta iezaezu nire historia, naturalena iruditzen zaizun bezala.» Eta bekokia jarri zion musu eman ziezaion.

## 2. atala

Biharamunak egun bikaina ekarri zuen, Felixek iragarri bezala. Negua ustekabeen udaberri bihurtu zen bezalaxe, udaberria zen orain bat-batean uda bihurtua. Horixe ikusi zuen landetxe karratu handi batetik irten zen neska gazteak, etxea bide lokaztu batetik bereizten zuen jardin zabalean paseatzeari ekin zionean. Zuhaixka loratuak eta landareak —txukun antolatuak— argitasun eta epeltasun oparoaren atseginetan zeuden. Zumar garaien itzal gardena —zumararbola ikusgarriak ziren— sendotuz zihoan ordu-rako, eta ohiko isiltasun sakonak inguru manae-rraza eskaintzen zion urruneko eliz kanpai baten hotsari. Entzun zuen neska gazteak eliz kanpaia; baina ez zegoen elizarako jantzita. Buru hutsik zegoen; muselinazko blusa zuri bat zuen soinean, ertz bordatuz apaindua, eta muselinazko gona kolorezko bat. Hogeita bi edo hogeita hiru urteko andereño bat zen, eta nahiz udaberriko igande goiz batez sexu horretako gazte bat jardinean buru hutsik paseatzen ikustea ez den,

gauzen izaerari begiratu zergo, batere desatsegina, ez zitekeen esan igande-hausle errugabe hura bereziki polita zenik. Garaia zen eta zurbila, mehea eta baldarxea; ile horia zuen eta guztiz lisoa; begiak, berriz, ilunak, bizitasunik gabeak eta aldi berean urduriak izatea berezitasun zutenak: oso urrunak, beraz, ikusten denez, «begi eder» idealetatik, zeinak distiratsuak eta lasaiak izan behar dutela begitantzen baitzaigu beti. Etxe karratu handiaren ate-leihoak zabal-zabalik zeuden denak, eguzkiaren argi garbigarriari sartzen uzteko, eta eguzki izpiek errainu oparoak barreiatzen zituzten etxearen bi alde aterpetzen zituen lorio zabal garaiaren zorura, non ere lastozko ipurdia zuten kulunka-aulki batzuk eta porzelana berde eta urdineko dozen erdi bat aulki txiki biribil ageri baitziren, etxeok ekialdeko merkataritzarekin izandako harremanen oroigarri, simetriaz jarriak. Etxea zaharra zen —zaharra esatean, laurogei urte zituela esan nahi da—, egurrez egin eta kolore gris margul garbi batez pintatua, eta aurrealde guztian, tarteka-tarteka, zurezko zutabe zapalak zituen, zuriz pintatuak. Zutabe horien gainean sustengaturik bezala,

halako frontis klasiko bat ageri zen, erdian hiru ataleko leiho zabal bat, arrunt landutako marko batek inguratua, eta angelu txikienetako bakoitzean, berriz, irekigune biribil kristalezatu bana zituela. Ate zuri handi bat zegoen, letoizko kisketa ondo leundurik, landa-bide itxurakoari buruz, eta, atetik bideraino, oin-bide zabal bat, adreiluz lauzatua, adreiluak higaturik eta pitzaturik baina oso garbi zituela. Etxe atzean zelaiak eta baratza zeuden, eta aletegi bat eta urmael bat. Eta aurrean, beste aldean, bidean oso urrutira gabe, etxe zuri txikiago bat zegoen, kanpoaldeko leihatilak berdez pintaturik zituela, jardintxo bat alde batean eta baratza bestean. Goiz-giroan distiraz zegoen hori guztia, ikuspegiaren zertzelada bakunak «batuketa» bateko batugaiak bezain garbi begietaratzen zirela.

Bigarren andereño bat irten zen orduan etxetik, eta lorioa igaro, jardinerara jaitsi, eta lehen aipatu dudan neska gaztearengana hurbildu zen. Bigarren andereño hori ere mehea eta zurbila zen, baina bestea baino zaharragoa, eta txikiagoa; ile ilun leuna zuen. Haren begiak, bestearenak ez bezala, biziak eta argiak ziren, baina ez



urduriak. Lastozko kapelu zinta zuridun bat zuen buruan, eta lepoko zapi indiar gorri luze bat, soinekoaren aurrealdetik behera oinetaraino iristen zitzaiona. Giltza txiki bat zekarren eskuan.

«Gertrude,» esan zuen, «oso ziur al zaude hobe duzula elizara joan gabe geratzea?»

Gertrudek begirada bat zuzendu zion, eta lila-zuhaixka bati adaxka bat kendu, usain egin, eta bota egin zuen. «Ezertaz ez nago oso ziur!» erantzun zion.

Beste andereñoak begiak Gertruderengandik urrundu eta izei ilara luzeen artean diz-diz ageritzen urmaelera eramane zituen. Eta, gero, oso ahots eztat esan zion, «Hemen duzu jangelako arasako giltza. Har ezazu badaezpada, inork ezer nahi izanda ere.»

«Eta nork nahi izango du hemen ezer?» galdetu zion Gertrudek. «Bakar-bakarrik izango naiz etxean.»

«Nor edo nor etor liteke,» esan zion besteak.

«Brand jaunagatik diozu?»

«Bai, Gertrude. Tarta zati bat nahi izan lezake.»

«Ez ditut gogoko betitarta jaten aritzen diren gizonak!» esan zion Gertrudek, lila-zuhaixkari tiraldi bat emanaz.

Lagunak begirada bat luzatu zion, eta gero lurrera begiratu zuen. «Oker ez banago, aita elizara joango zarela dago,» esan zion. «Zer esango diot?»

«Esaiozu buruko min handia dudala.»

«Egia al da hori?» galdetu zuen andereño zaharrenak, berriz ere urmael aldera begira.

«Ez, Charlotte,» esan zuen gazteenak soiltasunez.

Charlottek lagunaren aurpegira eraman zituen bere begi lasaiak. «Uste dut urduri zaude-la.»

«Beti egoten naizen bezala nago,» erantzun zion Gertrudek, tonu berean.

Charlotte beste aldera jiratu zen, baina hantxe geratu zen pixka batean. Soinekoaren aurrealdeari goitik behera begiratu zion. «Ez al zaizu luzeegia-edo iruditzen nire lepoko zapi hau?» galdetu zion besteari.

Gertrudek bira erdia eman zuen Charlotteren inguruan, lepoko zapiari begira. «Uste dut ez daukazula ondo jarrita,» esan zion.

«Nola jarri behar dut, bada?»

«Ez dakit; beste nolabait. Beste era batera hartu behar zenuke bizkarretik, beste era batera jarri ukalondoen inguruan; beste moduz emango zenuke atzetik.»

«Eta nola eman behar dut?» galdetu zion Charlottek.

«Ez nizuke esango,» esan zion Gertrudek, lepoko zapiari pixka bat atzeraxeago tira eginez. «Neronek, jarriko nuke, baina ez dakit nola edierazi.»

Charlottek, ukalondoei eraginez, Gertruderen ukituak eragindako laxotasuna zuzendu zuen. «Beno, erakutsiko didazu beste egun batean. Orain ez dio axolarik. Egia esan,» erantsi zuen, «ez dut uste batere axola dionik, inork atzetik nola ematen duen.»

«Bada, nik, gehiago axola diola esango nuke,» esan zion Gertrudek. «Ez dakizu nor egon dakizukeen begira. Ez zaude prest. Ezin zara polit agertzen ahalegindu.»

Charlotte oso serio jarri zen adierazpen horren aurrean. «Ez zait iruditzen polit agertzen ahalegindu behar denik ere,» erantzun zion tinko.

Gertrude isilik geratu zen. Eta, gero, esan zuen, «Beno, merezi ere, ez du asko mereziko.»

Charlotte unetxo batean begira geratu zitzaion, eta gero musu eman zion. «Ea hobeto zauden itzultzen garenean.»

«Oso ondo nago, ahizpa maitea!» esan zion Gertrudek.

Charlotte adreiluzko bide zabalean aurrera joan zen jardineko ateraino; Gertrudek, berriz, etxe aldera hartu zuen poliki-poliki. Jardineko atean mutil gazte bat topatu zuen Charlottek: mutil gazte garai egoki bat, kapelu luzea eta harizko guanteak jantzita. Itxura onekoa zen, baina sendoegia aukeran. Irribarre atsegina zuen. «Brand jauna!» esan zion andereñoak.

«Zure ahizpak elizara joan behar ote duen etorri naiz,» esan zion mutil gazteak.

«Ez omen du joan behar; baina pozten nau etorri zarela ikusteak. Agian pixka bat hitz egin-

go bazenu berarekin»... eta Charlottek ahotsa apaldu zuen. «Urduri-edo dagoela ematen du.»

Brand jaunak bere garaiera handitik irribarre egin zion andereñoari. «Oso pozik hitz egingo diot. Hori egiteagatik, gogo onez huts egingo nuke edozein elizkizun, erakargarriena dela ere.»

«Beno, zuk jakingo duzu,» esan zion Charlottek ahots apalez, Brand jaunaren hitzei baietz erantzutea arriskutsua balitz bezala. «Baina berandutzen ari zait.»

«Sermoi atsegina izan dezazula,» esan zion mutilak.

«Gilman jauna atsegina izaten da beti,» erantzun zion Charlottek. Eta bere bideari jarraitu zion.

Brand jauna jardinean sartu zen, eta Gertrude, atea ixten entzutean, jiratu eta begira geratu zitzaion. Brand jauna nola hurbiltzen zen ikusten egon zen pixka batean, eta, gero, beste aldeira jiratu zen. Baina ia bertantxe itzuli eta geldi geratu zen, haren aurrez aurre. Mutilak kapelua erantzi eta bekokia igurtzi zuen ondoratu zenean. Gero, berriro kapelua jantzi eta eskua

luzatu zion neskari. Kapelua kendu zuenean, oso bekoki zabala eta berdina zuela ikusi ahal izan zen, eta ile ugaria, nahiz kolorge samarra. Sudurra luzeegia zuen, eta ahoa eta begiak txikiegiak; baina, hala eta guztiz ere, esan dudan bezala, oso itxura oneko mutila zen. Oso amultsuak eta serioak ziren haren begi txiki urdin garbiak; esaera den bezala, urrea baino mutil fina-goa ematen zuen. Neska gazteak, jardineko bidean zutik zegoela, mutilaren harizko guanteei erreparatu zien, hura hurbildu zenean.

«Elizara joango zinela pentsatzen nuen,» esan zuen mutilak, «eta zurekin joateko asmoa nuen.»

«Asko eskertzen dizut,» erantzun zion Gertrudek, «baina ez noa elizara.»

Esku eman zioten elkarri. Mutilak eutsi egin zion pixka batean neskarenari. «Arrazoi bereziren bat al duzu ez joateko?»

«Bai, Brand jauna,» esan zuen neskak.

«Jakin nezake zein?»

Gertrudek begirada bat luzatu zion, irribarrez; eta irribarre hartan bazen, iragarri dudan bezala, halako bizigabetasun bat. Baina biziga-

betasun horrekin nahasirik, baita zer gozo eta iradokior bat ere. «Hain urdin dago zerua!» esan zuen.

Mutilak zerura begiratu zuen, eta zoragarria zegoen, egon ere, eta berak ere irribarre egin eta esan zion, «Entzun izan dut andereñoak etxean geratzen direla eguraldi txarragatik, baina onagatik geratzen direnik ez. Zure ahizpak, atean topatu dut eta, triste zaudela esan dit,» erantsi zuen.

«Triste? Ni ez naiz inoiz triste egoten.»

«Batzuetan egongo zara, noski,» erantzun zion Brand jaunak, inor horrela egoteari tamalgarri baleritzo bezala.

«Ni ez naiz inoiz triste egoten,» esan zion berriro Gertrudek. «Batzuetan, ordea, gaiztoa izaten naiz. Eta gaiztoa izaten naizenean umore onean egoten naiz. Gaiztoa izan naiz oraintxe ahizparekin.»

«Zer egin diozu?»

«Nahastuta uzteko gauzak esan dizkiot..., nahita.»

«Zergatik egin diozu hori, Gertrude?» galde-tu zion mutilak.

Gertrudek irribarre egin zuen berriro. «Hain urdin dago zerua!»

«Esaten dituzun gauzekin, ni ere nahasten nauzu,» esan zion Brand jaunak.

«Konturatzen naiz inor nahasten dudanean,» jarraitu zuen Gertrudek. «Baina jendeak are gehiagotan nahasten nau ni. Baina ez dirudi konturatzen direnik!»

«Oso interesgarria da hori,» adierazi zuen Brand jaunak, irribarrez.

«Nire zerak..., nire barne-borrokak kontatze-ko esan didazu eta...» jarraitu zuen neskak.

«Hitz egin dezagun horretaz. Nik gauza asko dut esateko!»

Gertrude beste aldera jiratu zen pixka batean; gero, berriro itzuli eta, «Hobe izango duzu elizara joatea,» esan zion.

«Badakizu,» ahalegindu zen mutila, «gauza bat badudala zuri esateko.»

Gertrudek begirada bat luzatu zion. «Orain ez ezazu esan, mesedez!»

«Bakar-bakarrik gaude,» jarraitu zuen mutilak, kapelua erantzirik; «bakar-bakarrik, igandeko baretasun zoragarri honetan.»



Gertrudek ingurura begiratu zuen, kimu berrietara, urruneko argitasunera, bere gorabeheren aitzakiatzat aipatu zuen zero urdinera. «Horra arrazoia, horregatik ez ditut zure hitzak entzun nahi,» esan zion. «Egidazu mesede, zoaz elizara.»

«Nahi al duzu itzultzen naizenean hitz egi-tea?» galdetu zion Brand jaunak.

«Gogo horrekin jarraitzen baduzu...» erantzun zion neskek.

«Ez dakit gaiztoa zaren,» esan zion mutilak, «baina bai nahastailea benetan.»

Gertrude beste aldera jiratu zen; eskuak belarrietara eraman zituen. Brand jauna pixka batean begira egon zitzaion, eta, gero, elizara abiatu zen astiro.

Gertrude jardinean batera eta bestera ibili zen pixka batean, nagi eta helbururik gabe. Elizkanpaiak utzia zion jotzeari: erabatekoa zen isiltasuna. Andereño harentzat gozamen handia izaten zen noiz edo noiz bakarrik egotea, familia osoa kanpoan eta etxea hutsik zela. Gaur zerbitzariak ere elizara joanda zirela ematen zuen: ez zen ikusten inoren errainurik leiho zabalduetan,

ez zen ageri emakume beltz turbante gorridunik etxe atzean, oholezko gapirioz estalitako putzu handira perraila botatzen. Eta etxe handi babesgabearen aurreko atea zabalik zegoen, urre-aroko konfiantzaz, edo, kasu honi egokitzeko, Ingalaterra Berriko zilarrezko lorealdikoaz. Atea astiro igaro eta gela huts batetik bestera ibili zen Gertrude; kolore argiko gela handiak ziren, zur zuriz jantziak, kaobazko altzari hanka-mehez apainduak, eta, hormetan, antigoaleko irarlanak zituzten, Bibliako gaiei buruzkoak gehienak, oso goian esekirik. Etxea beretzat edukitzeak, lehen aipatu dudan bakardade atsegin horrek, irudimena eztenkatzen zion Gertruderi; berak ez zukeen jakingo esaten zergatik, ezta beraren istoriolari apalak ere. Gauza bereziren bat egin behar zukeela pentsatzen zuen beti, egokierari ohore egin behar ziokeela; eta zer egin ote zezakeen pentsatzen hara eta hona zebilen bitartean, egokiera galdu egin ohi zen gehienetan. Inoiz baino pentsatiago zebilen gaur Getrude. Liburu bat hartu zuen azkenean; etxean ez zen liburutegirik, baina gela guztietan zeuden liburuak. Liburuak ez ziren debekatuak, eta Gertru-

de ez zen etxean geratu apal helezinetara igotzeko aukera izateagatik. Bista-bistan zegoen ale bat eskuratu zuen —*Gau Arabiarrak* saileko bat—, eta loriora eraman eta hura altzoan zuela eseri zen. Han, Kamar-al-Zaman printzearen eta Budur printzesaren arteko maitasunen istorioa irakurtzen aritu zen ordu laurden batez. Azkenean, burua altxatu zuenean, Kamar-al-Zaman printzea ikusi zuen —hala iruditu zitzaion— aurrean zutik. Mutil gazte eder bat ari zitzaion erreberentzia luze bat egiten: erreberentzia ikusgarria, ordu arte inoiz ikusi ez zuen bezalako. Zerutik etorria ematen zuen mutilak; izugarri ederra zen; irribarre egiten zuen: berariaz irribarre egiten ari balitz bezalako irribarrea. Harri-duraren handiak hantxe eserita eduki zuen Gertrude pixka batean, mugitu gabe. Gero, altxatu egin zen, liburuaren orrien artean hatza jarri ere egin gabe. Mutil gaztea, kapelua eskuetan zuela, begira zegokion, irribarre eta irribarre. Oso gauza harrigarria zen hura.

«Esango al didazu, mesedez,» esan zion bisitari misteriotsuak, azkenean, «ea Wentworth andereñoarekin dudan hitz egiteko ohorea?»

«Gertrude Wentworth naiz,» xuxurlatu zuen neskak.

«Hortaz..., zure lehengusu izateko ohorea dut... eta plazerra!»

Agerpen baten itxura hain handia zuen mutil gazteak, ezen adierazpen horrek haren izaera gezurrezkoa biribiltzea baizik ez zuen egin. «Zer lehengusu? Nor zara zu?» esan zion Gertrudek.

Pauso batzuk atzera eman eta etxeari gora begira geratu zen mutila. Hurrena, inguru guztira begiratu zuen: jardinera eta harantzagoko ikuspegira. Gero, barrez hasi zen. «Badakit oso bitxia irudituko zaizula,» esan zuen. Barre hark, nolana ere, bazuen gorpuztasun bat. Gertrudek burutik oinetaraino begiratu zion. Oso ederra zen, bai; baina egiten zuen irribarreak ia imintzio bat ematen zuen. «Isiltasun handia dago,» jarraitu zuen bisitariak, berriro Gertrude-ren ondora etorrira. Eta neskak, erantzun ordez, begiratu besterik egin ez zionean, erantsi zuen, «Bakarrik al zaude?»

«Elizan dira denak,» esan zion Gertrudek.

«Banuen horren beldurra!» esan zuen mutil gazteak. «Ez ahal zintudan ikaratuko!»

«Nor zaren esan beharko zenidake,» erantzun zion Gertrudek.

«Ez naiz ausartzen!» esan zion mutilak. «Beste bat zen nire asmoa. Uste nuen zerbitzariak hartuko zidala bisita-txartela, eta denon artean asmatuko zenutela, harrera egin aurretik, nor naizen.»

Gertrudek pentsatzen jarri zuen indarrak bere emaitza izan zuen; eta zera ematen zuen emaitzak: zerbait gerta zekion desira zehazgabe hura asetzeraz zectorren erantzun bat, erantzun atsegin zoragarri bat. «Badakit..., badakit...,» esan zuen Gertrudek. «Zu Europatik zatoz.»

«Duela bi egun iritsi gara. Baduzue, hortaz, gure aditzera; bazenuten gure berri?»

«Bagenekien, oso zehatz ez bada ere,» esan zion Gertrudek, «Frantzian ahaideak genituela.»

«Eta izan al duzue inoiz gu ezagutzeko gogorrik?» galdetu zion mutilak.

Gertrude isilik geratu zen une batean. «Nik bai, nik ezagutu nahi zintuztedan.»

«Pozten nau, hortaz, zu topatu izanak. Guk ere zuek ezagutzeko gogoia genuen, eta hala etorri gara.»

«Berariaz?» galdetu zion Gertrudek.

Mutilak ingurura begiratu zuen, irribarrez. «Bada, bai, berariaz. Nekarazi egingo ote zaituztegu?» erantsi zuen. «Ez dut uste; egia esan, ez dut uste. Batera eta bestera ibiltzea ere oso gogoko dugu, eta aitzakia ona genuen.»

«Eta iritsi berriak zarete?»

«Herenegun iritsi ginen Bostonera. Ostatuan egin dut Wentworth jaunaren galde. Zure aita izango da, noski. Eta han aurkitu didate non bizi den; maiz entzuna zutela ematen zuen. Eta etortzea erabaki dut, zeremoniarik gabe. Eta, hala, goiz eder honetan, jarri naute zegokion aldera begira eta zuzen aurrera jarraitzeko esan didate, hiritik kanpora. Oinez etorri naiz, bazterrak ikusiz. Ibili eta ibili egin dut, eta hemen nago! Bada milia mordoska bat.»

«Zazpi milia eta erdi,» esan zion Gertrudek ahots apalez. Orain, mutil gazte eder hura egiazkoa zela ikusten hasi zenean, neskak dardara zehazgabe bat nabaritu zuen bere baitan; oso aztoraturik zegoen. Ez zuen bere bizi osoan atzeritar batekin hitz egin, eta aukera zoragarria izan behar zuela pentsatu izan zuen askotan.

Horra non zuen orain bat, igandeko baretasunak bat-batean berarentzat bakarrik sortua; eta halako irribarre zoragarria eta gizabidetsua zuena, gainera! Egin zuen modua eta hartu zuen denbora, hala ere, bere burua lasaitu eta halako harrera ofizial bat egin beharko ziola gogoratze-ko. «Pozten gaitu... oso pozten gaitu zu ezagutzeak,» esan zion. «Sartu nahi duzu barrura?» Eta ate zabalduaren aldera abiatu zen.

«Ez zaitut beldurtzen, hortaz?» galdetu zion mutiak berriro, irribarre erraz hura ezpainetan.

Gertrudek, pixka bat pentsatu ondoren, esan zion, «Hemen ez dugu beldurrik izaten.»

«*Ah, comme vous devez avoir raison!*» esan zuen mutil gazteak, ingurura onespenez begira. Frantsesez hainbeste hitz entzuten zuen lehen aldia zuen Gertrudek. Zirrara handia eragin zioten. Mutila Gertruderen ondoren joan zen, halako pilpira batez bera ere, muselina argi harroz jantzitako neska garai interesgarri hari begira. Sarreran gelditu zen Felix; eskailera zabal zuri bat zegoen han, baranda ere zuria zuena. «Bai etxe atsegina!» esan zuen. «Argiago dago barruan kanpoan baino.»

«Hemen hobeto egongo gara,» esan zion Gertrudek, eta egongelara bideratu zuen; gela garbi, garai, hutsik bezalako bat zen egongela. Han geratu ziren elkarri begira: inoiz baino irribarretsuago mutil gaztea, eta oso serio, irribarre egiten ahalegintzen zela, Gertrude.

«Ziur asko, ez duzu nire izena jakingo,» esan zion mutilak. «Felix Young dut izena. Zure aita osaba dut. Nire ama zure aitaren arrebaordea zen, zure aita baino zaharragoa.»

«Bai,» esan zuen Gertrudek, «eta katoliko egin eta European ezkondu zen.»

«Ikusten dut badakizula,» esan zuen mutilak. «Ezkondu eta hil ere bai. Zure aitaren familiak ez zuen haren senarra ondo hartu. Atzerritarra zela esaten zuten, baina ez zen. Nire aita gaixoa Sizilian jaio zen, baina gurasoak amerikarrak zituen.»

«Sizilian?» xuxurlatu zuen Gertrudek.

«Bizitza osoa European eman zuten, bai,» esan zuen Felix Youngek, «Baina oso herrizaleak ziren. Eta baita gu ere.»

«Siziliarrak zarete, beraz?» esan zion Gertrudek.



«Siziliarrak? Ez! Hara, ni Frantziako herri txiki batean jaio nintzen, herri txiki polit batean. Arreba, berriz, Vienan jaioa da.»

«Frantsesa zara, hortaz,» esan zion Gertrudek.

«Ez, Jainkoarren!» esan zuen mutil gazteak. Gertrude begirik kendu gabe zegokion, jakin beharrez. Mutila barrez hasi zen berriro. «Ez dut eragozpenik frantsesa izateko, horrek atsegin ematen badizu.»

«Nolakoa edo halakoa, atzerritarra zara, izan,» esan zion Gertrudek.

«Nolakoa edo halakoa, bai; baietz uste dut. Baina nork jakin zer-nolakoa? Hori argitzeko aukerarik ez dugu inoiz izan. Badakizu horrelako jendea ere badela. Bada jendea, zer herritakoa den, zer erlijio duen, zer lanbide duen esaten ez dakiena.»

Gertrudek zutik jarraitzen zuen mutil gazteari adi-adi. Ez zion esertzekorik ere esan. Ez zuen horrelako jendearen berririk, eta dena jakin nahi zuen. «Non bizi zara?» galdetu zion.

«Horri ere ezin erantzun!» esan zuen Felixek. «Beldur naiz buhamesak baino askoz hobek ez

garela pentsatuko ote duzun. Ni alde guztietan bizi izan naiz, alde guztietan. Egia esan, uste dut Europako hiri guztietan bizi izan naizela.» Gertrudek hasperentxo isil luze bat egin zuen. Horrek irribarre eragin zion berriro mutilari, eta irribarre hark lotsagorritu egin zuen pixka bat Gertrude. Gorritzetik babestearren, galdetu zion mutilari ea, ibilaldi luze haren ondoren, ez al zen gose edo egarri. Gertrudek sakelean zuen eskua; irabilka zerabilen ahizpak eman zion giltxatxoa. «Andereño maitea,» esan zion mutilak, eskuak pixka bat elkarturik, «emango bazenit, karitatez, baso bat ardo!»

Gertrudek irribarre egin eta buruarekin baiezkoa adierazi zion, eta gelatik irten zen bizkor. Eta, hurrena, esku batean pitxer handi bat eta bestean tarta biribil, handi, gainzuritu bat azpil batean zuela agertu zen. Arasatik tarta hartzerakoan, garbi asko oroitu zen Gertrude hura zela ahizpak Brand jaunari gustu izan zekiokeela pentsatzen zuen otamena. Itsasoz haraindiko ahai-dea goi-goian esekitako irarlan kolorgeei begira zegoen. Gertrude sartu zenean, jiratu eta irribarre egin zion neskari, denboraldi batean elka-

rrengandik urrun egon ondoren elkartu diren lagun zaharrak balira bezala. «Zerorrek zerbitzatu behar didazu?» galdetu zion. «Jainkoen zerbitzuaren parekoa da hau!» Makina bat jenderi zerbitzatu zen Gertrude, baina inork ez zion horrelakorik esan. Adierazpen hark halako arintasun bat eman zion Gertrudek mahai txiki batera eraman zuen pausoari; kopa gorri deigarri batzuk zeuden mahai hartan —urrezko adaxkatxoz apainduak ziren kopak, eta Gertrudek berak kentzen zien goizero hautsa—. Oso dotoretzat zeuzkan Gertrudek kopa haiek, eta atsegin handia eman zion ardoa ona zela jakiteak; aitaren madeira famatua zen. Felix Youngek bikaina iritzi zion ardoari; ez zekien zergatik esan zioten Amerikan ardorik ez zela. Gertrudek tarta-triangelu handi bat ebaki zion, eta berriz ere Brand jauna etorri zitzaion gogora. Han zegoen Felix, eserita, kopa esku batean eta berealdiko tartapuska bestean, jan, edan, irri eta berba. «Gose handia dut,» esan zuen Felixek. «Ez nago batere nekatuta; ez naiz nekatzen. Baina gose handia dut.»

«Bazkaltzen gelditu behar duzu,» esan zion Gertrudek. «Ordubietan bazkaltzen dugu. Ordu-rako elizatik etorrira izango dira denak, eta eza-gutuko dituzu gainerakoak.»

«Nortzuk dira besteak?» galdetu zion muti-lak. «Deskriba iezazkidazu denak.»

«Zerorrek ikusiko dituzu. Zu zara gauzak kon-tatu behar dizkidazuna; esate baterako, zure arrebari buruzkoak.»

«Münster baronesa da nire arreba,» esan zion Felixek.

Arreba baronesa zuela entzutean, zutitu eta Felixen aurrean ibiltzen hasi zen Gertrude, asti-ro. Pixka batean ez zuen ezer esan. Gogoetan ari zen. «Zergatik ez da hura ere etorri?» galdetu zion Felixi.

«Etorri da, bai. Bostonen dago, hotelean.»

«Gu joango gatzazkio bisitan,» esan zuen Gertrudek, Felixi begira.

«Arren, ez zaitez tala joan erregutzeko esan dit!» erantzun zion mutiak. «Goraintziak bidal-tzen dizkizue. Beraren etorrera jakinaraztera bidali nau aurretik. Bera etorriko da zure aitari begirunea ekartzera.»

Gertrude dardaratu egin zen berriro. Münster baronesa bat zetorrela, aurretik mutil gazte distiratsu bat «beraren etorrera jakinaraztera» bidalita, Sabako erregina Salomonengana bezala, Wentworth jaun baketsuari «begirunea ekartzera»! Ustekaberik gorrienean jo zuen gisa horretako pertsonak Gertruderen irudimenaren atea. Zer esan ez zekiela egon zen pixka batean. «Noiz etorriko da?» galdetu zuen azkenean.

«Baimena ematen diozuen bezain laster... Bihar. Desiratzen dago,» erantzun zion Felixek, atsegingarri agertu nahirik.

«Bihar, bai,» esan zuen Gertrudek. Gehiago galdetzeko gogoia zuen, baina ez zekien zer esan zitekeen Münster baronesa bati buruz. «Eta... ezkondata... dago?»

Amaituak zituen Felixek tarta eta ardoa. Altxatu egin zen, bere begi argi adierazgarriak neska gaztearengan finkatzen zituela. «Printze alemaniar batekin dago ezkondata: Silberstadt-Schreckensteingo Adolf printzearekin. Ez da printze erregeordea, haren anaia gazteago bat baizik.»

Gertrudek tinko begiratzen zion berriemai-leari; zertxobait zabaldurik zuen ahoa. «Hortaz..., printzesa da?» galdetu zion azkenean.

«Ez, ez,» esan zuen mutil gazteak; «egoera berezi samarra du. Ezkontza morganatikoa da.»

«Morganatikoa?» Izen ezezagunak eta hitz ezezagunak ziren haiek Gertrude gaixoarentzat.

«Zera, erret etxeko kimu baten eta gizaki arrunt baten artean egiten den ezkontzari esaten zaio hori. Eugenia baronesa egin zuten, gaxoa; baina hori zen egin ahal zuten guztia. Orain, berriz, ezkontza ezereztu nahi dute. Adolf printzea, gure artean esanda, inozo bat da; baina anaiak, gizon argia da eta, beste asmo batzuk ditu hari dagokionean. Eugeniak, berriz, eragozpenak jartzen ditu, noski. Nik ez dut uste, hala ere, Eugeniari asko axola zaionik —oso emakume argia da Eugenia; atsegin izango duzu; ziur nago—, baina gogaitarazi egin nahi ditu. Une honetan *en l'air* dago dena.»

Bisitariak istorio erromantiko ilun hura kontatzeko erabili zuen tonu arin alaia oso bitxia iruditu zitzaion Gertruderi; baina horrek, bestalde, berari halako laudorio bat ere egiten ziola irudi-

tu zitzaion: beraren zuhurtziaren eta duintasunaren aitorpen bat zela, alegia. Dozena bat inpresio zerabiltzan Gertrudek bere baitan irabiaka, eta, azkenean, beste guztien gainera nagusitu zitzaionak aurkitu zituen hitzak. «Ezkontza eze-reztu nahi dute?» galdetu zuen.

«Hala dirudi.»

«Beraren borondatearen kontra?»

«Beraren eskubidearen kontra.»

«Oso atsekabeturik egongo da!» esan zuen Gertrudek.

Bisitariak irribarrez begiratu zion. Eskua garondora eraman eta han eduki zuen pixka batean. «Hori dio berak,» erantzun zion. «Horra Eugeniaren istorioa. Zuei kontatzeko esan dit.»

«Konta iezadazu gauza gehiago,» esan zion Gertrudek.

«Ez, hori berari utziko diot; berak hobeto kontatzen du.»

Gertruderi beste hasperentxo bat eragin zion kilikak. «Bada, atsekabeturik badago,» esan zuen, «ondo egin du guregana etortzea.»

Hain arreta handiz zegoen Gertrude, ezen ez baitzituen entzun lorioko oinotsak; eta, hala ere,

beti ezagutzen zituen oinotsak ziren. Etxeko sarreran zirela entzun zituen, eta leihotik begiratu zuen orduan. Bazetozen denak elizatik: aita, ahizpa eta neba, eta lehengusuak, haiek ere igandeetan bazkaltzera etortzen baitziren. Brand jauna sartu zen aurretik; besteei aurre hartuta zetorren, ordubete lehenago Gertrudek esaten utzi ez ziona esateko asmoa zuelako, antza. Egongelan sartu zen, Gertruderen bila. Bi liburu txo zituen eskuan. Gertruderekin zegoen laguna ikustean, poliki-poliki gelditzera egin zuen, ezezagunari begiratzen ziola.

«Lehengusuetako bat al da?» galdetu zuen Felixek.

Aurkezpenak egin beharrean gertatu zen orduan Gertrude; baina Gertruderen belarriak eta, sinpatiaz, ezpainak, Felix esaten aritu zitzaionaz beterik zeuden. «Hau printzea da...» esan zuen, «Silberstadt-Schreckensteingo printzea!»

Felix algaraz hasi zen, eta Brand jauna begira-begira geratu zitzaion. Eta besteak ere etxean sartu eta atean agertu ziren Brand jaunaren atzetik.



### 3. atala

Arrats hartan, afaritan, Felix Youngek bere inpresioen kontu eman zion arrebari, Münster baronesari. Konturatu zen baronesa ezen umore ezin hobean itzuli zela Felix. Horretan, ordea, baronesak ez zuen pozteko arrazoirik ikusten. Neurri baterainoko konfiantza baizik ez zuen nebaren juzkuan; Felixek arrosa-koloreko ikuspegiak ikusteko zuen ahalmena, kolorerik politena itsusteko adinakoa zen. Hala ere, egite hutsen azalpenak sinets zekizkiokeela uste zuen, eta eskatu zion, halako ezinegon batez, konta zitzala egite horiek. «Pentsatzen dut ez zintuztela, behintzat, atetik bidaliko,» esan zion baronesak. «Hamar bat ordu egin dituzu kanpoan.»

«Zera bidaliko ninduten atetik!» esan zion Felixek. «Bihotzak zabalik hartu naute; zekor gizenena hil dute.»

«Ulertzen dut zer esan nahi duzun: aingeru sail bat dela.»

«Horixe bera,» esan zuen Felixek. «Aingeru sail bat da, garbi esanda.»

«*C'est bien vague,*» adierazi zuen baronesak.  
«Zer itxura dute?»

«Ez dute inoiz ikusi duzun ezeren antzik.»

«Eskerrik asko; baina horrek ez du kontua askorik argitzen. Seriouski, poztu al dira zu ezagutzeaz?»

«Pozez zorutzen jarri dira. Nire bizitzako egunik handiena izan da. Ez naute inoiz, ezta inoiz ere, hainbeste goretsi! Benetan diozut, ni nintzen taldeko izarra. Arreba maitea,» esan zuen mutilak, «*nous n'avons qu'à nous tenir*: oso jende handia izango gara!»

Madame Münsterrek begirada bat luzatu zion, eta oniritzi izpi baten argia zuten haren begiek. Baronesak kopa-ardoa ezpainetara eramanean zuen, eta, gero, esan zuen, «Deskriba iezazkidazu. Egin iezadazu erretratu bat.»

Felixek bere kopa hustu zuen. «Bada, landa da, belardi eta baso artea; leku basati bat, hemendik oso urrun ez badago ere. Hura bidea, ordea, enetxo! Imajina ezazu mendi garaietako glaziar bat lokatzezkoa. Baina ez duzu atzera eta aurrera denbora luzez ibili beharko, zeren eta

hara joan eta bertan gera zaitezela nahi baitute, betiko.»

«Hara!» esan zuen baronesak. «Hara joan eta bertan gera nadila betiko? *Bon.*»

«Oso ingurune landa-girokoa da, izugarri naturala; eta gain guztian, argi zuri bitxi hori, zeru urdin urrun hori. Bada, han, zurezko etxe handi bat dago —hiru solairuko bungalow gisako bat—; Nurembergeko jostailu erraldoi bat dirudi. Bazen han jaun bat, etxeari buruz hitzaldi bat eman didana, eta hark «etxe agurgarria» deitu dio; baina bart eraikia dirudi.»

«Polita da? Dotorea?» galdetu zion baronesak.

Felix pixka batean begira geratu zitzaion, irribarrez. «Oso garbia da! Ez dago dirdairik, ez doraturik, ez zerbitzari osterik. Aulkiak, nahiko bizkar-tenteak. Zoruak, ordea, bertatik jateko modukoak, eta eskailerak, berriz, bertan eseretzeko modukoak.»

«Pribilejio bat izango da. Eta bizilagunak ere bizkar-tenteak izango dira, noski?»

«Arreba maitea,» esan zion Felixek, «bizilagunak xarmagarriak dira.»

«Zer eratarata?»

«Beren erara. Nola esango nizuke? Hango estiloa primitiboa da; patriarkala; urrezko aroaren *ton* bera.»

«Eta *ton* hori besterik ez dute urrezkorik? Ez dago aberastasun zantzurik?»

«Aberastasuna zantzurik gabe dagoela esango nuke nik. Etxe-giroko bizimodu sinple bat; kanpoalderako ezer ez, eta oso gutxi... —nola esango nuke?— ...zentsumenetarako; baina *aisance* handi bat, eta diru asko —ikusten ez dela— mugimenduan, erakundeetako bazkide-tzak ordaintzeko, jabegoak berriztatzeko, sendagilearen fakturak pagatzeko; eta, beharbada, baita alaben doterako ere.»

«Eta alabak?» galdetu zion Madame Münsterrrek. «Zenbat dira?»

«Bi dira: Charlotte eta Gertrude.»

«Politak dira?»

«Bat bai,» esan zuen Felixek.

«Zein?»

Mutil gaztea isilik geratu zen, arrebari begira. «Char-lotte,» esan zuen azkenean.

Orain, berriz, arrebak begiratu zion. «Uler-tzen dut. Gertrudez maitemindu zara. Puritanoak izango dira burutik hasi eta hanka-puntetaraino; alaiak ez beste guztia!»

«Ez dira alaiak, ez,» onartu zuen Felixek. «Neurtuak dira; are zorrotzak. Izaeraz gogoetara emanak diren horietakoak dira; gauzak seriooki hartzen dituzte. Nik uste, arazoren bat dute: edo oroitzapen tristeren bat dute, edo nahigaberen bat etorriko den beldur dira. Ez dute izaera epikureoa. Osaba, Wentworth jauna, duintasun izugarriko agure bat da; ematen du martirioa pairatzen ari dela, ez suzkoa, baizik eta izotzezkoa. Baina guk alaituko ditugu: on egingo diegu. Astinaldi ederra hartuko dute. Baina, bestela, izugarri amultsuak eta atseginak dira. Eta esker onekoak. Argitzat gauzkate; ospe handikotzat gauzkate!»

«Oso ederki dago hori dena,» esan zuen baronesak. «Baina hiru pertsona horietara mugatu behar al dugu? Wentworth jauna eta bi andereño hoietara? Nola esan duzu deitzen direla, Debora eta Betsabe?»

«Ez, ez; beste neskatila bat ere bada; horien lehengusua; oso neskatila polita; amerikar perfektua. Eta gero etxeko semea dago.»

«Ederki,» esan zuen baronesak. «Iritsi gara gizonezkoetara. Zer diozu etxeko semeaz?»

«Ez dakit ez ote den pixka bat berdozten.»

«Hori, hortaz, epikureoa da! Zer adin du?»

«Hogei urteko gazte bat da; mutil ederra, baina ez dakit gustu arruntak ez ote dituen, tamalez. Eta, gero, Brand jauna: mutil gazte oso garai bat, apaiz laiko-itxurako bat. Denek oso iritzi onean daukatela ematen du, baina nik ez diot ondoegi antzeman.»

«Eta ez al dago ezer,» galdetu zion baronesak, «bi mutur horien artean? Elizgizon misterio-tsuaeren eta gazte neurrigabeko horren artean?»

«Bai, bai. Acton jauna. Uste dut,» esan zuen mutilak, arrebari baiezeko keinua buruaz eginez, «atsegin izango duzula Acton jauna.»

«Gogoan izan oso kontentagaitza naizela,» esan zion baronesak. «Gizabide handia al du?»

«Zurekin handia izango du. Mundu-gizona da; Txinan izana da.»

Madame Münsterrek algaratxo bat egin zuen. «Txinako mundua duen gizon bat! Oso interesgarria izango da.»

«Etxera aberastasun handia ekarri zuen ideia dut,» esan zion Felixek.

«Hori beti da interesgarria. Gaztea al da? Itxura onekoa? Buruargia?»

«Berrogei urteren azpitik ibiliko da; burua soiltzen hasia du; iaioa da hizketan. Esango nuke,» erantsi zuen mutilak, «miresgarria gertatuko zaiola Münster baronesa.»

«Oso litekeena da,» esan zuen andreak. Nebak inoiz ez zuen jakiten nola hartuko zituen Eugeniak gauzak; baina, handik pixka batera, oso deskribapen polita egin ziola adierazi zion baronesak, eta hurrengo goizean joan eta bere begiz ikusiko zuela.

Hala, bada, lau lagunentzako zalgurdi desestali batera igo —baronesak ez zion ibilgailuari aitzakiarik aurkitu, eskatu zioten diru-saria eta kotxe-gidariaren lastozko kapelua izan ezik (baronesaren lekaioek jantzi hori-gorriak zituzten Silberstadten)— eta landarako bidea hartu zuten. Baronesak, atze-atzera eseri eta bere

eguzkitako puntiladuna zabuka zuela, ezkereskuin begiratzen zuen eta bide bazterreko gauzak aztertzen zituen. *Affreux* iritzi zien berehalaxe. Nebak esan zion ezen lurralde hartan, ematen zuenez, plano hurbilak eskasagoak zirela *plans reculés* baino, eta baronesak erantzun zion ikuspegi guztiak plano hurbila zirudiela. Felixek antolaturik zuen lagun berriekin arreba noiz eraman: arratsaldeko lauretan zuten ordua jarria. Etxe handiaren aurrealde garbia oso abegitsu agertu zen Felixen begietara, zalgurdia ondoratu zenean. Zumar garai lerdenez itzal luzexkoak egiten zituzten etxe aurrean. Baronesa zalgurditik jaitsi zen. Ahaide amerikarrak lorioan zituen zain. Felixek kapeluz agurtu zituen, eta gizonetzko garai zimel bat, bekoki-zabala, bizarra ondo eginik, aurreratu zen jardineko atera. Charlotte Wentworth zuen aldamenean; Gertrude atzetik zetorren, astiroago. Bi andereñoek sedazko soinekoak zituzten fris-fras. Felixek jardineko atetik barrura eraman zuen arreba. «Izan zaitez oso atsegingarria,» esan zion. Konturatu zen, ordea, aholku haren beharrik ez zela. Eugenia prest zegoen bera bakarrik izan zitekeen



bezain atsegingarri agertzeko. Arreba inolako eragozpenik gabe miretsi ahal izatea baino plazer handiagorik ez zen Felixentzat; zeren eta, horretarako aukera maiz sortzen bazen ere, ohitura ez baitzegoen sustraitua. Eugenia, inoren aurrean atsegingarri agertu nahi izaten zuenetan, munduko emakumerik xarmagarriena iruditzen zitzaion Felixi, beste edonori bezala. Hala-koetan, ahaztu egiten zitzaion inoiz bestelakoa ere izaten zela; batzuetan gogorra eta gaiztoa izaten zela; noiz edo noiz beldur ere izaten ziola. Orain, jardinera sartzeko besotik heldu zionean, igarri zion atsegingarri izan nahi zuela, hartarako asmoa zuela, eta horrek poz handia eman zion Felixi. Eugenia atsegingarri agertuko zen, bai.

Gizaseme garaia irten zitzaion baronesari enkontrura, oso begitarte zurrun eta itzaltsuz. Zurruntasun hura ez zen, ordea, eskuzabaltasun ezaren adierazgarri. Aitzitik, Wentworth jaunaren moldea erantzukizun handi baten ardurak eragina zen, abagunearen solemnetasunak ezarria, hain andre handi eta aldi berean zorigaitze-koari behar bezalako begiramena erakusteko

zailtasunaz jabetzeak sortua. Konturatu zen Felix, aurreko egunean, Wentworth jaunaren zurbiltasun bereziaz; orain, berriz, ia hilotzaren itxura hartu zion osabaren aurpegi zorrotz zuria-ri. Baina hain sena handia zuen mutil hark inoren barrena hauteman eta ulertzeko, ezen berehalaxe ohartu baitzen heriozko itxura haiek ez zirela larritzekoak. Felixen irudimen argiak barrundaturik zuen jada Wentworth jaunaren mekanismo izpirituala, eta konturatu zen ezen, agurea gauzak kontzientziaz egiten zituen gizona izaki, haren barne-mugidak ondoez fisikoaren ezaugarri batzuez adierazten zirela.

Baronesak eskua hartu zion osabari, eta bere aurpegi itsusi eta irribarre ederraz begira geratu zitzaion. «Ondo egin al dut etortzea?» galdetu zion.

«Oso ondo, oso ondo,» esan zuen Wentworth jaunak solemneki. Aritu zen Wentworth jauna bere artean hitz batzuk aurretik prestatzen, baina orain joanak zitzaizkion denak burutik. Ia izaturik zegoen. Inoiz ez zion hala begiratu — halako irribarre tinko eta sakonez— ezein emakumek. Halako irribarrea zuen emakumea, zeini

berehalaxe hartu baitzion beste ezohiko nolako-  
tasun batzuk ere bazituen susmo bizia, iloba  
zuela, hau da, beraren aitaren alabaren umea  
zela pentsatzeak erasan egiten zion Wentworth  
jaunari, eta nahasmendua sortu. Iloba printze  
batekin «morganatikoki» ezkonduko baronesa  
alemaniar bat zuela pentsatzeak gogoeta franko  
eragin zion ordurako. Ondo ote zegoen hori?  
Zuzena ote zen? Onargarria ote zen? Gaizki lo  
egin ohi zuen beti, baina aurreko gauean ohi  
baino luzaroago egon zen esna, galdera horiek  
buruan bira eta bira zituela. «Morganatiko» hitz  
bitxi hori zebilkion etengabe belarrietan burrun-  
ban; behin batean ezagutu zuen Morgan izeneko  
andre bat gogorazten zion: emakume zakar  
higuingarri bat. Pentsatu zuen ezen, baronesak  
halako irribarrez begiratzen bazion, berak ikus-  
menaren organoak berariazko hoztasunera  
zehazki doiturik begiratu behar ziola. Baina  
oraingo honetan ezin izan zuen bere egitekoa  
azkeneraino bete. Bi alabengana itzuli zituen  
begiak. «Oso pozten gaitu zu ezagutzeak,» esan  
zuen. «Zure baimenarekin, alabak aurkeztuko

dizkizut: Charlotte Wentworth andereñoa, Gertrude Wentworth andereñoa.»

Baronesak pentsatu zuen ezen ez zuela hain adierazpide lehorreko jenderik inoiz ikusi, Charlottek, samurki eta solemneki begiratzen ziola, musu eman eta eskua hartu bazion ere. Gertrude oso hila iruditu zitzaion baronesari, nahiz eta neskarentzat alaitasun iturri beharko zukeen Felix —irribarre distiratsuz— berarekin hizketan aritu izana, lagun zahar bat balu bezala agurtu baitzuen Felixek Gertrude. Malkoak zituen Gertrudek begietan, baronesari musu eman zionean. Madame Münsterrek eskutik hartu zituen bi neska gazteak, eta goitik beheraino begiratu zien. Baronesa oso emakume bitxia iruditu zitzaion Charlotteri, eta inor ez bezala jantzia: ondo ala gaizki, ez zukeen esaten jakingo. Nolanahi ere, Charlotte poztu egin zen sedazko soinekoak jantzi izanaz: Gertrudek jantzi izanaz, batez ere. «Oso lehengusu politak ditut,» esan zuen baronesak, batean bati eta bestean besteari begiratzen ziela. «Oso alaba ederrak dituzu, jauna.»

Charlotte lotsagorritu egin zen berehalaxe; ez zuen oraindano beraren itxurari buruzko aipamenik ahots ozen adierazkorrez egiten entzun. Gertrudek beste aldera begiratu zuen, Felixengana gabe; atseginez beterik zegoen. Atsegina, ordea, ez zion konplimenduak eman; ez zuen sinetsi; Gertrudek oso arruntzat zeukan bere burua. Ez zukeen zehazki esaten jakingo nondik norakoa zen poz hura, baina baronesaren hizkeran zuen iturria, eta ez zuen gutxitu —areagotu baizik, harrigarria badirudi ere— neskaren sinesgogortasunak. Wentworth jaunak ez zuen ezer esan. Gero, gizabideari jarraiki, galdetu zuen, «Sartu nahi duzu barrura?»

«Ez zaudete denok hemen; zuk baduzu seme-alaba gehiago,» esan zion baronesak.

«Seme bat daukat,» erantzun zion Wentworth jaunak.

«Eta zergatik ez dator niri harrera egitera?» esan zuen Eugeniak. «Arrebak bezain xarmagarria ez dela pentsatu beharko dut.»

«Ez dakit; ikusi egin beharko dut,» esan zuen agureak.

«Beldur handia die emakumeei,» esan zuen apalki Charlottek.

«Oso mutil ederra da,» esan zuen Gertrudek, ahal zuen ozenen.

«Sartu eta bilatu egingo dugu. Bere *cachette*-tik aterako dugu.» Eta baronesak Wentworth jaunaren besoa hartu zuen. Wentworth jaunak, ordea, ez zuen gogoan besorik eskaini zionik, eta, etxe aldera zihoazela, ea eskaini behar ote zion pentsatzen zuen bere artean, eta ondo egin ote zuen baronesak eskaini gabe hartzea. «Ondo ezagutu nahi zaituztet,» esan zuen baronesak, gogoeta haiek eteten zizkiola, «eta zuek ere ni ondo ezagutu nazazuela nahi dut.»

«Naturala dirudi elkar ezagutzea,» erantzun zion Wentworth jaunak. «Ahaide hurbilak gara.»

«Ai! Behin bizitzan une batera helduz gero, pertsona, nahitaez, bere lotura naturaletara itzultzen da, bere txera naturaletara. Zu ere kon-turatuko zinen horretaz!» esan zion Eugeniak.

Eugenia oso buruargia zela, oso adimen disti-ratsua zuela esan zioten aurreko egunean Wentworth jaunari, eta informazio horrek halako jakin-min bat sortu zion. Pentsatu zuen ezen hori

izango zela buruargitasuna; berehala etorriko zela distira. «Bai, oso indartsuak dira txera naturalak,» xuxurlatu zuen.

«Batzuentzat bai,» adierazi zuen baronesak. «Baina ez denentzat.» Charlotte zuen baronesak aldamenean; eskua hartu zion berriro, irribarre egiteari utzi gabe. «Eta zuri, *cousine*, nondik datorkizu azal xarmagarri hori?» jarraitu zuen; «horiek lirioak eta arrosak!» Charlotte gaxoaren begitarteko arrosak lirioen gainetik nabarmentzen hasi ziren berehalaxe, eta pausoa bizkortu eta loriora heldu zen. «Azalaren lurraldea da hau,» jarraitu zuen baronesak, Wentworth jaunarengana itzultzen zela. «Konbentziturik nago delikatuagoak direla hemengoak. Badira azal bikainak Ingalaterran, eta Holandan, baina zakarrerako joera dute. Gorriegiak dira.»

«Uste dut konturatuko zarela,» esan zion Wentworth jaunak, «ikuspegi askotatik dela lurralde hau aipatu dituzun horiek baino hobea. Izana naiz Ingalaterran eta Holandan.»

«Hara! Izana zara European?» esan zion baronesak. «Eta nola ez zinen ni ikustera etorri? Baina, tira, hobe da horrela.» Etxean sartzen ari

ziren; gelditu eta ingurura begiratu zuen baronesak. «Ikusten dut etxea —etxe zoragarria— holandar gustura antolaturik duzula!»

«Etxea oso zaharra da,» adierazi zuen Wentworth jaunak. «Washington jeneralak behin aste-bete igaro zuen hemen.»

«A! Badut Washingtonen aditzera,» adierazi zuen baronesak. «Oso kuttuna zuen gure aitak.»

Wentworth jauna isilik geratu zen pixka batean, eta gero, «Konturatu nintzen oso ondo ezagutzen zutela European,» esan zuen.

Felix jardinean geratu zen Gertruderekin; neskaren aurrean zegoen, irribarrez, aurreko egunean bezala. Aurreko egunean gertatua amets bat iruditu zitzaion Gertruderi. Felix etorri eta dena aldatu zen; denek ikusi zuten Felix; denek hitz egin zioten; baina berriro etorriko zela sinesteko, beraren etorkizunaren parte —beraren familia-giroko bizimodu murrizt gogoe-tatsuaren parte— izango zela sinesteko, zentzumenen beste froga bat behar zuen Gertrudek. Zentzumenen aurrean zuen orain froga, eta zentzumenek atsegin zutela ematen zuen. «Zer iru-



ditu zaizu Eugenia?» galdetu zion Felixek. «Ez da xarmagarria?»

«Oso distiratsua da,» esan zuen Gertrudek. «Baina oraindik ez dakit zer esan. Doinu bat kantatzen ari den kantaria iruditzen zait. Kanta amaitzen den arte ezin jakin!»

«A! Kanta ez da inoiz amaituko!» esan zion mutilak, barrez. «Ez al zaizu emakume ederra iruditzen?»

Gertrude desengainaturik geratu zen Münster baronesaren edertasunari zegokionean. Bazen egongeletako batean esekirik, Josephine enperatrizaren erretratu oso polit baten irarlan bat, Wentworth andereño gazteenak beti oso gogoko izan zuena, eta Gertrudek, arrazoi misteriotsuak tarteko, baronesak irudi haren antza izango zuela espero zuen. Baronesa, ordea, ez zen halakoa, inondik inora. Baina, nahiz eta beste era batekoa izan, zoragarria zen, hala ere, eta Gertrudek oso modu iradokiorrean zuzendurik ikusi zuen bere uste okerra. Nolanahi ere, bitxia zen Felixek arrebaren edertasunaz hitz egiterakoan erakusten zuen baikortasuna. «Denborarekin, ederra irudituko zaidala uste dut,»

esan zion Gertrudek. «Oso interesgarria izan behar du Eugenia ezagutzea, baina ez dakit inoiz lortuko dudan.»

«Horixe ezagutuko duzula! Lagun handiak egingo zarete,» esan zion Felixek, hori munduko gauzarik errazena balitz bezala.

«Oso dotorea da,» esan zuen Gertrudek, baronesari begira jarririk, hura aitaren besoari helduta zegoela. Atsegin zuen Gertrudek inor dotorea zela esatea.

Felix ingurura begira ibili zen. «Eta atzoko zure lehengusutxoak, neska polit zoragarri hark,» esan zion, «zer egin du?»

«Egongelan dago,» erantzun zion Gertrudek. «Oso polita da, bai.» Eta Felix zuzenean barrura eramateko obligazio bat edo sentitu zuen, lehengusuaren ondoan egon zedin. Baina pixka batean dudan egon ondoren, bertan jarraitu zuen. «Ez nuen sinesten itzuliko zinenik,» esan zion Felixi.

«Itzuli ez!» esan zuen Felixek, barrez. «Ez zinen konturatu, hortaz, nire bihotz sentibera honi eragin zion zirraraz.»

Lehengusu Lizziek eragin zion zirrara esan nahi ote zuen pentsatu zuen bere artean Gertrudek. «Bada, ez nuen uste berriz ikusiko zintugunik,» esan zion.

«Eta zer egingo nuela uste zenuen, bada?»

«Ez dakit. Pentsatzen nuen lurrindu egingo zinela.»

«Konplimendu polita nire sendotasunarentzat! Sarri askotan lurrintzen naiz,» esan zuen Felixek, «baina beti geratzen da zerbait.»

«Itxarotera irten banaiz, besteak irten direlako izan da,» jarraitu zuen Gertrudek. «Baina agertu ez bazina ere, ez nintzen harrituko.»

«Desengainua izango ahal zenuen, behintzat» adierazi zuen Felixek Gertruderi begira.

Gertrudek ere begiratu egin zion, eta burua ezker-eskuin mugitu zuen. «Ez, ez!»

«Ah, *par exemple!*» esan zuen mutil gazteak. «Zuregandik inoiz ez alde egitea merezi duzu.»

Egongelan sartu zirenean, Wentworth jauna aurkezpenak egiten ari zen. Mutil gazte bat zegoen baronesaren aurrean zutik, nahiko gorriturik, barrea urri, gorputzaren pisua oin batetik bestera aldatzen zuela: mutil gazte mehe aurpe-

gi-gozo bat, hazpegiak, Wentworth jaunarenak bezala, oso egoki osatuak zituena. Haren atzean, beste bi jaun zeuden, beren jarlekuetatik altxaturik, eta urrutixeago, leiho baten ondoan, neskatila polit-polit bat. Galtzerdia egiten ari zen neskatila; baina, hatzei bizkor eragiten zien bitartean, baronesari begiratzen zion bere begi handi distiratsuez.

«Nola du izena zure semeak?» esan zuen Eugeniak, mutilari irribarrez.

«Clifford Wentworth naiz, andrea,» esan zuen mutilak, ahotsa dardaraz.

«Zergatik ez zara irten ni errezibitzera, Clifford Wentworth jauna?» galdetu zion baronesak, bere irribarre ederrarekin.

«Uste nuen ez zenutela nire beharrik izango,» esan zuen mutilak, poliki-poliki saiheska eginez.

«Beti behar izaten da *un beau cousin* —edukiz gero!—. Baina aurrerantzean nirekin oso ondo portatzen bazara, ez dizut oraingo hau kontuan hartuko.» Eta Madame Münsterrek han ziren beste pertsonengana itzuli zuen bere irribarrea. Lehenik Brand jaunaren begitarte xaloan

eta haren giza irudi jaka-luzean pausatu zuen. Brand jaunak Wentworth jaunarengan iltzaturik zituen begiak, egoera ezohiko hura ez zezala luza eskatuko balio bezala. Wentworth jaunak haren izena esan zuen; Eugeniak begirada xarmagarri bat luzatu zion, eta gero beste jaunari begiratu zion.

Jaun hori ohi den baino garaiera txikiagoko eta pisu gutxiagoko gizona zen. Begi ilun bizi sumari atseginak zituen, ile beltz fin urria eta bibote txiki bat. Eskuak sakeletan sartuta zituela zegoen zutik, eta Eugeniak begiratu zionean atera zituen. Ez zuen, ordea, Brand jaunak bezala, etxeko jaunaren aldera begirada iheskor urduririk luzatu. Aurrez aurre begiratu zion Eugeniari, hari aurrez aurre begiratzeko pribilejioa eskertuko balu bezala. Madame Münster istanteko konturatu zen hura zela, izatez, aurrean ziren pertsona guztietan garrantzizkoena. Eta sentipen haren halako adierazpen bat agertzen ziola guztiz jabeturik agurtu zituen Eugeniak, sinpatiazko buru-makurtze arin batez, Wentworth jaunaren aurkezpen hitzak: «Nire lehengusu Acton jauna!»

«Zure lehengusua, eta nirea ez?» esan zuen baronesak.

«Hori zure esku dago,» erantzun zion Acton jaunak, barrez.

Baronesa begira geratu zitzaion pixka batean, eta Acton jaunak oso hortz zuriak zituela konturatu zen. «Utz dezagun zure jokabidearen esku,» esan zion. «Hobe izango dut itxarotea. Badut nahiko lehengusu. Baldin eta andereño xarmagarri horrekiko ahaidetasuna ere aldarrikatzen ez baduzu, behintzat!» Eta leihoko neskatila seinalatu zuen.

«Nire arreba da,» esan zuen Acton jaunak. Eta Gertrude Wentworthek besoez inguratu eta aurrera eragin zion neskatilari. Ez zuen ematen, ordea, eragin behar handirik zuenik. Pauso arin bizkorrez eta burujabetasun osoz hurbildu zen baronesarengana, galtzerdia galtzetorrazetan bilduta. Begi urdin ilunak eta gaztaina-koloreko ile iluna zuen; izugarri polita zen.

Eugeniak musu eman zion, beste neskei eman zien bezala, eta, gero, pixka bat urruntzen zela begiratu zion. «Hau beste *type* bat da,» esan zuen; frantses erara ahoskatu zuen hitza.

«Hau beste egitura batekoa da, osaba; beste izaera batekoa, zure alaben aldean. Hau Felix,» jarraitu zuen, «askoz gehiago egokitzen zaio guk amerikar eredutzat daukagunari.»

Azalpenak iraun zuen denboran, neskatilak erdi irribarre bat egiten zien behin banan denei, eta behin eta berriz Felixi. «Nik eredu bakarra ikusten dut hemen!» esan zuen Felixek barrez. «Jende maitagarriaren eredua!»

Ateraldia isilik entzun zuten denek, baina Felixek, gauza guztiak azkar ikasten zituena izanik, ikasia zuen ordurako ezagun berri haien artean maiz somatu izan zituen isiluneak ez zirela nahitaez gaitzespenezkoak edo gaitzondoak eraginak. Hura, nolabait esan, arretazko isiltasuna zen: apaltasunezkoa. Felixen arrebaren inguruan zutik zeuden denak, Eugenia gaitasun berezi baten edo adimen distiratsu baten erakustaldia egiten noiz hasiko zain baleude bezala. Haien jarrera ikusita, zera atera zitekeen: Eugenia solasaren txerpolari gisako bat zela, adimena gasaz eta argi-bitxiz jantzia. Jarrera hark ironiazko zentzu bat eman zien Madame Münsterren hurrengo hitzei. «Hau da, beraz, zure zirkulua,» esan zion

osabari. «Hau da zure *salon*. Hauek dira zure ohiko *habitués*, ez? Oso pozten naiz zuek denok ezagutzeaz.»

«Bai,» egin zuen Wentworth jaunak, «nahi dutenean etorri eta nahi dutenean joaten dira. Hori egin behar duzue zuek ere.»

«Aita,» sartu zen Charlotte Wentworth, «hori baino gehiago egin behar dute.» Eta bisitari intergarriarengana itzuli zuen bere aurpegi gozo serioa, adierazpen lotsati eta aldi berean lasaiekoa. «Nola duzu izena?» galdetu zion.

«Eugenia Camila Dolores,» esan zuen baronesak irribarrez. «Baina ez duzu dena esan beharrik.»

«Eugenia esango dizut, ondo baderitzozu. Hona etorri eta hemen gelditu behar duzue, gurekin.»

Baronesak Charlotteren besoan jarri zuen eskua oso maitekiro, baina ez zuen ezer esan. Jende haiekin «gelditzerik» ba ote zegoen pentsatzen zuen baronesak bere artean. «Oso atsegina izango litzateke, oso atsegina,» esan zuen, eta taldeko lagun batengandik bestearengana erabili zituen begiak, gelaren bira osoan. Denbo-



ra irabazi nahi zuen hitza eman aurretik. Azkenean, Brand jaun gaztearengan pausatu zituen begiak; Brand jauna besoak tolesturik eta eskua kokotsean zuela zegoen baronesari begira. «Jaun hau elizgizonen bat edo izango da, ezta?» esan zion baronesak Wentworth jaunari, ahotsa pixka bat apalduz.

«Ministro bat da,» erantzun zion Wentworth jaunak.

«Protestantea?» galdetu zuen Eugeniak.

«Unitarista naiz, andrea,» erantzun zuen Brand jaunak handikiro.

«A! Ulertzen dut,» esan zuen Eugeniak. «Gauza berriren bat.» Baronesak ez zuen sinesmen horren aditzerarik.

Acton jauna barrez hasi zen, eta Gertrudek larriturik begiratu zion Brand jaunari.

«Oso urrutira etorri zara,» esan zion Wentworth jaunak baronesari.

«Oso urrutira, oso urrutira,» erantzun zuen baronesak, buruaz keinu dotore bat —hainbat gauza adieraz zitzakeen keinu bat— egiten zuela.

«Horra hor gurekin gelditzeko arrazoi bat,» esan zion Wentworth jaunak, hizketarako zuen lehortasun harekin, zeinak —Eugeniaren buru argiari oharkabean pasatu ez zitzaionez— ez baitzion ezer kentzen esanahiaren samurrari.

Eugeniak begiratu egin zion, eta une batez, osabaren aurpegi hotz zurrun hartan, oroitzape-nean amaz zuen irudi ilunaren antz-aire bat ikusi uste izan zuen. Emozioak bat-batean hartzen zuen emakumea zen Eugenia, eta orain, ustekabean, halako bat sentitu zuen bihotzean hedatzen. Zirkuluko lagunei begira jarraitu zuen; kon-turatu zen mirespena ageri zutela berarengan jarririk ziren begi guztiek. Irribarre egin zien den-denei.

«Ikustera etorri naiz..., proba egitera..., gal-detzera,» esan zuen. «Eta ondo egin dudala uste dut. Oso nekatuta nago; atsedeen egin nahi dut.» Malkoak zituen begietan. Etxe barru argia, jende lasai adeitsua, bizimodu simple serioa: gauza horiek guztiek estura menderaezin bat eragin zioten, eta inoiz ezagutu zuen emoziorik egiaz-koenetako bati amore ematen ikusi zuen bere

burua. «Hemen gelditu nahi nuke,» esan zuen. «Har nazazue, arren.»

Irribarre egiten bazuen ere, malkoak zituen ahotsean, nola baitzituen begietan. «Iloba maittea,» esan zion Wentworth jaunak samurki. Charlottek, berriz, besoak luzatu eta beregana erakarri zuen baronesa. Bien bitartean, Robert Acton beste aldera jiratu zen, eskuak sakeletan sartuta.

## 4. atala

Ahaide amerikarregana agertu eta egun batzuetara itzuli zen Münster baronesa, nebarekin, eta Wentworth jaunaren etxebizitzaren ondoko etxetxo zuri lehen aipatu den horretan hartu zuen ostatu. Alabekin bisita itzultzera joan zitzaionean jarri zuen Wentworth jaunak landetxe eroso hori baronesaren esku, eskaintza izan zelarik baronesa etorri ondorengo hogeita lau orduetan familian izandako hizketaldian bisitari atzerritar biak seriooki eta tentuz eztabaidatu eta aztertu ondorengo emaitza. Hizketaldia, esan dudan bezala, familiarrean egin zen, baina han ziren Madame Münster hirira itzuli ondorengo arratsean, beste askotan bezala, Robert Acton eta beraren arreba polita ere. Aurrean egon bazinate, ez zitzaizuen ziur aski irudituko atzerritar distirant haien etorrera gertakizun pozgarri gisa tratatu zenik, ez etxe baketsu hartako atsegirik handienetako bat bailitzan, ez entretenimendu-iturri posible gisa. Wentworth jaunak ez zituen horrela tratatzen giza gertaki-

zunak. Wentworthtarren bizimodu ondo ordenatuan ohiko eginkizunen eskematik kanpoko elementuren bat bat-batean sartzeak erantzukizun zentzua —bizimodu horren atal nagusia— berregokitzea eskatzen zuen. Gertakizun bat gertakizunak berak ekar ziezaiekeen atseginarean argi huts eta gordinetan aztertzea Felix Youngen lehengusu amerikarrek ia ezagutzen ez zuten ariketa intelektual bat zen, gizarte-arlo guztietan hain erabilia zenik nekez usteko zutena. Satisfazio bat zen Felixen eta arrebaren etorrera, baina satisfazio pozkariorik gabea eta manaiagaitza. Betebeharraren luzakin bat zen, bertuterik zailenak lantzen jardun behar bat; baina ez Wentworth jaunak, ez Charlottek, ez Brand jaunak, zeina, pertsona bikain haien artean, gogoeta eta goi-nahiaren sustatzaile handia baitzen, ez zuten, egia esan, plazerrarekin zerikusia zukeen zerbait bailitzan tratatu. Egiteko hori Gertrude Wentworthek hartu zuen azkenean, neska berezia baitzen Gertrude, baina bere berezitasunen goi-barren guztiak erakutsi gabe eduki zituena, harik eta atzerritar agian atseginegi haiek aurrean izateak aitzakia polita eskaini zion arte.

Gertrudek, nolana ere, bata bestearen ondolik gaititu behar izan zituen oztopoak, nola subjektiboak, metafisikoek dioten bezala, hala objektiboak; eta borroka horren berri ematea da, izan ere, neurri handi batean, istorio txiki honen xedea. Wentworth jaunaren eta alaben adiskideak bat-batean gehitu izate horretan zera bide zen garrantzizkoena: hutsegite posibleen eremua handitu izana; eta hutsegiteen larritasun handiaren dotrina —hala dei baitakioke ia— zen Wentworth familiaren tradiziorik estimatuena.

«Ez dut uste hark etxe honetan gelditu nahiko duenik,» esan zuen Gertrudek, eta izenordaina beste deiturarik ez zion aurrerantzean eman Madame Münsterri. Nahiko erraz jarri ziren Charlotte eta Gertrude, baronesaren aurrean zeudela, hari «Eugenia» esatera, baina elkarren artean hari buruz aritzen zirenean, gutxitan deitzen zioten «hura» beste ezer.

«Ez al zaio behar bezain ona iruditzen?» esan zuen Lizzie Acton txikiak, zeina galdera desegokiak egiten aritzen baitzen beti —erantzunik, zentzu estuan, eskatzen ez zuten galderak—, berak ere bere betiko barre txiki xalo satirikoa-

ren antzekoren bat besterik espero izaten ez bazuen ere.

«Etorri nahi bat adierazi du, behintzat,» esan zuen Wentworth jaunak.

«Hori ez da kortesia beste ezer,» erantzun zion Gertrudek.

«Kortesia handikoa da, bai, oso kortesia handikoa,» esan zuen Wentworth jaunak.

«Handiegikoa,» adierazi zuen semeak, ohikoa zuen marmario-tonu batean, nahiz eta halaholako umore bat adierazteko asmoa beste gaitzik ez zuena izan. «Egonezina sortzen du.»

«Zuregatik ezin da beste hainbeste esan, jauna,» esan zion Lizzie Actonek, bere barre txikia eginez.

«Bada, nik ez diot etortzeko ahaleginik egingo,» jarraitu zuen Cliffordek.

«Niri bost axola, egiten badiozu ere!» esan zion Lizziek.

«Zu ez zaitu kontuan izango, Clifford,» esan zion Gertrudek, serio.

«Ez ahal nau izango!» esan zuen Cliffordek.

«Robert izango du gogoan,» jarraitu zuen Gertrudek, tonu berean.

Robert Acton gorritzen hasi zen. Ez zen, ordea, horretarako arrazoirik, Gertruderi begira baitzeuden denak; denak, Lizzie izan ezik; hark, bere buru polita alde batera okerturik, nebari begiratzen baitzion.

«Zergatik egiten duzu besteren arrazoiak juzku, Gertrude?» galdetu zion Wentworth jaunak.

«Ez dut besteren arrazoiak juzkurik egiten, aita,» esan zion Gertrudek. «Robert izango duela gogoan, besterik ez dut esan; eta hala izango du!»

«Gertrudek bere juzkuak egiten ditu!» esan zuen Actonek, barrez. «Ez da hala, Gertrude? Horixe izango nauela gogoan baronesak! Goizetik arratsera izango nau gogoan!»

«Oso eroso egongo da hemen,» esan zuen Charlottek, etxekoandre-harrotasun puntu batez. «Ipar-ekialdera ematen duen gela handia utziko diogu. Eta ohe frantsesa,» gehitu zuen, andrea atzerritarra zela beti ondo gogoan zuela.

«Ez du gogoko izango,» esan zion Gertrudek, «ezta eserleku guztietan zapitxo zuriak jartzen badituzu ere.»



«Zergatik ez, bihotza?» galdetu zion Charlottek, Gertruderen hitzetan ironia izpi bat sumaturik, baina gaizki hartu gabe.

Eserlekutik jaikirik, Gertrude hara-hona zebilen gelan; haren sedazko soineko harroak, baronesaren ohoretan jantziak, fris-fras egiten zuen alfonbra gainean. «Ez dakit,» erantzun zuen. «Beste gauza zerago bat nahiko du..., gauza pribatuago bat.»

«Pribatuan egon nahi badu, bere gelan egoatea asko du,» adierazi zuen Lizziek.

Ibiltzeari utzi eta Lizzieri begiratu zion Gertrudek. «Hori ez litzateke atsegina izango,» erantzun zion. «Bakartasuna eta atsegina, biak behar ditu.»

Robert Acton barrez hasi zen berriro. «Lehengusu maitea, hauxe egoera!»

Charlottek ahizparengan iltzaturik zituen bere begi serioak; ahizpak ideia bitxi haiek nondik atera ote zituen galdetzen zion bere buruari. Wentworth jaunak ere alaba gazteenari erreparatzen zion.

«Ez dakit zer bizimodu egingo zuen,» esan zuen Wentworth jaunak, «baina, nolana ere,

hau baino etxe finagorik eta osasungarriagorik ez zuen izango.»

Gertrude geldi zegoen zutik, denei begira. «Printze baten emaztea da,» esan zuen.

«Hemen denok gara printze,» esan zuen Wentworth jaunak; «eta, nik dakidala, inguru honetan ez da jauregirik errentan.»

«Lehengusu William,» sartu zitzaion Robert Acton, «jokatu nahi al duzu eskuzabal? Eskain iezaiezu, hiru hilabeterako, beste aldeko etxe txikia.»

«Oso eskuzabala zara besteren gauzekin!» jaurti zion arrebak.

«Bereekin ere oso eskuzabala da Robert,» adierazi zuen Wentworth jaunak grina gabe, ahaideari gogoetan galdurik bezala begiratzen ziola.

«Gertrude,» jarraitu zuen Lizziek, «lehengusu berria oso gogoko zenuela uste nuen.»

«Zer lehengusu berri?» galdetu zion Gertrudek.

«Ez nizun baronesagatik esaten!» erantzun zion neskatilak, bere barretxoan eginez. «Sarri ikusi nahiko zenuelakoan nengoen.»

«Felix? Eta sarri ikustea espero dut,» esan zion Gertrudek, soil-soilik.

«Zergatik eduki nahi duzu, hortaz, etxetik kanpo?»

Gertrudek Lizzie Actonengana itzuli zituen begiak, eta gero beste aldera begiratu zuen.

«Nahi al zenuke ni zure etxean zurekin bizitzea, Lizzie?» galdetu zion Cliffordek.

«Ez ahal zara inoiz biziko! Gorroto zaitut eta!» Hori izan zen andereñoaren erantzuna.

«Aita,» esan zuen Gertrudek, Wentworth jaunaren aurrean gelditu eta irribarrerik gozoena eginez —gozoetan gozoena izaten baitzen beti, bakanagatik, haren irribarrea—, «utz iezaiezu beste aldeko etxetxoan bizitzen. Zoragarria izango litzateke!»

Robert Acton Gertruderi begira zegoen. «Arrazoi du Gertrudek,» esan zuen. «Munduko neskarik argiena da Gertrude. Zilegi bazait esku-dantzia hau hartzea, hor bizi daitezela aholkatuko nuke nik biziki.»

«Hor ez dago ezer ipar-ekialdeko gela bezain politik,» esan zuen Charlottek kementsu.

«Berak polituko du. Utziozue bere gisara!» esan zuen Actonek.

Gertrude, konplimendu haren aurrean, gorritu egin zen pixka bat, eta Roberti begiratu zion; guztiz familiakoa ez zen batek egindako konplimendutzat hartu zituen Roberten hitzak. «Poliki jarriko du, ziur nago. Oso interesgarria izango da. Ikustera joan beharreko lekua izango da. Etxe atzerritar bat izango da.»

«Ba ote dugu, gero, etxe atzerritar baten beharrik?» galdetu zuen Wentworth jaunak. «Desiragarria irizten al diozue leku baketsu honetan etxe atzerritar bat izateari?»

«Baronesa gaixoak taberna bat edo joko-etxe bat ireki behar balu bezala ari zara,» esan zion Actonek, barrez.

«Zoragarria baino zoragarriagoa izango litzateke!» azaldu zuen berriro Gertrudek, eskua aitaren eserlekuaren bizkarrean jarririk.

«Joko-etxe bat irekitzea?» galdetu zion Charlottek, oso serio.

Gertrudek begirada bat luzatu zion ahizpari, eta «Bai, Charlotte,» esan zion soil-soilik.

«Lotsagabetzen ari da Gertrude,» adierazi zuen Clifford Wentworthek, bere gazte-marmario umorezkoan. «Hara zer dakarren atzerritarrekin elkartzeak.»

Wentworth jaunak aldamenean zutik zuen alabarengana jaso zituen begiak; aurrerantz era-karri zuen emeki neska. «Kontuz ibili behar duzu,» esan zion. «Erne egon behar duzu. Egia esan, denok ibili behar dugu kontuz. Aldaketa handia da hau; eragin berezien helmenean jarri-ko gara. Ez dut esango eragin txarrak direnik; ez ditut aurrez juzkatuko. Baina zuhertasun eta burujabetza handiz jokatzea eskatuko digute beharbada. Beste giro bat izango dugu.»

Gertrude isilik geratu zen une batean, aitaren hitzenganako begirunez. Baina ondoren esan zuenak ez zion inolaz ere aurrekoari erantzun. «Nola bizi diren ikusi nahi dut. Ziur nago beste ordu batzuk izango dituztela. Beste era batera egingo ditu Eugeniak hainbat eta hainbat gauza. Harenera joatea Europara joatea bezala izango da. *Boudoir* bat edukiko du. Afaltzera gonbidatu-ko gaitu... berantorduz. Gosaldu ere, bere gelan egingo du.»

Charlotte ahizpari begira geratu zen berriro. Gertruderen irudimenak gainezka egin zuela iruditu zitzaion. Gertrudek irudimen handia zuela, bazekien lehendik ere —oso harro zegoen horretaz—. Aldi berean, ordea, arriskutsua eta ardura-gabea iruditu izan zitzaion beti ahalmen hura; eta orain, mehatxu bat sumatu zuen: ahizpa, bidaia batetik itzuli balitz bezala, bidaian ikusitako gauza bitxi guztiak —agian desegokiak— bat-batean kontatzen hasten den pertsona arrotz bihurtzeko mehatxua. Charlotten irudimenak ez zuen inoiz bidaiatzen; sakelean gorderik zuen hark, esateko moduan, irudimena, zorro hartako beste gaiak —titare bat, menda-kaxa txiki bat, eta esparatrapu mutur bat— lagun zituela. «Ez dut uste ez afaririk ez gosaririk egingo duenik,» esan zuen Wentworth andereñoak. «Ez dut uste berak ezer egiten jakingo duenik. Zerbitzari sail bat lortu beharko nioke, eta ez lituzke gogoko izango.»

«Badu neskame bat,» esan zuen Gertrudek; «neskame frantses bat. Hala esan zuen.»

«Txano koskaduna eta txapin gorriak erabiliko ote ditu neskameak?» esan zuen Lizzie Acto-

nek. «Robertek behin ikustera eramán ninduen antzerki batean neskame frantses bat agertzen zen. Galtzerdi arrosak zituen, eta oso lotsagabea zen.»

«*Soubrette* bat zen,» adierazi zuen Gertrudek, bizitza osoan antzerki bat ikusi ez bazuen ere. «*Soubrette* deitzen diete horiei. Aukera ederra izango dugu frantsesa ikasteko.» Charlottek hasperentxo arin etsi bat egin zuen. Ikusten zuen antzezleri lotsagabe bat, galtzerdiak arrosa eta oinetakoak gorri, hizkuntza ulertezin batean inor nahastarazterainoko hitz-jarioz berbetan, etxe handi garbi haren barne-muinetan hegabiraka. «Horra hor arrazoi bat hona etor daitezten,» jarraitu zuen Gertrudek. «Gurekin frantsez egiteko eskatuko diogu Eugeniari, eta baita Felixi ere. Hasteko asmoa dut hurrengoan.»

Wentworth jaunak ondoan zuen artean Gertrude, eta begirada serio, labur, sor bat zuzenduzion berriro. «Gauza bat agindu behar didazu, Gertrude,» esan zion.

«Zer?» galdetu zion Gertrudek, irribarrez.

«Ez zarela aztoratuko. Ez dituzula gertakari hauek aztorabide bihurtuko.»

Unetxo batean aitar begira egon ondoren, burua astindu zuen Gertrudek. «Ez dut uste bete ahal izango dudarik, aita. Aztoraturik nago jada.»

Wentworth jauna isilik geratu zen tarte batean; denak geratu ziren isilik, ausardia izugarri baten lekuko izan balira bezala.

«Uste dut hobe izango dutela beste etxera joatea,» esan zuen Charlottek apalki.

«Beste etxean emango diet ostatu,» erantsi zuen Wentworth jaunak biribilago.

Gertrude jiratu egin zen; Robert Actoni begiratu zion. Lagun handia zuen bere lehengusu Robert; askotan begiratu ohi zion horrela, hitz egin ordez. Oraingo begirada hori, ordea, ohi baino esanahi gorde gehiagoren ordeko zela iruditu zitzaion Roberti, eta, besteak beste, zera ikusarazi nahi ziola: aitak, barne lasaitasunaren interesetan, ahaide atzerritarrekiko harreman-aukerak murrizteko zuen asmoa —asmo bazen, behintzat— eraginik gabekoa izan zela. Actonek, ordea, zorionak eman zizkion berehalaxe Wentworth jaunari, erakutsi zuen eskuzabaltasunagatik. «Oso ekintza ederra da,» esan zion, «etxe



txikia uztea. Zuk eskuzabaltasunez hartu izango dituzu, eta gertatzen dena gertatzen dela, poztu egingo zara horrela jokatu izanaz.» Eskuzabala zen Wentworth jauna, eta bazekien eskuzabala zela. Atsegin ematen zion eskuzabala zela jakiteak, eskuzabal jokatzek, eta besteek ere eskuzabala zela adierazten zutela ikusteak; eta atsegin horixe da gertaera hauen narratzaileak lepora ahal izango dion buruiritzi-modu nabari bakarra.

«Hor, hiru eguneko bisita, gehienera ere; egonaldia luzeagorik ezingo nukeen egin,» adierazi zion Madame Münsterrek nebari, etxe txiki zurian jarri zirenean. «*Intime*-egia zatekeen; *intime*-egia, zalantzarik gabe. Gosaria, afaria eta tea *en famille*. Eguzkiak irteteari utziko ziokeen, hirugarren egunera iritsi banintz.» Eta gauza bera aipatu zion Augustine neskameari. Pertsona argia zen Augustine, eta oso konfiantzakoa zuen baronesak. Felixek, berriz, zera adierazi zuen: berak gogo onez igaroko zukeela bizitza osoa Wentworth familiaren altzoan; munduko pertsonarik amultsuenak, sinpleenak eta adiskidetsuenak zirela, eta maitasun handia hartu

ziela den-denei. Sinpleak eta amultsuak zirelako-arekin erabat ados zegoen baronesa; oso jende ona zela, eta oso gogoko zituela. Neskak andereño akats gabeak zirela; Charlotte Wentworth baino andereño osatuagorik, zeukan herritar-itxura eta guzti, ez zegoela izaterik. «Baina munduko lagunarterik onena osatzen dutela esatea,» esan zuen baronesak, «beste gauza bat da; eta horiekin *porte à porte* bizi izateko dudan gogoia eta atzera komentura itzuli, eskola-mantala jantzi eta logela komunean lo egiteko dudana, elkarren antzekoak dira.» Eta, hala ere, oso umore onean zegoen baronesa; oso gogara geratu zen. Zuen ulermen handia eta irudimen fina izanda, bazekien gauza ezaugarriak balioesten, bazekien zein bere sailean nagusi zena balioesten; eta Wentworthtarren etxea, bere sailean, ezin hobea iruditu zitzaion: bake ederrekoa eta tatxagabea; baronesak kuakerismoarenak jotzen zituen lasaitasun eta onberatasun garbi apalez beteak, eta, hala ere, oparotasun material batean oinarriturik zegoela ematen zuen, eta hori, hainbat xehetasuni bagagozkio, alferrik bilatuko zen Silberstadt-Schreckensteingo gorte txiki murri-

tzean. Berehalaxe konturatu zen baronesa ahai-  
de amerikarrek gutxitan erabiltzen zutela dirua  
buruan eta ahotan; eta horrek inpresioa egin  
zion Eugeniari. Antzeman zion ezen Charlottek  
edo Gertrudek aitari zenbateko handixko bat  
eskatuko baliote, aitak bertantxe eskuratuko lie-  
keela ere; eta are inpresio handiagoa egin zion  
horrek. Baina azkar atera zuen beste ondorio  
batek egin zion, beharbada, denetan inpresiorik  
handiena. Laster konturatu zen baronesa Robert  
Actonek asteko egun guztietan eramango zukee-  
la eskua sakelera, arrebatxo kaskarin hark hala  
eskatuko balio. Bistan da, zioen baronesak bere-  
kiko, lurralde honetako gizonak oso zerbitzalak  
direla. Eugeniak atsedean eta erretiro bila zebile-  
la esan zuenean esandakoa ez zen dena gezu-  
rra; baronesak esaten zuena ez zen dena gezu-  
rra izaten. Baina bidezkoa litzateke agian zera  
ere eranstea: esaten zuen guztia ez zela den-  
dena egia izaten. Naturara itzultzea zela idatzi  
zion Alemaniako lagun bati; esne jetzi berria  
edatea bezala zela, eta oso gogoko zuela esne  
jetzi berria. Bere buruari, jakina, aspergarri  
samarra gertatuko zitzaioela esaten zion; baina

pixka bat aspertzeak axolarik ez ziola pentsatzen zuen, eta ez dateke hori baino froga hobetik umore onean zegoela erakusteko. Bere landetxe limosnazkoaren loriotik begira jarri eta lur-sail baketsuak, larre isilak, urmael gardenak, fruta-arbola makatzak ikusten zituenean, iruditzen zitzaion ez zela inoiz egon halako isiltasun sakon bereziaren erdian; ia plazer sentzual delikatu bat sentitzen zuen. Han dena zen oso ona, oso xaloa eta segurua, eta gauza onen batek etorri behar zuen handik, nahitaez. Augustine zebilen, ordea, aski nahasturik eta gogogabeturik. Muga gabeko fedea zuen Augustinek etxeko-andrearen zuhurtzian eta aurreikuspenean. Beti prest izaten zen bere partea jokatzeko, ulertzen baldin bazuen; baina ulertu egin nahi izaten zuen, eta ulermenak, oraingo honetan, huts egiten zion. Baina zer egiten zuen baronesak *dans cette galère*? Zer arrain harrapatzea espero zuen ur geldi hauetan? Zeregin korapilatsuren bat zerabilen baronesak eskuartean, inondik ere. Fio zen Augustine baronesaz, baina ilunpetan zebilela salatzen zuen adin ertaineko emakume argal, zurbil, neurtu haren —Gertrude Wentwort-

hek soubretteaz zuen ideiarekin batere zerikusirik ez zuen haren— aurpegiak, Wentworthtarren bake eta ugaritasun zantzu ager-nahirik gabekoren gainean inoiz pausatu zen betarte ironikoen erakusten zuenean. Zorionez, ekintzaz amatatzen zuen Augustinek eszeptizismoa. Bat etorri zen etxekoandrearekin —edo, hobeto esan, aurre hartu zion etxekoandreari— etxe txiki zuriak huts-itxura penagarria zuela uste izatean. «*Il faudra,*» esan zuen Augustinek, «*lui faire un peu de toilette.*» Eta hala hasi zen *portières* direlakoak ateetan esekitzen, argizarizko kandelak, kostata aurkitu ondoren, lekurik susmagaitzengantartan jartzen, oihaltza bitxi bat sofa-beso eta silabizkar gainetan zabaltzen. Jantziz ondo horniturik etorri zen baronesa Mundu Berrira, eta bi Wentworth andereñoak, bisitan joan zitzaizkionean, txunditu samarturik gelditu ziren haren arropa-banaketa deigarria ikustean. Lepoko zapi indiarak ageri ziren, errezel gisa, egongelako atean esekirik, eta oihal harrigarriak, Gertruderen ikuspegi metafisikotik ikusita operarako kapusaiak ziratekeenak, eserlekuen gainetan barreiatuak. Sedazko errezel arrosak zeuden

leinhoetan, gela itzal bitxi batean biltzen zutela; eta tximiniako apalean belusazko zapi-zerrenda ikusgarri bat zegoen, gaina enkaje zakar zikin-itxurako batez estalia. «Etxea pixka bat egokitzten aritu naiz,» esan zuen baronesak, Charlotteren nahasmen handirako; izan ere, bere burua eskaintzeko puntuan egon baitzitzaion Charlotte, alferrik zeuden oihalak kentzen laguntzeko. Gertrude, ordea, bat-batean konturatu zen ezen Charlottek ia gehiegizko zabarkeriatzat hartu zuenak oso helburu burutsua, interesgarria eta erromantikoa zuela. «Izan ere, zer da bizitza errezelik gabe?» esan zuen bere artean Gertrudek; eta iruditu zitzaion berealdiko bizimodu zurimina eta apaindurarik gabea egin zuela ordu arte.

Felix ez zen ezergatik gehiegi kezkatzekoa, eta beste ezerk baino gutxiago kezkatzen zuen olgetabideak. Olgetarako zuen gaitasuna hain zen handia, hain berezkoa eta bizia, ezen esan baitaiteke eragozpen eta saminei aurre hartuta ibiltzen zela beti. Izaera alaia zuen berez, eta berritasuna eta kanbioa, ziren zirenean, gozamen zitzaizkion. Eta maiz izan zituenez, ematen

zuen baino bizimodu atseginagoa egin zuen. Ez zen munduan Felixena baino izaera hoberik. Ez zen harena gogo urduri, irudikor, anbizioz bete bat, patuaren tiraniarekin lehian lebilkeena, baikik eta hain gogo mesfidantzarik gabekoa, ezen desarmatuko baitzukeen Ezbeharra bera, hai-zeak astintzen duen lorearen mugimendu txairo naturalez txiri egin eta ihes eginez. Gauza guztietatik ateratzen zuen entretenimendua Felixek, eta beraren ahalmen guztiek —irudimenak, adimenak, txerek, zentzumenek— hartzen zuten esku jokoan. Eugenia eta biak oso ondo hartuak izan zirela iruditzen zitzaion; oso hunkigarria zela Wentworth jaunaren jokabidea markatzen zuten eskuzabaltasun aitatiarraren eta gizarte-mailarekiko begiramenaren elkarketa; ohi ez den bezalako adeitasuna erakutsi zuela, esate baterako, etxea uztean. Kontentuz beterik zegoen Felix bere etxearekin, zeren eta askoz bereagoa baitzuen sagarrondo arteko landetxe txiki zuria —borda, Madame Münsterrek esaten zion bezala—, leihoak patiora eta errenta-zorrak luzatuak zituen beste edozein *quatrième* baino. Bizitzaren parte handi bat igaro zuen Felixek patioe-

tara begira, bi ukalondoak —saretuxeak agian— leiho garai baten ertzean jarririk, zigarreta baten ke mehea kaleko hotsak galdu eta antzinako kanpandorreetako kariloien bibrazioa sentitzen zen atmosfera batera igotzen zen bitartean. Felixek ez zuen inoiz ezagutu Ingalaterra Berriko lur haiek baino gauza landa-girokoagorik, eta berehala zaletu zen haien zakartasun artzain-girokora. Inoiz ez zuen sentitu hain segurtasun gozo erosorik; eta menturazale kaxkar baten gisa ager dakizuekeen arriskutan bada ere, zera esan behar dut: egunero osabarenean afaldu ahal izateari ezin saihestuzko xarma aurkitzen ziola. Xarma, nolana ere, Felixen fantasiak pribilejio haren gainera isurtzen zuen argi arrosagatik zen ezin saihestuzkoa. Estimua handia egiten zion aurrean jartzen zioten janariari. Hango ugaritasunaren itxura freskoak zera pentsarazten zion: horrela bizi izango zela jendea mitologia aroan, mahaiak belar gainean zabaldu, ugaritasunaren adarretik sortutakotik bete, eta sukaldeko suontzien behar handirik ez zenean. Pozik handiena, ordea, familia bat aurkitu izanak ematen zion Felixi: izen txikiaz deitu ahal zien pertsona bihoz-



bera atseginen artean esertzeak. Berak esaten zuenari eskaintzen zioten arreta baino gauza zoragarriagorik ez zuen inoiz ezagutu. Akuarela-pintzelkadaz zirriborrazteko prest lukeen marrazteko paper handi, garbi, ehundura fineko baten aurrean balego bezala sentitzen zen. Ez zuen lehengusurik izan, eta ez zuen ordu arte andereño ezkongabeekin hain harreman irekirik izan. Oso gogoko zuen emakumeen lagunartea, eta gauza berria zitzaion emakumeak era hartara tratatu ahal izatea. Hasieran ez zuen ulertzen zer gertatzen zitzaion. Iruditzen zitzaion hiru neskez batera zegoela maitemindurik, bereiztasunik gabe. Garbi ikusten zuen ezen Lizzie Acton Charlotte eta Gertrude baino askoz politagoa zela; horrek, ordea, ez zion Lizzieri nagusitasunik ematen. Hirurek komun zuten zerbait atsegin zuen Felixek; parte bat, noski, haien gorputzen txairotasuna zen, zeinak apropos egina baitzurdien beti oihal arin eta kolore argiko soinekoz janzten ziren bezala janzteko. Baina beste alderdi batzuk ere bazituzten txairoak, eta alderdi txairo hariak, nolabait ere, harremanetan nabarmentzen zirela ikusteak poz handia ematen zion

Felixi. Dama agurgarri asko ezagutu zuen zorionez, baina dama haiekin —ezkongabeak zirenekin batez ere— harremanetan izan zen denboran, kristalean sartutako irudiei begira egon zela iruditzen zitzaion orain. Orain konturatzen zen zein higuingarria zen kristala, nolako itxuragabeteak eta interferentziak sortzen zituen; nola bereganatzen zuen beste objektu batzuen isla, eta behartzen zuen norbera albotik albora begira ibiltzera. Orain ez zuen kontu egin behar izaten ea Charlotte, Gertrude edo Lizzie Acton argiak ondo harrapatzen zituen lekuan ote zeuden: argitan zeuden haiek beti. Dena zuen haiengan gogoko; esate baterako, ez zitzaion oharkabean pasatu ezen oin lirainak eta oingain garaiak zituztela. Atsegin zituen haien sudur politak; atsegin zituen haien begi harrituak eta haien hizkera zalantzakor, setakeriarik gabea; oso atsegin zuen haietako edozeinekin orduak eta orduak nonahi bakarrik egoteko askatasun guztia zuela jakitea eta bakartasunerako laguntzat bat baino bestea nahiago izatea garrantzi gutxiko kontua zela konturatzea. Charlotte Wentworthen hazpegi serio baina gozoak Lizzie

Actonen begi urdin adierazkor zoragarriak bezain atseginak ziren; eta beste guztia bezain xarmagarria zen Gertruderen paseatzeko eta entzuteko prestasuna, oso ibilera dotorea zuelako, batez ere. Geroxeago hasi zen Felix bereizketak egiten. Baina orduan ere, askotan pentsatzen zuen nahiago zukeela denak hain triste egon ez balira. Lizzie Actonek ere, egiten zituen berriketa eta irritxo politak gorabehera, triste zirudien. Clifford Wentworth ere, gaztetasun betea alde izanagatik, eta gurpil handi-handiko zalgurdi bat eta behoka gorri bat, munduko hanka-politena, edukiagatik —mutil zorioneko hura ere—, trebe zen begirada uzkur iheskor bat zuzentzeko, eta, batzuetan, kontzientzia garbi ez duenaren gisa, inorengandik sahieska alde egiteko. Inolako pisurik sentitzen ez zuen pertsona bakarra, lagunarte hartan, Robert Acton zen, Felixen iritziz.

Uste izan zitekeen ezen, aipatu diren etxetxukunketa apain horiek burutu ondoren, *ennui* arrisku larriei aurre egin beharko ziela Madame Münsterrek. Ordu artekoan, ordea, ez zuen deia-darrik jo. Gogo-urduria zen baronesa, eta esan

daiteke urduritasun hori proiektatzen zuela aurrean zuen edozein egoeraren gainera. Hein batean, bere urduritasunaz baliatzen zen entretenitzeko. Zerbait gertatuko zen itxaropena izaten zuen beti, eta, etsipenak itzaltzen zion arte, plazer samur izaten zuen itxaropena bera. Baronesak orain zer itxaroten zuen argitzeak jeinu handia eskatuko luke; esan dezagun, soilik, aurkitu zuela, ingurura begira jarrita, irudimena zertan erabili. Ahaide berriekin pozez zoratzen zegoela sinestarazi zion bere buruari; familia bat aurkitu izanak satisfazio handi bat sortu ziola berari ere, nebari bezala. Egia da senitartekoen begiramen maitatia asko estimatzen zuela. Mirespen handia jaso zen Eugenia, oroz gaine-tik, eta esperientzia handia zuen konplimendu ondo eginetan; baina konturatzen zen ez zuela inoiz indar handiagorik izan, ez ziotela inoiz jaramon handiagorik egin, orain, beraren lagunarte txikian, lehen aldiz, konparaketarako eredurik gabe ziren honetan baino. Izan ere, inguruan zituen jende on haiek beraren handitasuna neurtzeko inolako konparazio eredurik ez zutela sumatzeak botere ia neurrigabea sentiarazten

zion baronesari. Egia zen —eta hala esan zion bere buruari— beraren kontra ezer txarrik aurkitu ez izateko arrazoia hori bazen, arrazoi berak galarazi ziezaiekeela beraren alderdi onenak ikustea ere. Baina horretaz bera arduratuko zela esanez ematen zien bukaera baronesak gogoeta horiei.

Charlotte eta Gertrude nahastu samarturik zebiltzan Madame Münsterri behar bezalako arreta erakutsi nahiaren eta gogaituko zuten beldurraren artean. Sagastiko etxe txikia, orain arte, familiako lagun handiek edo ahaide behartsuek eduki izan zuten udako hilabeteetan, Wentworth jauna konponketak egiterakoan etxe-nagusi bizkor eta ordain-egunean ahanzkor izan zutela. Zirkunstantzia horietan, ez etxe txikiko ateak ez handikoak, zein bere jardinez haraindi elkarren aurrez aurre zabalik, ez zuten bisita-orduen ganean zergarik ezartzen. Baina, Wentworth andereñoiei iruditu zitzaenez, Eugenia ez zen abisu eman gabe etxean agertzeko ohitura horren zale. Hark, nonbait, ez zekien atezain gabe bizitzen. «Ostatu batera bezala sartzen da zuen etxera; alde bakarra, ez dela zerbitzaririk

lasterka irteten,» esan zion Charlotteri baronesak, eta hori oso gauza atsegina zela gaineratu. Baronesak hain zuzen ere kontrakoa adierazi nahi izan zuela argitu zion Gertrudek: ez zuela batere atsegin. Ea zergatik esango zuen baronesak gezurra, galdetu zion Charlottek ahizpari, eta, inondik ere, arrazoi onen batzuk izango zituela erantzun zion Gertrudek, eta, baronesa hobeto ezagutzen zutenean, jakingo zituztela. «Gezurra esateko arrazoi onik ez da,» esan zion Charlottek. «Ez ahal du pentsamolde hori izango!»

Haiek, noski, ahal zuten guztia egin nahi izan zuten, hasiera-hasieratik, baronesari egokitzen laguntzeko. Hainbat eta hainbat gauza eztabaidatu beharko zituela pentsatu zuen Charlottek. Baina baronesak ez zuen ezer eztabaidatzeko asmorik erakusten.

«Idatziozu ohar bat, ikustera joateko baime-na eskatuz. Hori gogoko izango duela uste dut,» esan zion Gertrudek.

«Zertarako jarri behar diot erantzuten lana?» galdetu zuen Charlottek. «Ohar bat idatzi eta bidaltzen ibili beharko du.»

«Ez dut uste inolako lanik hartuko duenik,» esan zion Gertrudek barren-barrendik.

«Zer egin behar du, bada?»

«Horixe da jakin nahi dudana,» esan zion Gertrudek, eta jakin-min hura eria zen irudipenarekin utzi zuen ahizpa.

Aldez aurreko korrespondentziarik gabe joan ziren Charlotte eta Gertrude baronesa ikustera, eta hark ordurako eraturik zuen saloitxoan —oso egoki ematen zuten argi, kirikola eta guzti— Robert Acton aurkitu zuten.

Amultsutasunez gainezka hartu zituen Eugeniak, baina krudelki bazterturik eduki zutela leporatu zien. «Ikusten duzue Acton jaunak errukitu behar izan duela nitaz,» esan zien. «Neba, marraztera irteten da, eta orduak pasatzen ditu kanpoan; harekin jai dut. Horregatik, Acton jauna bidaltzera nindoakizuen, zuen lagunarte zuhurraren mesedea egitera etor zaitezteela eskatzera.»

Gertrudek ahizpari begiratu zion. «Horra zer egingo zukeen,» esan nahi zion Charlotteri. Charlottek baronesari esan zion ezen egunero haiekin afaltzera joango zela espero zutela: oso

poztuko zirela, eta hartara ez zuela sukaldari bat hartzen ibili beharrik izango.

«Derrigorrez hartu behar dut sukaldari bat!» esan zuen baronesak. «Andre zahar beltz, turbante horidun bat. Horrexen gutizia dut. Leihotik begiratzen dudanean, belar gainean eserita ikusi nahi dut, hauts-koloreko sagarrondo txiki oker horiek atzean dituela, altzobete arto zuritzen. Tokian tokiko ezaugarriak, badakizue! Hemen ez da askorik eta —ez didazue gaizki hartuko hori esatea, ezta?—, ahal den zuku gehiena atera behar zaio dagoenari! Nahi duzuenean, oso pozik joango naiz zuekin afaltzea; baina nik ere gonbidatu nahi zaituztet noiz edo noiz. Eta Robert Acton ere gonbidatu nahi nuke,» erantsi zuen baronesak.

«Nire etxera etorri beharko duzu gonbitea egitera,» esan zion Actonek. «Ni bisitatzerari eta nirean afaldu behar duzu lehenik. Etxea erakutsi nahi dizut; amaren aurrean aurkeztu nahi zaitut.» Acton jauna handik bi egunera joan zitzaion berriro Madame Münsterri bisitan. Oso sarri joaten zen beste etxera; etxetik oinez joaten zen, landaz landa, eta lehengusuek baino



eskrupulo gutxiago zuela ematen zuen abisatu gabe joateko. Oraingo honetan Brand jauna topatu zuen atzerritar xarmagarriari kortesiazko bisita egiten; baina Actonen etorreraren ondoren, teologo gazteak ez zuen hitzik esan. Bere eserlekuan eserita egon zen, bi eskuak elkaturik, etxekoandreari serio eta liluraturik bezala tinko begira. Baronesak Robert Actonekin hitz egiten zuen, baina, hizketan ari zela, beste aldeira jiratu eta irribarre egiten zion Brand jaunari, zeinak ez baitzion baronesari begirik kentzen. Bi gizonezkoak elkarrekin irten ziren baronesaren etxetik; Wentworth jaunarenera zihoazen. Brand jauna isilik zihoan orduan ere, baina, Wentworth jaunaren jardinerara sartu zirenean, gelditu eta atzera begiratu zuen; etxetxo zuriari begira egon zen pixka batean. Gero, burua alde batera pixka bat okertu eta bekokia apur bat zimurtzen zuela, lagunari begiratu eta esan zuen, «Beno, hori izango da solasa esaten diotena, solas benetako.»

«Emakume argia izatea esaten diot nik horri,» esan zuen Actonez, barrez.

«Oso interesgarria da,» jarraitu zuen Brand jaunak. «Hala ere, nahiago nuke frantsesez hitz egingo balu; hobeto legokioke giroari. Hori izango da hainbatetan entzun eta irakurri izan dugun Madame de Staëlen eta Madame Récamierren solas moldea.»

Actonek ere malba gorri eta sagarrondoan arteko Madame Münsterren egoitzari begiratu zion. «Zera jakin nahi nuke,» esan zuen, barrez, «zerk ekarri ote duen Madame Récamier hona bizitzera!»

## 5. atala

Wentworth jauna, makila eta guanteak eskuan, arratsaldero joaten zen iloba bisitatzera. Handik ordu pare batera, berriz, baronesa joaten zen etxe handira tea hartzera. Egunero afaltzera joateko proposamena bertan behera utzi zuen baronesak; andre zahar beltz, turbante gorriduna sagarrondoan azpian ilarrak aletzen ikustek ekar ziezaiokeen edozein atseginen pozetan zegoen. Charlottek —Charlottek inguratu zion andre zahar beltza— etxepe hura bitxia izan behar zuela pentsatzen zuen, zeren eta Eugeniak esan baitzion ezen han Augustinek gobernatzen zuela den-dena, beltz zaharra barne: nork, eta ingeles hizkuntza garbiaren ezagutza izpirik ez zuen Augustinek! Eta egoera araugabe hartan ere etxe txikiko antolabidea —Eugeniaren ikuspuntu berezitik ikusita— hain lotsagarria ez zela konturatzean izan zuen desengainua da, alde handiz, Charlotte Wentwortheri egotzi ahal izango diodan sentimendurik moralgabeena. Baronesari dibertigarria zitzaion tea hartzera

joatea; afaritarako bezala janzten zen. Ohi ez bezalako otordu deigarriak eskaintzen ziren temahaian; eta mahaitik altxatzen zirenean, lorio zabalean eseri eta solasaldia egiten zuten denek, edo jardinean izarren argitan paseatzen zuten, belarriak hotsez betetzen zizkietela hango intsektu bitxiek, zeinek, uda gauetako magiaren osagaitzat hartuak badira ere mundu osoan, mendebaldeko zeru haren azpian durundia paregabea egiten zutela iruditzen baitzitzaien baronesari.

Wentworth jauna, esan dudan bezala, fin eta zintzo joaten zen baronesari bisita egitera, baina ez zitzaion iruditzen, hala ere, ilobarengana ohi-tzen ari zenik. Kosta egiten zitzaion beraren arrebaordearen alaba zela sinestea. Haurtzaroko giza irudi bat zuen Wentworth jaunak arreba: hogeit hamar urte besterik ez zituela betiko kanpora alde egin eta atzerrian ezkontza desegoki bat bere gogoz egin zuena. Wentworth jaunaren izeba Whiteside andreak, neska Europara itzuli bat egitera eraman zuenak, hain xehetasun deitoragarriak eman zituen, itzuli zenean, Adolphus Young jaunaz, hau da, neska burugogorraren

patuari lotu zitzaion gizonaz, ezen hozmindurik bezala geratu baitziren familiako sentimenduak, nebaordeenak batez ere. Catherine ez zen aurrerantzean familiarekin onezkoak egiten batere ahalegindu; ez zien idatzi ere egin haien maitasunaren zapuztea ongi ulertzen zuela esateko. Denborarekin, bada, zera pentsatzera iritsi ziren Bostongo lagunarteetan: andereño hari egin zekioken karitaterik handiena andereñoa bera erabat ahaztea zela, eta haren galdukeriak beraren ondorengoengan zenbaterainoko kalteak eragingo zituen asmakerietan ez ibiltzea. Wentworth jaunak ez zuen urteetan ondorengo gazte haiengan —bazuen haien aditzera lauso bat— pentsatzen lanik hartu. Bazituen aurreragoko zereginak etxean, eta, kezka ugari izaten bazuen ere kontzientzian, osaba arduragabe bat izandako arrangurarik ez zuen inoiz izan. Orain, berriz, bi ilobak aurrean agertu zitzaizkionean, berehala konturatu zen oso bestelako eragin eta egoeren fruitu zirela haiek, beraren familiako ondorengoek heldutasun neurri batera iristeko izan zituztenekin konparatuta. Ez zuen esan nahi eragin haiek txarrerako izan zirenik; baina bel-

dur zen, batzuetan, iloba dotore, fin, dama-itxurako hura inoiz gogoko ez ote zuen izango. Zurrundurik eta nahasturik zeukan Eugeniaren arrotasunak. Nolabait esateko, beste hizkuntza bat egiten zuen ilobak. Zer bitxi bat zuten haren hitzek. Iruditzen zitzaion ezen beste edozein gizon, bera zegoen lekuan egonda, baronesaren tonura egokituko zatekeela; baronesari galderak egingo zizkiokeela, eta txantxetan jardungo zuketela elkarrekin; erantzun egingo ziekeela baronesaren zirikadei, nahiz eta haietako batzuk osaba bati zuzentzeko egokiegia ez zirela iruditu. Wentworth jaunak, ordea, ezin zuen hori egin. Ez zen gauza ilobak munduan zer maila zuen neurtzeko ere. Noble atzerritar baten emaztea omen zen, eta senarrak zapuztu egin nahi omen zuen. Gauza bitxia zirudien horrek, baina juzku bat egiteko elementurik gabe sentitzen zen gizona. Eta elementu horiek bere esperientzian aurkitu beharko zituzkeela uste zuen, mundu-gizona eta pertsona ia publikoa izanik, baina ez zituen aurkitzen, eta bere buruari biltegia hutsik zuela aitortzeak —are gehiago Euge-

niari galdera inozoegien bidez hori adierazteak—  
lotsa ematen zion.

Iruditzen zitzaion ezen askoz gehiago hurbil  
zekiokeela —hitz horiek erabiliko zituzkeen  
berak— Felixi, Felix guztiz fidagarria zen ziurta-  
sun osorik ez bazuen ere. Hain zen alaia, itxura  
onekoa eta hiztuna Felix, ezen ezinezkoa baitzen  
hartaz gaizki pentsatzea; eta, hala ere, ematen  
zuen halako lotsagabekeria bat —ia perbertsio  
bat— zukeela —edo izan behar zukeela— hain  
alaia izateaz bat bere buruaz hain ziur zegoen  
mutilak. Esan behar da ezen Felixek, batere  
serioa ez izanagatik, nortasun handiagoa zuela  
—pisu, eduki eta erresonantzia handiagoa  
zuela— argiro serioak ziren hainbat mutilek  
baino. Anomalia horretaz gogoetan ari zen Went-  
worth jauna, eta ilobak, berriz, inolako eragozpe-  
nik gabe miresten zuen osaba. Oso agure senti-  
korra, ezkuzabala eta giza maila handikoa irudi-  
tzen zitzaion, eta haren buru ederra —aszeta  
batenaren gisakoa— marrazteko aukerari heltze-  
ko asmoa zuen. Felixek ez zuen ezkutatu, ezta  
gutxiagorik ere, pintzela manaiatzen zekienik,  
eta antz harrigarriko erretratuak oso modu

onean egiteko prest zegoela jendeari ulertarazten asmatu ez bazuen, errua ez zen berarena bakarrik izan. «Artista bat da, nire lehengusua artista bat da,» zioen Gertrudek; eta entzun nahi zuen guztiari eskaintzen zion informazio hori. Gertrudek bere buruari esaten zion hori, ohar eta oroigarri gisa, nolabait ere. Hutsarteetan, leku bakartietan zegoela, behin eta berriz esaten zion bere buruari Felix dohain sakratu hartaz jantzia zela. Gertrudek ez zuen ordu arte artistarik eza-gutu; irakurri bakarrik egin zituen halako jendea-ri buruzkoak. Jende mota erromantiko eta misterio-ritzat zeuzkan artistak, gainontzekoei inoiz gertatzen ez zitzaizkien gertaera atseginez bete-riko bizitzak zituen jendetzat. Eta Felixek behin eta berriz bera benetako artista ez zela esateak ez zuen balio gogoeta horiek indarberritzeko bestetarako. «Inoiz ez naiz seriooki horretara jarri,» esaten zuen. «Ez dut ikasketarik egin; ez dut trebakuntzarik izan. Denetik egiten dut pixka bat, eta ongi ezer ez. Amateur hutsa naiz.»

Felix artista zela pentsatzea baino ere gogo-koago zuen Gertrudek amateurra zela pentsa-tzea. Amateur hitzak, haren ustez, konnotazio



sotilagoa zuen. Bazekien, ordea, zuhurrago erabili beharreko hitza zela hura. Wentworth jaunak, berriz, noiznahi erabiltzen zuen. Izan ere, hitza oso ondo ezagutzen ez bazuen ere, baliagarria gertatzen zitzaion Felix sailkatzeko, zeren eta Felix, hain mutil buruargia, ekinekoa eta itxuraz errespetagarria izanik, lanbide jakin batera egokitu gabe egotea, bitxitasun gogaikarri bat gertatzen baitzitzaion. Baronesa eta neba—baronesa aipatzen zen beti lehenik—oso gogoko hizpide zituzten, noski, Wentworth jaunak, haren alabek eta haien noizean behingo bisitariek.

«Eta mutilak, zure ilobak, zer lanbide du?» galdetu zion adineko jaun batek —Broderip jaun Salemgoak—, 1809an Harvarden Wentworth jaunaren eskola-laguna izanak, Wentworth jaunak Devonshire Streeten zuen bulegora etorri zenean. (Azken urteetan, astean hiru aldiz bakkarririk joaten zen Wentworth jauna bulegora, non ere tratatu behar izaten baitzituen konfidentzialtasun handiko administrazio arazo franko.)

«Zera, amateurra da,» esan zion Felixen osabak, eskuak elkaturik, eta esan ahal izateak

halako satisfazio bat ematen ziola. Eta burtsako artekaria edo ale-esportatzailea adierazteko «europar» esapideren bat izango zelakoan itzuli zen Broderip jauna Salema.

«Erretratu bat egin nahi nizuke» esan zion Felixek osabari arrats batean denen aurrean, Brand jauna eta Robert Acton ere han zirela. «Bikain geratuko dela uste dut. Oso buru interesgarria duzu, oso erdi arokoa.»

Wentworth jauna serio jarri zen. Lotsagarri sentitu zen, denak sartu eta ispiluaren aurrean harrapatu balute bezala. «Jainkoak egina da,» esan zuen. «Eta ez dut uste gizonak berregiten ibili behar duenik.»

«Jainkoak egina da, bai» erantzun zion Felixek, barrez, «eta oso ondo egina, gainera. Baina bizitzak ere bere ukituak eman dizkio lanari. Oso buru interesgarria da zurea, oso ederki argaldua eta zimeldua, eta azalaren zurbila, paregabea.» Eta beste guztiei begiratu zien Felixek, haien arreta interesgune haietara erakarri nahi balu bezala. Wentworth jauna zurbilagotu egin zen nabarmen. «Prelatu zahar baten gisa irudizkatu

nahi zintuzket, kardinal edo ordena bateko priore gisa.»

«Prelatu edo kardinal gisa?» murmurikatu zuen Wentworth jaunak. «Apaiz katoliko errromatar baten gisa diozu?»

«Zera esan nahi dut, oso bizitza garbi eta aszetikoa eraman duen elizgizon adineko baten gisa. Zu horrelakoa izan zara, nik uste; aurpegian antzematen zaizu,» jarraitu zuen Felixek. «Zu oso, zera..., oso neurtua izan zara. Ez al duzu uste aurpegian antzematen zaiola hori gizonari?»

«Bilatzen hastea pentsatuko nukeen ere baino gauza gehiago ikusten duzu zuk gizonaren aurpegian,» esan zion Wentworth jaunak lehor.

Baronesak abanikoari rasta-rasta eragin eta ohi zuen barre distiratsua egin zuen. «Arrisku-tsua da horren gertutik begiratzea!» esan zuen. «Bekatutxoak ditu osabak kontzientzian!» Wentworth jaunak baronesari begiratu zion, errukarri, zeharo galdurik; eta bizitza garbi eta aszetiko baten seinaleak aurpegian inoiz ageri izan bazituen, orduantxe zituen segurki agerien. «*Un beau vieillard*, horixe zara zu, osaba maitea!»

esan zion Madame Münsterrek, bere begi arrotzak irribarrez zituela.

«Konplimendu bat izango da hori,» esan zion agureak.

«Ez naiz konplimendu bat egin dizun lehen emakumea izango, noski!» erantzun zion baronesak.

«Baietz uste dut,» esan zuen Wentworth jaunak seriooki. Eta Felixengana itzuli eta zera erantsi zuen, tonu berean, «Ez iezadazu, mesedez, erretraturik egin. Seme-alabek badute nire dagerrotipo bat. Nahikoa da hori.»

«Ez dizut agintzen,» esan zion Felixek, «zure burua zerbaitetarako erabiliko ez dudanik!»

Wentworth jaunak Felixi begiratu zion eta beste guztiei gero; eta zutitu eta poliki-poliki alde egin zuen.

«Felix,» esan zion Gertrudek, Wentworth jaunak alde egin ondoren izan zen isilunean, «zuk nire erretratu bat egitea nahi nuke.»

Gertruderen nahi hori bidezkoa ote zen pentsatu zuen Charlottek bere artean, eta Brand jaunari begiratu zion, ziurtabiderik onena hura balu bezala. Zernahi egiten zuela edo esaten zuela

Gertrudek, Charlottek beti Brand jaunari begiratzion. Aitzakia ona izaten zen hori Brand jaunari begiratzeko —Gertruderen onerako beti, Charlotteren ustez—. Egia da ezen Charlotteren nahia Gertrudek arrazoi izatea izaten zela; izan ere, Charlotte, bere era xume apalean, ahizpa heroikoa baitzen.

«Oso poztuko gintuzke zure erretratu bat edukitzeak,» esan zuen Brand jaunak.

«Atsegin handiz pintatuko dut horren modelo xarmagarria,» adierazi zuen Felixek.

«Hain polita zarela uste al duzu?» galdetu zion Lizzie Actonek Gertruderi, bere jarreratxo mokoti gaizgabea, eskuetan zuen puntu-laneko korapilo bati hortzekin tira eginez.

«Ez da polita naizela uste dudalako,» esan zuen Gertrudek, inguruan zituenei begira. «Ez dut uste batere polita naizenik.» Nahita eta zer esaten ari zen ondo baleki bezala mintzo zen, eta Charlotteri oso bitxia iruditu zitzaion ahizpa jendaurrean gai hori aipatzen entzutea. «Pintatzeko jarrita egotea dibertigarria izan behar duela pentsatzen dudalako da. Hala uste izan dut beti.»

«Damu dut, hori baino zer pentsatu hoberik izan ez baduzu, alabatxo,» esan zion Wentworth jaunak.

«Oso polita zara, Gertrude,» adierazi zion Felixek.

«Hori konplimendu bat da,» esan zuen Gertrudek. «Jasotzen ditudan konplimendu guztiak itsulapiko batean sartzen ditut; gora eta behera astindu eta hotsa ateratzen dute. Oraindik ez dago asko: bi edo hiru bakarrik.»

«Ez, ez da konplimendua,» egin zion kontra Felixek. «Ez dizut konplimendu gisa esaten. Hasieran ez nuen uste polita zinenik, baina poliki-poliki polita zarela uste izatera iritsi naiz.»

«Kontuz, gero, ea itsulapikoa lehertzen zaizun orain!» esan zion Lizziek.

«Nire iritziz, erretratu bat egiteko jarrita egoatea alferkeriaren forma askotariko bat baizik ez da,» esan zuen Wentworth jaunak. «Eta lejio dira.»

«Osaba maitea,» esan zion Felixek, «ezin da esan alferkerian dagoenik inori hainbeste lan eragiten diona!»

«Lo dagoela ere pinta daiteke pertsona,» iradoki zuen Brand jaunak, eztabaidarako ekarpen bat egite aldera.

«Bai! Pinta nazazu lo nagoela!» esan zion Gertrudek Felixi, irribarrez. Eta begiak itxi zituen pixka bat. Charlotte ordurako egonezinak airean zegoen, Gertrudek hurrena zer esango edo egingo ote zuen.

Hurrengo egunean hasi zen Gertrude erretraturako jartzen; kanpoan jarri zen, lorioaren iparraldeko aldean. «Esaidazu zer pentsatzen duzun gutaz, nolakoak iruditzen gatzaizkizun,» esan zion Felixi, haren astoaren aurrean eserita zegoela.

«Munduko pertsonarik onenak zaretela iruditzen zait,» erantzun zion Felixek.

«Hori,» jarraitu zuen Gertrudek, «beste zerbait esatetik libratzen zaituelako esaten duzu.»

Mutilak margo-oihalaren gainetik begiratu zion. «Zer esan behar dut, bada? Arrazoi duzu, lanak izango nituzke beste zerbait esaten.»

«Zera,» esan zuen Gertrudek, «ezagutuko zenituen orain baino lehen ere pertsona atseginak, ezta?»

«Horixe ezagutu ditudala, Jainkoari esker-  
rrak!»

«Eta gure aldean oso desberdinak izango  
ziren,» jarraitu zuen Gertrudek.

«Horrek zera erakusten du,» esan zuen Feli-  
xek, «lagunarte on bat izateko mila modu daude-  
la.»

«Gurea lagunarte ona dela uste al duzu?»  
galdetu zion Gertrudek.

«Errege baten dina!»

Gertrude isilik geratu zen tarte batean; gero,  
«Triste egoteko ere mila modu egongo da,» esan  
zuen; «eta guk den-denak baliatzen ditugula iru-  
ditzten zait batzuetan.»

Felix tentetu egin zen bizkor, eskua altxaturik  
zuela. «Mantendu ahal bazenu aurpegi-aire hori  
ordu erdi batez..., nik oihaleratu bitartean!»  
esan zion. «Gutxitan ohi den bezalako edertasu-  
na ageri duzu.»

«Ordu erdi batez eder agertzeko: niri askotxo  
eskatzea da hori,» erantzun zion Gertrudek.

«Boto bat edo promes bat egin ondoren  
damutu eta ondo pentsatzeko denbora hartu



duen neska baten erretratua litzateke,» esan zion Felixek.

«Ez dut egin ez botorik ez promesik,» esan zuen Gertrudek oso serio. «Ez dut zertaz damuturik.»

«Lehengusu maitea, esateko modu bat baino ez zen. Badakit zuen familia ezin hobea dela eta inork ez duela zertaz damuturik.»

«Eta, hala ere, damu gara beti!» esan zion Gertrudek. «Hori esan nahi nuen tristurarena aipatu dudanean. Ondotxo dakizu zuk, ez jakinarena egiten baduzu ere.»

Felixek algara txiki bat egin zuen. «Ordu erdia ia igaro da, eta zu, hala ere, inoiz baino ederrago zaude. Argi ibili behar da zer esaten den, ikusten?»

«Niri,» esan zuen Gertrudek, «edozer gauza esan ahal didazu.»

Artista batek begiratuko zukeen bezala begiratu zion Felixek Gertruderi, eta pixka batean ezer esan gabe jarraitu zuen pintatzen. «Bai, zu desberdina ikusten zaitut aita eta ahizparen aldean, inguruan dituzun pertsona gehienen aldean,» esan zion.

«Nork bere buruaz hori esatea,» jarraitu zuen Gertrudek, «barne-barnean, behintzat, norbera hobea dela esatea bezala da. Eta ni ez naiz besteak baino hobea; askoz okerragoa naiz. Baina berek esaten dute desberdina naizela. Eta ni desberdina izateak atsekabetu egiten ditu.»

«Benetako sentipenak gorde egiten ditudala leporatzen didazunez, onartuko dizut ezen zuen arteko joera, oro har, errazegi atsekabetzekoa dela iruditzen zaidala.»

«Nahiago nuke hori aitari esango bazenio,» esan zion Gertrudek.

«Orduan, agian, gehiago atsekabetuko litzateke!» esan zuen Felixek, barrez.

«Hori ziur! Ez dut uste gu bezalako jenderik ezagutuko zenuenik.»

«Lehengusu maitea, nola dakizu zuk nik zer ezagutu dudan?» galdetu zion Felixek. «Ez dakit nola esan...»

«Gauza asko kontatu ahal zenidake, nahi bazenu. Zuk zu bezalako jendea ezagutu duzu: jende argia, alaia eta dibertitzea atsegin duena. Gu ez gara dibertsio zale.»

«Bai,» esan zuen Felixek, «aitortzen dut aski harritzen nauela horrek. Iruditzen zait ez diozuela bizitzari atera ahal zaion atsegin guztia ateratzen. Ematen du ez duzuela gozatzen... Ez didazu gaizki hartuko hori esatea, ez?» galdetu zion, eten bat eginez.

«Jarrai, mesedez,» esan zuen neskak, erabakiz.

«Nik uste, oso egokiera ona duzue gozatzeko. Baduzue dirua, baduzue askatasuna, eta Europan «posizioa» esaten zaiona. Eta, hala ere, esango litzateke samingarri irizten diozuela bizitzari.»

«Eta alai, atsegin eta zoragarri iritzi behar litzaioke, ezta?» galdetu zion Gertrudek.

«Hala uste dut... modua izanez gero, behintzat. Egia da, bai, horrek egiten duela dena,» erantsi zuen Felixek.

«Badakizu zorigaitz handia dagoela munduan,» esan zion modeloak.

«Zertxobait ikusia naiz horretatik,» jarraitu zuen mutilak. «Baina hori dena beste alde hartan zegoen, itsasoaz haraindi. Hemen ez dut horrelakorik ikusten. Paradisua da hau.»

Gertrudek ez zuen ezer erantzun; jardineko dalia eta andere-mahats zuhaixkei begira geratu zuen, eta Felixek bere lanean jarraitu zuen. ««Dibertitzeko»,» hasi zen azkenean Gertrude, «hau da, bizitza saminez ez hartzeko, gauza txarren bat egin behar al da?»

Felixek algara alai luze bat egin zuen berriro. «Egia esan, ez dut uste. Eta orain emango dizudan arrazoiarengatik, besteak beste: barruak esaten dit jakingo zenukeela nola dibertitu, aukerarik bazenu, baina ez zarela gai gauza txarrik egiteko.»

«Oso gaizki egiten duzu,» esan zion Gertrudek, «inori gauza txarrik egiteko gai ez dela esatea. Hori uste izaten dugunean izaten gara gaitzetik hurbilen.»

«Inoiz baino ederrago zaude,» adierazi zuen Felixek, lekuz kanpo.

Gertrude ohiturik zegoen ordurako Felix horrelakoak esaten entzutera. Jada ez zen hasieran bezala aztoratzen. «Zer egin behar da?» jarraitu zuen. «Festa antolatu? Antzerkera joan? Nobelak irakurri? Berandu oheratu?»

«Nik uste, dibertsioa ez du gauza jakin bat egiteak edo ez egiteak eragiten,» erantzun zion lagunak. «Bizitzari, oro har, nola begiratzen zaion; hor dago giltza.»

«Diziplina gisa; horrela begiratzen zaio hemen. Maiz entzun behar izan dut hori.»

«Beno, hori oso ondo dago. Baina beste era batera ere begira dakioke,» erantsi zuen Felixek; «egokiera gisa ere begira dakioke.»

«Egokiera gisa? Bai,» esan zion Gertrudek. «Askoz atsegin handiagoa aterako litzaioke hartara.»

«Horrekin, hala ere, ez dut hau besterik esan nahi: nik horrela begiratzen diodala, eta horrek ez du asko esaten!» Utziak zituen Felixek paleta eta pintzelak. Atzera okerturik zegoen, besoak gurutzaturik, lanak zer itxura zuen ikusten. «Eta badakizu,» esan zuen, «ni ezer gutxi naiz.»

«Gaitasun handia duzu,» esan zion Gertrudek.

«Ez, ez,» egin zion mutilak kontra, alderdikaririk gabeko tonu alaiez, «Ez dut gaitasun handia. Ez dut dohain aipagarririk. Bestela, antzemango nioke. Ni ezezagun bat izango naiz beti.

Munduak ez du nire entzuterik izango.» Gertrudek sentimentu bitxi batez begiratu zion. Felixek ezaguna eta berak ezezaguna zuen mundu bikain hartan pentsatzen zuen; zenbat eta zer-nolako adimen distiratsuak izango ote ziren mundu hartan, Felixen gaitasunak aintzat hartu gabe pasatu ahal izateko. «Nik esaten dizudana-ri, oro har, ez diozu garrantzi handirik zertan emanik,» jarraitu zuen Felixek, «baina sinetsiezadazu honako hau: izaera alaiko kaskarin bat besterik ez naiz.»

«Kaskarina?» errepikatu zuen Gertrudek.

«Bohemiar-gisako bat naiz ni.»

«Bohemiarra?» Gertrudek ez zuen hitz hori egundaino entzun, geografiazko adieran izan ezik, eta Felixek ematen bide zion esanahi irudizkoa oso ongi ulertu gabe geratu zen. Baina atsegin izan zuen.

Aulkiari atzera eragin eta zutitu egin zen Felix; Gertruderengana hurbildu zen astiro, irribarrez. «Menturazale-moduko bat naiz,» esan zion, goitik begiratzen ziola.

Gertrude ere zutitu egin zen, Felixen irribarreaki irribarrez erantzunez. «Menturazalea?»

errepikatu zuen. «Pozik entzungo nituzke zure abenturak.»

Une batez, eskua hartzera zihoakiola uste izan zuen Gertrudek; baina Felixek, bat-batean, margotzeko jakaren sakeletan sartu zituen eskuak. «Ez dago entzun ezinezkorik,» esan zuen. «Menturazalea izan naiz, baina oso abentura xaloak izan dira nireak. Zoriontsuak izan dira denak; ez dut uste kontatu ezinezkorik bat ere dagoenik. Oso abentura polit eta atseginak izan dira. Pozgarria izango da haiek berriro gogora ekartzea. Eser zaitez berriro, eta kontatzen hasiko naiz,» gehitu zuen berehalaxe, ohi zuen irribarre eraginkor naturalez.

Egun hartan berriro eseri zen Gertrude, eta hurrengo hainbat egunetan ere eseri zen. Felixek, pintzelari eragiten zion bitartean, istorio asko eta asko kontatu zion, eta Gertrudek irrikaz eta txunditurik entzuten zituen. Begiak Felixen ezpainetan jarririk egoten zen, oso serio. Batzuetan, Gertruderen itxura gogoetatsu serioagatik, gogoz kontra zegoela pentsatzen zuen Felixek. Baina Felixek instant batean baizik ez zuen pentsatzen berak sortutako gogaitasunetan. Jarrera

burugabea zatekeen hori, baldin eta adierazten zuen baikortasuna aurreiritzia baino areago itxaropena izan ez balitz. Hizpidetik sahiestea litzateke Felixek kontzientzia ona zuela esatea; izan ere, kontzientziarik onena bere buruari halako erantzuki bat egiten diona baita, eta mutil haren izaera osasuntsu alaia asmo on objektiboetan agortzen zen, asmoen helburua erdiz erdi iristeko zehaztasunarena beste azterketarik egin gabe. Kontatu zion Gertruderi nola Frantzia eta Italia korritu zituen, pintore-zorroa bizkarrean, maiz askotan ostatuko jaunari edo andreari erretratu lausengari bat egin eta harekin ostalaria ordaintzen zuela. Kontatu zion nola biolina jotzen ibili zen musikari talde txiki batean —ez oso ospetsua baina— atzerriko lurraldeetan barrena herriz herri kontzertuak ematen. Kontatu zion antzezle ibiltarien troupe batean aldi baterako apaingarri ere izan zela, entzule frantsesentzat eta alemaniarrentzat, poloniarrentzat eta hungariarrentzat Shakespeare antzezteko lan gaitzerako harturik.

Aldian behingo kontakizun haiek zirauten denboran, Gertrude fantasiako mundu batean



bizi izaten zen. Atalkako eleberri bat irakurtzen ari zela iruditzen zitzaion. Ez zuen halako atsegirik sentitu *Nicholas Nickleby* irakurri zuenez geroztik. Arratsalde batean bere lehengusu Acton andrea —Roberten ama— ikustera joan zen Gertrude; Acton andrea oso gaixo zegoen, etxetik irteten ez zela. Itzulera, bakarrik egin zuen, oinez, landaz landa, sarritan erabiltzen zuten laburbidea hartuta. Felix Bostonera joan zen Gertruderen aitarekin, hirira eramanez nahi izan baitzuen Wentworth jaunak mutila adiskide batzuk bisitatzera: adineko jaun batzuk, Felixen amaz oroitzen zirenak —oroitzen ziren, baina ez zuten inoiz aipatzen—, hiritik etorriak ere bai zenbait, beren emazte agurgarriekin, sagarrondoaren arteko etxetxora begirunea ekartzera, baronesari, zeinak jendetasun apartaz hartu baitzituen bisitariak, berak auzo hartara joateko erabili zuen zalgurdi handi, arin, zaratatsua gogorazten zioten ibilgailuetan. Arratsaldea apaltzen zihoan. Mendebaldeko zeruan Ingalaterra Berriko eguzki-sarreraren koadro bikain bat zegoen, gorri eta zilar-kolorez margotua, zenite-tik zintzilik; eta Gertrudek, bere pentsamendue-

tan murgildurik, zeharkatzen zituen larre isilak, distira argi sotil batek argitzen zituen. Zelai bateko langa zabalduan gizon baten irudia ikusi zuen Gertrudek urrundik. Zain balegokio bezala zegoen gizona, eta, gerturatu zenean, Brand jauna ezagutu zuen. Denboraldi batean ikusi ez balu bezalako irudipena izan zuen; ez zukeen esango zenbat denbora, zeren, bestalde, etxean egon zaharra ere ez zela iruditzen baitzitzaion.

«Zurekin batera itzul naiteke?» galdetu zion Brand jaunak. Eta, nahi bazuen baietz erantzun zionean Gertrudek, milia erdira ikusi eta ezagutu zuela adierazi zion Brand jaunak.

«Oso begi-bista ona duzu!» esan zion Gertrudek.

«Bai, oso begi-bista ona dut, Gertrude andereñoa,» esan zion Brand jaunak. Zerbait esan nahia sumatu zion Gertrudek; baina aspaldidanik zebilen Brand jauna zerbait esan nahian, eta Gertrude ia jarririk zegoen horretara. Orain, orde, sentitu zuen ezen Brand jaunak esan nahi zuen horrek ahalmen indarberritu bat zuela bera gogaitzeko, bera nahastu eta urduritzeko. Tarte batean mutila isilik joan zen Gertruderen alda-

menean, eta geroxeago zera erantsi zuen, «Ez dut inolako trabarik izan niregandik ihesi zabiltzala ikusteko. Baina, hori ikusteko,» jarraitu zuen, «ez da oso begi-bista ona behar.»

«Ez dizut ihesik egin,» esan zion Gertrudek, aurpegira begiratu gabe.

«Uste dut ez zinela ohartu ere egiten ihes egiten zenidala,» erantzun zion Brand jaunak. «Ez zinen konturatzen aurrean nengoenik ere.»

«Orain, behintzat, hemen zaude, Brand jauna!» esan zion Gertrudek, barre labur bat eginenez. «Eta oso ondo konturatzen naiz.»

Mutilak ez zion erantzun. Gertruderen alboan ibiltzen jarraitu zuen, astiro, belarretatik zihoa-zenez. Beste langa batera heldu ziren; hura, ordea, itxita zegoen. Brand jaunak langaren gainean jarri zuen eskua, baina ez zuen zabaltzekorik egin; gelditu eta neskari begira geratu zen. «Ardura handiko zerbait darabilzu; zeure baitan oso murgildurik zabilta,» esan zion.

Gertrudek begiratu egin zion. Brand jauna zurbil zegoela ikusi zuen, eta aztoratuta zegoela iruditu zitzaion. Gertrudek ez zuen ordu arte Brand jauna inoiz aztoratuta ikusi, eta pentsatu

zuen ezen espektakuloa, baldin oso-osorik ematen bazen, ikaragarria izango zela, mingarria ia. «Neure baitan murgildurik? Zer dela eta?» galdetu zion Gertrudek, eta begiak zeru argiztatura itzuli zituen. Errudun eta egonezinak sentitzen zen Gertrude, baina, hala ere, bere buruarekin haserre, hala sentitzeagatik. Brand jauna, ordea, bere begi txiki amultsuekin tinko begira zegokio-la, erdi ahaztuta eduki ondoren berriro ere lausoki agertzen hasi zitzaion obligazio multzo itzel baten irudia zuen.

«Beste ardura batzuk dituzu, beste egiteko batzuk,» jarraitu zuen mutilak. «Ez dakit esan dezakedan beste obligazio batzuk dituzula. Lehengoak ere hor ditugu, Gertrude,» erantsi zuen.

«Mesedez, zabal ezazu langa, Brand jauna,» esan zion Gertrudek; eta koldar eta lotsagabe jokutzen ari balitz bezala sentitu zen hori esatean. Baina Brand jaunak langa zabaldu eta pasatzen utzi zion, eta, bera pasatu eta gero, atzera itxi zuen. Gertrudek jiratzeko denbora izan zuen baino lehen, mutilak besoa luzatu eta eskumuturretik heldu zion.

«Gauza bat esan nahi dizut,» esan zion. Eta Gertrude zera gaineratzeko puntuak egon zen, «Eta badakit zehazki nola esango duzun,» baina eutsi egin zion mihiari.

«Maite zaitut, Gertrude,» esan zion mutilak. «Oso maite zaitut; inoiz baino maiteago zaitut.»

Gertrudek espero zituen hitz berberak esan zituen. Gertrudek entzunak zituen hitz horiek lehenago. Berarentzat ez zuten xarmarik; eta hori harrigarria zela pentsatu izan zuen lehenago ere bere artean. Ustez, hitz zoragarriak ziren horiek edozein emakumerentzat; baina Gertrude-deri hutsak eta mekanikoak iruditzen zitzaizkion. «Nahiago nuke hori ahaztuko bazenu,» adierazi zion Gertrudek.

«Nola ahaztuko dut, bada? Zergatik ahaztu behar dut?» galdetu zion mutilak.

«Ez dizut ezer agindu, ez dizut hitzik eman,» esan zuen Gertrudek mutilari begira, eta aho-tsean dardara txiki bat zuela.

«Zuregan halako eragin bat banuela sinestarazi didazu. Bihotza ireki didazu.»

«Nik ez dizut bihotza ireki, Brand jauna!» esan zuen Gertrudek halako indar batez.

«Orduan ez duzu jokatu nik uste bezain garbi..., denok uste genuen bezain garbi.»

«Ez dakit zer zerikusit duen beste inork honetan!» esan zion neskek.

«Zure aitarenetik eta ahizparenetik diot. Badakizu poz ematen diela kasu egingo didazula pentsatzeak.»

Gertrudek algaratxo bat egin zuen. «Ez die pozik ematen,» esan zuen. «Ezerk ez die pozik ematen. Hemen ez dago inor pozik.»

«Esango nuke zure lehengusua, Young jauna, oso pozik dagoela,» erantzun zion Brand jaunak, tonu apal ia lotsati batean.

«Hainbat hobe berarentzat!» Eta Gertrudek beste algaratxo bat egin zuen.

Mutila begira geratu zitzaion une batean. «Oso aldatuta zaude,» esan zion.

«Poz ematen dit hori entzuteak,» adierazi zuen Gertrudek.

«Niri ez. Aspaldidanik ezagutzen zaitut, eta zinen bezalako atsegin zintudan.»

«Asko eskertzen dizut,» esan zion Gertrudek. «Orain etxera joan behar dut.»

Mutilak, berriz, algaratxo bat egin zuen. «Hara nola ihes egiten didazun, ikusten duzu?»

«Zuk ere ihes egidazu, hortaz,» esan zion neskak.

Brand jauna begira geratu zitzaion berriro; eta gero, oso amultsu, «Ez, ez dizut ihes egingo,» erantzun zion; «baina, oraingo, zure gisara utziko zaitut. Uste dut gogoratuko dituzula — hemendik pixka batera— orain ahazturik dituzun hainbat gauza. Atzera niregana itzuliko zarelakotan nago. Fede handia dut horretan.»

Oso ahots hunkigarria zuen orain Brand jaunak. Erantzuki karga handia zuten haren hitzek, eta Gertrudek ezin erantzun izan zion. Beste aldera jiratu eta han geratu zen Brand jauna, ukondoak langaren gainean jarririk, eguzki-sarrera ederrari begira. Gertrudek hura utzi eta etxerako bidea hartu zuen. Baina hurrengo zelaiaren erdira iritsi zenean, negarrari eman zion bat-batean. Denbora luzean bildutako malakoak zituela pentsatu zuen, eta halako pozkario bat sentitu zuen haiek isurtzean. Berehala lehortu zituen, ordea. Gogortasun puntu bat bazuen

Gertrudek bere baitan, eta handik aurrera ez zuen gehiago negarrik egin.



## 6. atala

Arratsaldean iloba bisitatzera joanda, Wentworth jaunak behin baino gehiagotan topatu zuen Robert Acton baronesaren saloitxoan. Wentworth jauna ez zen horregatik batere higuintzen, ez baitzuen sentitzen bere ahaide gaztearekin Eugeniaren adei ona irabazteko lehiarik. Madame Münsterren osabak iritzirik onenean zeukan Robert Acton, eta familia osoak ere agerminik gabeko estimu handia zion, noski. Harro ziren denak Robertez, baldin eta harro izatea egotz badakieke «merezimenduak norberegatzea» deritzon okerbidean erortzetik libre ohi ziren pertsoneri. Haiek ez ziren inoiz Robert Acton zela-eta burgoitzen, ez hari buruzko gorripamen hutsaletan erortzen; ez zituzten hark esandako gauza argiez ahoak betetzen, ez esku-zabaltasunez egiten zituen ekintzak aipatzen. Horren ordean, Roberten onberatasun neurrigabea zuten halako fede bere hotzean samur bat zeukaten Wentworthtarrek zuzentzat; eta baliteke Roberten ekintzei buruzko iritzirik ez kanpora-

tze horixe izatea zioten estimu handiaren frogarik onena. Ez zuten goratzen gaitzesten zuten baino gehiago, baina isilean hura zuten lagunarte hartako lore. Hura zen familiako mundu-gizona. Txinan izana zen, eta bitxiteria bat ekarri zuen etxera; dirutza egin zuen —edo, hobeto esan, boskoiztu egin zuen lehendik zuen ondasun ez txikia—. Aldi berean ezkongaiia, «moduzkoa» eta umore onekoa izatea —irudimenik lotuena ere erakartzen duen elkarketa— zuen bereizgarri; eta ziurtzat jotzen zen abantaila horiek orain bere «kide»ko neska gazte egokibaten esku jarriko zituela. Ez zen Wentworth jauna —aitatasunari dagozkion betebeharez kanpo— bere buruari inor inoren gainetik jartzea onartuko ziokeen gizona; Robert Acton, hala ere, oso zentzuduntzat zeukan; horretarainokoa makurtzen zitzaion, makurtzekotan ere, bereizkeriaren bihozkadari, zeina gauza likits samarren batetik sortua balitz bezala arbuiatzen baitzuen Wentworth jaunaren izaerak. Acton, izan ere, zentzuduna zen oso —eta zerbait gehiago ere bai—, baina zera ere esan behar da Wentworth jaunaren alde: bere lehentasunen atal

debekatuenean bazuela uste aztarna bat, zeinak barruntarazten baitzion ezen lehengusuak zuen meriturik handiena iritzi funtsgabeei entzungor egiteko —eta dotore egiteko— halako gaitasun inbidiagarri bat zela, abagune arruntek eskatzen dutena baino adore handiagoa —oldar hobea— erakusteko gaitasun bat. Wentworth jauna ez zen arriskatuko Acton heroien ezpalekoa zenik pentsatzera. Erru txikia du, ordea, horretan, Robert bera ere ez baitzen arriskatuko. Zuhurtasun handiz jokatzeko zuen, bai, Actonek gauza guztietan —bere buruaz zuen iritziak hasita—. Bazekien ez zela, inolaz ere, hango zirkuluetan uste zuten bezain mundu-gizona; baina bazekien ere, bestalde, beraren azkartasun naturalaren helmene lagunarte haietan erakutsitako neurrira baino harago iristen zela. Gauzak alderdi umorezkoetik hartu zalea zen Acton, eta konturatu zen ezen jarrera hori erakusteko egokierak maiz izaten zirela lagunarterik txikienetan ere. Eta egokiera horiek osatu zuten denboraldi batean —hau da, zuela urte t'erdia Txinatik itzuli zenez geroztik— jaun horren bizimodu aktiboena, une honetan nagitasunak aski jota ageri bazen ere.

Ezkontzeko, berriz, jarrera ona zuen. Oso gogoko zituen liburuak, eta liburutegi bikaina zuen; Wentworth jaunak baino askoz liburu gehiago, alegia. Oso gogoko zituen marrazki eta margolanak ere, baina aitortu behar da, kritika garaikidearen argi zorrotzetan, ezen haren hormak zenbait maisu-lan alferrek apaintzen zituztela. Ikasketak —eta itxura batean ematen zuen baino ikasketa handiagoak zituen— Harvarden egin zituen. Atsegin zituen lagunarte zaharrak, eta pozgarria zitzaion Bostonerako bidean sarritan zeharkatzen zuen erakunde hartatik hain hurbil bizi izatea. Robert Acton oso interesaturik zegoen Münster baronesaz.

Baronesak irekitasunez hitz egiten zion, edo hori zuen, behintzat, asmoa. «Badakit oso bitxia irudituko zaizula ni munduko bazter aparte honetara bizitzera etorri izana,» esan zion baronesak etxe berrian jarri ondorengo hiru edo lau asteren buruan. «Zer arrazoik bultzatu ote nauen pentsatzen egongo zara. Bada, oso gaizgabeak dira nire arrazoiak.» Ordurako bertakoturik zen baronesa; Bostongo lagunarte onenak egina zion bisita, eta Clifford Wentworthek ere

eraman zuen hainbat aldiz zalgurdiaren paseatze-  
ra.

Robert Acton baronesaren ondoan eserita zegoen, abaniko batekin jolasten; hainbat abaniko zegoen han-hemen baronesaren saloian, kolore desberdinetako xingola luzeak itsatsirik zituztela, eta haietako batekin jolasten zen beti Acton. «Ez, ez zait batere bitxia iruditzen,» esan zuen Actonek astiro, irribarrez, «emakume argi bat Bostonera edo Bostongo aldirietara etortzea; horrek ez du azalpen handirik behar. Oso leku polita da Boston.»

«Kontrakoa esatera behartu nahi banauzu,» esan zion baronesak, «*vous vous y prenez mal*. Aldarteak ematen didanean, gai naiz edozer gauzarekin bat etortzeko. Boston paradisu bat da, eta paradisuaren aldirietan gaude gu.»

«Aldirietan ez baina, paradisuaren erdi-erdian nago ni une honetan,» erantzun zion Actonek, aulkian halako patxada bat hartzen zuela. Ez zuen, hala ere, beti hartzen patxada; eta hartzen zuenetan ere, ez zen egoten ikusarazi nahi izaten zuen bezain lasai. Herabetasunetik babesteko hartzen zuen, hein batean, lasaitasun

itxura hori; eta egoera berean pertsona askori gertatzen zaion bezala, behartu egiten zuen itxura. Erosotasun itxura hori, gainera, estalki bat zuen, dena kontuz aztertu ahal izateko. Interes handia zuen emakume buruargi harenganako, zeinaren buruargitasuna, esaten zuena esaten zuela Actonek, ez baitzen inolaz ere Bostongo estilokoa. Halako pilpira batean zeukan Münster baronesak, jakin-min zehazgabe baten gati-bu. Onartu behar izan zuen Actonek ezen halako emakumerik ez zuela inon ikusi, ezta Txinan ere. Lotsa ematen zion, arrazoi ezkutuak tarteko, sentitzen zuen emozioaren biziak, eta sentimendu hura —gaingiroki— gainditzeko, ikuspegi umorezkoatik hartzen zuen —gaingiroki hori ere— Madame Münster. Ez zen egia Actonek baronesaren erromesaldi deboziozkoari normala irizten zionik. Beste hau ere aurreratu beharko litzateke Actoni buruz: bostondar onegia zela Acton, urruneneko edozein atzerritarrek ere Ingalaterra Berriko metropolia bisitatzeko izan zezakeen desira apertaldizat hartzeko. Desira horrek ez zuen apologiaren beharrik; eta Madame Münsterrrek Ingalaterra Berrian lehengusuak izateko

zoria zuen, gainera. Hala eta guztiz ere, lagunarte txiki hari ondo egokitzen ez zitzaion emakumea zelako harritzen zuen Madame Münsterrek Acton; onenean ere, anomalia atsegin, dotore, liluragarri bat zen hura han. Actonek bazekien ondo ez zegoela Wentworth jaunari gogoeta horiek gordinegi adierazterik; ez ziokeen jaun zaharrari inoiz esango ezen baronesa zertan ote zebilen galdetzen ziola bere buruari. Eta gogo handirik ere ez zuen, egia esan, mesfidantza gisako zer hori inorekin partekatzeko. Plazer personal bat sentitzen zuen horretan: Txinatik etorri zenetik sentitu zuen plazerrik handiena bai, gutxienez. Onerako edo txarrerako, beretzat gorde nahi zuen baronesa; haren monopolioa merezia zuela iruditzen zitzaion, bera izan zelako, zalantzarik gabe, baronesak gizarte-harremanetarako zuen gaitasuna ondoen balioesten jakin zuena. Eta denbora luzea baino lehen ikusi ahal izan zuen ezen monopolio hari eragozpenik jartzeko asmorik ez zuela baronesak.

Egun batean (Acton orduan ere eserita zegoen eta abaniko batekin jolasten ari zen), zera eskatu zion baronesak: aukerarik izaten bazuen,

Bostongo pertsona jakin batzuei desenkusak egin ziezazkiela beraren izenean, bisitarik itzuli ez zielako. «Dozenerdi bat etxe dira,» esan zion; «zerrenda izugarria. Charlotte Wentworthek egin dit zerrenda, izugarri letra argiz. Ez du zalantzarako biderik ematen: oso ondo dakit nora joan behar dudan. Wentworth jaunak kotxea nire esku dagoela esaten dit, eta Charlotte nirekin joateko eskaintzen zait, guante pare estu bat eta azpiko gona harro-harro bat jantzita. Eta, hala ere, hiru egunetan atzeratu dut. Lotsagaldu bat naizela pentsatuko dute.»

«Desenkusak egiteko eskatu didazu,» esan zuen Actonek, «baina ez didazu esan zer aitzakia jarri behar dudan.»

«Dagokidana baino gehiago da hori,» adierazi zion baronesak. «Lore sorta bat erosteko eskatu eta dirua emango banizu bezala litzateke hori. Ez daukat arrazoi berezirik ez joateko, ez baldin bada..., ahalegin handiegia eskatzen didala, nolabait ere. Ez dik gogorik pizten. Aitzakia horrek ez al luke balioko Bostonen? Bostondarrak oso egiazaleak direla esan didate, ez dutela gezurrik esaten. Eta, gainera, Felixek lagundu



beharko lidake, eta hura ez da inoiz prest egoten. Ez dut ikusi ere egiten. Hor dabil beti kanporik kanpo saletxe zaharrak marrazten, edo hamar miliatako ibilaldiak egiten, edo bakarren baten erretratua pintatzen ez bada, urmaelean arraunean edo Gertrude Wentworthekin maitakeriatan.»

«Uste nuen dibertigarria gertatuko zitzaizula nor edo nor ikustera joatea,» esan zion Actonek. «Oso denboraldi lasaia daramazu hemen; oso bizimodu aspergarria da hau zuretzat.»

«A! Lasaitasuna! Lasaitasuna!» esan zuen baronesak. «Hori da nahi dudana. Atsedena. Horregatik etorri naiz hona. Dibertsioa? Izan dut dibertsioa. Eta jendea ikusteari dagokionean, ikusi dut jendea franko neure bizitzan. Desegokia ez balitz, nire desira apala hauxe dela esango nuke: hemengo jendeak bake-bakean utz nazala!»

Acton begira geratu zitzaion une batean, eta baronesak ere begiratu egin zion. Inork begiratzeari oso ondo eramaten zuen emakumea zen baronesa. «Atsedetera etorri zara, hortaz?» galdetu zion Actonek.

«Baietz esan nezake. Etortzeko izan ditudan arrazoiak, arrazoi ez diren horietakoak izan dira asko —ulertzen didazu?— eta, hala ere, berak dira onenak: alde egitea, aldatzea, aurreko guztiarekin haustea. Behin abiatuz gero, norabait heldu behar izaten da, eta pentsatu nuen neure artean ea zergatik ez nintzen, bada, hona helduko.»

«Izango zenuen pentsatzeko denbora, bidean!» esan zion Actonek, barrez.

Madame Münsterrek berriro begiratu zion; eta gero, irribarrez, esan zion «Eta etorrita gero zergatik etorri naizen pentsatzeko ere izan dut, bai, denbora. Baina neure buruari galdera alferrak egiten ez naiz ibiltzen. Hemen nago, eta zuk, berriz, eskerrak eman behar zenizkidake.»

«Alde egin behar duzunean, ikusiko duzu nolako oztopoak jarriko dizkizudan bidean.»

«Niri bidean oztopoak jartzeko asmoa duzu, beraz?» galdetu zion baronesak, gerruntzean zuen arrosa-pipila berregokitzen zuela.

«Eta hauxe denetan handiena: hain atsegin izango nauzula...»

«Ezen ezingo dudala alde egin? Ez zaitez egon horren ziur. Oso pertsona atseginak utzi ditut alde hartan.»

«Bai» esan zion Actonen, «baina hona etortzeko, ordea! Niregana etortzeko!»

«Ez nekien zinenik ere. Barka iezadazu horren zakar esatea, baina, egia esan, ez nekien. Ez,» jarraitu zuen baronesak, «hain zuzen ere, zu —zu bezalako jendea— ez ikusteagatik etorri naiz.»

«Ni bezalako jendea?» esan zuen Actonek.

«Lotura naturalak aurkitzeko halako irrika bat nuen eta banekien hemen aurkituko nituela. Hemen aurkitzeko itxaropena nuen. Hangoak, nolabait esan, lotura artifizialak besterik ez ziren. Ikusten duzu aldea?»

«Nire kaltetan da alde hori,» esan zuen Actonek. «Ni lotura artifiziala izango naiz, hortaz?»

«Konbentzionala,» adierazi zuen baronesak, «oso konbentzionala.»

«Beno, bada modu bat gizon-emakumeen arteko lotura natural bihurtzeko,» esan zion Actonek.

«Elkarren maitale eginda, esan nahi al duzu? Hori, baliteke naturala izatea edo ez izatea. Baina, edozein modutara ere,» jarraitu zuen baronesak, «*nous n'en sommes pas là!*»

Ez zeuden hor, oraindik behintzat. Baina geroxeago, baronesa Actonekin paseatzera irte-ten hasi zenean, hala uste izan zitekeen, itxura batean. Hainbat alditan etorri zitzaion bila Acton, bakarrik, zaldi pare hanka-arin dotore batek tira-tutako orga garaian. Hura desberdina zen Clifford Wentworthekin irtetearen aldean, Clifford baronesaren lehengusua baitzen eta baronesa baino askoz gazteagoa. Pentsaezina zen barone-  
sa Cliffordekin maitakeriatan ibil zitekeenik: Clifford mutiko aurpegi-lotsati bat besterik ez zen, eta Bostongo lagunartearen parte handi batek Lizzie Actoni «ezkon-hitza emanda» zegoela jotzen zuen. Ez zen, noski, baronesak inolako maitakeriatan parte har zezakeenik pentsa zite-keelako, emakume ezkondua zela jakina bai-zen. Jendeak bazekien haren ezkontzak izaera «morganatikoa» zuela; baina horrek ezkon-loka-  
rri erabatekoa baino gutxiago esan nahi zuela pentsatzeari nardagarri iritzita, zerbait gehiago

adierazten zuelako usteen babestu zen komunitatearen kontzientzia.

Actonek nahi zuen ezen baronesak Amerikako ikuspegiak oso iritzi onean eduki zitzala, eta distantzia handiak korritzera eramaten zuen, biderik politenak eta ikuspegi zabalena aukeratu. Kontent egoteak ondu egiten duela egia bada, goiengan behar zuten orduantxe Eugeniaren bertuteek; izan ere, xarmagarria irizten zion lurralde basati hura lasterka zeharkatzeari, eta orobat lagunari, zeinak ibilgailuari noizbehinka pulunpa eragin, enararen hegadarena bezalako mugimendu batez, eta urratu besterik egin gabeko bideetan aurrera barneratzen baitzuen, eta, baronesari iruditzen zitzaionez, beste gauza asko ere egingo baitzioken, eskatuz gero. Batzuetan ez zuten ia etxerik ikusten pare bat ordutan: basoak, ibaiak, eta aintzirak bakarrik, eta mendi argiz apainduriko ostertza. Esan dudan bezala, oso leku basatia eta polita iruditzen zitzaion hura baronesari; baina irudipen hark are biziagotzen zion Mundu Berrira iristean piztu zitzaion aukera zabalagoen sentipena.

Egun batean —arratsalde hondarra zen— ikuspegi zoragarria eskaintzen zuen mendi gailur batean gelditu zituen Actonek zaldiak. Denbora luzean utzi zituen atsedeten, berak, eserita, Madame Münsterrekin hitz egiten zuen bitartean. Ederra zen ikuspegia, nahiz eta begien aurrean giza aztarnarik ageri ez. Basoa eta basoa ikusten zen, ibai baten distira urrunean, eta Massachusettseko mendien erdian tontorren isla. Belarrez estalitako lur zerrenda zabal bat zegoen bidearen ertzean, eta haren beste aldean errekatxo sakon garbi bat; basaloreak ziren belarretan, eta arbola erori baten enborra errekatxoaren ondoan. Actonek itxaron egin zuen pixka batean; azkenean, baserritar oinezko bat agertu zen bidean. Actonek zaldiei eusteko eskatu zion baserritarrari, eta hark zerbitzu hori egin zion, hirikide bati zor zaion adiskidetasunez. Actonek, orduan, jaisten lagundu zion baronesari, eta biak belarretan aurrera paseoan joan eta errekatxo ondoko enborrean eseri ziren.

«Ez dut uste honek Silberstadt gogoraziko dizunik,» esan zion Actonek. Silberstadt aipatzen zion lehen aldia zuen, bere arrazoiak tarteko.

Bazekien ezen baronesak senar bat zuela han, eta hori gogaikarria zen; eta entzuna zuen, gainera, senar horrek baztertu egin nahi zuela, eta egoera horretan gaitzesgarria zatekeen gauza horiei zeharkako aipamen bat egitea ere. Bestalde, egia zen baronesak berak maiz aipatu izan zuela Silberstadt. Eta Actonek askotan pentsatu zuen zergatik utzi nahi ote zuen senarrak. Egoera bitxia andre batentzat, emazte zapuztuarena; eta miresgarria zen nolako grazia eta duintasunez zeraman hori baronesak. Auzi horrek bi alde zituela eman zuen aditzera baronesak, hasiera-hasieratik, eta berari zegokion aldea, ezagutzera ematea erabakitzen zuenean, jakingarria bezain hunkigarria izango zela.

«Hiria, hau da, eskulturaz beteriko gableak eta eliza gotikoak, *Schloss* zoragarria, bere lubanarro eta dorre almenatu, ez dit gogorazten, jakina,» esan zuen baronesak. «Baina badu printzerriko beste alde batzuen antza. Esango litzateke Alemaniako baso bikain antzinako horien artean gaudela, elezaharretako mendi horien artean; Schreckensteingo leihoetatik ere ikuspegi beretsua ikusten da.»

«Zer da Schreckenstein?» galdetu zion Actonek.

«Gaztelu handi bat, Printze Erregeordearen udako egoitza.»

«Bizi izan al zara han?»

«Egon izan naiz,» esan zuen baronesak. Acton isilik geratu zen; aurrean zuen ikuspegi gaztelu gabekoari begira egon zitzaion une batean. «Lehen aldia da Silberstadt buruz galdetzen didazuna,» esan zion baronesak. «Nire ezkontzaren ingurukoak jakin nahiko dituzu; oso gauza bitxia irudituko zaizu, ezta?»

Acton begira geratu zitzaion une batez. «Ez zenuke, ordea, ondo hartuko nik hori esatea!»

«Zuek amerikarrok dituzue manera bitxiak!» adierazi zion baronesak. «Inoiz ez duzue garbi galdetzen; aipatu ezin diren gauza asko dituzuela ematen du.»

«Gizabide handikoak gara amerikarrok,» esan zion Actonek, atzerriko lurretan egon izanak nazio kontzientzia erasana bazion ere, ez baitzuen gogoko inor amerikarrez gaitzesaka entzutea. «Ez gara inoren egitekoetan muturra sartzen ibili zale,» esan zion. «Baina oso pozik



entzungo nituzke zure ezkontzaren ingurukoak. Konta iezadazu nola izan zen.»

«Printzea nitaz maitemindu zen,» erantzun zion baronesak soilki. «Etengabe gorteatzen ninduen. Hasieran ez zuen nirekin ezkondu nahi, ezta gutxiagorik ere. Baina baldintza horietara makurtzeari uko egin nionez, ezkontza eskaini zidan..., ahal zuen heinean. Gaztea nintzen eta, aitortzen dut oso lausengaturik sentitu nintzela. Baina berriz egin behar banu, ez nuke, ez, onartuko.»

«Duela zenbat denbora izan zen hori?» galdetu zion Actonek.

«Bada... duela urte batzuk,» esan zion Eugeniak. «Ez zenioke emakume bati datarik galdetu behar.»

«Uste nuen emakumea historia kontatzen ari bazen, bada...» erantzun zion Actonek. «Eta orain ezkontza hautsi nahi du?»

«Politikari komeni zaion ezkontza bat egina-razi nahi diote. Haren anaiaren ideia da. Oso argia da haren anaia.»

«Ez da nolana hiko pareta izango!» esan zion Robert Actonek.

Baronesak sorbaldak jaso zituen, filosofiaz. «*Que voulez- vous!* Printzeak dira. Beren ustez, oso trataera ona ematen didate. Silberstadt estatu txiki despotiko hutsa da, eta Printze Erregeordeak luma zirriborro batez ezkontza balio-gabetzeko ahalmena du. Baina, nolana ere, nire oniritzi formalik gabe ez duela balio-gabetuko agindu dit.»

«Eta zuk uko egin diozu oniritzia emateari?»

«Orain artekoan bai. Zitalkeria da, eta, besterik ez bada, zailtasunak jarri nahi izan dizkiet. Baina idazmahaian dudan agiritxoa sinatu eta Printzeari bidaltzea besterik ez dut.»

«Eta, hala, dena amaituko litzateke?»

Baronesak eskua jaso eta berriro erortzen utzi zuen. «Titulua mantenduko nuke, hori bai; nahi izanez gero, behintzat, horretarako askatasuna izango nuke. Eta mantendu egingo dudala uste dut. Izen bat beharrezkoa da. Eta pentsioa ere geratuko litzaidake. Oso pentsio txikia da: mixeria; baina horrekin bizi naiz.»

«Eta paper hori sinatzea besterik ez duzu?» galdetu zion Actonek.

Baronesa begira geratu zitzaion pixka batean. «Presazkoa iruditzen al zaizu?»

Acton altxatu egin zen astiro, eta eskuak sakelean zituela geratu zen zutik. «Zer irabazten duzu ez sinatuta?»

«Atera dezakedan laka hauxe da: erabakia luzatzen utzi edo atzeratzen badut, Printzea niregana itzul daitekeela, anaiari buru egin die-zaiokeela, alegia. Maitasun handia dit, eta anaiak poliki-poliki baizik ez du urrundu ahal izan.»

«Eta zuregana itzuliko balitz,» esan zion Actonek, «zuk... onartuko zenuke berriro?»

Baronesak Actonen begiradari eutsi zion; pixka bat bakarrik gorritu zen. Hurrena, zutitu egin zen. «Zera esateko satisfazioa izango nuke, «orain nire txanda da, eta Berori den Jaun Goren Narearekikoak haustera noa!»»

Zalgurdi aldera abiatu ziren. «Istorio bitxia da!» esan zuen Actonek, «Nola ezagutu zenuen printzea?»

«Andre zahar batekin —kondesa zahar batekin— bizi nintzen Dresdenen. Aitaren lagun izana zen andre hori. Aita ordurako hila zen eta oso

bakarrik nengoen. Neba mundua korritzen zebilen antzerki troupe batekin.»

«Nebak gelditu behar zuen zurekin,» adierazi zion Actonek, «printzeei gogo ematetik zain zintzan.»

Baronesa isilik geratu zen pixka batean, eta gero, «Ahal zuena egin zuen,» esan zuen. «Dirua bidaltzen zidan. Kondesa zaharrak aurrera eragiten zion printzeari; ia presionatu egiten zuen. Egoera nolakoa zen kontuan izanik, oso ondo jokatu nuela uste dut,» erantsi zuen Madame Münsterrek emeki.

Actonek begiratu egin zion, eta konturatu zen —lehenago ere konturatu izan zen— emakumeak politagoa ematen duela bere hutsegite eta atsekabeak kanporatu dituenean. «Bada,» pentsatu zuen ozenki, «pozik ikusiko nuke nola bidaltzen duzun Jaun Goren Narea... nora edo hara!»

Gelditu eta bitxilore bat hartu zuen Madame Münsterrek belarretatik. «Eta uko-agiria sinatu ez?»

«Bada, ez dakit, ez dakit,» esan zuen Actonek.

«Era batera mendekua lortuko nuke; beste erara, berriz, askatasuna.»

Actonek barre txiki bat egin zuen zalgurdira igotzen laguntzen zion bitartean. «Nolanahi ere,» esan zuen, «ondo zaindu paper hori.»

Handik egun pare batera etxea ikustera gonbidatu zuen Actonek baronesa. Egina zion proposamena lehenago, baina amaren gaixotasuna zela-eta atzeratu zen bisita. Actonen ama bakkarik baliatzen ez zela zegoen, eta azken urteak logelako leiho ondoan igaro zituen, eraman handiz, besaulki lore handidun batean. Aurreko egun batzuetan inor errezibitzeko gauza ez zela egon zen; orain, ordea, hobeto zegoen eta oso mezu gizabidetsua bidali zion baronesari. Bisitaria afaltzera joatea nahiko zukeen Actonek, baina Madame Münsterrek nahiago izan zuen bisita soil batez hastea. Afaltzera joaten bazen, Wentworth jauna eta alabak ere gonbidatuko zituztela pentsatu zuen baronesak, eta iruditu zitzaion ezen okasioaren izaera berezia hobeto gordeko zela anfitrioiarekin *tête-a-tête* izanda. Okasioa zergatik zatekeen berezia, ez zion inori adierazi. Denek ikusi ahal izan zuten, oso era atsegi-

nean igaro zen. Zalgurdiz bila joan eta baronesa ateraino ekartzea Actonek laster batean burutu zuen eginkizuna izan zen. Actonen etxea oso ona zela pentsatu zuen baronesak bere artean; pentsamendua hitzetan ematerakoan, berriz, etxe liluragarria zela adierazi zuen. Etxe handi, karra-tu, marroiz pintatu bat zen; zuhaixka oso ondo zainduak zituen inguruan, eta bide labur bat jardineko atetik bertaraino. Gainera, Wentworth jaunarena baino askoz bizileku modernoagoa zen, eta premiazkoak baino osagai gehiagorekin jantzia eta garestiago apaindua. Antzeman zion baronesak ezen anfitrioi zuenak oso dotoretasun puntu egokira ekarria zuela erosotasun materiala. Bazituen, gainera, *chinoiserie* direlako bitxi xarmagarriak —Inperio Zerutarrean eginiko egonalditik ekarritako trofeoak—: ebanozko pagodak eta bolizko kutxak; munstro-eskulturak, txi-minia-apaletan irri eta imintzio, marrazki zoragarriko esku-babeski batzuen aurrean; portzelanazko baxerak, kaobazko arasen kristalezko ate barruetan diz-diz; babeskiak, izkinetan, seda tenkatuz estaliak eta mandarinak eta herensugeak bordaturik zituztela. Etxe guztian barreia-

turik zeuden gauza horiek, eta etxe osoa ikusteko aitzakia eman zioten Eugeniari. Gogoko izan zuen Eugeniak etxea; oso etxe atsegin eta polita iruditu zitzaion. Etxe-giroa eta irekitasuna, biak zituen etxe hark, eta ia museo bat bazen ere, hango gela zabal, gutxi erabiliak esnetegi ondo gobernatu bat bezain garbi eta txukun zeuden. Lizzie Actonek esan zion ezen berak bere eskuz kentzen ziela egunero hautsa pagoda eta gaine-rako bitxiei; eta baronesak erantzun zion ikusten zela etxeko maitagarri bat zela. Lizziek ez zuen, inondik ere, hautsak kentzen aritzen zen andereño baten itxurarik. Hain soineko politikak erabiltzen zituen eta hain esku finak zituen, ezen nekez uste izango zen hura lan zakarretan aritzen zenik. Baronesa heldu zenean, irten, irten zitzaion errezibitzera, baina ez zion ezer, edo ia ezer, esan, eta baronesak berriz ere pentsatu zuen —lehenago ere izan zuen horretarako aukera— neska amerikarrek ez zutela gizabiderik. Baronesak ez zuen neskatila amerikar hura gogoko, eta prest zegoen Acton andereñoaren onespina lortzen huts egin zuela onartzeko. Lizzieren jarrera baikor eta irekia ia ozarkeria irudi-

tzen zitzaion; eta etxeko lanetarako zaletasuna-  
rekin batera Parisko estiloko azken soinekoak  
erabiltzeko zaletasuna izateak —zaletasun  
uztargaitzak, itxuraz—, indar arriskutsu baten  
jabe zela iradokitzen zuen. Baronesari amorrua  
ematen zion neska koxkor bat hutsaren hurren-  
goa ala haragokoa zen arduratzen ibili beharrak  
—herrialde hartan gertatzen bide zen bezala—,  
zeren Eugeniak ez baitzuen inoiz presio moralik  
izan dontzeila koxkorrak juzkatzeko orduan. Liz-  
zieren ozarkeriaren seinale izango zen, beharba-  
da, Lizzie bera oso azkar erretiratu izana, baro-  
nesa nebaren eskuetan utzirik. Acton luze aritu  
zen bere *chinoiserie*s haiei buruz hizketan; asko  
zekien portzelana eta bitxien gainean. Barone-  
sak, etxean batera eta bestera zebilela, geldialdi  
ugari egin zuen. Alde guztietan eseri zen, neka-  
tuxe zegoela esanda, eta objektu baten eta bes-  
tearen galde egin zuen, aditasunaren eta arreta  
faltaren arteko nahasketa bitxi bat erakusten  
zuela. Nori esana izan balu, anfitrioiak maitemin-  
durik zegoela aitortuko zukeen; nekez egingo  
ziokeen, ordea, aitorten hori —nahiz konfiden-  
tzialtasun osoz izan— Actoni berari. Dena den,



gauza bakanen xarma bezain atsegingarria gertatu zitzaion sentitzea —gauzak sentitzeko zuen zolitasun miresgarri harekin— ezen Actonen jarrera lazgunerik gabekoa zela, haren ironiaren ezten umoretsua ere jomuga iristerako leuntzen zela. Actonen prestutasunak sortzen zuen sentipena lore sorta bat eskuan eramateak sortzen duenaren antzekoa zen: oso atsegina perfumea, baina loreak berak gogaikarriak batzuetan. Konfiantza osoa izan zitekeen Actonengan, nonahi eta beti; eta, hala ere, Acton ez zen guztiz sinplea; gehiegi zatekeen hori; aldez bakarrik zen sinplea, eta hori nahikoa zuen baronesak.

Lizzie etorri zen berriro, ama Madame Münster hartzeko prest zegoela esatera, eta baronesak Acton andrearen geletara jarraitu zion. Lizziaren atzetik zihoala, pentsatu zuen ezen andereño hura begitan hartzera bultzatu zuen arrazoia ez zela haren jarrera ozarra izan, arlo horretan erraz irabaziko baitzioken. Neskatilaren aldetik ez zegoen lehiarako grinarik, konparaketaren ondorioz sortutako burlazko ume-laineza axolagabe bat baizik. Acton andrea berrogeita hamabost urteko emakume argaldu aurpegi-

gogo bat zen. Burukoak euskarri zituela eseririk, kanpoko astaperrexil sail bati begira zegoen. Oso apala, oso herabea, eta oso ezindua zen; Eugenia poztu egin zen bera horrelakoa ez zelako —ez horren ezindua, ez, segurki, horren apala—. Aulki batean, Acton andrearen ondoan, Emersonen Saiakerak ageri ziren. Gertaera gogoangarria zen Acton andrearentzat, zegoen egoera errukarrian egonda, aurrez aurre dama atzerritar argi bat izatea, zeinak manera hobeak baitzituen berak inoiz ezagutu zuen edozein andrekin baino —baita dozena oso bat andrekin ere baino.

«Asko hitz egin didate zutaz,» esan zion emeki baronesari.

«Semeak, ezta?» galdetu zion Eugeniak. «Niri ere ikaragarri hitz egin dit zutaz. Eta zuk nahi izango zenukeen moduan hitz egin ere!» adierazi zion baronesak; «halako semeak honelako amaz hitz egin behar duen bezala!»

Acton andrea begira-begira zegokion; Madame Münsterren «maneren» erakustaldi bat zen hura. Baina begira-begira zegokion Robert Acton ere, bere gonbidatu distiratsuari amaren aipurik

apenas egin ziola ondo asko konturaturik. Robertek ez zuen amaren presentzia geldi hartaz inoiz hitz egiten. Hain zen presentzia xehe eta sotila, ezen, Roberten baitan, esker oneko emozio subjektibo huts gisa adierazten baitzen. Eta Actonek gutxitan hitz egiten zuen bere emozioez. Baronesak Actonengana itzuli zuen bere irribarrea, eta berehalaxe konturatu zen gezurtxoak esaten harrapatu zutela; behaztopa egin zuela. Baina zer jende zen hura, horrelako gezurtxoak atsegin ez izateko? Haiek biguindurik bazeuden, beste hainbeste gertatzen zitzaion baronesari ere; eta kortesiazko galdera batzuk eta ahapekako erantzun batzuk trukatu ondoren, agur esan zion Acton andreari. Etxera lagundu beharrik ez ziola esan zion Roberti; bakarrik igoko zela kotxera; nahiago zuela hala. Erabaki sendoa zen, eta Acton desengainaturik geratu zela iruditu zitzaion. Actonekin ate aurrean zain zegoela — kotxea buelta hartzen ari zen harkoskorrezko ibilbidean— lasaitasuna bihurtu zion pentsamendu horrek.

Agurtzeko esku ematean, baronesak Actonengana jaso zituen une batez begiak. «la erabakita nago paper hori bidaltzera,» esan zion.

Konturatu zen Acton ezen baronesa bere ukoa deitzen zion agiriaz ari zela; eta kotxera lagundu zion ezer esan gabe. Baina kotxea abia-tzera zihoala, esan zion, «Bada, bidaltzen duzunean, espero dut jakinaraziko didazula!»

## 7. atala

Gertruderen erretratua amaitu eta gero, Felixek —ordurako zirkulu hartako kontza eta ardatz bihurturik— lagunarte hartako beste kide askoren irudiak eraman zituen margo-oihalera. Aitor-tu behar da erretratuak nabarmen itxuratzen zituen pintorea zela Felix, eta modeloei halako xarma erromantiko bat eransten ziela, zeina, ematen zuenez, merke eta eroso eskuratutzat jotzen baitzen, «jarrita egotea» hain entretenigarri egiten zuen mutil gazteari ehun dolar ordainduta. Felixi, izan ere, ordaindu egiten zitzaizkion erretratuak, ez baitzuen ezkutatu, ezta gutxiagorik ere, jakin-min maitatiari esku emanda joan zela, mendebaldeko mundurako pausoak eman zituenean, egoera hobetzeko desira ere. Osabaren erretratua Wentworth jaunak esperimentu hartarako inoiz eragozpenik jarri izan ez balio bezala egin zuen; eta xedea burutu ahal izateko bortxa leun bat erabili behar izan zuenez, bidezkoa da esatea ezen ez ziola agureari denbora besterik eskatu. Udako goiz

batean, hartu zuen Wentworth jauna besotik — gutxi ziren, gutxi zirenez, Wentworth jauna besotik hartutakoak— eta jardinetik zehar bidean aurrera eraman zuen gizona, sagarrondoan arteko etxetxoan presaka batean antolaturik zuen estudiora. Jaun bena gero eta txundituago zegoen bere iloba bizkorrarekin, haren gaztetasun gordin irekiak esperientzia kopuru harrigarri baten laburbilduma baitzirudien. Iruditzen zitzaion Felixek asko jakin behar zuela; pozik jakingo zukeen zer pentsatzen ote zuen Felixek berak, elkarrizketetan beti oso formalki erabili bai baina, gutxi ezagutzen zituen zenbait gauzaz. Giza ekintzak uste osoz, zorrotz baina alaiki juzkatzeko Felixek zuen moldeari inbidiagarri iriztera iritsi zen pixkanaka-pixkanaka Wentworth jauna; kritika egitea gauza erraza zela ematen zuen hala. Iritzi bat egitea —inoren jokabideaz, esate baterako— giltza bat ahal-iritzian hartu eta harekin sarrailan haztamuka ibiltzearen oso antzekoa gertatzen zitzaion Wentworth jaunari. Eskukada bat erreminta alfer gerritik zintzilik ipinita lebilkeenaren itxura hartzen zion Wentworth jaunak bere buruari. Ilobak, aitzitik,

eskumuturrari behin bakarrik eraginda, etxelapur batek bezain abilki irekitzen zituen ate guztiak. Osaba bat beti iloba baino zuhurragoa den konbentzioari eusteko obligazioa sentitzen zuen Wentworth jaunak, Felixen hizketa bizkor arin etengabea isilik eta serio entzunez beste inola ez bazen ere. Baina iritsi zen egun bat, tinkotasuna alde batera utzi eta ilobari ia aholku eskatu ziona.

«Erabili al duzu inoiz buruan Estatu Batuetan finkatzeko ideia?» galdetu zion goiz batean, Felix pintzelari dotore asko eragiten ari zela.

«Osaba maitea,» esan zion Felixek, «barkatuko didazu zure galderak irribarretxo bat eragiten badit. Hasteko, nik ez dut buruan ideiarik erabiltzen. Ideiek erabiltzen naute ni sarritan. Baina plan seriozik, ez dut, nik uste, inoiz egin. Badakit zer esango duzun, edo, hobeto esan, zer pentsatuko duzun, ez baitut uste esango duzunik: oso arina eta burugabea naizela. Eta hala da; baina horrela nago egina; datozen bezala hartzen ditut nik gauzak, eta, gauza baten ondoren, nola edo hala, beti sortzen da beste zerbait. Bigarrenik, ez dut finkatzeko planik egiten. Ezin naiz finkatu,

osaba maitea. Ez naiz finkatzen direnetakoa. Badakit hori egiten dutela atzerritarrek hemen; finkatu egiten direla denak. Baina —zure galderari erantzuteko— ez dut, ez, ideia hori buruan erabili.»

«Europara itzuli eta berriro lehengo bizimodu araugabeari ekiteko asmoa al duzu?» galdetu zion Wentworth jaunak.

«Asmoa dudarik ezin dut esan. Baina oso litekeena da berriro Europara itzultzea. Europarra naiz, azken finean. Europar sentitzen naiz, horra. Arrebak izango du zeresan handia horretan. Ni baino ere europarragoa da bera; bera hemen, zera, bere markotik ateratako irudi bat baino ez da. Eta «berriro ekiteari» dagokionean, osaba maitea, bizimodu araugabeari ez diot, egia esan, inoiz utzi. Zer da, bada, niretzat, hau baino araugabeagorik?»

«Hau araugabea? Zer, gero?» galdetu zion Wentworth jaunak, aurpegi serio zurbilaz.

«Bada, hau dena! Zuen artean honela bizitzea; familiarteko bizimodu serio lasai xarmagarrri hau egitea; Charlotte eta Gertruderen lagun izatea; hogei andereñoengana bisitan joan eta



haiekin paseatzera irtetea; arratsean zuekin lorioan eseri eta kilkerrak entzutea, eta hamarrak puntuan oheratzea.»

«Oso deskribapen bizia egin duzu,» esan zion Wentworth jaunak; «baina deskribatu duzun horretan ez dut gauza desegokirik ikusten.»

«Ezta nik ere, osaba maitea. Oso atsegina da dena. Desegokia balitz ez nuke atsegin izango. Benetan diozut, gauza desegokiak ez ditut atsegin, zuk besterik uste duzula iruditzen bazait ere,» jarraitu zuen Felixek, pintatzeari utzi gabe.

«Ez dizut horrelakorik inoiz leporatu.»

«Ez iezadazu lepora, mesedez,» esan zion Felixek; «filistindar zakar bat naiz-eta funtsean.»

«Filistindarra?» errepikatu zuen Wentworth jaunak.

«Zera, Jainkoaren beldur den gizon arrunt bat, nolabait esateko.» Wentworth jauna uzkur geratu zitzaion begira, jakintsu harritu bat bezala, eta Felixek jarraitu zuen, «Zahartzaro errespetagarri eta errespetatu bat izatea espero dut. Luzaroan bizi izatea, alegia. Horri egitasmo deitzea, gehitxo izango da beharbada, baina desira

bizi bat da: arrosa-koloreko ikuspen bat. Agure alai bat izango naiz, are kaskarina agian!»

«Naturala da,» esan zion osabak esaeratsu «bizitza atsegin bat luzatu nahi izatea. Badirudi halako prestasun falta geurekoi bat dugula geure plazerrei azkena emateko. Baina ezkontzeko asmoa,» erantsi zuen, «izango duzu, ezta?»

«Hori ere, osaba maitea, itxaropen bat da, desira bat, ikuspen bat,» esan zion Felixek. Hizketa hura Wentworth jaunaren alaba maitagarrietako baten esku-eskaintzarako aitzinsolas izan zitekeela otu zitzaion une batean. Baina behar den apaltasunaren izenean eta mundu honetako errealitate gogorren jakitun, Felixek urrundu egin zuen pentsamendu hura. Ontasun haragi egina zen osaba, bai; baina hortik, andereño bat, pentsa zitekeenez ezkonsari bikaina izango zuena, eta artista sosgabe bat, ospe-itxaropenik gabea, elkartzea pentsatzera —are gehiago eskatzera— oso bide luzea zegoen. Konturaturik zen Felix ezen azkenaldi honetan askoz ere nahiago zuela Gertrude Wentworthen lagunartea —beste inorekin partekatu gabe, ahal iza-

nez gero—; baina gauza eskurazinen kategoria urrun bezain distiratsura alboraturik zeukan, oraingo, andereño hura. Ez zen Gertrude Felixek mirespen alferra izan zion lehen emakumea. Maitemindu izan zen dukesez eta kondesez, eta egin zuen, behin edo bitan, zinismora gerturatze arriskutsu bat, emakumeen interesgabetasuna soberetsi egin zela esatean. Eskuarki, apaltasunaren bidez leundu zuen ausardia; eta bidezkoa da eta garbi esan behar da ezen Felix ez zatekeela gai izango, orain eskaintzen zitzaion familiarterako konfiantza handiaz baliaturik, bere bi lehengusu politetan gazteena gorteatzeko. Tradizio artean hazia zen Felix, eta tradizio haien argitan, abegi onaren kontrako hutsegite larria zatekeen halako jokabidea. Beti zoriontsu zela esan dut, eta haren oraingo zorionaren arrazoietako bat hauxe zen: Gertruderekiko harremani zegokienean, oso kontzientzia ona izatea. Bertutearen edertasunez jantzia —eta edertasun forma hori ere beste guztiak miresten zituen bezainbat miresten zuen— ikusten zuen Felixek bere jokabidea.

«Ezkontzeak, nik uste,» esan zion hurrena Wentworth jaunak, «zoriona ekarriko lizuke.»

«*Sicurissimo!*» esan zion Felixek; eta gero, pintzela gelditu eta irribarrez begiratu zion osabari. «Zuri gauza bat esatera tentatuta nago. Arriskatuko naiz?»

Wentworth jauna tentetu egin zen pixka bat. «Fidatzekoa naiz. Ez naiz kontuak zabaltzen ibiltzen.» Hala ere, nahiago zukeen Felixek gehiegi arriskatuko ez balu.

Osabaren erantzunari barrez zegoen Felix. «Harrigarria gertatzen zait zu niri zoriontsu nola izan esaten entzutea. Uste dut zerorrek ez daki-zula, osaba maitea. Gogorregi ari ote naiz?»

Agurea isilik geratu zen une batean, eta gero, iloba hunkitu zuen duintasun lehor batez esan zuen, «Gerta dakiguke, batzuetan, geuk ibili ezin dugun bidea inori erakustea.»

«Tira, ezin esango didazu nahigabeak izan dituzunik,» jarraitu zuen Felixek. «Ez nuen uste, eta ez nuen horrelakorik aipatzeko asmorik. Hauxe besterik ez nuen esan nahi, ez zaretela dibertitzen.»

«Dibertitu? Ez gara umeak.»

«Ez, bada. Adin egokia duzue. Hori esaten nion lehengoan Gertruderi,» gehitu zuen Felixek. «Ez ahal nuen gaizki egingo!»

«Eta egin bazenuen,» esan zion Wentworth jaunak, Felixek harengandik uste izango zuen baino ironia finagoz, «zure dibertitzeko modua zelako egingo zenuen, eta kito. Zuk, antza, ez duzu inoiz arazorik izan.»

«Bai, bai, izan ditut!» adierazi zuen Felixek, halako indar batez. «Eskarmentua hartu aurretik. Baina ez naute berriro harrapatuko!»

Wentworth jaunak isilune bat egin zuen, barru-barrutik irtendako hasperen bat baino adierazgarriagoa. «Zuk ez duzu seme-alabarik,» esan zion azkenean.

«Ezin esango didazu,» esan zion Felixek, «zure seme-alaba xarmagarri horiek atsekabe-iturri zaizkizunik!»

«Ez dut Charlotterengatik esaten.» Eta ete-naldi bat egin eta gero, Wentworth jaunak jarraitu zuen, «Ezta Gertruderengatik ere. Baina nahiko kezkatu nauka Cliffordek. Kontatuko dizut hurrengo batean.»

Felixa eserialdi bat eskaini zion hurrengo aldian, konfiantzarako bidea eman ziola gogoratu zion ilobak. «Zer moduz Clifford?» galdetu zion Felixek. «Oso mutil isila iruditu zait beti. Isilegia ere bai, aukeran; nireganako goganberez bezala ikusten dut, pertsona arintzat hartuko banindu bezala. Lehengoan arrebari esan omen zion —hala esan zidan Gertrudek— nik barre egiten diodala. Barre egiten badiot, konfiantza eman nahiak eraginda egiten diot. Ez dut beste biderik ezagutzen.»

«Clifforden egoera ez da barre egitekoa,» esan zion Wentworth jaunak. «Oso egoera berezia baizik, honezkero igarriko zenion bezala.»

«Lehengusuarekin duen maitasun aferagatik al diozu?»

Wentworth jaunak tinko begiratu zion, pixka bat gorritzen zela. «Unibertsitatera joaten ez dela dagoelako esaten dut. Bidali egin dute aldi baterako. Horretaz ez hitz egitea erabaki dugu, zuzenean galdetzen ez badigute.»

«Bidali egin dutela?» errepikatu zuen Felixek.

«Sei hilabeterako alde egiteko eskatu zioten Harvardgo agintariek. Bitartean, Brand jaunare-

kin ari da ikasten. Brand jaunak lagunduko diola-koan gaude; hala espero dugu, behintzat.»

«Zer gertatu zitzaion unibertsitatean?» galdetu zion Felixek. «Plazerretarako zaletasun handiegia? Brand jaunak ez dizkio, ez, sekretu horiek erakutsiko!»

«Zaletu behar ez zuenaz zaletu zen gehiegi. Plazertzat jotzen dena dela uste dut, bai.»

Felixek bere barre alaia egin zuen. «Osaba maitea, plazer bat zela nola duda egin? *C'est de son âge*, Frantzian esaten duten bezala.»

«Nik, aitzitik, bizitzan beranduagoko bizioa dela esango nukeen, zahartzaro desengainatu batekoa.»

Felixek begi-kolpe bat zuzendu zion osabari, bekainak jasota, eta gero «Zertaz ari zara?» galdetu zion, irribarrez.

«Clifford aurkitu zuten egoeran egoteaz.»

«A! Aurkitu egin zuten, beraz? Harrapatu?»

«Nahitaez harrapatu behar. Ezin ibili zen eta, balantzaka.»

«A!» esan zuen Felixek, «edan egiten du! Hartu nuen zerbaiten susmoa, hona etorri nintzen lehen egunean. Guztiz bat nator zurekin:

arrunkeria da hori. Hori ez da jaun batentzako bizioa. Utzi egin behar dio.»

«Itxaropen handia dugu Brand jaunaren eraginean,» jarraitu zuen Wentworth jaunak. «Hasiera-hasieratik hitz egin dio. Eta Brand jaunak berak ez du tantarik probatzen.»

«Hitz egingo dut Cliffordekin; hitz egingo dut berarekin!» esan zuen Felixek alaikiro.

«Eta zer esan behar diozu?» galdetu zion osabak, zertxobait goganbeharturik.

Felixek ez zion pixka batean erantzun. «Clifford bere lehengusuarekin ezkontzeko asmotan al zabiltza?» galdetu zion azkenean.

«Lehengusuarekin ezkondu?» egin zuen Wentworth jaunak oihartzun. «Ez zait bururatu Lizziek Cliffordekin ezkondu nahiko lukeenik.»

«Ez zaudete, hortaz, Acton andrea eta biok elkar hartuta?»

Wentworth jauna begira geratu zitzaion, begirada ia galdurik bezala. «Ez dut andre harekin horrelako gairik inoiz aipatu.»

«Bada, garaia litzateke, nik uste,» esan zion Felixek. «Lizzie Acton oso polita da, eta Clifford arriskuan badago...»



«Ez daude hitz emanda,» esan zuen Wentworth jaunak. «Hitz emanda daudela uste izateko arrazoirik, behintzat, ez dut.»

«*Par exemple!*» esan zuen Felixek. «Ezkutuko hitz-emate bat? Ez, ez; egidazu kasu: Clifford, esaten dizudan bezala, mutil xarmagarria da. Ez luke horrelakorik egingo. Lizzie Acton, hortaz, ez litzateke beste emakume bategatik jeloskortuko.»

«Ez ahal dela jeloskortuko espero dut!» esan zuen agureak, jelsia likorea maite izatea baino ere bizio makurragoa den irudipen lauso batez.

«Cliffordek, hortaz, zera du onena,» proposatu zion Felixek, «gogoia emakume argi xarmant batengan jartzea.» Eta pintatzeari utzi eta, ukondoak belaunetan jarririk, adierazi nahi alai batez begiratu zion osabari. «Begira, nik uste handia dut emakumeen eraginean. Emakumeekin bizitzeak jaun egiten laguntzen dio gizonari. Bai, Cliffordek baditu arrebak, bai, eta xarmagarriak oso. Baina neba-arreben arteko sentimendua ez, beste zerbait behar da horretan. Ulertzen duzu? Lizzie Acton hor du, baina Lizzie, agian, ez da behar bezain heldua.»

«Uste dut hitz egin duela Cliffordekin, aritu zaiola arrazoiak ematen,» esan zion Wentworth jaunak.

«Mozkortzearen itsuskeriaz? Neurritasunaren ederraz? Lan gogorra da hori andereño polit batentzat. Ez,» jarraitu zuen Felixek, «Cliffordek emakume atsegin bat ikusi behar luke sarritan, gai mingarri horiek aipatu ere egin gabe, edanda egotea zentzugabekeria handia dela ikusaraziko liokeen emakume bat. Eta hartaz pixka bat maiteminduko balitz, hainbat hobe. Sendagarri izango luke.»

«Eta zein andre proposatuko zenuke?» galde-tu zion Wentworth jaunak.

«Zure esku duzu emakume argi bat. Nire arreba.»

«Zure arreba... nire esku?» errepikatu zuen Wentworth jaunak.

«Esaiozu hitzerdi bat Cliffordi. Esaiozu ez dadila kikildu. Egokiera onean dago jada; eraman du bi edo hiru aldiz zalgurdian paseatzera. Baina etxera bisitatzera ez dut uste joaten zaionik. Bultza ezazu joatera, sarritan joatera. Eta

arratsalderen batean, han eserita daudela, hitz egingo dute. On egingo dio horrek.»

Wentworth jauna pentsatzen geratu zen. «Uste duzu eragin onuragarria izango duela Eugeniak Cliffordengan?»

«Eragin zibilizatzailea izango du —neurritzailea, esango nuke nik—. Emakume xarmant bizkor batek beti izaten duena, limurtzaile samarra baldin bada, batez ere. Osaba maitea, neure heziketaren erdia horrelako emakumeen lagunarteari zor diot. Baldin eta, esan duzun bezala, Clifford unibertsitatetik aldi baterako bidali badute, izan dezala Eugenia irakasle.»

Wentworth jaunak pentsati jarraitzen zuen. «Eugenia limurtzailea dela uste al duzu?» galdetu zion.

«Eta zer emakume polit ez da?» galdetu zion Felixek. Baina Wentworth jaunak ez zukeen hori, onenean ere, erantzuntzat hartuko, Wentworth jaunari ez baitzitzaion iloba Eugenia polita iruditzen. «Cliffordekin, ironia apur bat erabiltzeko behar den adina limurkeria erabiliko du Eugeniak,» jarraitu zuen mutilak. «Hori da Cliffordek behar duena. Aholka ezazu, beraz, trata dezala

Eugenia amultsuki. Iradokizuna zuk eginda, hobeto hartuko du.»

«Zer esaten didazu,» galdetu zion agureak, «Madame Münsterri, zera..., maitasun-adierazpenak egiteko iradoki behar diodala semeari?»

«Adierapenak, bai!» esan zuen Felixek onarpenez.

«Baina, ulertu dudanez, emakume ezkondua da Madame Münster.»

«A!» esan zuen Felixek irribarrez, «Ezingo da, noski, Cliffordekin ezkondu. Baina ahal duena, egingo du.»

Wentworth jauna lurrera begira egon zen pixka batean. Azkenean, zutitu egin zen. «Ez dut uste,» esan zuen, «horrelako biderik hartzeko aholka diezaiokedanik semeari.» Eta Felixen begirada harrituari erreparatu gabe, eserialdia eten zuen. Ez zen handik hamabost egun arte berriz pintatzeko jarri.

Oso gogoko zituen Felixek Wentworth jaunaren lur-sail zabalen zati handi bat hartzen zuen aintziratxoa eta haren beste aldean, ezponda piko batean, zegoen pinudi ikusgarria, udako haizekirriaren ibiltokia. Haizeak arbola-buru

urrun haietan egiten zuen zurrumurrua harrigarri garbi entzuten zen; ia hizketa bat ematen zuen. Arratsalde batean, Felix bere margo-gelatik irten eta Eugeniaren saloi txikiaren ate zabalduaren aurretik pasatu zen. Barruan, itzaleko freskuran, arreba ikusi zuen, zuriz jantzirik, besaulki batean hondoratu eta lore-sorta handi bat aurpegira hurbiltzen zuela. Clifford Wentworth zuen aurrez aurre eserita, kapeluari bira eta bira. Bistakoa zen Cliffordek lore-sorta eskaini berria ziola baronesari, eta baronesaren begi ederrek, arrosa eta geranio handien gaintetik Cliffordi begira, solaserako irribarrea ageri zuten. Landetxearen ate aurrean gelditu eta duda egin zuen Felixek, ez ote zuen atzera itzuli eta saloian sartu beharko. Baina azkenean bere bideari jarraitu zion, eta Wentworth jaunaren jardinean barneratu zen. Berak Clifforden jarraibiderako iradoki zuen zibilizatze prozesua berez etorri bide zen. Felix ziur zegoen, behintzat, Wentworth jaunak ez zuela beretzat hartu mutilaren kontzientzia estetikoa sustatzeko egin zion plan burutsua. «Zera pentsatuko du, dudarik gabe,» pentsatu zuen Felixek bere artean, narra-

tu den elkarrizketaren ondoren, «nik, neba-arreben arteko onginahiak eraginda, entretenimendua eskaini nahi diodala Eugeniari, Clifford bezalako mutil hunkibera batekin maitakeria bat —edo, Wentworth jaunak ziurrenera deituko dion bezala, intriga bat— antolatuz. Onartu beharra dago —eta konturatu izan naiz orain baino lehen ere— pertsona oso estuen irudimenak noiz-behinka hartzen dituen lizentziak oroz gainekoak direla.» Felixek, berriz, ez zion Cliffordi ezer esan, noski. Eugeniari, ordea, jakinarazi zion ezen Wentworth jauna nekaldi handia pairatzen ari zela semearen zaletasun makurra zela eta. «Nolabait lagundu behar genieke, hainbeste adeitasun erakutsi digute eta,» erantsi zuen. «Anima ezazu Clifford zu ikustera etortzera, eta piztu iezaiozu solaserako zaletasuna. Horrek utziaraziko dio bestea; beste hori heldutasun ezaren ondorio baitu: munduan dagokion lekua —etorki zaharreko gazte aberats bati dagokiona— behar den seriotasunez ez hartzearen ondorio. Erakuts iezaiozu serioagoa izaten. Maitasuna adierazten badizu ere, gutxi axola dio.»

«Neure burua eskaini behar dut, hortaz, intoxikazio modu hobetzat, koñak botilaren ordezkotzat, ez?» galdetu zion baronesak. «Herrialde honetan, izan ere, gauza harrigarriak egitera iristen da pertsona.»

Baina ez zion uko garbirik egin Clifforden goimailako heziketaz arduratzeari, eta Felixek, zeina, bereagoak zituen interesei gogo emanda ibili zenez, ez baitzen gai horretaz gehiago arduratu, erredentzio lana jada hasia zela pentsatu zuen. Aurrez ikusita, izugarri ona iruditu zitzaion ideia, baina, abian jarrita ikusi zuenean, pixka bat urduritu egin zen. «Eta zer, baldin Eugenia...? Zer, baldin Eugenia...?» galdetu zion isilka bere buruari, eta arrebaren gaitasunean zuen uste mugagabeen galdu zen galdera. Baina abisu hura bere zehazgabeen ere onartzeko edo baztertzeke denbora izan zuen baino lehen, Felixek Robert Acton ikusi zuen Wentworth jaunaren hesituraren langa batetik irten eta sagastiko landetxe aldera etortzen. Acton, itxura zenez, bere etxetik zetorren, oinez, bidexka itzaltsu bat hartuta, Madame Münsterri bisita egiteko asmoz. Felix hari begira egon zen pixka batean; gero,

aurrera jarraitu zuen. Utz zekiokeen Actoni pro-  
bidentziaren papera jokatzeko, eta —behar izanez  
gero— Cliffordek Eugeniarekin zuen kateadura  
eteten.

Felixek jardinetik etxe aldera hartu zuen,  
etxe atzeko langa baten aldera, zeinak basoxka  
baten ondotik landaz landa aintzirara zihoan  
bidera ematen baitzuen. Etxe ondoan gelditu eta  
gora begiratu zuen; batez ere, itzalean zegoen  
leiho zabaldu batean pausatu zituen begiak.  
Leihoan agertu zen orduan Gertrude, udako argi-  
tara begira. Kapelua erantzi eta diosal egin zion  
Felixek. Aintziran arraunean egitera zihoala eta  
berarekin joateko ohorea egin ziezaiola eskatu  
zion. Gertrude pixka batean begira egon, eta,  
ezer esan gabe, barrura sartu zen. Baina bereha-  
la agertu zen berriro, behean, garai hartan era-  
biltzen ziren Livorno kapelu bitxi xarmagarri  
haietako bat buruan, saten zuriko begiztaz lotua;  
bazuen eguzkitako berde bat ere. Gertrude Feli-  
xekin joan zen aintziraren ertzerara. Beti izaten  
zen han pare bat txalupa amarraturik. Haietako  
batean sartu ziren, eta Felixek, arraunei emeki  
eraginez, beste aldeko ertzeraino bultzatu zuen



txalupa. Uda-egun bikaina zen; eguzki-kolorekoa zegoen aintzira txikia; ez zen arraunen plastada beste hotsik, eta huraxe entzuten joan ziren biak. Lehorreratu ziren, eta, bihurrika-bihurrika zihoan bide batetik, gailurra pinuz estalirik zuen muino batera igo ziren. Aintziraren gain zuria ikusten zen handik, arbola artetik diz-diz. Oso leku fresko atsegina zen, eta freskura, pinu-adarren xuxurla arinaren azpian, sentitu ez ezik entzun ere egiten zela ematen zuen. Pinu-orratzezko alfonbra erdoil-kolorekoaren gainean eseri eta hainbat gauzaz hitz egin zuten Felixek eta Gertrudek. Felixek azkenean, solasaldiaren barruan, bere partieraz hitz egin zuen; lehen aldia zuen gai hori aipatzen zuena.

«Joan egin behar al duzu?» esan zuen Gertrudek Felixi begira.

«Egunen batean..., hostoak erortzen hasten direnean. Badakizu ezin naizela betiko geratu.»

Gertrudek, aurrean zuen ikuspegi zabalera eraman zituen begiak, eta gero, isilaldi baten ondoren, esan zuen, «Ez zaitut berriz ikusiko.»

«Zergatik ez?» galdetu zion Felixek. «Ziurrenera biok bizirik iraungo dugu ni joanda gero ere.»

Baina Gertrudek lehengoa errepikatzea besterik ez zuen egin. «Ez zaitut berriz ikusiko. Ez dut zure berririk izango,» jarraitu zuen. «Ez dut zure aditzerarik izango. Lehen ez nuen zure aditzerarik, eta aurrerantzean ere orduan bezala geratuko naiz.»

«Orduan, zoritxarrez, ez zintudan ezagutzen,» esan zion Felixek. «Baina orain idatzi egingo dizut.»

«Ez idatzi niri. Ez dizut erantzungo,» adierazi zion Gertrudek.

«Zure eskutitzak erre egingo nituzke, noski,» esan zion Felixek.

Gertrude begira geratu zitzaion berriro. «Nire eskutitzak erre? Bai gauza bitxiak esaten dituzula batzuetan!»

«Ez dira gauza bitxiak, berez,» erantzun zion mutilak. «Zuri esaten zaizkizunean gertatzen dira bitxi. Joango zara Europara.»

«Eta norekin joango naiz?» Soiltasunez egin zuen Gertrudek galdera; oso serio zegoen. Feli-

kek Gertruderen seriotasunean jarri zuen arreta; pixka batean zalantzan egon zen. «Ez iezadazu horrelakorik esan,» jarraitu zuen Gertrudek. «Ez iezadazu aitarekin eta ahizparekin joango naizela esan, ez duzu sinesten eta.»

«Gorde egingo ditut zure eskutitzak.» Hori izan zen Felixek eman zion erantzun guztia.

«Ez dut idazten. Ez dakit idazten.» Gertrudek ez zuen besterik esan pixka batean. Eta lagunak, Gertruderi begira jarririk, nahiago zukeen inori abegi ona egin dion jaun zahar baten alabari maitasuna adieraztea «desleialtasuna» ez balitz. Arratsaldea bazihoan; itzalak gero eta luzeagoak ziren, eta mendebaldeko zerua iluntzen ari zen. Bi pertsona agertu ziren aintziraren handiko aldean, zelaian zehar etxetik zetozela. «Charlotte ata Brand jauna dira,» esan zuen Gertrudek. «Hona datoz.» Baina Charlotte eta Brand jauna uraren ertzean geratu ziren, aintzirara begira; ez zuten enbarkalekuan gelditu zen txalupa hartze-korik egin. Felixek kapeluz agurtu zituen; urru-negi zeuden dei egiteko. Ikusi ahal izateko moduko erantzunik, behintzat, ez zuten itzuli,

eta hurrena biratu eta ur ertzean aurrera paseoan joan ziren.

«Brand jauna ez da sentimenduak agertze-koa,» esan zuen Felixek. «Niri ez zait inoiz irekitzen. Eseri eta isilik geratzen da, eskua kokotsean, niri begira. Batzuetan begiak urruntzen ditu. Zure aitak oso hizlari ona dela esaten dit, eta entzun nahi nuke hizketan. Oso mutil zintzoa dirudi, gainera. Baina nirekin, ez du hitz egiten. Eta, ez pentsa, oso gogoko dut hizketan irudi argiak erabiltzen dituztenak entzutea!»

«Oso hiztun ona da,» esan zuen Gertrudek, «baina ez du irudi argirik erabiltzen. Nik askotan entzun dut. Banekien, ikusi gaituztenean, ez zirela hona etorriko.»

«A! Esan ohi den bezala, *la cour* egiten ariko zaio zure ahizpari. Bakarrik egon nahiko dute.»

«Ez,» esan zuen Gertrudek seriooki, «ez dute horrelako arrazoirik bakarrik egoteko.»

«Eta zergatik ez dio Charlotteri *la cour* egiten?» galdetu zion Felixek. «Charlotte hain polita, hain atsegina eta hain ona izanda?»

Gertrudek begirada bat zuzendu zion Felixi, eta, gero, hizpide zuten eta urrutira ageri zen

bikotearengana itzuli zituen begiak. Brand jauna eta Charlotte elkarren parean zihoazen. Izan zitekeen maitale pare bat, baina bazitekeen ez izatea ere. «Pentsatzen dute ez nukeela hemen egon behar,» esan zuen Gertrudek.

«Nirekin? Uste nuen ez zitzaizuela horrelakorik bururatzen.»

«Zuk ez duzu ulertzen. Zuk ulertzen ez dituzun gauza asko dago.»

«Ergela naiz, badakit; baina zergatik, orduan, ez dira Charlotte eta Brand jauna, ahizpa zaharrena eta elizgizona diren aldetik, eta elkarrekin paseatzeko askatasuna dutenez, hona etorri, zu lazoan harrapatzeko erabili dudan ez-legezko elkarrikuste hau eten eta niri begiak irekitzera?»

«Egingo luketen azken gauza litzateke hori,» esan zuen Gertrudek.

Felix begira-begira geratu zitzaion une batean, bekainak jasota. «*Je n'y comprends rien!*» esan zuen. Gero, berriz, urrunduz zihoan bikote kritikoaren irudiei jarraitu zien begiez. «Nahi duzuna esango duzu,» esan zuen, «baina nik garbi ikusten dut zure ahizpari ez zaiola berdin bere lagun argia. Atsegin du harekin horrela

paseatzen ibiltzea. Hemendik igartzen diot.» Eta behaketaren kilikak eraginda, zutitu egin zen.

Gertrude ere zutitu egin zen, baina ez zen lagunaren aurkikuntza imitatzen saiatu; aitzitik, beste aldera begiratu zuen. Barrua astindu zioten Felixen hitzek, baina halako diskrezio batek bere buruaz nagusitzera bultzatu zuen. «Horixe ez zaiola berdin Brand jauna; iritzirik onenean dauka.»

«Ikusten da, ikusten da,» esan zuen Felixek olgetazko tonu batean, burua alde batera okertuta begiratzen ziela Charlotte eta Brand jaunari. Gertrude aintzirari bizkarrez jarri zen; ez zuen begiratu nahi, baina Felixek hurrena zer esango zegoen. «Hara! Basoan sartu dira!» esan zuen Felixek.

Gertrude jiratu egin zen berriro. «Charlotte ez dago Brand jaunaz maitemindurik,» esan zuen; esan beharra-edo sentitu bide zuen.

«Hortaz, Brand jauna dago Charlottez maitemindurik; eta ez badago, egon behar luke. Emakumetxo perfektua da Charlotte bere sailean. Modatik pasatutako zilarrezko azukre-pintza pare bat gogorazten dit; oso azukre zalea naiz

ni, badakizu. Eta oso ondo tratatzen du Brand jauna; konturatu naiz horretaz; oso amultsu eta leun.»

Gertrude pentsatzen egon zen une batean. Eta erabaki garrantzitsu bat hartu zuen. «Charlottek Brand jauna nirekin ezkontzea nahi du,» esan zuen. «Horregatik hartzen du hain amultsu.»

Inoiz baino gorago jaso zituen bekainak Felixek. «Zurekin ezkontzea! Hara! Hara! Bai interesgarria! Eta zer diozu, gizon bat hori egitera bultzatzeko amultsu tratatu behar dela?»

Gertrude zurbildu egin zen pixka bat, baina jarraitu egin zuen, «Brand jaunak berak ere nahi du.»

Felixek besoak gurutzatu zituen, eta Gertruderi begira geratu zen. «Ulertzen dut, ulertzen dut,» esan zuen presaka. «Zergatik ez didazu lehenago esan?»

«Ez dut atsegin horretaz hitz egitea, ezta orain ere. Charlotterena argitzeagatik bestegatik ez dizut esan.»

«Ez duzu Brand jaunarekin ezkondu nahi, hortaz?»

«Ez,» esan zuen Gertrudek serio.

«Eta aitak nahi al du?»

«Asko»

«Eta zuk ez duzu Brand jauna gokoko... Eze-tza eman al diozu?»

«Ez dut harekin ezkondu nahi.»

«Eta ahizpak eta aitak, berriz, harekin ezkondu beharko zenukeela uste dute, ezta?»

«Istorio luzea da,» esan zion Gertrudek. «Pisuzko arrazoiak daudela uste dute. Ez dakit nola esan. Obligazioak hartu ditudala uste dute, eta itxaropena eman diodala.»

Felixek irribarre egin zion, Gertrude besteren baten istorio dibertigarri bat kontatzen ari balitzaio bezala. «Ez dakizu zenbat ardura zaidan hori,» esan zion. «Eta arrazoi horiek..., obligazio horiek..., ez dituzu ontzat hartzen?»

«Ez nago ziur; ez da erraza.» Eta eguzkitakoa hartu eta beste aldera jiratu zen Gertrude, aldapan behera abiatzeko bezala.

«Esaidazu gauza bat,» jarraitu zuen Felixek, Gertruderengana hurbilduta; «azkenean, behar bada, amore emango duzula uste al duzu? Kontentzitu egingo zaituztela?»



Gertrudek Felixi begiratu zion, Felixen irribarre ia grinatsuaren aldean berak beti izaten zuen aurpegi betilunez.

«Inola ere ez naiz ezkonduko Brand jaunarekin,» esan zion Gertrudek.

«Ulertzen dut!» erantzun zion Felixek. Eta, poliki-poliki, muinotik jaitsi ziren biak, ur ertzera heldu ziren arte hitzik esan gabe. «Zure arazoa da,» jarraitu zuen orduan Felixek; «baina badakizu zer? Ez naiz guztiz pozten! Brand jaunarekin ezkondu behar duzula erabakita balego, lasaiago egongo nintzateke, askeago izango nintzateke. Nik ez dut zuri maitasuna adierazteko eskubiderik, ez?» Eta isilune bat egin zuen, Gertrude estutasun txiki batean jartzen zuela.

«Batere ez,» erantzun zuen Gertrudek azkar, azkarregi.

«Zure aitak ez luke horrelakorik entzun ere nahiko; ez dut sosik. Brand jaunak izango ditu ondasunak, noski?»

«Uste dut ondasunen batzuk badituela; baina horrek ez du zerikusirik.»

«Zuretzat ez, jakina; baina aitarentzat eta ahizparentzat, izango du. Bada, esaten dizudan

bezala, erabakita balego, askoz askeago sentituko nintzateke.»

«Askoz askeago?» errepikatu zuen Gertrudek. «Aska ezazu txalupa, mesedez.»

Askatu zuen soka Felixek, eta hura eskuetan zuela geratu zen. «Orain esan ezin dizkizudan gauzak esan ahal izango nizkizuke orduan,» jarraitu zuen. «Zenbat miresten zaitudan esan ahal izango nizuke, desiratzea debekatua zaidana desiratzen dudan itxurarik eman gabe. Maitasun gartsua adieraziko nizuke,» erantsi zuen, barrez, «baldin eta horrek laidorik egingo ez lizukeen egoeran zaudela baneki.»

«Beste gizon bati hitz emanda nagoela jakinda? Hori arrazoibide bitxia!» esan zion Gertrudek.

«Hartara, ez nindukezu aintzat hartuko.»

«Nik denak hartzen ditut aintzat!» esan zion Gertrudek. Eta, Felixen laguntzarik gabe, arin jauzi egin zuen txalupara.

Arraunak hartu eta aurrera bultzatu zuen Felixek txalupa. «Hori al zen kezkatzen zintue-na? Iruditzen zitzaidan, bai, bazenerabilela zerbait buruan. Zergatik ez dizkidazu kontatzen,»

erantsi zuen, «direlako arrazoi edo obligazio horietako batzuk? Gogo onez entzungo nituzke.»

«Egotez, ez dago arrazoirik —pisuzko arrazoirik—,» esan zuen Gertrudek, uraren distira arrosa eta horiei begira.

«Ezin dut ulertu! Neska polit batek limurkeria izpi bat agertu duela eta, hori ez da nahikoa arrazoi.»

«Niregatik badiozu, ez da hori arazoa. Nik ez dut horrelakorik egin.»

«Kezkatzen zaituen zerbait da, nolana ere,» esan zion Felixek.

«Ez lehen bezainbat,» erantzun zion Gertrudek.

Felixek, beti bezala, irribarrez begiratu zion. «Horrekin ez duzu asko esaten, ez?» Gertrudek, ordea, begiak ur argitsuan jarririk jarraitzen zuen, oso serio. Agertu berri zuen kez karen seinaleak ezkututzen saiatzen ari zela iruditu zitzaion Felixi. Etxekoandre on batek hautsak kentzeko izaten duen eraginaren antz-antzeko eragina sentitzen zuen Felixek, beti, malenko niaren aztarnak uxatzeko. Eta uxatu beharreko zerbait zuen orain ere; arraunei eragiteari utzi

eta gelditu egin zen bat-batean. «Eta zergatik jo du Brand jaunak zuregana eta ez zure ahizparengana?» galdetu zion. «Ziur nago Charlottek onartuko zukeela.»

Gertrude arinkeria handietarako gai zela irizten zioten familian; baina haren arinkeria ez zen inoiz hain urrun iritsi. Nolanahi ere, oso hunkitu zuen Felix zerbaitetaz ziur zegoela esaten entzuteak. Hala, bada, begiak Felixengana itzuli eta ahalegin guztiak egin zituen bere ahizparen eta bere gorteatzailearen arteko maitasun istorioaren irudi zoragarria irudizkatzen. Badakigu irudimen handia zuela Gertrudek, eta ez da ezinezkoa, beraz, ahalegin horrek nolabaiteko fruitua eman izatea. Baina hauxe xuxurlatzea besterik ez zuen egin Gertrudek. «Ai, Felix, Felix!»

«Zergatik ez lirateke, bada, ezkonduko? Egin itzazu ahaleginak ezkon daitezene!» esan zion Felixek.

«Ahaleginak egin?»

«Iraul ezazu egoera. Bakean utziko zaituzte orduan. Nik, ahal dudan guztian lagunduko dizut.»

Gertruderen bihotza taupaka hasi zen; oso aztoraturik zegoen: ez zioten hain gauza interes-garririk inoiz proposatu. Felix arraunean hasi zen berriro, eta palakada luzeak emanaz zeraman orain txalupa etxera bidean. «Uste dut begi onez begiratzen diola, bai, Charlottek Brand jaunari!» esan zion Gertrudek, lehorreratu zirenean.

«Horixe baietz! Eta ezkondu egingo ditugu! Horrek zoriontsu egingo ditu; eta hala, mundu guztia pozik izango da. Ezteiak izango ditugu, eta nik eztei olerkiak idatziko ditut.»

«Uste dut niri eman behar lidakeela poza,» esan zion Gertrudek.

«Brand jaunarengandik libro izateak, ez? Berriro aske izateak.»

Gertrudek ibiltzen jarraitu zuen. «Ahizpa horren gizon onarekin ezkondata ikustek.»

Felixek algara alai bat egin zuen. «Zuek arlo horretara eramaten dituzue beti gauzak; ez duzue zeuenik inoiz esango. Beldur handia diozue, hemen, egoistak izateari. Uste dut ez daki-zuela egoistak izaten ere,» jarraitu zuen. «Hara! Nik erakutsiko dizut! Ni neuregatik poztuko naiz, eta lehentxeago esan dizudanaren kontrakoaga-

tik, hain zuzen ere. Horren ondoren, maitasuna adierazten dizudanean, seriooki ari naizela pentsatu beharko duzu.»

«Edozertaz ari zarela ere, seriooki ari zarenik ez dut inoiz pentsatuko,» esan zion Gertrudek. «Ametsezkoegia zara.»

«A!» esan zuen Felixek, «Horrek, hortaz, dena esateko baimena ematen dit! Adoragarria zara, Gertrude!»

## 8. atala

Etxera heldu zirenean, Charlotte eta Brand jauna itzuli gabe ziren artean. Baina baronesa etorririk zen tea hartzera, eta baita Robert Acton ere, zeinak orain sarritan egiten baitzuen otordu oparo hartara biltzeko modua, edo, bestela, arrats beranduan agertzen baitzen. Halaxe nabarmendu zuen Clifford Wentworthek, bere gazte-purrustada batez.

«Azkenaldi honetan ez duzu tea hartzera hutsik egiten, Robert,» esan zion. «Uste nuen nahiko te edan zenuela Txinan.»

«Noiztik hasi da, bada, Acton jauna sarriago etortzen?» galdetu zion baronesak.

«Zu etorri zinenetik,» esan zion Cliffordek. «Esango litzateke erakargarri bat zarela.»

«Bitxikeria bat izango naiz, ziur asko,» esan zuen baronesak. «Emaidazue astia eta saloi bat antolatuko dizuet.»

«Desegin egingo litzateke zu joandakoan!» esan zion Actonek.

«Ez ezazu horren arin esan joango denik,» esan zion Cliffordek. «Triste jartzen naiz.»

Wentworth jaunak semeari begiratu zion, eta, esan zuena kontuan harturik, pentsatu zuen ea ez ote zitzaion Felix aritu izango, marraztu zuen programari jarraiki, printze aleman baten emazteari maitasuna nola adierazi erakusten.

Charlotte eta Brand jauna berandu iritsi ziren; baina Gertrude, Felixi esker begiak pixka bat behintzat ireki zitzaizkiolarik, alferrik ibili zen Charlotteren aurpegian pasio errudun baten aztarna bila. Brand jauna Gertruderen ondoan eseri zen, eta Gertrudek galdetu zion ea zergatik ez zuten urmaela igaro eta zergatik ez ziren Felixekin eta berarekin elkartu.

«Bihotz gogorra behar da niri hori galdetzeko,» erantzun zion Brand jaunak, oso ahots apalez. Tarta puska handi bat zuen aurrean, baina jira-biraka zerabilen jan gabe. «Batzuetan, oso bihotz-gogor bihurtzen ari zarela iruditzen zait,» esan zion.

Gertrudek ez zuen ezer esan; ez zen hitz egi-tera ausartzen. Amorruaren antzeko zerbait zuen bihotzean; ez zuen asko behar esetsia zela



sinesten hasteko. Pentsatu zuen ezen hobeto egingo zuela Brand jaunari gaizki egiten ari zela esateko aukerarik ez emanda. Felixek esan ziona ekarri zuen gogora; nahi zuen, bai, Brand jauna Charlotterekin ezkontzea. Brand jaunarengandik begiak urrundu eta isilik geratu zen. Brand jaunak bere tarta bukatu zuen, Felix, beste aldean eserita, Wentworth jaunari Heidelbergeko ikasleen arteko dueloak kontatzen ari zitzaion bitartean. Tearen ondoren lorioan eta jardinean sakanatu ziren denak, ohi bezala, eta Brand jauna Gertruderengana hurbildu zen berriro.

«Gaur arratsaldean zuregana joan ez banaiz, bakarrik ez zeundelako izan da,» hasi zen; «lagun berriago batekin zeundelako.»

«Felix? Felix lagun zaharra dut dagoeneko.»

Brand jauna lurrera begira egon zen pixka batean. «Prestaturik nengoela uste nuen zu horrela hitz egiten entzuteko,» jarraitu zuen. «Baina oso mingarri gertatzen zait.»

«Ez dakit zer esan, besterik,» esan zion Gertrudek.

Brand jaunak Gertruderen aldamenean paseatzen jarraitu zuen pixka batean, isilik. Gertrudek

nahiago zukeen alde egin balu. «Dohain onak dituen mutila da, bai. Baina uste dut aholku eman behar nizukeela.»

«Zuk niri aholku eman?»

«Badakit nolakoa zaren.»

«Ez dut uste,» esan zion Gertrudek barretxo bat eginez.

«Zaren baino makurrago agertzen zara..., Felixi atsegin emateagatik,» esan zion Brand jaunak triste.

«Makurrago, hari atsegin emateagatik? Zer esan nahi duzu?» galdetu zion Gertrudek, eta gelditu egin zen.

Brand jauna ere gelditu egin zen, eta, lehen bezain leunki, pentsatzen zuena esan zion, «Hari ez zaizkio axola zuri axola zaizkizun gauzak..., bizitzako galdera handiak.»

Brand jaunari begietara begira jarririk, buruari ezker-eskuin eragin zion Gertrudek. «Bizitzako galdera handiak ez zaizkit axola. Nire ahalmenaren gaineratik daude.»

«Garai batean ez zenuen hori esaten,» esan zion Brand jaunak.

«Begira,» jarraitu zuen Gertrudek, «uste dut zentzugabekeria franko esanarazi didazula. Eta, gainera, bizitzako galdera handiak zein diren da kontua. Niri ere axola zaizkit gauza batzuk.»

«Lehengusuarekin eztabaidatzen dituzun horiek al dira?»

«Ez zenuke nire aurrean nire lehengusuarengatik gaizki esan behar, Brand jauna,» esan zion Gertrudek. «Desohoragarria da hori.»

Errespetuz entzun zituen Brand jaunak Gertruderen hitzak; gero, ahotsean dardaratxo bat zuela, erantzun zion, «Damu nuke desohoragarria den zerbait egitea. Baina ez dakit zertan den desohoragarria zure lehengusua arina dela esatea.»

«Joan eta esan berari!»

«Uste dut berak ere onartu egingo lukeela,» esan zion Brand jaunak. «Hori izango litzateke beraren jarrera. Ez litzateke horregatik lotsatuko.»

«Hortaz, ni ere ez naiz lotsatzen!» adierazi zion Gertrudek. «Beharbada, horrexegatik izango dut Felix gogoko. Neu ere arina naizelako.»

«Lehentxeago esan dizudana egiten ari zara: zeure burua behertzeko ahaleginak egiten ari zara.»

«Natural jokatzeko ahaleginak egiten ari naiz, behingoz!» esan zion Gertrudek gartsuki. «Itxurak egiten ibili naiz, bizitza osoan; gezurtia izan naiz; eta zuk bihurtu nauzu horrelakoa!» Brand jauna begira geratu zitzaion, geldi, eta Gertrudek jarraitu zuen, «Zergatik ez dut arina izan behar, hori nahi badut? Arina izateko esku-bidea du pertsonak, izaeraz hala bada. Ez, ez zaizkit galdera handiak axola. Plazerra axola zait, dibertsioa. Beharbada, gauza gaitzesgarriak atsegin izango ditut; oso litekeena da!»

Brand jaunak Gertruderi begira jarraitzen zuen; pixka bat zurbildurik ere bazegoen, ikaraturik geratu balitz bezala. «Ez dakizu zer esaten ari zaren!» esan zion.

«Ez, agian. Zentzugabekeriak esaten ariko naiz, agian. Baina zurekin nagoenean bakarrik esaten ditut zentzugabekeriak. Lehengusuarekin nagoenean, inoiz ez.»

«Hitz egingo dugu beste batean, pixka bat lasaitzen zarenean,» esan zion Brand jaunak.

«Besteetan ere neure onetik irtenda izaten naiz zurekin hitz egiten dudanean. Eta horrela aitortu behar dizut, baldin eta horrek aurrerantzean atzera eragiten badizu ere. Amorrua ematen dit hitz egiten didazun moduak. Lehengusua-rekin oso bestela gertatzen zait. Harekin lasai eta natural sentitzen naiz.»

Brand jaunak begiratu egin zion, eta gero, halako atsekabe etsi batek harturik, beste alde-ra begiratu zuen, jardin goibelera eta udako izar ahuletara. Horren ondoren, burua bat-batean jiratu eta «Gertrude, Gertrude!» xuxurlatu zuen ahopean. «Egia al da ia galdu zaitudala?»

Hunkiturik zegoen Gertrude, penaturik; baina berehala erabaki zuen hori aditzera ematea baino hoberik egin zezakeela. Tolesgabetasun hura nori ikasi zion une hartan esateak ez zion lagunari atsekaberik arinduko. «Ez didazu damurik ematen,» esan zion Gertrudek, «zeren eta, niri hainbeste arreta eskaintzen zabiltzala, errainu baten atzetik baitzabilta, eta gauza baliotsu bat alferrik galtzen ari baitzara. Ni baino zerbait hobea lortu ahal izango zenuke, baina ez diozu begiratu ere egiten. Horixe da egia!» Eta gero,

asmo osoz, Brand jaunari begiratu eta irribarre txo bat egiten saiatu zen. Oso irribarre bitxia iruditu zitzaion hura Brand jaunari; baina Gertrude, jiratu eta urrundu egin zen.

Jardinean batera eta bestera ibili zen Gertrude, bakarrik, atsegin bereziz jaulki zituen hitz haiek Brand jaunak nola hartu ote zituen pentsatzen. Geroxeago, etxe aurretik pasatzean, bi lagun ikusi zituen urrutira, jardineko ate ondoan zutik. Brand jauna ari zitzaion Charlotteri partieran gabonak ematen, Charlottenk etxetik haraino lagundu baitzion. Partiera luzatu egin zela ikusi zuen Gertrudek, eta buelta hartu zuen. Asko urrundu baino lehen entzun zuen, ordea, ahizpa, poliki-poliki atzetik etortzen. Ez itzuli egin zen, ez itxaron egin zion; bazekien zer esango zion Charlottenk. Azkenean parera etorri zitzaionean, hala xe hasi zen Charlotte, hasi ere, Gertrude besotik harturik.

«Kasu egingo al didazu, oso gauza bezeri bat esan nahi nizuke eta?»

«Badakit zer esango didazun,» esan zion Gertrudek. «Brand jauna oso nahigaturik dagoela.»

«Gertrude, nola tratadezakezu horrela Brand jauna?» galdetu zion Charlottek. Eta ahizpak erantzun ez zionean, gehitu zuen, «Zuregatik egin duen guztia eginda gero!»

«Zer egin du, bada, niregatik?»

«Galdetzea ere, Gertrude! Asko lagundu dizu. Zerorrek esan didazu, makina bat aldiz. Zure..., zure berezitasunei aurre egiten lagundu dizula. Zure jenio txarra menderatzen erakutsi dizula.»

Gertrude isilik egon zen pixka batean. «Oso txarra al nuen jenioa?» galdetu zion.

«Ez naiz zure kontra ari, Gertrude,» esan zion Charlottek.

«Zer ari zara, hortaz?» galdetu zion ahizpak, barre txiki batekin.

«Brand jaunaren defentsa egiten ari naiz, zenbat zor diozun gogorazten.»

«Kitatu ditut harekiko zor guztiak,» esan zion Gertrudek, barre txikia itzali gabe. «Itzuli diot atzera, irakatsi didan bertutea! Orain gaiztoa izan nahi dut berriro.»

Ahizpak geldiarazi egin zuen bidean, eta gaitzespenezko begirada gozo bat luzatu zion iluntasunean. «Horrela hitz egiten baduzu, sinetsi

egin beharko dizut. Pentsa ezazu zenbat zor diogun Brand jaunari. Pentsa ezazu hark beti zer-bait espero izan duela zuregandik. Pentsa ezazu zer izan den guretzat. Pentsa ezazu Cliffordengan izan duen eragin ona.»

«Oso ona da Brand jauna,» esan zuen Gertrudek, ahizpari begira. «Badakit oso ona dela. Baina ez luke Felixen kontra hitz egin behar.»

«Mutil ona da Felix,» erantzun zion Charlottek, apalki baina bizkor. «Oso mutil zoragarria da Felix. Oso bestelakoa izatea. Brand jauna askoz hurbilago dago guregandik. Nik ez nuke arazo batekin edo zalantza batekin Felixengana jotzea pentsatuko. Brand jaunak askoz gehiago esan nahi du guretzat, Gertrude.»

«Oso, oso ona da Brand jauna,» errepikatu zuen Gertrudek. «Asko esan nahi du zuretzat, bai, asko, Charlotte,» gehitu zuen bat-batean, «Zu Brand jaunaz maitemindurik zaude!»

«Mesedez, Gertrude!» egin zuen Charlotte gaixoak; eta ahizpak lotsagorritzen ikusi zuen ilunpetan.



Gertrudek besoaz inguratu zuen. «Nahiago nuke zurekin ezkonduko balitz!» esan zion hurrena.

Charlottek ahizparen besoa gainetik kendu zuen. «Ez duzu horrelakorik esan behar!» esan zuen ahopean.

«Aitortzen duzun baino gogokoago duzu zuk Brand jauna, eta hark, berriz, konturatzen den baino gogokoago zaitu zu.»

«Bihotz-gogorkeria da hori esatea!» xuxurlatu zuen Charlotte Wentworthek.

Baina bihotz-gogorkeria bazen ere, Gertrudek erruki gabe jarraitu zuen. «Ez, egia bada!» erantzun zion; «Nik hura zurekin ezkontzea nahi dut.»

«Ez ezazu horrelakorik esan, mesedez.»

«Eta berari ere horixe esango diot!» esan zion Gertrudek.

«Gertrude! Gertrude!» egin zuen ahizpak ia intzirika.

«Berriro niri zerbait esatera etortzen bada, bai. Honelaxe esango diot: «Zergatik ez zara Charlotterekin ezkontzen? Ni baino mila aldiz hobe da hura.»»

«Gaiztoa zara! Aldatu egin zara!» jaurti zion ahizpak.

«Esatea nahi ez baduzu, zeure esku dago eragozte,» esan zion Gertrudek. «Nirekin hitz egiten uzten ez badiozu, ez diot esango!» Eta hori esanda, alde egin zuen, zer egin zuen oso ondo zekiela; egin zuena pisatu eta halako poz handi bat eta askatasun handi bat sentitzen zituela.

Wentworth jauna oso desbideraturik zebilen Clifford bere lehengusu distiratsuari konplimentu eskrupulogabeak egiten hasi izango zitzaiola susmatzean; mutilak, izan ere, familiak uste baino eskrupulo gehiago baitzuen. Lotsati-aurpegi garden bat zuen Cliffordek, lasaikerietan gogara ibiltzen ez zen aski frogagarri. Beraren ikasle-bekatatutxoek etxekoen artean eragin zuten zurrumurruak higuin handiagoa eman zion Cliffordi, etxe-lapurri bere oinetakoen karraska hotsak ematen diona baino. Alde bakarra, zera: etxe-lapurrak, gauzak errazteko, bere *chaussures* kenduko zituzkeen bezala, Cliffordek pentsatu izatea ezen jendearekin harreman erosoak izateko —hitz egiten ziotenean beste zerbait

esan nahi ziotela pentsatzeari uzteko—, nahi galgarri orori uko egitea zela biderik laburrena. Eta oso txalogarriak ziren, izan ere, Clifforden nahiak. Bere burua Bostongo Wentworth jaun oso ezagun eta estimatu bihurturik ikusten zuen etorkizunean, eta gauzak ondo zirela, bere lehengusu Lizzie Acton politarekin ezkondurik. Common parkera ematen zuen etxe aurrealde-zabal batean biziko zen, eta zaldi pare gorri berdin-berdin bat gidatuko zuen udazkeneko bide bustietan aurrera orga arin baten gainetik. Oso sinplea zen Cliffordek ondorengo urteetarako zuen ikuspena: familiarreko ezkontza horrek eta trostarako baliabideen bikoizteak osatzen zuten, nagusiki. Oraindik ez zion lehengusuari berarekin ezkontzeko eskatu, baina graduatzen zen bezain laster eskatzeko asmoa zuen. Lizzie kon-turaturik zegoen Clifforden asmoaz, eta lasai, Clifford zuzenduko zela konbentziturik. Nebak, berriz, oso maite zuen Lizzie alai bizkor trebe hura, eta ez zuen kontra egiteko motiborik ikusten. Gizarte-arau egokia iruditzen zitzaion Cliffordek eta arrebak elkarri ezkon-hitza ematea; bera ezkon-hitza eman gabe bazegoen ere, gai-

nerakoak, zorionez, ez ziren bera bezain zoro. Gainera, gogoko zuen Clifford, eta beste era batera begiratzen zien —nahiz eta aitortu behar den lotsa pixka bat ere ematen ziola horrek— mutila auzoko ikasketa egoitzatik urruntzera behartu zuten okerbide haiei. Acton mundua ikusitakoa zen, berak bere buruari esan ohi zionez. Txinan izana zen eta gizonen artean ibilia. Bazekien zer desberdintasun zegoen funtsean mutil zintzo baten eta mutil gaizto baten artean, eta poztu egiten zuen Cliffordek txarkeriarik ez zuela ikusteak. Fedea zion —inoren aurrean esateko adorerik ez zuela gaineratu behar bada ere— gazteak olo-gaiztoa erein behar duelako usteari, zeina beldur alferren kontrako erremedio egokitzat baitzeukan. Wentworth jaunak, Charlottek eta Brand jaunak Clifforden kasuan hori erabiliko baluke, askoz zoriontsuago izango lirateke; eta tamalgarria iruditzen zitzaion Actoni haiek zoriontsuago ez izatea. Estuegi hartzen zituzten mutilaren gaiztakeriak; solemneegi hitz egiten zioten; ikaratu eta nahastu egiten zuten. Hor zeuden, bai, moraltasunaren oinarri nagusiak, gizonari mozkortzea, billarrean dirua jokatzea,

edo zentzumenen atsegna bilatzea debekatzen ziotenak, baina zer beldur zegoen Clifford gizajokak inolako oinarri nagusiri erasoko zionik? Zena zela, Actoni ez zitzaion burutik pasatu ere egin ikasle desobeditzailea berrerosteko Münster baronesaz baliatzea. Lanabes konplexuegia irudituko zitzaiokeen hura lan horretarako. Felixek esan zuena, berriz, emakumeak, zenbat eta xarmagarriagoa izan, orduan eta gizarte-eginkizun gehiago duen usteari jarraiki esandakoa zen.

Eugeniak, dakigun bezala, denbora asko zuen bere eginkizunak zerrendaratzeko. Adierazi dudan bezala, lau mila milia egin zituen fortuna bila; eta ez dago uste izaterik hain ahalegin handia egin eta gero bide horretan aurrera egiteko laguntzarik txikiena ere zabartuko zuenik. Nire zoritxarrerako, hain emakume bikainaren jokamoldeak lerro gutxitan deskribatu nahi izateak gauzak nahiko zakar adieraztera behartzen nau. Hori uste dut gertatu dela, esate baterako, zera esan dudanean, Eugeniak lehenbizi Robert Actonengan ikusi zuela aurrera egiteko laguntza hori, baina, gero, arkulari zuhurak beti bigarren arkusoka bat izan ohi duela gogoratu zitzaiola. Zer-

gatiak finki bilbaturik zituen emakumea zen Eugenia, eta asmo zakarrik ez zuen inoiz nabarmentzen. Halako ideal estetiko batek bultzatzen zuen Cliffordengana, eta onura-nahirik gabeko arrazoi bat iruditzen zitzaion hori Clifford bere ardurapean hartzeko. Oso ondo zegoen jaun gazte aurpegi-guri bat xaloa izatea; Clifford, ordea, berde zegoen, zinez. Halako aurpegi polita izanda, manera hobek behar zituzkeen. Eugeniak erakutsiko zion ezen izen dotore bat, ondasun handi baten itxaropena eta, Europan esaten duten bezala, gizartean posizio bat dituen seme bakarrak jakin behar duela nola jokatu.

Clifford bere gogoz eta bakarrik hasi zen baronesarengana bisitan joaten, eta harrezkero sarri joaten zen. Ez zekien oso ondo zergatik joaten zen; aitaren etxean ikusten zuen baronesa ia arratsero; ez zuen ezer apartekorik hari esateko. Baronesa ez zen neska gaztea, eta Clifforden adineko mutilek neska gazteak bisitatzen zituzten. Cliffordek handitu egiten zuen Eugeniaren adina; Eugenia emakume zahar bat iruditzen zitzaion; eskerrak baronesa, zuen adimen argi

eta guzti, horretaz konturatu ez zen. Baina poliki-poliki, emakume zaharrak bisitatzea, naturala ez bazen ere, dietari buruzko zenbait artikulutan esaten duten bezala, gutxienez gustua hartzen ikaste bat zatekeela pentsatzera iritsi zen Clifford. Emakume zahar oso dibertigarria zen, bai, baronesa. Inoiz ez zion andre batek —ezta jaun batek ere, noski— baronesak hitz egiten zion bezala hitz egin.

«Europar zehar ibilaldi bat egitera joan behar zenuke,» esan zion baronesak arratsalde batean. «Ikasketak amaitutakoan joango zara, noski.»

«Ez dut joan nahi,» adierazi zion Cliffordek. «Ezagutzen ditut Europar izan diren adiskide batzuk, eta hemen hobeto dibertitzen dela esaten dute.»

«Nondik begiratzen zaion. Dibertitzea zeri esaten zaion. Zure lagun horiek segur aski ez ziren aurkeztuak izango.»

«Aurkeztuak?» galdetu zion Cliffordek.

«Ez zuten lagunartean sartzeko aukerarik izango; ez zituzten *relations* egingo.» Baronesak

sarritan frantses erara ahoskatzen zituen hitzetako bat zen hori.

«Parisen dantzaldi batera joan omen ziren; hori badakit,» esan zion Cliffordek.

«A! Dantzaldi guztiak ez dira berdinak izaten; eta are gutxiago Parisen. Ez, joan egin behar duzu, ulertzen? Hori egin gabe ezin zara geratu. Horren premian zaude.»

«Ni oso ondo nago,» esan zion Cliffordek. «Ez nago gaixo.»

«Ez dizut osasunagatik esaten, umetxo. Manerengatik esaten dizut.»

«Nik ez dut manerarik!» egin zuen Cliffordek purrustadaka.

«Horrexegatik! Ez duzu gaizki hartuko nik hori baieztatzea, ez?» galdetu zion baronesak irribarrez. «Europara joan behar duzu jendetasun pixka bat ikastera. Han manera hobeak ikasiko dituzu. Lastima da ni Alemanian bizi nintzela etorri ez izana. Lagunartean aurkeztuko zintudan; oso zirkulutxo atsegina neukan. Gaztetxoe-gia izango zinen, beharbada, baina zenbat eta gazteago hasi eta hobe, nik uste. Dena dela, oran ezin duzu denborarik galdu, eta hara itzul-



tzen naizenean, lehenbailehen joan behar duzu ni ikustera.»

Hori dena nahasmen handia zen Clifforden ulermenerako: gazterik hasi behar zuela, Eugenia Europara itzuliko zela, haren zirkulutxo atseginean aurkeztua izango zela. Zertan hasi behar zuen, hasi? Eta zer zen baronesaren zirkulutxo hura? Cliffordek baronesaren ezkontzaz zuen ideia nahiko lausoa zen, baina nolana aipatzeko gaia ez zela antzemateko bezain zehatza bai, hala ere. Gelaren inguru guztira begiratu zuen; baronesa, nolabait ere, bere ezkontzaren gaia ukitzen ari zela pentsatu zuen.

«Ez dut Alemaniara joan nahi,» esan zuen Cliffordek; hori esatea iruditu zitzaion egokiena.

Baronesa begira geratu zitzaion, irribarrea ezpainenetan, baina ez begietan. «Eskrupuloak al dituzu?» galdetu zion.

«Eskrupuloak?» esan zuen Cliffordek.

«Zuek, hemengo gazteok, oso bereziak zarete; zuekin ez dago asmatzerik! Edo zarete guztiz eragabeak, edo izugarri eratsuak. Nire ezkontza ezberdinari dagokionean, esango nuke pertsona arinekin bizi naizela pentsatzen duzula. Eta oso

oker zaude. Garrantzirik handiena eman izan diot nik beti horri.»

«Ez, ez,» esan zuen Cliffordek, bene-benetan larriturik, «ez dut horrelakorik inoiz pentsatu.»

«Ez ote? Konbentziturik nago zure aitak hori pentsatzen duela, eta baita zure arrebek ere. Zera esango diote elkarri, hemen ondo portatzen naizela, baina han —ezkerreko eskutik ezkondua izanik— emakume arinekin ibiliko naizela.»

«Ez, ez,» esan zion Cliffordek indartsu, «ez dute horrelako gauzarik esaten!»

«Hori pentsatzen badute, hobe lukete esatea,» erantzun zion baronesak. «Hartara, ukatze-ko aukera izango nuke. Zuk, mesedez, uka ezazu, inoiz horrelakorik entzuten baduzu, eta ez izan beldurrik, dudan lagunartearen kausaz, ni ikustera etortzeko. Zure bizitza osoan ezagutu ahal izango duzun baino gizon ospetsu gehiago ezagutzeko ohorea dut, enetxo. Emakume gutxi-ekin dut harremana; baina gutxi horiek maila handikoak dira. Beraz, puritano gazte maite horrek, ez duzu zertan ikaraturik. Ni ez naiz, mutil gazte bat hezteko *vrai monde* delakoan lekua galdu duten emakumeen lagunartea behar

dela uste duten horietakoa. Ez dut inoiz jarrera hori hartu. Ni neure lekuan egon naiz, eta uste dut haiena baino askoz eskola hobea dela gurea. Izan ezazu konfiantza niregan, Clifford, eta egia dela frogatuko dizut,» jarraitu zuen baronesak, atseginez pentsatzen zuela ezen ahaide gaztea galbideratzeaz, behintzat, ezingo zutela salatu. «Beraz, inoiz lapurren artean erortzen bazara, ez esan nik bidali zaitudanik haiengana.»

Halako grazia egin zion Cliffordi baronesak esan nahi izan zuena ulertzeak —hizkera irudizkoa gorabehera— eta baronesak esan nahi izan zuena eta berak ulertu zuena bat izateak, ezen ezin izan baitzion irribarreari eutsi, ahaleginak egin bazituen ere. «Ez! Ez!» xuxurlatu zuen.

«Egin barre, egin barre lasai, dibertitzen bazaitut!» esan zuen baronesak. «Horretarako nago ni hemen!» Eta Cliffordi oso pertsona dibertigarria iruditzen zitzaion, bai, baronesa. «Baina ez ahaztu» esan zion baronesak hurrena, «dato- rren urtean hara joan behar duzula ni bisitatze- ra.»

Handik astebetara edo, zera esan zion baronesak, itzulingururik gabe, «Serioski ari al zara zure lehengusutxoari maitasuna adierazten?»

«Maitasuna seriuski adierazten». Hitz horiek, Madame Münsterrek esanda, soinu ikaragarria eta kezkarria zuten Clifforden belarrietarako. Cliffordek duda egin zuen erantzun baino lehen, berak ulertzen zuenera baino gehiagora bere burua lotzeko beldurrez. «Beno, hala balitz ere, ez nuke esango!» esan zion.

«Zergatik ez zenuke, bada, esango?» galdetu zion baronesak. «Gauza horiek jakin egin behar dira.»

«Ez zait axola jendeak jakitea edo ez jakitea,» erantzun zion Cliffordek. «Baina ez dut jendea niri begira ikusi nahi.»

«Zure mailako gazte batek jakin behar luke jendearen begiradak eramaten, horrek batere axolarik ez balio bezala jokatzeko. Ez dut esaten konturatu behar ez duenik,» argitu zuen baronesak. «Ez, begiratzen diotela konturatzen dela eta gauza naturala iruditzen zaiola erakutsi behar du; baina horretara oso ohituta balego bezala agertu behar du. Eta zuk ez duzu hori egiten. Eta

hori da egin behar duzuna. Eta ez esan niri maila handiko mutila ez zarenik,» gehitu zuen Eugeneiak. «Ez esan niri horrelako tentelkeriarik.»

«Ez, ez, ez nauzu hori esaten harrapatuko!» esan zion Cliffordek.

«Bai, Alemaniara etorri behar duzu,» jarraitu zuen Madame Münsterrek. «Erakutsiko dizut nola jendeak, ahotan darabiltela ere, ez duen jakinaren gainean dagoenik inoiz nabarmentzen. Zu ere erabiliko zaituzte ahotan, noski, nirekin batera. Nire maitalea zarela esango dute. Nik erakutsiko dizut zein jaramon gutxi egin behar zaion horri; ikusiko duzu zein jaramon gutxi egi-ten diodan nik.»

Clifford begira zegokion, gorriturik eta barrez. «Niri asko axola izango dit!» adierazi zuen.

«Ez gehiegi, entzun? Ez litzateke gizalegezkoa. Baina pixka bat izateko baimena ematen dizut; batez ere, Acton andereñoarenganako maitasun-grinarik baduzu. *Voyons*, horri dago-kionean, baduzu ala ez duzu? Oso erraza da esaten.»

«Ez dakit zergatik jakin nahi duzun,» esan zion Cliffordek.

«Zuk izan behar zenuke esateko gogoaa. Ezkontza prestatzen ari denak lagunei esan ohi die.»

«Ez naiz ezer prestatzen ari,» esan zion Cliffordek.

«Ez duzu lehengusuarekin ezkontzeko asmorik?»

«Ondo deritzodana egitea espero dut!»

Baronesak eserlekuaren bizkarrean burua etzan eta begiak itxi zituen, nekatuta balego bezala. Begiak berriro zabaldu eta «Xarmagarria da zure lehengusua,» esan zuen.

«Hemengo neskarik politena da,» erantzun zion Cliffordek.

««Hemengoa» gutxi esatea da; xarmagarria litzateke beste edonon ere. Uste dut lakioan harrapatuta zauzkala.»

«Ez, ez nauka harrapatuta.»

«Hitz emanda zaudete? Gauza bera da, zuen adinean.»

Cliffordek ausardia pixka batez begiratu zion baronesari. «Ez al diozu inori esango?»

«Horren sakratua bada..., ez.»

«Bada..., ez, ez gaude!» esan zuen Cliffordek.

«Hori da, hortaz, sekretu handi hori..., ez zaudetela hitz emanda, e?» galdetu zion baronesak, barre labur bat eginez. «Poz ematen dit hori entzuteak. Gazteegia zara. Zure egoeran dagoen mutil gazte batek aukeratu eta konparatu egin behar du; lehenik mundua ikusi behar du. Ez izan zalantzarik,» gehitu zuen, «atzerrira joan eta egin behar didazun bisita hori egin aurretik ez zenuke gai horren ganean erabakirik hartu behar. Hori baino lehen gauza batzuk ikusarazi nahi nizkizuke.»

«Bada, nahikoa beldur diot bisita horri,» esan zion Cliffordek. «Berriro eskolan hastea bezalatsu izango dela iruditzen zait.»

Baronesa begira geratu zitzaion pixka batean. «Enetxo,» esan zion, «ez da gizon atseginik, emakume argi baten eskolan —bera baino emakume zaharxeago baten eskolan, ziur asko— noizbait izan ez denik. Eta esker onekoa izan behar da heziketa dohainik jasotzen denean. Dohainik ikasiko duzu nirekin.»

Hurrengo egunean Cliffordek esan zion Lizzi-  
zieren ezker-eskuin eragin zion. «Hori ez da egia!» esan zion.

«Baronesak esaten duen guztia,» galdetu  
zion Cliffordek, «kontrako aldera ulertu behar  
dela uste al duzu?»

«Baietz uste dut!» esan zion Lizziek.

Zera esateko zorian egon zen Clifford: baro-  
nesak, hortaz, Clifford Wentworth jaunaren eta  
Elizabeth Acton andereñoaren arteko ezkontza  
bultzatzeko irrikaz egon behar zuela. Azkenean,  
ordea, ez esatea erabaki zuen.



## 9. atala

Robert Actoni iruditu zitzaion ezen, Eugenia beraren etxean izan eta gero, elkarren arteko hurbiltasuna areagotu zuen zerbait gertatu zela. Zer, zaila zen esaten, baldin eta Eugeniak Adolf printzeari buruzko erabakia harturik zuela esan izana ez bazen; zeren, bestelakoan, Madame Münsterren bisitak ez baitzuen bien arteko harremanetan aldaketarik eragin. Acton maiz joaten zen Eugenia ikustera; baina lehen ere oso maiz joaten zen. Atsegin zuen Eugeniaren saloi-txoan egotea; baina hori ere ez zen gauza berria. Aldaketa bat izan zen, nolana ere, eta zentzu honetan: lehen Actonek baronesa buruan askotan erabiltzen bazuen, orain burutik kendu gabe zerabilela. Baronesa hasiera-hasieratik izan zen pertsona liluragarria; lilura, ordea, intelektuala ere bazen orain. Acton orain baronesaren hitzak eta ekintzak neurtzen aritzen zen. Algebrako problema baten faktoreak bezain interesgarriak gertatzen zitzaizkion. Eta asko esatea da hori, oso matematika zalea baitzen Acton. Baronesaz

maitemindurik ote zegoen galdetzen zion bere buruari, eta ez ahal zela egongo espero zuen; ez ahal zela egongo, ez hainbeste bere buruagatik, nola maitasun sentimenduagatik beragatik. Hura maitasuna bazen, zuena baino balio handiagoa eman zitzaion maitasunari. Eragin poetiko bat zen maitasuna, eta Actonek baronesarenganako zuen arima-egoerak oso sentimendu prosaikoaren ezaugarriak zituen: jakin-minarenak. Egia zen, erreflexiorako ohiturak Actoni erakutsia zion bezala, ezen jakin-mina, puntu bateraino bultzatuz gero, pasio erromantiko ere bihur zitekeela. Eta Actonek, pentsatzez, pentsatzen zuen emakume xarmagarri harengan urduri eta are melankoniatsu samar egoteko adina. Batzuetan harritu eta haserretu egiten zuen gar handiagoa ez sentitzeak. Ez zuen ezkondu gabe geratzeko inolako asmorik. Iritzi izan zion gazte-denboran —edo saiatu izan zen irizten— ez ezkontzea askoz «atseginagoa» zatekeela, eta uste ere izan zuen beraren ezkongai egoera gaztelu baten antzekoa zela. Gazteluak, edozein moduz, aspaldidanik berdinduak zituen gotorlekuak. Kendurik zituen Actonek kanoiak harresietatik.

Lubanarroaren gainera beheraturik zuen zubi altxagarria. Madame Münster igaro zenean, zubiak dardara arin bat egin zuen; zergatik ez zubia berriro altxarazi, baronesa preso hartzeko? Begitantzen zitzaion ezen Eugenia nahiko eraman oneko gatibua izango zela —denbora baten buruan, andre bat eroso egon ahal izateko leku egokia zela konturatzen zenean, behintzat—. Baina zubia ez zen altxatu, eta Actonen bisitari distiratsua, etortzeko izan zen bezain libre zen joateko ere. Actonek jakin nahi zukeena, partez, zera zen: nola demontre ez zen hain gizon sentibera hain emakume xarmagarriaz maitemindu. Baldin, esan dudan bezala, Eugeniaren dohain ugariak algebrako problema baten faktoreak baziren, galdekizun horren erantzuna zatekeen behar-beharrezko kantitate ezezaguna. Eta kantitate ezezaguna bilatzeak arreta izugarria eskatzen zuen; oraingo, behintzat, Actonen ahalmen guztiak hartzen zituen.

Abuztuaren erdi aldera kanpora joan beharrean gertatu zen Acton egun batzuetarako. Aspaldiko lagun batek, Txinan bazkide izan zuen batek, Newportera joateko eskatu zion, Newport-

ten baitzegoen laguna, oso gaixorik. Lagunak hobera egin zuen, eta astebetara aske geratu zen Acton. «Aske» hitza erabili dut nahita, zeren eta atxikimendua bazion ere adiskide txinarrari, bisitaria ez baitzen oso borondatetsu joan. Antzerki-lan interesgarri baten erdian antzokitik atera balute bezala sentitu zen. Denbora horretan guztian agertokiko oihalak jasota zirauen, eta laugarren agerraldia —bosgarrenaz behar bezala jabetzeko hain funtsezkoa den laugarren agerraldia— ikusi gabe geratzen ari zen. Bestela esanda, Actonek baronesa zuen gogoan, eta baronesak, distantzia horretara ikusita, oso irudi dotorea ematen zuen. Actonek emakume polit asko ikusi zuen Newporten, eta haiek ere, egia esan, oso dotoreak ematen zuten beren soineko arin eder haiekin; baina oso hiztun onak zirela ere —eta elkarrizketa zen, beharbada, baronesaren alderdi indartsuena ere— ez zirudien Madame Münsterrek haiekin alderatzean ezer galtzen zuenik. Actonek nahiago zukeen baronesa ere Newportera joan balitz. Ez ote zitekeen udaleku ospetsura irtenaldi bat egiteko halako laguntalde bat edo antolatu eta Eugenia ere haiekin

batera joatera gonbidatu? Egia esan, Newporten hamabost egun Eugeniarekin bakarrik pasatzeak emango ziokeen Actoni pozik handiena. Plazer handia zatekeen Eugenia han jendartean ikustea, denei gaina hartzen ziela, Acton ziur baitzegoen hartuko ziela. Actonek bere burua pentsamentu horien mende ikusi zuenean, gora eta behera ibiltzeari ekin zion, eskuak sakelean, bekokia pixka bat zimurturik eta lurrera begira. Zer adierazten zuen —garbi baitzegoen zerbait adierazten zuela— Madame Münsterrekin «kanpora» joan eta beste guztiengandik urruntzeko gogo bizi hark? Ikuspen hark, itxura guztien arabera, ezkontza adierazten zuen sotilki, baronesa bere senar informal harengandik formalki askatzen zenerako. Zena zela, Actonek, bere zuhurtasunari jarraiki, uko egin zion beste edozein esanahi posibleren zentzua aurkitzeari, eta gertakizun hauen kontatzailea ez dago zehaztasun gehiago ematera beharturik.

Acton etxera itzuli zen lehenbailehen, eta, arratsean iritsi zenez, ahalik eta denbora gutxiena galduta bildu zen Wentworth jaunaren etxeko lagunartera. Wentworth jaunaren etxera heldu

zenean, ordea, lorioak hutsik aurkitu zituen. Ateak eta leihoak zabalik zeuden, eta saloietako argiek barrua ere hutsik zegoela erakusten zuten. Etxean sartu zenean, Wentworth jauna topatu zuen gela haietako batean eserita, baka- rrik, *North American Review* irakurtzen. Elkar agurtu eta lehengusuak bidaiari buruz egin zion galdeketa diskretuari erantzun eta gero, Actonek Wentworth jaunaren lagunen galde egin zuen.

«Hor dabilta atsegin hartzen, beti bezala,» esan zion agureak. «Oraindik orain ikusi dut Charlotte, Brand jaunarekin lorioan eserita, ohi duten bezala, solas ederrean. Pentsatzen dut ahizparekin elkartzera joango zirela, hura jardi- nean baitzebilen lehengusu atzerritarrari ehun- garren aldiz abegi onari dagozkionak egiten.»

«Felixengatik esango duzu?» esan zion Acto- nek. Eta Wentworth jaunaren baiezkorearen ondo- tik esan zuen, «Eta besteak?»

«Zure arreba gaur ez da etorri. Ikusiko zenuen etxean,» esan zion Wentworth jaunak.

«Bai. Galdetu diot etorri nahi zuen. Ezetz esan dit.»

«Bisita bat espero zuela uste dut,» esan zuen agureak, halako malezia solemne batez.

«Clifforden zain bazegoen, artean iritsi gabe zen.»

Wentworth jaunak, hori entzutean, *North American Review* itxi eta adierazi zion ezen Clifford bere lehengusua ikustera joatekoa zela ulertu zuela. Bere artean, berriz, pentsatzen zuen ezen Lizziek Clifforden berririk izan ez bazuen, Clifford arratserako Bostonera joanik izango zela; joera bitxia, udako gau baterako, gezurrezko aitzakiak emanda joan izateko, batez ere.

«Ez ahaztu bi lehengusu dituela,» esan zion Actonek, barrez. Eta gero, ardura zitzaion puntura etorririk, «Lizzie ez da etorri,» erantsi zuen, «baina, antza denez, baronesa ere ez.»

Wentworth jauna Actoni tinko begira geratu zen pixka batean, eta Felixen proposamen bitxi hura ekarri zuen gogora. Ez zekien ez ote zen hobe izango, azken finean, Clifford Bostonera joan izatea. «Gaur ez digu baronesak etortzeko ohorea egin,» esan zuen. «Hiru egun hauetan ez da etorri.»

«Ondozik al da?» galdetu zuen Actonek.

«Ez. Egin diot bisita.»

«Zer gertatzen zaio, bada?»

«Bada,» esan zuen Wentworth jaunak, «gurekin aspertu dela ateratzen dut nik.»

Actonek eserita egoteko ahaleginak egiten zituen, baina urduri zegoen; ezin zuen Wentworth jaunarekin hizketan jardun. Hamar minuturen buruan, kapelua hartu eta joan egin behar ko zuela esan zuen. Oso berandu zen; hamarrak puntuan.

Ahaide aurpegi-zurrinak begirada bat luzatu zion. «Etxera al zoaz?» galdetu zion.

Actonek, pixka batean zalantzan egon ondoren, baronesari ikustaldi bat egitera joatea pentsatu zuela erantzun zion.

«Tira, zuk, behintzat, egia esaten duzu,» esan zion Wentworth jaunak tristerik.

«Baita zuk ere, horretara ezkerro!» esan zion Actonek, barrez. «Zergatik ez dut, bada, egia esango?»

Agureak *North American* aldizkaria berriro zabaldu eta lerro batzuk irakurri zituen. «Gure artean inoiz bertuterik izan badugu, ez genuke



orain galdu behar,» esan zuen. Eta ez zen idatzitakorik aipatzen ari.

«Gure artean baronesa bat dugu orain,» esan zion Actonek. «Hori da galdu behar ez duguna!» Madame Münster berriz ikusteko gogo handiegia zuen Actonek Wentworth jauna zer esaten ari zen pentsatzen jartzeko. Hala ere, etxetik irten eta jardina eta Eugeniaren behin-behineko egoitzatik bereizten zuen bide-bitarte laburra igaro zituenean, gelditu egin zen pixka batean. Eugeniaren jardintxoan egon zen zutik. Haren saloiko beirate luzea zabalik zegoen, eta errezel zuriak ageri ziren, atzean argiontziaren distira ikusten uzten zutela, gaueko haize epeletan leunki firin-faran. Halako aztoramendu bat eragin zion Madame Münster berriro ikusi behar zuela pentsatzeak; bihotza ohi baino azkarrago taupaka zuela konturatu zen. Horrek bultzatu zuen gelditzera, harriturik eta erdi barrez. Baina, berehala, lorioa zeharkatu, beirate zabaldura hurbildu eta makilaz kax-kax jo zuen ate-burua. Baronesa ikusi zuen barruan, gelaren erdian zutik. Atera egin zuen baronesak, eta errezelei alde batera

eragin zien. Gero, Actonibegira geratu zen pixka batean. Ez zuen irribarrerik; serio ematen zuen.

«*Mais entrez donc!*» esan zion Eugeniak azkenean. Beiratea igaro eta barrura sartu zen Acton. Baronesari zer gertatzen ote zitzaion pentsatzen egon zen une batean. Baina baronesak berehalaxe irribarre egin eta eskua luzatu zion. «Hobe da berandu, inoiz ez baino,» esan zion andreak. «Eskertzekoa da ordu honetan etortzea.»

«Oraintxe itzuli naiz bidaiatik,» esan zion Actonek.

«Oso eskertzekoa, bai, oso eskertzekoa,» esan zion berriro baronesak, non eseri begiratzten zuela.

«Lehenik etxe handira joan naiz,» jarraitu zuen Actonek. «Uste nuen han aurkituko zintudala.»

Eugenia ohiko aulkian eseri zen; baina atzera altxatu eta gelan batera eta bestera ibiltzeari ekin zion. Actonek utzirik zituen kapelua eta makila; baronesari begira zegoen, hura berriro ikusteak atsegin handia ematen ziola jabeturik. «Ez dakit esertzeko esan behar dizudan,» esan

zion baronesak. «Beranduegi da bisitaldi bat hasteko.»

«Amaitzeko, berriz, goizegi,» adierazi zuen Actonek; «eta ez dugu hasieraz zertan arduraturik.»

Baronesak begirada bat luzatu zion, eta, handik pixka batera, berriro bere eserleku baxuan erortzen utzi zuen bere burua. Actonek, berriz, baronesaren ondoan hartu zuen leku. «Erdian gaude, hortaz?» galdetu zion Eugeniak. «Erdian al geunden zuk alde egin zenuenean? Ez, ez naiz beste etxean izan.»

«Ez atzo, ez herenegun, ezta?»

«Ez dakit zenbat egun diren izan ez naizela.»

«Joaten aspertu al zara?» esan zion Actonek.

Eugenia eserlekuaren atzealdean bermatu zen; tolesturik zituen besoak. «Oso salaketa gogorra da hori, baina ez dut neure burua defenditzeko kemenik.»

«Ez naiz zuri erasoka ari,» esan zion Actonek.

«Espero nuen horrelako zerbait.»

«Oso adimen argia behar da horretarako. Espero dut bidaia atsegingarria izango zenuela.»

«Ezta batere,» aitortu zuen Actonek. «Askoz nahiago nukeen hemen zurekin geratu.»

«Orain bai eraso didazula,» esan zion barone-sak. «Nire aldakortasuna zure leialtasunarekin alderatzen ari zara.»

«Aitortzen dut atsegin ditudan pertsonekin ez naizela inoiz aspertzen.»

«Zu ez zara, ordea, emakume atzerritar gaizto ezdeus bat, nerbio suminkorrek eta adimen sofistikatua dituena!»

«Zerbait gertatu zaizu zuri, ni kanpoan egon naizen bitartean,» esan zion Actonek, lekuz aldatzen zela.

«Zu kanpoan egon izana: hori da gertatu zaidana.»

«Zer esan nahi duzu, nire mina izan duzula?» galdetu zion Actonek.

«Hori esan nahi izan banu ere, ez luke mereziko zuk kontuan hartzerik. Oso gezurtia naiz, eta nire konplimenduek ez dute ezer balio.»

Acton isilik geratu zen une batean. «Behea jo duzu,» esan zion azkenean.

Madame Münster eserlekutik jaiki eta hara eta hona hasi zen.

«Pixka baterako bakarrik. Etorriko naiz atzera neure onera.»

«Hobe duzu estuegi ez hartzea. Aspertuta bazaude, ez duzu hala aitortzeko beldurrik izan behar..., nire aurrean behintzat.»

«Ez zenuke horrelakorik esan behar,» erantzun zion baronesak. «Adore eman behar zenidake.»

«Miresten dut zure pazientzia; adore ematea da hori.»

«Ez zenuke hori esan behar. Nire pazientzia aipatuta, traizio egiten diezu zuretarrei. Pazientziak sofrimendua esan nahi du; eta zer sofrimendu daukat nik?»

«Beno, goserik edo arbuiorik ez duzu sofritzen, jakina,» esan zion Actonek, barrez. «Baina, nolana ere, den-denok miresten dugu zure pazientzia.»

«Higuina da den-denok didazuena!» esan zuen bat-batean baronesak, gartsuki, Actoni bizkarra ematen ziola.

«Zaila jartzen didazu,» esan zuen Actonek, zutitzen zela, «zuri hitz gozorik esatea.» Arrats hartan zer harrigarri eta hunkigarri bat zuen

Eugeniak: ohi ez bezalako samurtasun bat eta emozio ito baten aztarna. Bat-batean, baronesak jokabide bikaina erakutsi zuela eta hori aintzat hartzekoa zela pentsatzen hasi zen Acton. Irain krudel baten zama bizkarrean zuela etorri zen baronesa munduko bazter isil hartara, eta, dotore eta apalki, esker ona erakutsi zion han aurkitu zuen lasaitasunari. Bidearen beste aldeko lagunarte murriztera bildu zen; hango elkarrizketa arrunt probintzianoetan parte hartu zuen; hango plazer urri eta gatzgabeak partekatu zituen. Bere buruari eginkizun bat ezarri zion, eta hura zehatz-mehatz bete zuen. Ingalaterra Berriko bizimoduaren baldintza zorrotzetara egokitu zen, eta atsegin balitu bezala betetzeko tentua eta barrena izan zuen. Inoiz sentitu ez zuen bezalako behar larri bat sentitu zuen Actonek, Eugeniari miresten zuela eta oso maila handiko emakumetzat zeukala esateko. Ordu arte, haren guardian ibili zen beti; kontuz, begiratuki eta irudikor jokatu zuen. Orain, ordea, odolean sentitzen zuen halako zalaparta arin batek iradokitzen zion ezen emakume xarmagarri harenganako konfiantza-maila handiagoak izango zuela

bere saria. «Ez dizugu higuinik,» jarraitu zuen Actonek. «Ez dakit zer esan nahi duzun. Edozein moduz, nik neuregatik diot; besteenik ez dakit. Ziurrenera zuk izango diezu higuina, eramana-razten dizuten bizimodu triste honegatik. Egia esan, alde batera poztu egingo nintzateke hori esaten entzungo bazintut.»

Eugenia gelaren beste aldeko atera begira zegoen; astiro-astiro Robert Actonengana itzuli zituen begiak. «Zer arrazoik mugitzen du,» galdetu zion, «zu bezalako gizon bat —gizon prestu bat, *galant homme* bat— horrelako arrunkeria bat esatera?»

«Arrunkeria handia al da?» galdetu zion Actonek tolesgabeki. «Hala izango da, bai, eta eskerrik asko esateagatik. Ez dut esan hitzez hitzezko zentzuan, noski.»

Baronesak Actoni begira jarraitzen zuen. «Zer zentzutan esan duzu, bada?» galdetu zion.

Zaila zen galderari erantzuten, eta Acton, bere burua barregarri samar ikusirik, leihoraino joan eta kanpora begira jarri zen. Han egon zen tartetxo batean, pentsatzen, eta gero atzera jirtu zen. «Zera, Alemaniara bidali behar zenuen

dokumentu hori,» esan zuen, «zure uko hori, bidali al duzu?»

Madame Münsterren begiak zabal-zabal egin ziren: baronesak oso serio ematen zuen. «Bai erantzun berezia, nire galderari eman diozuna!»

«Ez da erantzun bat,» esan zion Actonek. «Askotan izan dut galdetzeko gogoia. Uste nuen agian zerorrek esango zenidala. Orain hori galdetzeak zakarkeria dirudi, baina zakarkeria litzateke noiznahi galdetuta ere.»

Baronesa isilik geratu zen pixka batean; gero, «Uste dut nahikoa eta gehiegi ere esan dizudala!» esan zion.

Adierazpen horrek halako esanahi berezi bat zuela iruditu zitzaion Actoni; konturatzen zen, izan ere, eskaintzen zion baino gehiago eskatzen ziola baronesari. Leihora itzuli eta lorioko sareta-  
ren artetik diz-diz zegoen izar bati begira egon zen pixka batean. Nolanahi ere, zer eskainirik ez zitzaion falta; beharbada, ez zituen behar bezain argi egin izango eskaintzak. «Zuk zerbait eskatzea nahi nuke,» esan zion orduan. «Ez al neza-  
ke zuregatik zerbait egin? Bizimodu aspergarri



hau eraman ezin baduzu, utz iezadazu eta nik dibertituko zaitut!»

Baronesa berriro eserlekuan murgildurik zen, eta abaniko bat zuen, bi eskuez heldurik, ahoaren parean. Abanikoaren gainetik tinko begiratzeko Actoni. «Oso bitxia zaude gaur,» esan zion barrez.

«Prest nago edozertarako,» erantzun zion Actonek, aurrean zutik jarririk. «Ez al zenuke bidaiatu eta lurraldea pixka bat ikusi nahi? Ez al duzu Niagarara joan nahi? Ikusi behar zenuke Niagara.»

«Zurekin ala?»

«Oso pozik eramango zintuzket.»

«Biok bakarrik?»

Actonek irribarrez begiratu zion, baina, aldi berean, serio. «Bada, bai; bakarrik joan gaitezke,» esan zion.

«Zarena ez bazina,» erantzun zion baronesak, «iraintzat hartuko nuke.»

«Zer esan nahi duzu naizena ez banintz horrekin?»

«Bizitza osoan tratatu ditudan jaun horietako bat bazina, esan nahi dut: bostondar xelebren bat ez bazina, alegia.»

«Tratatu dituzun jaun horiek haiengandik irainan espero daitekeela erakutsi badizute,» esan zion Actonek, «pozten naiz naizena izateaz. Askoz hobe zenuke Niagarara etortzea.»

««Dibertitu» nahi banauzu,» esan zion baronesak, «ez duzu gastu handiagorik zertan eginik. Zinez ongi dibertitzen nauzu bestela ere.»

Acton baronesaren aurrean eseri zen. Baronesak abanikoa aurpegiaren parean zuela jarraitzen zuen, abanikoaren gainetik begiak bakarrik ageri zituela. Isilune bat izan zen, eta, handik pixka batera, Actonek, lehengo galderara itzuli eta esan zuen, «Bidali al duzu dokumentu hori Alemaniara?»

Beste isilune bat izan zen berriro. Madame Münsterren begi adierazkorrek, ordea, isiltasunaren ia eten egiten zutela ematen zuen. «Esango dizut..., Niagaran!» esan zion andreak.

Hori esaten bukatzerako, gelaren beste muturreko atea zabaldu zen: minutu batzuk lehenago Eugenia begira egon zitzaion atea. Clif-

ford Wentworth azaldu zen, lotsagorriturik eta eroso ez balego bezala. Baronesa altxatu egin zen bizkor, eta Actonek, astiroago, gauza bera egin zuen. Cliffordek ez zuen Acton agurtzekorik ere egin; Eugeniari begiratzen zion.

«A! Hemen al zeunden?» esan zion Actonek.

«Felixen estudioan zegoen,» esan zuen Madame Münsterrek. «Haren zirriborroak ikusi nahi omen zituen.»

Cliffordek Robert Actoni begiratu zion, baina ez zion ezer esan; kapeluz bere buruari haize ematea baizik ez zuen egin. «Une txarra aukeratu duzu,» esan zion Actonek; «ez zenuen argi askorik izango.»

«Batere ez!» esan zuen Cliffordek, barrez.

«Kandela itzali al zaizu?» galdetu zion Eugeniak. «Etorri egin behar zenuen, piztera.»

Clifford Eugeniari begira geratu zen une batez. «Horixe egin dut: etorri. Baina kandela han utzita!»

Eugenia beste aldera jiratu zen. «Hori da ergela zarena, umea! Hobe izango duzu etxera joatea.»

«Beno,» esan zuen Cliffordek, «gabon!»

«Ez al diozu hitzik esan behar bidaia arrisku-  
tsu batetik onik itzuli den gizonari?» galdetu zion  
Actonek.

«Zer moduz?» esan zion Cliffordek. «Uste  
nuen..., uste nuen oraindik...» eta isildu egin  
zen, begiak berriro baronesarengana itzultzen  
zituela.

«Oraindik Newporten egongo nintzela uste  
zenuen, ezta? Han nengoen, bai..., goizean.»

«Gabon, mutiko azkar hori!» esan zion Mada-  
me Münsterrek sorbaldaren gainetik.

Clifford baronesari begira-begira geratu zen,  
baina ez mutiko azkar baten gisa; eta, gero, bere  
purrustadatxo isekazko haietako bat egin eta  
alde egin zuen.

«Zer gertatzen zaio horri?» galdetu zuen  
Actonek, Clifford joan zenean. «Nahiko nahastu-  
rik zegoela ematen zuen.»

Eugeniak leihotik kanpora begiratu zuen, eta  
une batean entzuten geratu zen. «Zer...! Zer...!»  
erantzun zion. «Hemen, ordea, ez duzue, horre-  
lako gauzarik aipatzen.»

«Ttantta bat edaten aritu dela esan nahi  
baduzu, esan lasai.»

«Utzi dio edateari. Sendatu dut. Eta horren trukean nitaz maitemindu da.»

Orain Actoni zegokion begira geratzea. Arreba etorri zitzaion bat-batean gogora; baina ez zuen aipatu. Barrez hasi zen. «Ez nau harritzen Clifford maitasun-grinak hartu izateak! Zerak harritzen nau: zure lagunartea utzi eta zure nebaren pintzeletara joateak.»

Eugeniak ez zuen pixka batean ezer esan. «Ez da estudioan egon. Hori nik asmatu dut..., bat-batean.»

«Asmatu? Zergatik?»

«Erromantikoa dela uste du. Gauerdian ni ikustera etortzeko ohitura hartu du, baina sagastitik etorri eta Felixen margo-gelatik sartzen da beti, ate bat alde hartara baitu margo-gelak. Dibertitu egiten bide du horrek,» gehitu zuen Eugeniak, irribarretxo bat eginez.

Aitortu zuen baino harrituago zegoen Acton. Izan ere, Clifforden beste alderdi bat zen hura, Clifforden araugabekeriak osagai erromantikorik gabeak izan baitziren ordu arte. Berriro barre egiten ahalegindu zen, baina serioegi zegoen, eta, zalantza-une baten ondoren, seriotasunak

hitz egin zuen. «Espero dut ez diozula aurrera eragingo,» esan zion baronesari. «Ez luke desleial jokatu behar Lizzie gaixoarekin.»

«Zure arrebarekin?»

«Badakizu elkarren oso kutunak direla,» esan zion Actonek.

«Hara!» esan zuen Eugeniak, barrez, «Lizziek badu, hortaz....»

«Ez dakit,» eten zion Actonek «zer duen Lizziek. Baina Clifford Lizzieren aurrean atsegingarrri agertzen saiatu dela iruditu izan zait beti.»

«A! *Par exemple!*» jarraitu zuen baronesak. «Munstro txiki hori! Hurrengoan sentibera jartzten denean, lotsatu egin behar lukeela esango diot.»

Acton isilik geratu zen une batean. «Hobe izango da ezer ez esatea.»

«Dagoeneko esan diot hainbeste, handizka,» esan zuen baronesak. «Baina lurralde honetan, zera, gazteen arteko harremanak hain dira harri-garriak, ezen ez baitago asmatzerik. Ez daude hitz emanda, baina hitz emanda daudela esango zenukete denok. Har ditzagun, esate baterako, Charlotte Wentworth eta elizgizon gazte hori. Ni

Charlotteren aita banintz, lehenbailehen Charlotterekin ezkontzeko esango nioke Brand jaunari; baina horretarako presarik ez bide du inork ikusten. Eta beste aldetik, berriz, hara non jakiten duzun hogeituro urteko mutil bat eta oraindik gobernantarekin dagoen neskatila bat —zure arreba ez duela gobernatarik? Bada, amatxoren ondotik inoiz aldendu ez den neskatila bat, hortaz—, beren adinari dagozkion ume-jolasetan bestetan inork ikusi ez duen bikote gazte bat, labur esanda, senar-emazte egiteko zorian daudela.» Baronesaren hitzen etorriak halako gar gehiegizko bat zuen, Clifford agertu aurretik andreak erakusten zuen aldarte bihotz-hil xarmagarriari kontrajarria. Actoni iruditu zitzaion ezen amorru izpi bat zuela begietan, ironia puntu bat (Lizzie ama-rengandik inoiz aldendu ez zela esan zuenean bezala) ahotsean. Madame Münster amorruz bazegoen, Robert Acton, berriz, halako harridura batek zuen harturik. Baronesa gelan atzera eta aurrera ibiltzen hasi zen berriro, Acton, isilik, begira zuela. Halako batean, baronesak erlojua atera zuen, eta, erlojuari begiratu eta goizeko

hirurak zirela eta joan egin beharko zuela adierazi zion Actoni.

«Ordubeterik ere ez dut egin,» esan zion Actonek, «eta etxe handikoak erretiratu gabe dira oraindik. Ikusten dira argiak. Zure neba ere ez da itzuli.»

«A! Etxe handikoak,» esan zuen Eugeniak, «beldurgarriak dira! Ez dakit zer egiten egoten diren hor. Ni emakume baketsu bat naiz, betibatekoa; arau zorrotzak ditut, eta bete egiten ditut. Eta arau horietako bat ordu txikietan bisitaririk ez hartzea da —are gutxiago zu bezalako gizon buruargiak badira—. Beraz, gabon!»

Gogor zegoen baronesa, zinez; eta Actonek gabon esan eta alde egin bazuen ere, artean harridura oso galdu gabe alde egin zuen.

Hurrengo egunean, Clifford Lizzie ikustera joan zen, eta Actoni, zeinak, etxean zegoela, jardina igarotzen ikusi baitzuen, ez zitzaion gertakizuna oharkabean pasatu. Madame Münsterrek Clifforden sentimenduen hozteari buruz esandakoa egiari egokitzen ote zitzaion jakin nahi zuen. Baina beraren trebetasuna eginkizun horrek eskatzen zuen mailara iristen ez zela ikusirik,



mutil gaztearen xalotasunari laguntza eskatzea erabaki zuen azkenean. Clifford atzera bazihoala ikusi zuen arte itxaron zuen, eta, orduan, irten eta atzetik harrapatu zuen.

«Galdera bat egin nahi nizuke eta biziki eskertuko nizuke erantzungo bazenit,» esan zion Actonek. «Zer egiten zenuen bertan Madame Münsterrean?»

Clifford barre egiten eta gorritzen hasi zen, baina ez, ordea, sekretu erromantiko bat lukeen mutil gazte baten gisa. «Zer esan zizun berak?» galdetu zion Actoni.

«Horixe da, hain zuzen, esan nahi ez dudana.»

«Bada, nik ere hark esandakoa bera esan nahi nuke,» esan zion Cliffordek; «eta zer esan zuen ez badakit, ezin izango dut agian.»

Jardineko bidean zeuden gelditurik; Actonek tinko begiratzen zion ahaide gazte aurpegi-guriari. «Esan zidan ezin duela asmatu zer gertatzen zaizun; antza denez, oso begitan harturik omen daukazu.»

Cliffordek begiak zabal-zabal egin zituen, pixka bat ikaraturik bezala. «Tira, tira,» egin zuen purrustada, «ez duzu benetan esango!»

«Eta noiz edo behin —gizalege hutsez— bera-  
ren etxera joaten bazara, bera bakarrik utzi eta  
Felixen estudioan pasatzen duzula denbora, Feli-  
xen marrazkiak ikusteko aitzakiaz.»

«Tira, tira!» egin zuen berriro purrustada Clif-  
fordek.

«Esan al dut nik inoiz gezurrik?»

«Bai, pila bat!» esan zion Cliffordek, elkarriz-  
ketak sarkasmoaren indarra erabiltzeko aukera  
ematen ziola ikusirik. «Zera,» erantsi zuen, «aita  
zinela pentsatu nuen.»

«Ba al zenekien norbait zegoela?»

«Etortzen entzun zintugun.»

Acton pentsatzen egon zen. «Baronesarekin  
zeunden, hortaz?»

«Saloian nengoen. Oinotsak entzun genituen  
kanpoan, eta aita izango zela pentsatu nuen.»

«Eta hori pentsaturik,» galdetu zion Actonek,  
«ihes egin zenuen?»

«Madame Münsterrek irteteko esan zidan...,  
estudiora joateko.»

Acton are pentsatiago geratu zen; aulki bat eskura izan balu, eseri egingo zen. «Zer arrazoi zukeen, bada, baronesak, zuk aitarekin topo egitea nahi ez izateko?»

«Zera,» esan zion Cliffordek, «aitak ez du gogoko ni hara joatea.»

Actonek zeharretara begiratu zion lagunari, eta baztertu egin zuen adierazpen haren gainean iruzkinik egitea. «Hori esan al dio baronesari?» galdetu zion.

«Ez ahal zion esango!» esan zuen Cliffordek. «Niri ere —hitz horiekin guztiekin— ez dit esan. Baina kezkatzen duela badakit; eta utzi egin nahi diot aita kezkatan edukitzeari. Baronesak ere badaki, eta hark ere utz diezaiodala nahi du.»

«Bera ikustera joateari uztea?»

«Hori ez dakit; baina aita kezkatzeari uztea, behintzat, bai. Eugeniak dena daki,» erantsi zuen Cliffordek, bera ere zerbaiten jakitun balego bezala.

«Hara!» esan zuen Actonen galde nahiz, «Eugeniak dena daki, beraz?»

«Bazekien zetorrena aita ez zela.»

«Zergatik joan zinen, hortaz?»

Berriro gorritu eta barre egin zuen Cliffordek. «Bada, ni ez nengoelako hain ziur. Eta gainera, Eugeniak joateko esan zidan.»

«Pentsatzen al zuen ni nintzela?» galdetu zion Actonek.

«Ez zuen ezer esan.»

Berriz ere gogoetan murgildu zen Acton. «Baina ez zenuen alde egin,» esan zion hurrena; «itzuli egin zinen.»

«Ezin izan nintzen estudiotik irten,» adierazi zion Cliffordek. «Atea itxita zegoen, eta Felixek, berriz, ohol batzuk iltzaturik zituen leiho madarikatu haien beheko aldean, argia goitik sar zedin. Leihoetatik ere ezin. Han egon nintzen zain puska batean, eta gero, berriz, lotsagarri sentitu nintzen. Ez nuen neure aitarengandik ezkutuka ibili nahi. Ezin nuen gehiago. Irten egin nintzen, eta zu zinela ikusi nuenean, nahastu egin nintzen pixka bat. Baina Eugenia ederki irten zen, ez?» gehitu zuen Cliffordek, lotsagarri sentitzeak oharmena zeharo lausotu ez dion umorista gazte baten tonuan.

«Zoragarri!» esan zuen Actonek. «Batez ere,» jarraitu zuen, «oso zentzugabe jokatu

zenuela eta nahiko haserre egongo zela kontuan izanik.»

«Tira!» esan zuen Cliffordek, puntarengo jokabidea ez izanagatik inpresioak oso doi jaso dituela sentitzen duen mutil gazte baten axolagabekeriaz, «Eugeniari ez dio ezerk axola!»

Acton zer erantzun ez zekiela geratu zen pixka batean. «Eskerrik asko kontatu didazunagatik,» esan zion azkenean. Eta, gero, Clifforden sorbaldan eskua jarri eta gehitu zuen, «Esaidazu beste gauza bat: ez zara, bada, menturaz, baronesaz pittin bat maitemindurik egongo?»

«Ez, jauna!» esan zuen Cliffordek, Actonen eskua gainetik kentzeko bezalako keinu bat egingiten zuela.

## 10. atala

Robert Acton Newportetik itzuli ondorengo lehen igandeak aldaketa ekarri zuen luzaroan bikainetik ibili zen eguraldian. Euria hasi eta eguna hoztu eta goibeldu egin zuen. Eskalapoiak jantzi eta elizara joan ziren Wentworth jauna eta alabak, eta elizara joan zen Felix Young ere, eskalapoirik gabe baina, euritako batekin Gertrude babesten zuela. Beldur izatekoa da ez ote zen pribilejio horixe, igande-gordetze guztian, Felixek gehien balioesten zuena. Baronesa etxean geratu zen; ez zegoen umore onean ez deboziozko aldarrean. Nolanahi ere, baronesa ez zen izan, Estatu Batuetan egon zen denboran, jainkozko betekizunetara huts egin gabe joaten diren horietakoa; eta hasieran aipatu dudan igande goiz jakin horretan, bere saloitxoko leihotan zegoen zutik, lorioari itsatsirik zegoen arrosalantarearen adar luze bati begira, zeinaren atal bat askaturik baitzebilen hara eta hona zabuka, astinka eta keinuka, zeru ilun lanbrotsuaren kontra. Noizbehinka, haize-bolada batek jotzean,

arrosa-adarrak ur-tanta zarrastada bat zabaltzen zuen leihoko kristaletara; halako giza keinu bat egiten zuela ematen zuen: mehatxu eta zemai egiten zuela. Oso hotz zegoen gelan; bizkar-oihal bat jantzi eta hara eta hona ibiltzen hasi zen Madame Münster. Gero, su pixka bat egitea erabaki zuen; deitu zion emakume beltz zaharrari, zeinaren ebano leunduaren eta turbante gorriaren arteko kontrastea atsegingarri izan baitzitzaien hasieran, eta gar pindartsu bat egiteko behar zirenak antolatu zituen. Emakume zaharrrak Azarina zuen izena. Azarinak hizkera landugabe gatzdun bat izango zuela uste izan zuen lehenengotik baronesak, eta, dibertitzeagatik, hitz egitera animatzen zuen emakumea. Azarina lehorra eta lepo-tentea zen, ordea, eta haren hizkera, afrikarra ez beste guztia; lagunartean ezagutu zituen andre zahar aspergarriak ekartzeko zizkion gogora Eugeniari. Sua egiten, ordea, bazekien; eta, hala, zerbitzariak enborrak egokitu zituenean, Eugeniak, asper-asper eginda baitzegoen, haien aurrean eserita aurkitu zuen ordu laurden bateko entretenimendua, nola goritzen ziren eta zirt-zart egiten zuten begira. Pentsa-

tzen zuen bazitekeela Robert Acton bisitan etortzea, arrats zorigaiztoko hartaz geroztik ez baitzuen ikusi. Baina pasatu zen goiza eta Robert Acton ez zen etorri. Behin baino gehiagotan entzun uste izan zituen haren oinotsak lorioan, baina erauntsiak astintzen zuen leihatila batek egiten zituenak besterik ez ziren. Baronesak, orrialde hauetan gaingiroki zirriborratu nahi izan den ibilbideari ekin zionetik, suminaldi asko izan zuen. Baina haren gaurko suminaldiak bizitasun apartekoa zuen: bere buruaz bazkatzen zela ematen zuen. Zerbait egin zezala eskatzen zion, baina ez zion inolako ekintza-bide baliozkorik iradokitzen. Baldin orduantxe, une hartan bertan, ezer egiteko gauza izan balitz, bapore europar batera igo eta atzean utziko zukeen, halako pozoldar batek harturik, porrot mingarri hura: ahai-de amerikarrei egin zien ikustaldia. Ez dago garbi zergatik deitu zion baronesak porrota egite hari, erakunde amerikarrek onartzen zuten begiramen handienaz tratatu zutela kontuan izanik. Baronesaren suminaren sorburua, sakon-sakon-ean, baronesak beti izan zuen baina bat-batean biziagotu zitzaion sentipen batean zegoen, zei-



nak esaten baitzion ezen kontinente handi zehazgabe hartako lur soziala ez zela egokia berak arnastu nahi zukeen parfumekeo landareak hazteko, zeren eta, bere inguru guztian eduki nahi izaten zituenez, espezie horietako aldaxkak, nolabait esan, sakelean zituela ibiltzen baitzen. Halako aginpide bat erabiltzeak eta halako inpresio bat sortzeak ematen zion baronesari zorionik handiena; eta orain desengainua sentitzen zuen, igerilari nekatu batek, lehorreratzean, ur-ertzera hurbildu eta, hondartza garbi irme bat espero zuen lekuan, harkaitzezko horma zut leun bat aurkitzean sentituko lukeena bezalako. Baronesaren aginpideak esku-ments zirudien Amerikako giroan: gaindiezina zen harkaitzezko horma leuna. «Baina *je n'en suis pas là*», esan zuen bere artean, «ez nago, Robert Acton jaunak bisita baten ohorea egin ez didala eta, urduri jartzeko!» Baina, hala ere, minduta zegoen, Acton etorri ez zelako; eta minduta egoteak ematen zion min.

Neba, behintzat, etxeratu zen, sarreran oinak astindu eta beroki bustia zaplaturik. Berehalaxe sartu zen saloitxoan, masailak gorri eta bibotean

dozen erdi bat euri-tanta diz-diz zituela. «Hara! Sua egin duzu!» esan zion.

«*Les beaux jours sont passés,*» erantzun zion baronesak.

«Ezta inola ere! Ezta inola ere! Hasi baino ez dira egin,» adierazi zion Felixek, suaren aurrean jarririk. Suari bizkarra eman, eskuak atzera eramanean, hankak zabaldu eta leihotik kanpora begiratu zuen Felixek, igande busti bateko tinduetan ere arrosa-kolorea atzematen zuela ezagun zuela aurpegian.

Aulkitik begira egon zitzaion arreba; eta nebaren aurpegian ikusi zuenak ez zion berak orain zuen aldarteari begiramenik erakusten. Baronesa ez zen edozergatik harritzen, baina nebaren jarrerak maiz uzten zuen pentsakor. Maiz diot, eta ez beti, zeren eta denboraldi luzeak pasatzen baitzituen baronesak arreba beste arazo batzuetan jarririk. Batzuetan pentsatzen zuen ezen nebaren izaera ona, haren alaitasun betierekoa, itxurakeria zela: *pose* bat; ez zen, ordea, ondoegi ohartu zein antzezle-paper ona egiten ari zen Felix uda honetan. Ez zioten elkarri azalpenik eman; baronesak ez zuen pre-

miarik ikusi. Uste izatekoa zen Felixek bere jeinu onura-nahirik gabekoaren esanetara jokatuko zuela, eta baronesak ez zuen uste berak eman ziezaiokeen aholkurik ulertuko zuenik. Horrez gainera, halako erosotasun bat ere ematen zuen Felixek: inoren gauzetan sartuko ez zen ziurtasuna. Oso mutil begiratuia zen Felix gogo-garbi hura; xede guztietarako, neba zuen, eta hori, edozein aldetatik begiratzen zitzaiola ere, egokitasun handitzat zeukan Madame Münsterrek. Egia da Felix begiratuia zela; ez zen arrebarekin azalpenetan ibili zalea; horixe zen munduan higuina zion gauza bakanetako bat. Orain, ordea, Felixek ez zuen gauza higuingarririk buruan.

«Neba maitea,» esan zion Eugeniak azkenean, «utz iezaiozu euriari *les yeux doux* ipintzeari.»

«Atsegin handiz. Zuri ipiniko dizkizut!» erantzun zion Felixek.

«Zenbat denbora,» galdetu zion Eugeniak handik pixka batera, «egoteko asmoa duzu, oraindik, toki zoragarri honetan?»

Felixek tinko begiratu zion. «Alde egin nahi al duzu... dagoeneko?»

««Dagoeneko», bai hitz ederra! Ni ez naiz zu bezain zoriontsu.»

Felixek aulki batean erortzen utzi zuen bere burua, eta suari begiratu zion. «Ni zoriontsu naiz, bai, egia esan,» esan zuen, bere tonu garbi alaian.

«Eta bizitza osoa Gertrude Wentworth gor-teatzen pasatzeko asmoa al duzu?»

«Bai!» esan zuen Felixek, arrebari zeharretara irribarre egiten ziola.

Baronesak begirada itzuli zion, askoz serioago; eta, gero, «Gogoko duzu Gertrude?» galdetu zion.

«Zuk ez?» jakin nahi izan zuen Felixek.

Baronesak ez zuen tarte batean ezer esan. «Ea musika gogoko zuen galdetu zioten jaunaren hitzekin erantzungo dizut: «*Je ne la crains pas!*»»

«Gertrudek oso miresten zaitu,» esan zuen Felixek.

«Horrek ez dit axola. Emakumeek ez nindukete miretsi behar.»

«Zer egin behar zintuzkete, bada? Gaitzetsi?»

Madame Münsterrek isilaldi bat egin zuen berriro erantzun baino lehen. «Gorrotatu egin behar nindukete! Gorrotatzen ez nautela ikusteak ematen du hemen galtzen aritu naizen denboraren neurria.»

«Ez du denborarik galtzen zoriontsu denak!» esan zion Felixek, tonu esaeratsu, biribil, amorragarri samarra ere gerta zitekeen batean.

«Eta andereño gazte dirudun baten maitasuna lortu duenak!» jarraitu zuen arrebak, barre maleziatsuago bat eginez.

Felix oso tolesgabe eta seriooki hasi zen azalpenak ematen. «Gertruderen maitasuna lortu dut, baina haren ondasuna lortuko dudan ziurtasunik ez dut. Baliteke lortzea, edo baliteke ez lortzea.»

«Beno, baliteke, behintzat! Hori da garrantzizkoena.»

«Auzi hori Gertruderen aitaren esku dago. Hark ez du begi onez ikusten gu elkartzea. Bada-kizu Brand jaunarekin ezkondu nahi duela.»

«Nik ez dakit ezer horretaz!» esan zion baronesak. «Bota iezaiozu egur bat suari, mesedez.» Eskatu zitzaiona egin eta garra nola zuzpertzzen zen begira geratu zen Felix. Hurrena, arrebak beste hau gaineratu zuen, «Eta *mademoiselle* bahitu eta alde egitea pentsatzen al duzu?»

«Ezta inola ere. Ez dut Wentworth jaunak gaitzesiko lukeen ezer egin nahi. Ondoegi portatu da gurekin.»

«Baina aukera bat egin beharko duzu: zure gogoa egin ala haren gogoa egin.»

«Denen gogoa egin nahi dut nik!» esan zion Felixek alaikiro. «Kontzientzia ona daukat. Hasiera-hasieratik erabaki nuen ez nengoela Gertruderi maitasuna adierazteko egokieran.»

«Hortaz, gauzak errazteko, Gertrudek adieraziko zizun?»

Bat-batean serio jarririk begitatu zion Felixek arrebari. «Gertruderi beldurrik ez diozula diozu,» esan zion. «Baina ez dakit ez ote zeniokeen... pixka bat izan behar. Oso neska argia da Gertrude.»

«Konturatzen hasita nago!» esan zion baronesak. Neba, erantzunik eman gabe, aulkiaren

bizkarrean bermatu zen, eta isilune luze bat izan zen.

Azkenean, doinua aldatu eta Madame Münsterrek beste galdera bat egin zion, «Dena dela, ezkontzeko itxaropena al duzue?»

«Desengainu handia izango nuke hala ez balitz.»

«Desengainu bat edo beste ez litzaizuke gaizki etorriko!» adierazi zion baronesak. «Eta gero amerikar bihurtu behar al duzu?»

«Dagoeneko oso amerikar ona naizela ustedut. Baina Europara joango gara. Mundua ikusteko irrikitan dago Gertrude.»

«A! Ni hona etorri nintzenean bezala!» esan zuen baronesak algaratxo bat eginez.

«Ez, zu bezala ez,» esan zuen Felixek, halako seriotasun samur batez arrebari begira jarririk. Felix begira zegokiola, aulkitik altxatu zen Eugenia, eta Felix ere zutitu egin zen. «Gertrude ez da zu bezalakoa,» jarraitu zuen Felixek; «baina, bere erara, ia zu bezain argia bada.» Eten bat egin zuen. Sentimendu atsegin bat zuen ariman, eta atsegin hura adierazteko gogo bizia. Felixen ikuspegi izpiritualari, ilargia parte bat baizik argi-

turik ez duenean bezala agertzen zitzaion beti arreba. Azalera distiratsu hartako itzalak handitu eta txikitu egiten zirela iruditzen zitzaion Felixi; baina neurri batekoak zein bestekoak zirela ere itzalak, Felixek ilargi-argia hartzen zuen beti kontuan. Baronesari begiratu zion, eta gero musu eman zion. «Oso maitemindurik nago Gertrudez,» esan zion. Jiratu eta gelan paseatzen hasi zen Eugenia, eta Felixek hizketan jarraitu zuen, «Oso interesgarria da Gertrude, eta ematen duenaren aldean oso bestelakoa. Ez du aukerarik izan. Baina oso argia da. Europara joango gara, eta ondo pasatuko dugu.»

Baronesa leihora hurbildurik zen, eta han zegoen, kanpora begira. Inoiz baino tristeagoa zegoen eguraldia; euria ari zuen atergabe. «Bai, ondo pasatu nahi baduzue,» esan zuen andreak azkenean, «askoz hobe izango duzue Europara joatea!» Eta jiratu eta nebari begiratu zion. Aulki bat zuen ondoan; haren bizkarrean jarri zituen eskuak. «Ez al duzu uste nahikoa egin dudala,» galdetu zion, «zurekin honaino etortzea, zu egoki ezkontuta ikusteagatik bakarrik, egoki ezkontzen bazara, behintzat?»



«Horixe ezkonduko naizela egoki,» esan zion Felixek, ezinegon alai batez.

Baronesak algaratxo bat egin zuen. «Zeure buruan beste ezertan ez duzu pentsatzen, eta ez diozu nire galderari erantzun. Zu zeure Gertrude argiarekin ondo pasatzen zabiltzan bitartean, zer egin behar dut nik?»

«*Vous serez de la partie!*» esan zion Felixek.

«Eskerrik asko. Alferrik galduko nuke.» Baronesak behera begiratu zuen une batez. «Dena dela, ni hemen uzteko asmoa al duzu?» galdetu zion.

Felixek irribarre egin zion. «Arreba maitea, zuri dagokizunean nik ez dut asmorik izaten. Zuk agindutakoa egiten dut.»

«Konbentziturik nago,» esan zuen Eugeniak astiro, «ez dela munduan zu baino pertsona bihozgabeagorik. Ez al duzu ikusten kezkatuak nagoela?»

«Ikusi dut ez zeundela alai, eta albiste onak eman dizkizut.»

«Bada, emango dizkizut albisteak nik ere,» esan zion baronesak. «Zeure kabuz ez zenuke-

eta ziurrenera asmatuko. Robert Actonek nirekin ezkondu nahi du.»

«Ez, ez naiz konturatu. Baina oso ondo ulertzen dut. Eta horrek zergatik tristatzen zaitu?»

«Erabaki ezin dudalako.»

«Onar ezazu! Onar ezazu!» esan zion Felixek alaikiro. «Ez da gizon hoberik munduan!»

«Oso maitemindurik dago nitaz,» esan zion baronesak.

«Eta ondasun handiak ditu. Zilegi izan bekit orain niri hori gogoraztea.»

«Ez nago ahaztuta,» esan zion baronesak. «Oso puntu garrantzizkoa du hori bere alde. Xalotasun guztiz diozut.» Eta zegoen lekutik aldendu eta nebarengana hurbildu zen, hari tinko begiratzen ziola. Felixek gauza bat baino gehiago zerabilen buruan; baronesak, berriz, nebak benetan nola ulertu ote zion pentsatzen zuen.

Era batera baino gehiagotara har zitekeen baronesak esaten zuena: har zitekeen esan zuena, har zitekeen esan nahi izan zuena, edo har zitekeen bien arteko zerbait, hau da, ez bata eta ez bestea. Beharbada, ondo aztertuz gero,

baronesak nahi zuena zera zen: Felixek salbuets zezala aferaren inguruko xehetasun gehiago eman behar izatetik, eta har zezala beregain, bera munduko gizon onenarekin ezkon zedin, bitarteko onargarri guztiak jarri eta laguntzeko ardura. Baina horretatik guztitik Felixek zer uler-tu zuen ez zen inoiz jakin.

«Behin zure askatasuna lortu eta gero, zer eragozpen duzu?» galdetu zion Felixek.

«Bada, Acton ez dudala bereziki atsegin.»

«Tira, egin ezazu ahalegintxo bat.»

«Hori da egiten ari naizena,» esan zion Eugeniak. «Errazago nuke hemen bizi ez balitz. Ni ezingo nintzateke hemen bizi.»

«Eraman ezazu Europara,» iradoki zion Felixek.

«A! Ahalegin gogor batean oinarrituriko zorientasunaz ari zara,» jarraitu zuen baronesak. «Ez da hori nik bilatzen dudana. Robert Acton ez litzateke Europan biziko.»

«Edonon biziko litzateke, zurekin!» esan zion Felixek galaiki.

Arrebak tinko begiratu zion, bere begi xarmagarrietan sarkortasun izpi bat zuela; gero, beste

aldera jiratu zen berriz ere. «Edozein moduz, ikusten duzu,» jarraitu zuen orduan andreak, «fortuna bila etorri naizela esaten aritu badira, aurkitu dudala erantsi beharko dute!»

«Ez ezazu galtzen utzi!» animatu zuen Felixek, irribarre solemne bat egiten ziola.

«Asko eskertzen dut zure ardura,» adierazi zion arrebak, handik pixka batera. «Baina gauza bat agindu behar didazu: *pas de zèle!* Acton jaunak beraren auziaren defentsa egiteko eskatzen badizu, desenkusa zaitetz.»

«Desenkusa erraza daukat,» esan zion Felixek, «nik ere defendatu beharreko auzi bat badudala esanda.»

«Nitaz ongi hitz egiten badizu,» jarraitu zuen Eugeniak, «ohartaraz iezaiozu arriskutsua dela amets zoroak egitea. Ez dut ziriketarik nahi; askatasun osoz erabaki nahi dut, begiak ondo irekita ditudala.»

«Diskretua izango naiz,» esan zion Felixek, «zurekin ez beste guztiekin. Zuri hau esango dizut: onar ezazu oraintxe bertan!»

Eugeniak, ate zabalduaren aurrera iritsi zelarik, nebari begiratu zion. «Janztera noa, eta pen-

tsatuko dut,» esan zion; eta bere geletara astiro joaten entzun zuen Felixek.

Arratsaldearen hondarrean atertu egin zuen, eta euria atertzearekin batera eguzki-sarreraren argi-xirripa distiratsu, zalantzakor, eder bat izan zen. Margo-gelan eseri eta lanean aritu zen pixka batean Felix; baina azkenean, argia motel-tzen hasi zenean —ez zen oso bizia izan eta—, pintzelak utzi eta landetxeko lorio txikira irten zen. Han ibili zen tarte batean gora eta behera paseatzen, mendebaldeko zeruaren garraldi ederrari begira, bere buruari esaten ziola, lehen ere askotan esana zion bezala, huraxe zela, zinez, eguzki-sarreraren lurraldea. Bazen suzko itsaso lorios haietan irudimena bizkortzen zion zerbait; irudiak eta promesak ikusten zituen mendebaldeko zeruan. Gauza asko erabili zuen buruan: Gertrude Wentworthekin munduan zehar alderrai ibiltzea; beren abentura posibleak ikusi uste zituen, friso argitsu batean, hodei-barren artean; eta Eugeniak esan berri ziona. Madame Münsterri ezkontza onuragarri eta oho-ragarri bat desiratzen zion benetan. Gero, eguzki-sarrera hedatu eta sakondu zenean, kolore

miresgarri haien apunte bat egiteko gutizia etorri zitzaion. Estudiora itzuli eta margo-oihal txiki bat hartu zuen, paleta eta pintzelekin batera, eta, margo-oihala leiho-barrenean kokaturik, zirriborroan hasi zen gozamen handiz. Hartan ari zela, Brand jauna ikusi zuen urrutira, Wentworth jaunarenetik irten eta astiro etortzen, euritako handi itxi bat arretaz haztatzen zuela. Ibilera pozgabea eta gogoetatsua zekarren, eta begiak lurrera itzuliak. Felix, pintzela eskuan geldi zuela, begira egon zitzaion; eta, bat-bateko eragin batek hartaraturik, Brand jauna hurbilago zenean, jardineko ate aldera aurreratu eta keinu egin zion, paleta eta pintzel-sorten laguntzaz.

Brand jauna gelditu egin zen, kordokan; gero, Felixen gonbitea onartzea erabaki bide zuen. Wentworth jaunaren jardineko atetik irten eta bidean aurrera ekin zion; horren ondoren landetxeko jardintxoan sartu zen. Felix bere eguzki-sarrerara itzulirik zen, eta pintzelkada bizkorrak emateari utzi gabe agurtu zuen bisitaria.

«Zurekin hitz egiteko gogo handia nuen eta hots egitea pentsatu dut,» esan zion, oso adiskidetsu. «Are arrazoi handiagoz, nola eta ni ikuste-

ra oso gutxitan etorri zaren. Etorri zara arreba ikustera, hori badakit. Baina ni ikustera..., artista famatu hau ikustera, ez zara etorri. Eta badakizu oso sentiberak direla artistak; gauza horiek oso kontuan hartzen dituzte.» Eta Felix jiratu egin zen, irribarrez, pintzel bat ahoan zuela.

Brand jauna han zegoen zutik, halako majestade sor xalo batez, euritakoaren tolesdura handiak zuzentzen. «Zergatik etorri behar nuen, bada, zu ikustera?» galdetu zion. «Arteaz ez dakit ezer.»

«Harrokeria handitxoa izango litzatekeela pentsatzen dut,» esan zion Felixek, «zerbait ikasteko aukera polita zenukeela esango banizu. Zertarako ikasi behar duzun galdetuko zenidake eta, ezingo nizuke erantzun. Ministro batek arte beharrik ez du, ezta?»

«Eraman ona da ministro batek behar duena, jauna,» esan zion Brand jaunak, erabakiz.

Felix jauzi batez zutitu zen, paleta hatz lodian zuela, berehalaxe desenkusatzeko asmo sendoz. «Ni ere banaiz, izan ere, nire pintura gorriarekin plisti-plasta ari naizen bitartean zu hor zutik edukitzeko! Mila barkamen eskatzen dizut! Ikusten

duzu nolako gizabide kaxkarra ematen dion arteak gizonari; ondo egiten duzu, bai, alde batera uztea. Ez nuen zu hor zutik edukitzeko asmorik. Lorioan, ikusten duzun bezala, badira landa-aulki batzuk, nahiz eta ohartarazi behar dizudan behar ez den lekuan ere iltze batzuk badituztela. Eguzki-sarrera honen apunte bat egiten ari nintzen. Inoiz ez dut hainbeste gorri desberdin batera dirdai ikusi. Esango litzateke Zeruko Hiria sutan dagoela, e? Benetan hala balitz, zuek teologok izango zenukete sua itzaltzeko ardura, ezta? Nork esango zuen nik —artista jainkogabe honek— lasai-lasai eseri eta pintatuko nuenik!»

Brand jaunak lotsagabe samarra iritzi izan zion beti Felix Youngi, baina oraingoan azalpen berezi bat —eta are desenkusaren bat— eskatzeko bezain larria bazela iruditu zitzaion haren lotsagabekeria. Eta hala iruditzea —hau ere esan behar da— nahiko normala zen. Felixek oso jarrera ziurra azaltzen zuen beti: zuen aldarte alaiaren eta borondate onaren bideragarri huts; oraingoan, ordea, xede berezi bat zuen, eta xedea ausarta zela berak ere onartu zuenez,



bazekien ondo ezen elkarrizketaren arte guztien laguntza eskatu zuela. Baina hain zebilen urrun bisitaria iraindu nahi izatetik, ezen berehalaxe hasi baitzen pentsatzen ea zer konplimendu egin ote ziezaiokeen elizgizon gazteari kaltearen ordaina ahalik ondoen pagatzeko. Zerbait bururatzan bazitzaion, esan egingo zion. «Egin al duzu gaur zure sermoi eder hoietakoren bat?» galdetu zion bat-batean, paleta utzita. Ez zen hori Felixek bilatzen zuena, baina pasagarria zen tarte bat betetzeko.

Brand jaunak bekoskoa jarri zuen —betile horail oso finak eta haien azpian begi gozo lasaiak dituen gizonak jar dezakeen adinakoa—. «Ez, gaur ez dut sermoirik egin. Hori galdetzeagatik ekarri al nauzu honaino?»

Brand jauna sumindurik zegoela ikusi zuen Felixek, eta oso damu zen; baina azkenean Brand jaunarekin adiskidetuko ez zen beldurrik ez zuen. Begiratu egin zion, irribarrez, eta eskua besoan jartzen ziola esan zion, «Ez, horregatik ez..., horregatik ez. Gauza bat galdetu nahi nizun. Gauza bat esan nahi nizun. Asko interesatuko zaizu, ziur nago. Dena den —nahiko gauza

pribatua da eta—, hobe izango dugu nire estudioa joatea. Mendebaldera ematen duen leiho bat bada han eta handik ere ikusiko dugu eguzki-sarrera. *Andiamo!*» Eta lagunari zapladatxo bat eman zion besoan.

Felix joan zen aurretik. Brand jaunak tente eta isilik jarraitu zion atzetik. Ilunabarraren argiak hartua zuen estudio txikia; baina mendebaldeko leihoaren pareko horma argi arrosa ilunez estalirik zegoen. Zirriborro eta amaitu gabeko margo-oihal asko eta asko ageri zen arrosa-koloreko argitasunean zintzilik, eta gelako zokoak uher eta laino zeuden. Felixek esertzeko esan zion Brand jaunari; gero, ingurura begiratu eta «Arranopola! Zein polita dagoen!» esan zuen. Baina Brand jaunak ez zuen eseri nahi izan; leihora joan eta haren kontra bermatu zen; Felixek zer nahi ote zion pentsatzen zuen. Itzalen artean, hormaren gune ilunenetan, itxura fantastiko eta harrigarriko hiru edo lau margoren errainuak ikusi zituen. Figura biluzien irudiak ematen zuten. Felix zutik zegoen, burua pixka bat makurturik eta begiak bisitariarengan jarririk, irribarrea zabal eta biboteari atximurka. Brand

jaunak halako ezinegon bat sentitu zuen. «Oso delikatua da..., esan nahi dizudana,» hasi zen Felix. «Baina denboraldi bat badaramat pentsatzzen.»

«Egidazu mesede: esaidazu lehenbailehen,» esan zion Brand jaunak.

«Elizgizona zarelako esaten dizut,» jarraitu zuen Felixek. «Ez dut uste gizon arrunt bati esatera ausartuko nintzatekeenik.»

Brand jaunak pixka batean ez zuen ezer esan. «Ahulaldi batean erortzeari edo irain bategatik min hartzeari dagokionean, oso gizon arrunta naiz, tamalez.»

«Adiskide maitea,» esan zion Felixek, «hau ez da iraina: hau onura bat da, zerbitzu handi bat! Oso gogoko izango duzu. Gauza delikatua da, hori bai!» Eta, argi motel hartan, irribarre bizi bat aurpegian zuela jarraitzen zuen Felixek. «Badakizu asko ardura zaizkidala lehengusuak..., Charlotte eta Gertrude Wentworth. Haien ikusteko bost mila milia inguru egin izana da horren frogarik onena.» Brand jaunak ez zuen ezer esan, eta Felixek jarraitu zuen. «Haien gizarte-giroan kanpotar huts baten gisa sartu

naizelarik, inpresio berri asko jaso dut, noski, eta nire inpresio horiek oso garbiak dira, oso biziak. Ulertzen duzu zer esan nahi dudan?»

«Ez nago oso ziur; baina jarrai ezazu, mesedez.»

«Uste dut oso inpresio garbiak izan ditudala nik beti,» esan zuen Brand jaunaren solaskideak; «baina oraingo honetan, beharbada, askoz normalagoa ere bazen —esan bezala, kanpotik etorrita— zuek erreparatu ere egiten ez diezuen gauzek niri atentzioa ematea. Eta, gainera, arreba ere banuen laguntzeko; eta arreba baino begirale hoberik ez da munduan.»

«Ez nau harritzen,» esan zuen Brand jaunak, «gure lagunarte txikian bi pertsona argik zeri erreparatua aurkitu izateak. Neronek ere, azkenaldi honetan, aurkitu dut eta!»

«Zaude, harrituko zaitut-eta oraindik!» esan zion Felixek barrez. «Bai arrebak eta bai nik oso begiko daukagu gure lehengusu Charlotte.»

«Zuen lehengusu Charlotte?» errepikatu zuen Brand jaunak.

«Hasiera-hasieratik geratu ginen hartaz maitemindurik!»

«Zu Charlottez maitemindurik?» xuxurlatu zuen Brand jaunak.

«*Dame!*» esan zuen Felixek, «pertsonea xarmagarria da oso; eta batez ere Eugeniak oso kuttuna du.» Brand jauna tinko begira zegokion, eta Felixek jarraitu zuen, «Txerak, badakizu, begiak irekitzen ditu, eta gauza batez konturatu gara. Charlotte ez dela zoriontsu! Charlotte maitemindurik dagoela!» Eta Brand jaunarengana hurbildu eta berriz ere besoan jarri zion Felixek eskua.

Brand jaunak Felixi begiratu zion moduan lilura-aitorpen baten antzeko zerbait nabari zen; baina elizgizon gazteak izan zuen, hala ere, honako hau, solemnetasun handiz, esateko adina burujabetza, «Charlotte ez dago zutaz maitemindurik.»

Felixek algaratxo bat jaurti zuen, eta itsastar menturazale batek belan haize-kolpe bat sentitzen duenean bezalako bizkortasunez erantzun zuen, «Ez, ez! Nitaz maitemindurik balego, konturatuko nintzateke! Ez nago zu bezain itsu!»

«Ni bezain itsu?»

«Adiskide maitea, erabat itsu zaude zu. Charlotte gaixoa zureganako maitasunez urtzen dago!»

Brand jaunak ez zuen tarte batean ezer esan; pixka bat estuturik zuen arnasa. «Hori al zen esan nahi zenidana?» galdetu zuen.

«Hiru aste hauetan ibili naiz esan nahian. Zeren eta azkenaldian okerrago baitago Charlotte. Esan dizut,» erantsi zuen Felixek, «oso kontu delikatua zela.»

«Beno...» hasi zen Brand jauna; «Beno...»

«Ziur nengoen ez zenuela jakingo,» jarraitu zuen Felixek. «Baina, hara! Ikusten duzu nola, nik esan orduko, dena argi geratu den?» Brand jaunak ez zuen erantzun; aulki bat bilatu eta eseri egin zen astiro. Gorritzen ari zela ikusi zuen Felixek; ordu arte anfitrioiari aurpegira begira egon bazen ere, orain beste aldera begiratzen zuen. Entzun zuenak apaltasuna kitzikatu zion: horretan eragin zion gehien. «Ez dizut esango zer egin behar zenukeen, noski» esan zion Felixek; «nire aldetik harropuzkeria litzateke zuri aholkuak ematea. Baina gauza horrela dela ez dut nik dudarik.»

Brand jauna lurrera tinko begira egon zen pixka batean; sentipen nahasketa batek itotzen zuen. Felixek, han zutik zirauela, bazekien ziur ezen sentipen haietako bat ustekabea zela, galanta. Mutil xalo hark ez zuen susmatu ere egin Charlotteren gar ezkutua. Itxaropen handia eman zion horrek Felixi; konbentziturik zegoen ezen Brand jauna lausengaturik sentituko zela. Felixek oso gardentzat zeukan Brand jauna, eta hala zen, izan ere; hark ez zekien itxurak egiten ez disimulatzen. «Ez dakit zer egin,» esan zuen azkenean Brand jaunak, begirik altxatu gabe; eta Felix harritu egin zen nola ez zuen ez kexurik agertzu ez kontrarik egin. Bistakoa zen Felixek oroitzapen-soka bat piztu zuela; iragana argitu zuela. Oso argitasun polita zabaldu zen Brand jaunaren begi harrituden aurrean, eta sentitu zuen bigarren emozioa bere buruaz zuen iritziaren atsengingarri izan zen.

«Emaizkidazu eskerrak, esan dizudalako,» jarraitu zuen Felixek. «Jakitea atsegin den gauza da hori.»

«Ez nago horren ziur,» erantzun zion Brand jaunak.

«Tira, ez iezaiozu Charlotteri sofrimendurik luza!» xuxurlatu zion Felixek emeki.

«Aholkua eman egiten didazu, hortaz?» Eta Brand jaunak begiak jaso zituen.

«Zorionak ematen dizkizut!» esan zion Felixek irribarrez. Hasieran hunkigarria bakarrik iruditu zitzaion bisitaria; baina konturatu zen ezen ironia pixka bat ere bazuela.

«Zure interesetan sartu zara nire gauzetan,» jarraitu zuen elizgizon gazteak.

Felixek zutik jarraitzen zuen, irribarrez. Gela txikia ilunago zegoen, eta desagerturik zen argitasun gorria; baina ikusten zuen Brand jaunak Felixen aurpegi distiratsua. «Zer esan nahi duzun ulertzen ez dudan itxurarik ez dut egingo,» esan zion Felixek azkenean. «Baina zure gauzetan, egia esan, ez naiz sartu. Galtzeko zenuenetik —beste pertsona batekin galtzeko zenuenetik— ez duzu ezer galdu. Eta pentsa zer irabazi duzun!»

«Uste dut neu naizela epaile egokiena, bata zein bestea juzkatzeko,» adierazi zuen Brand jaunak. Zutitu egin zen, kapeluaren hegala aho



parera eraman eta ilunpean Felixi tinko begiratzzen ziola.

«Ilusio bat galdu duzu!» esan zion Felixek.

«Zeri esaten diozu ilusioa?»

«Gertrude Wentworth ondo ezagutzen duzula —noizbait ondo ezagutu duzula— uste izateari. Sinets iezadazu,» jarraitu zuen Felixek. «Nik oraindik ez dut ezagutzen; baina ez dut ilusiorik egiten; ez dut ezagutzen dudanarena egiten.»

Brand jaunak tinko begira jarraitzen zuen kapeluaren gainetik. «Gertrudek oso nortasun argia eta gardena izan du beti,» esan zuen solemneki.

«Gertruderen nortasuna lozorroan egon da. Froga harriaren zain egon da. Baina, orain, hasi da esnatzen.»

«Ez iezadazu Gertrude goraipa!» esan zion Brand jaunak, ahotsean dardara txiki bat zuela. «Nik ez dakidan zerbait baldin badakizu, ez da jokabide eskuzabala.»

«Jauna, gainezka nago eskuzabaltasunez!» esan zion Felixek. «Eta ez naiz lehengusua gorai-patzen ari. Haren definizio zientifiko bat eman nahian baizik. Gertruderi ez zaizkio abstrakzioak

axola. Eta zuk, berriz, beti kontrakoa uste izan duzula esango nuke: oinarri horren gainean aritu zarela eraikitzen. Konkretuan jartzen du Gertrudek ardura handia. Nik ere konkretuari begiratzeko diot. Baina ni baino kementsuagoa da Gertrude: arrastatu egiten nau!»

Brand jauna kapeluaren barruari begira egon zen une batean. «Oso nortasun interesgarria du.»

«Hala da,» esan zion Felixek. «Baina tira egiten du, tira, zaldi eroak bezala. Baina atsegin dut zaldi eroaren indarra; gainera, zalgurditik ni erortzeak ez lioke axola handirik. Baina zu eroriko bazina, Brand jauna,» —eta Felixek etenaldi-txo bat egin zuen— «beste pertsona batek ere sofrituko lituzke istripuaren ondorioak.»

«Zein bestek?»

«Charlotte Wentworthek!»

Brand jaunak zeharretara begiratu zion Felixi, fidakaitz; gero, poliki-poliki, sabaia korritu zuen begiez. Felix ziur zegoen ezen Brand jauna, barren-barrenean, harriturik utzi zuela egoeraren eleberri-antzak. «Ez dut uste guri dagokigun arazoa denik,» xuxurlatu zuen ministro gazteak.

«Niri, beharbada ez; baina bai zuri!»

Brand jaunak mugitu gabe jarraitu zuen, sabaira begira; bistan zen zerbait esan nahi zuela. «Zer esan nahi duzu Gertrude andereñoa kementsua dela esatean?» galdetu zion bat-batean.

«Bada,» esan zuen Felixek pentsakor, «esan nahi dudana da burujabetza handia duela. Zain egon da..., urteetan, orainean bizi zen itxura ematen bazuen ere. Itxaroten jakin du; helburu bat zuen. Hori esan nahi dut kementsua dela esatean.»

«Zer helburu zuen, bada, zure iritziz?»

«Bada..., mundua ikusteko helburua!»

Brand jaunak berriz ere zeharretara begiratu zion bere informatzaile bitxiari; baina ez zuen ezer esan. Azkenean jiratu egin zen, alde egiteko bezala. Nahastuta zirudien, nolana ere, zeren eta ate aldera abiatu ordez, gelaren beste aldeko muturrera jo baitzuen. Felix geldi geratu zen pixka batean, ilunpetan ia itsumustuka nola zihoan begira; gero atera bideratu zuen, samurki, ia anaitasunez harturik. «Hori al zen esan

behar zenidan guztia?» galdetu zion Brand jaunak.

«Bai, hori da guztia, baina zer pentsatu asko dago hor.»

Felixek jardineko ateraino lagundu zion, eta Brand jauna, poliki-poliki, lasaturik zuen zurruntasuna atzera berreskuratu nahirik, ilunabarrean galtzen ikusi zuen. «Mindurik, kitzikaturik, nahasturik, zurturik... eta liluraturik dago!» esan zuen Felixen bere artean. «Nahasketa bikaina!»

## 11. atala

Münster baronesak Acton andreari kontakizun honen aurreragoko atal batean adierazi den bisita egin zionez geroztik, bi andre haien arteko harremanak ez ziren izan ez sarriak ez estuak. Ez zen izan Acton andreak Madame Münsterren xarmak balioetsi ez zituelako; aitzitik, garbi asko hauteman zituen bisitari distiratsuaren manera dotoreak eta hizketa jasoak. Acton andrea, Bostonen esaten duten bezala, oso «minbera» zen, eta inpresioak gehiegizkoak gerta zekizkiokeen. Haren osasun egoerak emozioak eragozteak eskatzen zuen; eta hori zela eta, bere besaulki eternalean eseririk, oso bisitari gutxi hartzen zuela zegoenez —nahiz eta bisitariak bertakoak eta oso neurritsuak izan—, mugatu egin behar izan zituen historiako garai mugituenei buruz irakurria zuen guztia irudimenera —eta irudimen miresgarria zuen Acton andreak— ekartzen zioten jantziak eta manerak zituen andrearen ikustaldiak. Baina bidali zion baronesari antigoaleko xarmaz idatzitako mezu ugari, jardineko lorez

osatutako sorta ugari, eta fruta ederrak saskika. Felixek fruta jan, eta baronesak loreak antolatu eta saskiak eta mezuak itzuli zituen. Aipatu den igande euritsuaren ondorengo egunean, Eugeniak elbarri ongileari «*une visite d'adieux*» egite-  
ra joatea erabaki zuen, horrela iritzi baitzion berak bere baitan egitasmoari. Esan beharko litzateke ezen baronesak ez zuela ez igande arratsean ez astelehen goizean Robert Actonen-  
gandik espero zuen bisita izan. Actonek, bistan zenez, «aparte egotea» erabaki zuen; eta baro-  
nesa, berriz, osabaren etxetik aparte zebilenez—Felix izan zen, egunetan, haren desenkusak eta gainerakoen damuak inolako eragozpenik gabe garraiatu zituena—, halabeharrak ezin izan zituen patuaren kartak banatu. Wentworth jau-  
nak eta alabek errespetatu egin zuten Eugenia-  
ren itxialdia; erretiroaldi misterioitsu batzuk egi-  
tea, harena bezalako bizimodu bezeri batek berezkoa duen ibilbide dotore erritmikoaren alderdi bat bezala ikusten zuten. Batez ere Gertrudek ohore handitan zeuzkan aldi haiek; Madame Münsterrek halakoetan zer egiten ote zuen pentsatzen egoten zen, baina ez zitzaiokeen

ondo irudituko jakin-min gehiegiz galdezka has-  
tea.

Euritzak giroa freskaturik zuen, eta hamabi orduko eguzki argitsuak bideak lehorturik. Baronesak, bada, arratsalde beranduan Acton andrearen etxerako asmoa hartu zuenean, ez zuen bere burua zailtasun handien arriskuan jarri. Pauso uhinkari xarmagarrian, bide bazter txukun, belarrez estalian aurrera, fruta-arbolen adar abailduen azpitik zihoala, orduaren eta ingurunearen lasaitasuna eta udaren heldutasun betea lagun, halako malenkonia oparo bat ere sentitzen zuela konturatu zen. Baronesak tokietara lotzeko ahultasun gaizgabea zuen, hasieran toki horiei higuin pixka bat izan bazien ere. Eta, orain, partiera aurreikusten zuela, samurtasuna sentitzen zuen mendebaldeko bazter basotsu harenganako, non ere hain ederrak baitziren eguzki-sarrerak eta hain garbiak jendearen anbi-zioak. Acton andrea prest zuen errezibitzeko, baina haren gela handi perfumatu berrira sartzean, baronesak oso itxura gaixoa hartu zion andreari. Oso aurpegi zuri eta gardena zuen, eta besaulki loratuan jarririk, ez zuen batere mugit-

tzekorik egin. Baina pixka bat lotsagorritu egin zen —neskatila bat bezala, pentsatu zuen baronesak— eta bere begi argi irribarretsuak bisitariaren begietan pausatu zituen. Ahots apala eta monotonoa zuen, inoiz giza grinarik adierazi ez duen ahots baten gisakoa.

«Adio esatera etorri naiz,» esan zion Eugeniak. «Aurki joango naiz hemendik.»

«Noiz joan behar duzu?»

«Laster, edozein egunetan.»

«Damu handia dut,» esan zion Acton andreak. «Betiko hemen geratuko zinen itxaropena nuen.»

«Betiko?» galdetu zion Eugeniak.

«Zera, denbora luzerako, esan nahi nuen,» esan zuen Acton andreak, bere tonu goxo ahulean. «Oso eroso zaudela esan didate, oso etxetxo polita duzula.»

Eugenia begira-begira geratu zitzaion, hau da, irribarre egin zion. Bere borda txiki kaskarra gogora ekarri eta anfitrioiak txantxetan ari ote zitzaion pentsatu zuen.

«Bai, oso fina da nire etxea,» esan zion; «zurearekin konparatzerik ez badago ere.»



«Eta nire semea hainpozik joaten da zu ikusterera!» erantsi zuen Acton andreak. «Beldur naiz zure minez ez ote den geratuko.»

«Andre maitea,» esan zion Eugeniak, algaratxo bat eginez, «ezin geratuko naiz Amerikan zure semeagatik!»

«Ez al duzu gogoko Amerika?»

Baronesak bere soinekoaren aurrealdeari begiratu zion «Gogoko banu..., hori ez litzateke zure semearengatik geratzea izango!»

Acton andrea begira geratu zitzaion, bere begi gozo itzaltsuak tinko, ondo ulertu ez balu bezala. Baronesak azkenean halako zer sumingarri bat sumatu zuen anfitrioiaren begirada gozo samurrean. Eta gaixo larriekin errukiorra izan beharragatik izan ez balitz, andre hari —mentalki— inozo irizteko eskudantzia ere hartuko zukeen ia. «Ez zaitut, hortaz, gehiago ikusiko, tamalez», esan zion Acton andreak. «Badakizu hil zorian nagoela.»

«Andre maitea,» xuxurlatu zuen Eugeniak.

«Seme-alabak pozik eta zoriontsu utzi nahi nituzke. Alaba, ziurrenera, lehengusuarekin ezkonduko da.»

«Bi gazte oso interesgarri!» esan zuen baronesak zehazgabe. Ez zuen Clifford Wentworthengan pentsatzen.

«Oso lasai nago azken ordurako,» jarraitu zuen Acton andreak. «Aise datorkit, oso ziur.» Eta isildu egin zen, Eugeniari samurki begiratzeari utzi gabe.

Baronesak ez zuen batere gogoko inork heriotza gogoraz ziezaion; baina, nahiz Acton andrearen kasuan hain hurren izan, manera onak gorde zituen. «Oso gaixo maitagarria zara, andrea,» erantzun zion.

Baina erantzunaren finezak ez zuen, nonbait, oihartzunik eragin anfitrioiarengan, zeinak, ahots apalez, honela jarraitu baitzuen arrazoiak ematen, «Seme-alabak pozik eta gogara utzi nahi ditut. Denok oso zoriontsu zaretela iruditzen zait, orain zaudeten bezala. Nahiago nuke, beraz, geratuko bazina. Oso atsegin izango luke Robertek.»

Robertek atsegin izango zukeelakoak zer esan nahi ote zuen pentsatu zuen Eugeniak; baina iruditu zitzaion ezen hura bezalako emakume batek zer esan nahi zuen ez zuela inoiz

asmatuko. Zutitu egin zen; beldur zen Acton andreak hil zorian zegoela esango ote zion berriz ere. «Adio, andre maitea,» esan zion. «Ez zaitut nekatu nahi.»

Acton andreak Eugeniaren eskua hartu eta eduki egin zuen une batean. «Zoriontsu izan zara hemen, ezta? Eta atsegin gaituzu denok, ezta? Nahiago nuke geratuko bazina,» gehitu zuen, «zure etxetxo politean.»

Neskamea irteeran izango zuela esan zion Acton andreak Eugeniari, behera lagun ziezaion; baina gelaren aurreko korridore zabalean ez zen inor, eta Eugenia han gelditu zen ingurura begira. Sumina sentitu zuen; hiltamuan zen andreak ez zuen «*la main heureuse*». Eskaileretan behe-  
ra abiatu zen astiro, ingurura begiratzeari utzi gabe. Eskailera zabalak bihurgune handi bat egiten zuen, eta angeluan leiho garai bat zegoen, mendebaldera begira, eta aska sakon bat leihoan, txinatar portzelanazko lorontzi urdin zahar bitxietan landare lorehunak ilaran zituela. Loreen artetik sartu eta ñir-ñirtxo bat egiten zuen arratsaldeko argi horiak zurezko horma-oin zurietan. Eugenia gelditu egin zen pixka batean.

Etxea isil-isilik zegoen, erloju handi batek non-bait egiten zuen tik-tak hotsa kenduta. Eskailera-  
ren barrenean etxeko sarrera ageri zen, ekialde-  
ko alfonbra handi batek erdi estalia. Eugeniak  
itxaron egin zuen beste pixka batean, eta gauza  
franko hauteman zuen. «*Comme c'est bien!*»  
esan zuen bere artean. Etxeak oso oinarri zaba-  
lak, sendoak eta akasgabeak erakusten zituela  
iruditu baitzitzaion bizitzeko. Eta pentsatu zuen  
Acton andrea berehala desagertuko zela handik.  
Pentsamendu hori lagun zuela egin zuen handik  
beherainoko bidea, eta, behera iritsi zenean,  
berriro gelditu eta begira jarraitu zuen. Sarrera  
oso handia zen, eta etxearen aurreko atearen  
alde banatara leiho zabal bat zegoen, sakonera  
handikoa, gauza guztiei etxe barrura errainu  
eragiten ziela. Aulki bizkar-luze batzuk zeuden  
hormaren kontra, eta ekialdeko pegar handi  
batzuk mahai gainetan, eta, alde bakoitzean,  
armairu bat, aurrealdea kristalezkoa, barruan  
bitxi txikiak arinki diz-diz zituela. Ateak zabalik  
zeuden, nola saloi ilundurakoa, hala liburutegira-  
koa eta jangelarakoa. Ez zirudien gela horietan  
inor zegoenik. Eugeniak aurrera egin zuen, ate

guztietan geldialditxo bat eginez. «*Comme c'est bien!*» xuxurlatu zuen berriro; horrelakoxe etxe batean pentsatu zuen, hain zuzen, Amerikara etortzea erabaki zuenean. Baronesak berak zabaldu zuen etxeko aurreko atea —Eugeniaren ibilera isilak ez zuen zerbitzaririk erakarri— eta azken begirada bat bota zuen atetik. Kanpora irten zenean, ikusmirarako gogoak jarraitzen zuen artean; eta, hala, zuzenean bidetik aurrera irteerako atera jo ordez, astiro-astiro jardin alde-  
ra hartu zuen, etxearen eskuin aldetik. Belar gainean metro asko egin baino lehen gelditu zen, ordea, bat-batean; gizonezko bat hauteman zuen belar bigunetan etzanda, arbola baten azpian. Gizonezkoak ez zuen baronesa hurbiltzen entzun, eta geldi-geldi zegoen, ahoz gora, luze-luze etzanda, eskuak buruaren azpian gurutzurik, zerura begira. Nor izan ote zitekeen pentsatzeko astia izan zuen, beraz, baronesak. Azkenaldian buruan maiz zerabilen pertsona zen, baina baronesaren lehen bultzada, hala ere, jiratzekoa izan zen; Robert Actonen bila zebilen itxura ematea zen gutxien desiratzen zuena. Belar gaineko gizonezkoak, ordea, ez zion eraba-

kia hartzeko astirik eman; ezin zitekeen luzaroan egon hain presentzia atseginaz ohartu gabe. Begiak itzuli eta tinko begira jarri zen, eta harri-durazko esapide bat jaulki eta jauzi batez zutitu zen. Hala geratu zen pixka batean, baronesari begira.

«Barka iezadazu jarrera itxuragabe hau,» esan zion

«Oraintxe ez dut itxuragabekeriaren zentzurik. Baina zuk baldin baduzu ere, ez pentsa zu ikustera etorri naizenik.»

«Kontuz gero,» erantzun zion Actonek, «zer ulertarazten didazun! Zugan pentsatzen nengoen!»

«Beste zereginik ez duenaren eginkizuna!» esan zion baronesak. «Jarrera horretan emakume batengan pentsatzen egotea ez da konplimendua.»

«Ondo pentsatzen ari nintzenik ez dut esan!» adierazi zion Actonek, irribarrez.

Actoni begirada bat bota eta beste aldera jiratu zen baronesa. «Zu ikusteagatik etorri ez banaiz ere,» esan zuen «konturatuko zara, behintzat, zure barrutian nagoela.»

«Eta oso pozten naiz; ohore bat da niretzat!  
Ez al duzu barrura sartu nahi?»

«Oraintxe irten naiz, zure amari bisita egin-  
da. Adio esatera etorri natzaio.»

«Adio esatera?» galdetu zion Actonek.

«Banoa hemendik,» esan zion baronesak. Eta  
beste aldera jiratu zen berriro, esan zuena irudiz-  
tatzeko bezala.

«Noiz zoaz, bada?» galdetu zion Actonek, eta  
Acton ez zen, pixka batean, zegoen lekutik mugit-  
tu. Baina baronesak ez zion erantzun eta  
andrearen atzetik abiatu zen.

«Jardina ikusteagatik etorri naiz alde honeta-  
ra,» esan zion baronesak, eta, belarretatik, irtee-  
rako ate aldera hartu zuen. «Baina orain joan  
egin behar dut.»

«Utz iezadazu laguntzen, behintzat.» Lagun-  
du egin zion Actonek, eta hitzik egin gabe joan  
ziren irteerako ateraino. Atea zabalik zegoen,  
eta bidera begira geratu ziren. Zuhaixka-sasien  
itzal luzeek ilundurik zegoen bidea. «Etxera joan  
behar al duzu zuzenean?» galdetu zion Actonek.

Baina baronesak ez zion erantzun. Handik  
pixka batera, esan zion, «Zergatik ez zara ni

ikustera etorri?» Actonek ez zuen ezer esan, eta baronesak jarraitu zuen, «Zergatik ez didazu erantzuten?»

«Erantzun bat asmatzeko ahaleginetan ari naiz,» aitortu zuen Actonek.

«Ez al duzu aurrez prestatutakorik?»

«Zuri emateko modukorik, bat ere ez,» esan zion Actonek. «Baina orain utz iezadazu etxeraino laguntzen.»

«Nahi duzun bezala.»

Astiro, baronesak bideari ekin zion, eta harekin batera joan zen Acton. Halako batean hala esan zion Actonek, «Neure nahia egin izan banu, behin baino gehiagotan joango nintzen zu ikustera.»

«Asmatua al da hori?» galdetu zion Eugeniak.

«Ez, hori egia da. Joan ez banaiz, zeragatik izan da...»

«Hara! Badator, beraz, zergatia!»

«Zugan pentsatu nahi nuelako.»

«Etzanda egon nahi zenuelako!» esan zion baronesak. «Ikusi izan zaitut etzanda —edo ia— nire saloian.»



Acton gelditu egin zen bidean, baronesari ere pixka batean itxaroteko eskatu nahi balio beza-lako jarreran. Gelditu egin zen baronesa, eta Acton begira geratu zitzaion; oso xarmagarria iri-tzi zion. «Txantxetan ari zara,» esan zion; «baina bazoazela egia bada, gauza serioa izango da.»

«Geratzen banaiz,» eta algaratxo bat egin zuen baronesak, «are serioagoa izango da!»

«Noiz zoaz?»

«Ahal bezain laster.»

«Zergatik baina?»

«Eta zergatik geratu behar dut?»

«Denok oso miresten zaitugulako.»

«Hori ez da arrazoia. European ere miresten naute.» Eta etxe aldera ibiltzen hasi zen berriro.

«Zer esan nezake gera zaitezten?» galdetu zion Actonek. Ez zuen Eugeniak alde egiterik nahi, eta egia zen astebete osoa harengan pen-tsatzen egon zela. Baronesaz maitemindurik zegoen; hori bazekien, edo hori uste zuen behin-tzat; arazo bakar bat zuen: ez zekien baronesaz fio ote zitekeen.

«Zer esan zenezakeen gera nadin?» errepi-katu zuen baronesak. «Joateko irrikaz nagoenez,

ez zait esatea komeni. Eta, gainera, ez zait ezer bururatzen.»

Actonek baronesarekin jarraitu zuen isilik. Ematen zuen baino gehiago erasan zion andreak esan zionak. Newportetik itzuli zen arrats hartaz geroztik, baronesaren irudiak ez zion bakerik eman. Clifford Wentworthek esandakoak ere eragin zion, kontrako zentzuan; baina hark ere ez zuen askatu adimena urduritzen zion lilura gogaikarri hartatik. «Ez da emakume egiatia, ez da emakume egiatia,» murmurikatzen zuen etengabe Actonek bere artean. Hori aritu zitzaion esaten udako zeruari, hamar minutu lehenago. Zoritxarrez, ezin zuen ziurtasun osoz eta erabatekoz esan; eta, orain, baronesa ondoan zeukala, harriagarria bazen ere, gutxi axola zion. «Gezurra esaten duen emakume bat da,» esan izan zion Actonek bere buruari. Orain, ibiltzen zihoala, horretaz oroitu zen; baina orain ez zion ematen lehen hainbesteko beldurrik. Nahia-go zukeen baronesari gezur bat esanarazi eta, gero, gezur hura aitorrarazi ahal balio, bere buruak nola erantzuten zuen ikusteko. Horretan pentsatzen joan zen baronesaren ondoan, baro-

nesak duintasun airos dotorez aurrera egiten zuen bitartean. Baronesarekin eserita egon izan zen lehenago; harekin zalgurdian ibili ere bai; baina harekin oinez ez zen inoiz paseatu.

«Bai *comme il faut* dela emakume hau!» pentsatu zuen Actonek, aldamenetik aztertzen zuela. Sagastiko landetxera heldu zirenean, baronesak Actoni sartzeko esan gabe igaro zuen sarratea; baina Acton gelditu zenean, baronesa jiratu egin zen hari gabonak emateko.

«Lehengo gauean galdera bat egin nizun eta oraindik ez didazu erantzun,» esan zion Actonek. «Bidali al duzu... aske utziko zaituen dokumentu hori?»

Baronesak duda egin zuen unetxo batean, naturaltasun handiz. Gero, «Bai» esan zuen soil-soilik.

Acton itzuli egin zen; bila zebilen gezurra hura izan ote zitekeen pentsatu zuen. Nolanahi ere, arrats hartan bertan ikusi zuen berriro baronesa, baronesa osabarenean agertu baitzen. Hitz gutxi egin zuten, ordea. Bi jaun ziren Bostondik etorriak, zaldi bakarreko gurdi arin batean, Wentworth jaunari eta alabei ikustaldi

bat egitera, eta bi bisitariak Madame Münsterrengan jarririk zuten arretoa guztia. Bietako batek, egia esan, ez zion hitzik egiten; seriotasun handiz begiratu besterik ez zuen egiten, eta, baronesak adierazpen bat egiten zuen bakoitzean, solemneki aurrerantz makurtu eta belarria (oso belarri handia) luzatzen zuen, gorra balego bezala. Bistan zen hunkiturik zeukatela baronesaren zorigaizto eta ezbeharrek; ez zuen irribarrerik ere egiten. Haren lagunak, berriz, jarrera alaiago eta lasaiago bat zuen hartua; Madame Münsterrengandik ahalik eta hurbilen eseririk, hari hizpidea ematen saiatzen zen, eta gai berri bat ateratzen zuen uneoro. Eugeniak ohi baino bizitasun gutxiago erakusten zuen, eta solaskideak haren entzute handiagatik espero zuen baino zer esan gutxiago zeukan nola Europako hala Amerikako erakundeen merezimenduen gainean. Edozein moduz, heldugaitz jarraitu zuen Robert Actonentzat, eta Acton lorioan hara-hona ibili zen eskuak sakelean sartuta, Bostondik etorritako zalgurdiaren karraska-hotsa alboko atean noiz entzungo. Baina alferrik itxaron zuen, eta azkenerako pazientzia galdu zuen.

Arreba hurbildu zitzaion eta etxera eraman zezala eskatu zion, eta, orduan, harekin alde egin zuen. Eugeniak Lizzierekin etxetik joaten ikusi zuen; eta horrek indartu egin bide zion Eugeniari, zegoen aldardean egonda, Actonek dohain baliotsu bat baino gehiago zuelako uste sumingarria. «Neskaita *mal-élevée* horrek ere,» pentsatu zuen, «nahi duena eginarazten dio.»

Loriora ematen zuten beirate luzeetako baten ondo-ondoan eserita zegoen Eugenia; baina, Actonek alde egin eta berehalaxe, ustekabean zutitu zen, Bostongo jaun hiztuna hiri hartako «tonu morala» nolakoa iruditzen zitzaion galdetzen ari zitzaion une berean. Lorioan Clifford Wentworthekin egin zuen topo, hura etxearen beste aldetik zetorrela. Gelditu egin zuen; berarekin hitz egin nahi zuela esan zion.

«Zergatik ez duzu etxera eraman lehengusua?» galdetu zion.

Clifford begira geratu zitzaion. «Robertek eraman du,» esan zion mutilak.

«Horrexegatik. Gehienetan ez diozu ardura hori hari uzten.»

«A!» esan zuen Cliffordek. «Horra horiek zalgurdiak nola abiatzen diren ikusi nahi dut. Ez dakite gidatzen.»

«Ez da, hortaz, lehengusuarekin haserre-edo zaudelako?»

Clifford pentsatzen egon zen une batean, eta, gero, baronesari harrigarria iruditzen zitzaion xalotasunez, «Ez, ez, adiskidetu gara!» esan zuen.

Baronesa begira geratu zitzaion. Clifford, ordea, hasia zen baronesaren begiradei beldur izaten, eta haien helmenetik itzuri egiten saiatu zen. «Zergatik ez zara jada ni ikustera etortzen?» galdetu zion baronesak. «Gaitz egin al dizut zerbaitetan?»

«Gaitz? Ez, ez dut uste!» esan zion Cliffordek, barrez.

«Zergatik ez zara etorri, hortaz?»

«Bada, atzeko gela hartan itxita geratzeko beldur naizelako.»

Eugenia begirik kendu gabe zegokion. «Gogoko izan behar zenukeela uste izango nukeen.»

«Gogoko?» esan zuen Cliffordek.

«Nik gogoko izango nuke, emakume xarmant bat bisitazera joaten den mutil gazte bat banintz.»

«Emakume xarmant batek ez dit asko balio, atzeko gela hartan itxita banago.»

«Bestela ere, ez dut uste oso baliagarria natzaizunik!» esan zion Madame Münsterrek. «Baina badakizu eskaini dudala neure burua.»

«Beno,» adierazi zuen Cliffordek erantzun modura, «hor dator zalgurdia.»

«Utz iezaiozu zalgurdiari. Ba al dakizu banoa-la?»

«Zer esan nahi duzu? Orain?»

«Hemendik egun batzuetara, esan nahi dut. Banoa hemendik.»

«Atzera Europara itzuli behar al duzu?»

«Europara, bai, ni bisitazera joan behar duzun lekura.»

«Joango naiz, bai,» esan zion Cliffordek.

«Baina hori baino lehen,» adierazi zuen Eugeniak, «hemen bisitatu behar nauzu.»

«Beno, baina ez naiz atzeko gela hartan sartuko!» erantzun zion ahaide gazte xaloak.

Baronesa isilik egon zen une batean. «Ez, agerian etorri behar duzu, gordekeriarik gabe. Askoz hobe izango da horrela. Orain konturatzen naiz.»

«Hemen da!» esan zuen Cliffordek. Eta handik pixka batera, «Zer gertatzen zaio zalgurdi horri?» Clifforden belarri zailduak naturala ez zen kirrinka bat entzun zuen, antza, loriora ekarri zuten ibilgailu arinaren gurpiletan, eta lasterka joan zen anomalia larri hura ikertzera.

Baronesa oinez joan zen etxera, bakarrik, izarren argitan, bere buruari galdera bat egiten ziola. Posible ote zen berak ezer izabazi ez izatea? Posible ote zen berak ezer irabazi ez izatea?

Gertrude Wentworthek isilik parte hartu zuen Bostongo bi jaunen inguruan bildu zen taldean. Bisitariak ez zitzaizkion axola; Madame Münsterri erreparatzen zion, beti bezala. Bazekien Eugeniari ere ez zitzaizkiola axola, asperturik zegoela hura ere; eta Gertrudek jakin nahi zukeena —eta horretara jarria zegoen buru-belarri— zera zen: ea nola moldatzen ote zen Eugenia, axola gabe eta arreta beste nonbait zuela egonik ere, hain manera xarmagarriak izateko.



Haiek ziren Gertrudek beretzat nahi zituzkeen manerak; landu egingo zituela erabaki zuen, eta aurrerantzean —bere buruari xarma emateko— sarritan aspertu ahal izatea desiratzen zuen. Gertrude azterketa horietan ari zen bitartean, Felix Young Charlotteren bila zebilen, hari hitz bat esateko. Aspalditxotik zebilen Charlotteri hitz bat esan nahian, eta, arrats hartan, harekin elkarrizketa berezi bat izateko gogoak goia hartu zion: desira bizi zoragarri bat piztu zitzaion. Etxearen beheko solairu zabaleko gela hutsak korritzen ibili zen, eta, azkenean, gela txiki batean aurkitu zuen: Wentworth jaunaren «bulegoa» —oso arrazoi garbirik gabe baina— esaten zitzaion gelan. Oso gela garbia eta ondo txukundua zen. Lege-liburu bilduma bat zegoen, ardi-larruzko azalak denborak belztuak, hormetako batean; Estatu Batuetako mapa handi bat beste batean, albo banatan Rafaelen Madonnetako baten altzairuzko irarlan zahar bat zuela; eta tximeleta eta kakalardo espezieak zituzten kristalezko kaxa batzuk hirugarrenean. Charlotte lanpara baten ondoan eserita zegoen, txapin bat

bordatzen. Felixek ez zion galdetu norentzat zen txapina; oso txapin handia zela ikusi zuen.

Aulki bat inguratu eta Charlotteren ondoan eseri zen, irribarretsu, beti bezala, baina, lehenengotik, ez zuen ezer esan. Charlotte begira geratu zitzaion, orratza eskuan geldi zuela, Felix hurbiltzen zitzaion guztietan agertzen zuen halako aire lotsati eta dardarati batez. Zerbaitegatik, umiltzera eta lotsatzera egiten zuen Felixen aurrean. Aukeran eman izan baliote, Felixekin bakarka egon beharrik ez izatea aukeratuko zukeen; eta, izan ere, Felixi oso pertsona argia, bikaina eta asmo onekoa irizten bazion ere, Felixek susmatu baino tentu eta dardara handiagok erabili zituen Charlottek harekin *tête-à-tête* baten arriskuari itzulinguru egiteko. Charlotte gaixoak ez ziokeen eman ahal izango ez bere buruari ez ahaide atzerritarrari bidegabekeria ez zirudikeen azalpenik; bakarrik, zera esan zezakeen —edo hobeto esan, ez zukeen inoiz esango—: une hartantxe ez zuela gizonen lagunartean egoteko gogo handirik. Eta ez zen lasaitu, beraz, Felix, hitzak halako mirespen batez indartzten zituela, hizketan hasi zitzaionean, «Lehen-

gusu maitea, poz handia ematen dit bakarrik zaudela ikusteak.»

«Askotan egoten naiz bakarrik,» adierazi zion Charlottek. Eta berehalaxe gaineratu zuen, «Horrekin ez dut esan nahi bakarrik sentitzen naizenik!»

«Zu bezalako emakume argia ez da inoiz bakarrik sentitzen,» esan zion Felixek. «Esku artean duzun lan zoragarri horrek egiten dizu lagun.» Eta Felixek txapin handiari begiratu zion.

«Gogoko dut lan egitea,» aitortu zuen Charlottek soiltasunez.

«Baita nik ere!» esan zion solaskideak. «Eta ezer egin gabe egotea ere gogoko dut. Baina ez naiz etorri zuregana ezer egin gabe egoteagatik. Oso pertsonala den gauza bat esan nahi dizut.»

«Bada,» xuxurlatu zuen Charlottek; «nola ez, esan beharrekoa bada...»

«Lehengusu maitea,» esan zion Felixek, «ez da andereño batek entzun ezinezkorik. Ez dut uste, behintzat. Baina *voyons*; zerorrek juzkatuko duzu. Oso maitemindurik nago.»

«Hara, Felix,» hasi zen Wentworth andereñoa oso serio. Baina seriotasun hark berak etenda bezala, garatu gabe geratu zen esaldia.

«Zure ahizpaz maitemindurik nago; baina maitemindurik, Charlotte! Maitemindurik!» jarraitu zuen mutilak. Charlotek magalean utzirik zuen eskulana, eta eskuak haren gainean estu-estu gurutzaturik zituen; alfonbrari begiratzen zion. «Labur esanda, maitemindurik nago, andereño maitea,» esan zion Felixek. «Eta zuk laguntzea nahi nuke.»

«Nik laguntzea?» galdetu zion Charlotek, dardaraz.

«Ez dut Gertruderengatik esaten; Gertrudek eta biok oso ondo ulertzen dugu elkar; eta nola ulertzen nauela, gainera! Zure aitarengatik, eta, oro har, mundu guztiarengatik esaten dut, Brand jauna ere barne dela.»

«Brand jaun gizajoa!» esan zuen Charlotek astiro, baina halako xalotasunez, ezen Felixek garbi ikusi baitzuen ministro gazteak ez ziola Wentworth andereñoari arestian bien artean izandako elkarrizketa aipatu.

«Ez, mesedez, ez iezaiozu Brand jaunari «gizajoa» esan! Brand jaunak ez dit batere penarik ematen. Zure aitak ematen dit pena pixka bat, eta ez dut hura nahigabetu nahi. Horregatik eskatzen dizut egin dezazula nire alde. Ez zaizu narraskeria irudituko, ez?»

«Narraskeria?» esan zuen Charlottek apalki, haren iritzirako giza ezaugarri dotore eta finenen irudi baitzen Felixek.

«Ez dizut itxuragatik esaten,» erantzun zion Felixek, barrez, zeren eta botei begira baitzegokion Charlotte. «Nire jokabideagatik diot. Abegi onaz abusatzea dela ez zaizu irudituko, ez?»

«Zer... Gertruderengatik arduratzea?» galdu zion Charlottek.

«Nire sentimenduak azaldu izatea. Zeren eta nire sentimenduak azaldu baitizkiot, Charlotte; egia osoa esaten dizut: horixe egin dut! Gertruderekin ezkondu nahi dut, jakina, eta hor dago arazoa. Ahal izan dudan arte isilik eutsi diot; baina hain liluragarria da Gertrude! Izaki bitxi bat da, Charlotte. Uste dut ez duzula ondo ezagutzen.» Charlottek bordatze-lana eskuetan hartu zuen berriro, baina berehalaxe utzi zuen

atzera. «Badakit zure aitak helburu garaiagoak zituela,» jarraitu zuen Felixek; «eta uste dut zu ere harekin zeundela. Gertrude Brand jaunarekin ezkondu nahi zenutela.»

«Ez, ez,» esan zuen Charlottek kementsu. «Brand jaunak mirespen handia izan dio beti. Baina guk ez dugu horrelakorik egin nahi izan.»

Felixek tinko begiratu zion. «Baina ezkontza zen proposatzen zenutena, ez?»

«Bai, baina ez genuen behartu nahi.»

«*A la bonne heure!* Oso arriskutsua da hori, badakizu? Ezkontza konpondu horiek arazo beltzak ekartzen dituzte maiz.»

«Ez, Felix,» esan zion Charlottek, «guk ez genuen ezkontza «konpondu» nahi.»

«Pozten nau hori entzuteak. Zeren eta horrelakoetan —emakumea guztiz zintzoa denean ere— ezin egon izaten da ordain bat bilatu gabe. Agertzen da gizon atsegin bat eta... *voilà!*» Charlottek lurrera begira jarraitzen zuen, mutu, eta Felixek hala esan zion hurrena, «Jarrai ezazu txapinarekin. Atsegin dut zu lanean ikustea.»

Charlotte, belaki nibirri-nabarra eskuan hartuta, arrosa biribil handi batean han-hemen pun-

tada urdinak ematen hasi zen. «Gertrude hain... hain bitxia bada,» esan zuen, «zergatik ezkondu nahi duzu berarekin?»

«Bada, horrexegatik, Charlotte maitea! Emakume bitxiak gogoko ditudalako; gogoko izan ditut beti. Galde Eugeniari! Eta Gertrude zoragarria da; hain gauza politak esaten ditu!»

Charlottek begiratu egin zion —lehen aldiz, esateko moduan—, esan nahi zuena ondo markatu beharrez bezala. «Eragin handia duzu zuk Gertruderengan.»

«Bai, eta ez!» esan zion Felixek. «Hasieran bai; baina orain baten eragina sei bada, bestea-rena dozen erdia; bi aldeetarakoa da eragina. Berak ere eragin handia du niregan; izan ere, oso kementsua da Gertrude. Uste dut ez duzula ezagutzen; izaera zoragarria da harena.»

«Bai horixe, Felix; beti uste izan dut Gertrudek izaera zoragarria duela.»

«Bada, orain hori uste baduzu,» esan zion mutilak, «zaude apur batean eta ikusiko duzu! Gertrude lore itxi bat da. Utz iezadadu landare nagusitik erauzten eta ikusiko duzu nola zabal-

tzen den. Ziur nago atsegin izango duzula ikus-  
tea.»

«Ez dizut ulertzen,» xuxurlatu zuen Charlot-  
ttek. «Ezin dizut ulertu, Felix.»

«Beno, hau behintzat ulertuko duzu: aitari  
nire alde hitz egin diezaiozula erregutzen dizut.  
Pertsona arina irizten didalakoan nago, bohe-  
miarra, aldakorra. Esaiozu ez naizela horrelakoa;  
eta inoiz izan banaiz, ahazturik dudala. Atsegin  
dut plazerra, bai..., baina plazer kaltegabea.  
Oinazea, dena bat da; baina plazerrari dagokio-  
nean, desberdintasun itzelak daude. Esaiozu  
Gertrude lore itxi bat dela eta ni gizon serioa nai-  
zela!»

Charlotte aulkitik altxatu zen, eskulana astiro  
biltzen zuela. «Badakigu oso atsegina zarela  
denekin, Felix,» esan zuen. «Baina Brand jaunak  
pena handia ematen digu.»

«Horixe ematen dizuela..., batez ere zuri!  
Zu,» erantsi zuen Felixek presaka, «emakumea  
baitzara. Baina niri ez dit penarik ematen. Edo-  
zein gizon pozik egongo litzateke zuk eskaintzen  
diozun arretarekin.»



«Brand jaunarentzat hori ez da aski,» esan zuen Charlottek xaloki. Eta han geratu zen pixka batean geldi, baldin eta Felixek beste zerbait esaten bazuen ere, berariaz zain bezala.

«Brand jaunak ez du ezkontzeko lehen adina gogo,» esan zion hurrena Felixek. «Beldur dio zure ahizpari. Gaiztoa dela pentsatzen hasita dago.»

Oraingoan Charlottek erreguzko begi ederrez begiratu zion, eta Felixek malkoak ikusi zituen begi haietara igotzen. «Felix, Felix!» esan zion Charlottek, «zer egin diozu Gertruderi?»

«Uste dut lo zegoela; eta esnatu egin dut!»

Ikusten zenez, ordea, benetakoa zen Charlotteren nigarra, eta Charlotte bat-batean gelatik irten zen. Felixek, berriz, han zutik gogoetan geratu zenean, Charlotteren malkoekin atsegin hartzeko bihotz-gogorkeria nabarmena izan zuen.

Gau hartan, berandu, Gertrude, isil eta serio, Felixekin elkartu zen jardinean; hitzordu gisako bat zuten. Gertrudek, ematen zuenez, gogoko zituen hitzorduak. Eskubete heliotropo moztu eta soinekoaren aurrealdean ipini zituen, baina

ez zuen hitzik egin. Biak paseoan joan ziren bidexketako batetik aurrera, eta Felixek etxe karratu handi abegitsuari begiratu zion. Etxeak leiho guztiak itzaldurik zituen eta multzo zehazgabe baten itxura ageri zuen izarren argitan.

«Kontzientzia ez daukat guztiz lasai,» esan zuen Felixek. «Ez nuke zurekin honela elkartu behar zure aitaren baimenik gabe.»

Gertrude begira geratu zitzaion pixka batean. «Ez dizut ulertzen.»

«Sarritan esaten duzu hori,» esan zion Felixek. «Elkar horren gutxi ulertzen dugula kontuan izanik, harrigarria da biok hain ondo konpon-tzea!»

«Etorri zinenez geroztik ez dugu elkar ikustea besterik egin, eta bakarrik beti. Lehen aldiz ikusi zintudanean ere biok bakarrik ginen,» jarraitu zuen Gertrudek. «Zer alde dago orain? Ala gaua delako diozu?»

«Aldea, Gertrude,» esan zuen Felixek, bidexkan geldituta, «hau da: orain gehiago maite zaitudala, lehen baino gehiago!» Eta han geratu ziren, hizketan, gau epelaren isiltasunean, etxe ilun itxiaren aurrean zutik. «Charlotterekin hizke-

tan aritu naiz, zuen aitaren aurrean haren alde-kotasuna erdietsi nahian. Halako perbertsio sublime bat du Charlottek; nola liteke emakumea bere burua moztera hain erabakita ego-tea?»

«Begiratu egia zara,» esan zion Gertrudek; «diplomatiko egia zara.»

«Beno,» esan zuen mutilak, «ni ez naiz hona inor nahigabetzera etorri!»

Gertrudek inguruko iluntasun usaintsura itzuli zituen begiak. «Zuk nahi duzuna egingo dut,» esan zuen.

«Esate baterako?» galdetu zion Felixek, irribarrez.

«Hemendik alde egingo dut. Zuk nahi duzuna egingo dut.»

Felixek mireспен solemnez begiratu zion. «Joango gara, bai» esan zion. «Baina, lehenik, bakeak egin behar ditugu.»

Gertrudek ingurura begiratu zuen berriro, eta gero pasioz beterik adierazi zuen, «Zergatik aha-legintzen dira inor errudun sentiarazten? Zergatik zailtzen dituzte gauzak? Zergatik ez dute ulertzen?»

«Nik ulertaraziko diet!» esan zion Felixek. Eta mutilak neskaren eskua bere besoan jarri zuen, eta jardinean paseatzen ibili ziren, hizketan, ordubetez.

## 12. atala

Felixek denbora utzi zion Charlotteri beraren auzia defenda zezan; eta, gero, hirugarren egunean, osabarekin elkarrizketatzeko egokiera bilatu zuen. Goizean izan zuen. Wentworth jauna bere bulegoan zegoen; eta, sartzera, Charlotte une hartan aitarekin bildurik zegoela ikusi zuen Felixek. Charlotte, egia esan, Felixekin izan zuen elkarrizketaz geroztik ez zen aitaren ondotik urrundu; pentsatu zuen ezen lehengusuaren eskaera gartsua hitzez hitz azaltzea zela beraren egitekoa. Eta Wentworth jaunaren ondotik ibili zen, beraz, haren errainua balitz bezala, hitz egiteko behar adina lasaitasun biltzen zuenean eskura izan zezan. Zeren eta lasaitasuna falta zuen Charlotte gaixoak auzi hartan, Felixek egingdako iradokizun batzuetan pentsatzen jartzen zenean, bereziki. Ez zen lan atsegina, onenean ere, norberaren bihotz bihurriaren fruitu gaixo ezagutu gabea lurpera eramango zuen hilkutxari mailu-kolpetxoak ematen jardun beharra; eta kanpotar gazte berritsu baten hitz ausart bitxiak

norberaren amets itoa itzalen artetik atera izanak ez zuen jarduna atseginagotzen. Zer esan nahi izan zuen Felixek Brand jaunak lehen adina gogo ez zuelakoarekin? Charlotteren aurrean, ahizparen gorteatzaile tristatuak —arrazoiz tristatuak— ez zuen zalantza aztarnarik erakutsi. Dardara batean jartzen zen Charlotte, baldin noiz edo noiz burutik pasatzen bazitzaion ezen bazitekeela Brand jaunak duda egin izatea; eta Felixen hitzak aitari esatea Felixen hitzak sendotzea zela ematen zuenez, Charlotte bere burua ondo lasaituta ikusi zain zegoen. Orain, ordea, oso urduri zegoela esaten hasi zitzaion Wentworth jaunari. Ideia hori azaltzen ari zen, bere urduritasunaren arrazoiak aipatzen, Felix sartu zenean.

Wentworth jauna eserita zegoen, zangoak gurutzaturik, begitarte ihar zuria Bostongo *Advertiser*-en gaineratik ageri zuela. Felix irribarrez sartu zen, gauza bereziren bat esatera baltor bezala, eta gertakizuna espero eta aldi berean onartuko ez balu bezala begiratu zion osabak. Felix, adierazpen-molde bizikoa, antzirudi beldurgarria bihurtu zitzaion osabari, zeina ez

baitzen oraindik iritsi, erabili beharreko tonuari zegokionean, ikuspuntu garbi bat izatera. Bizitza osoan lehen aldia zuen Wentworth jaunak, esan dudan bezala, erantzukizunari ihes egiten ziona; ez zuen bere gain hartu nahi ilobaren proposamen arinak nola tratatu erabakitzeko ardura. Felixek indukzio bada-ezpadakoak onartzera limur zezakeen beldurraren mende bizi zen, eta kontuan egoteko erarik onena eztabaida saihestea zela esaten zion kontzientziak. Ilobaren bisita atsegina koherentziari koska handirik egin gabe igaroko ahal zela espero zuen.

Felixek halako konplizitate batez begiratu zion Charlotteri; gero Wentworth jaunari begiratu zion, eta hurrena Charlotteri berriro. Wentworth jaunak Felixengana jaso zituen bere bekain araztuak eta kolpe batez itxi zuen *Advertiser*-en lehen orrialdea. «Lore sorta bat ekarri behar nuen,» esan zuen Felixek, barrez. «Frantzian hori egiten da.»

«Ez gaude Frantzian,» esan zuen Wentworth jaunak benaz, Charlotte, oso serio, tinko begira zegokiola.

«Ez, ez gaude Frantzian, zorionez; han, ziu-rrenera, lan gogorragoa izango nuke. Charlotte maitea, egin al didazu mesede handi hori?» Eta erreberentzia egin zion Charlotteri, norbaitek orduantxe haren aurrean aurkeztu balu bezala.

Charlottek ia ikaraturik begiratu zion; eta Wentworth jaunak eztabaida baten atarian egon zitezkeela pentsatu zuen. «Lore sorta, zertarako?» galdetu zuen, eztabaida desbideratzeko asmoz.

Felix begira-begira geratu zitzaion, irribarrez. «*Pour la demande!*» Eta hori esan eta gero, aulki bat gerturatu eta eseri egin zen, kapelua eskuan, eta berariazko solemnetasun halako batez.

Orduan, Charlotterengana itzuli zen berriro. «Charlotte maite horrek, Charlotte miresgarri horrek,» xuxurlatu zuen, «ez zenidan, bada, jukutriarik egingo? Ez zinen, bada, nire kontra jarriko?»

Charlotte zutitu egin zen; dardaraz airean zegoen, igartzen ez bazitzaion ere. «Zerorrek hitz egin behar duzu aitarekin,» esan zion, «Baduzu horretarako adina jakituria.»



Baina Felixek, bera ere zutitzen zela, geratze-ko erregutu zion. «Entzuleak ditudanean, hobeto hitz egiten dut!» adierazi zuen.

«Ez ahal da ezer txarrik izango,» esan zuen Wentworth jaunak.

«Oso gauza atsegina da, niretzat!» Eta Felixek, kapelua utzita, eskuak belauburuen artean gurutzaturik eduki zituen pixka batean. «Osaba maitea,» esan zion, «zure alaba Gertruderekin ezkondu nahi dut, eta serioa da nahia.» Poliki-poliki, Charlotte bere aulkian eseri zen oster, eta Wentworth jauna begira-begira geratu zen, izozmendi batek islatua zirudien argitasun bat aurpegian zuela. Begira-begira jarritzen zuen; ez zuen ezer esaten. Felixek bizkarra atzeratu zuen aulkian, eskuak gurutzaturik mantentzen zituela. «Ez zaizu ondo iruditzen. Banuen horren beldurra!» Koloreak gorritu zitzaizkion Felixi, eta Charlotte konturatu egin zen, eta Felix gorritzen ikusten zuen lehen aldia zela pentsatu zuen. Charlotte ere gorritzen hasi zen, eta Felix oso maite-mindurik egon zitekeela pentsatzen.

«Ezusteko handia da hau,» esan zuen Wentworth jaunak azkenean.

«Ez al duzu susmorik hartu, osaba maitea?» galdetu zion Felixek. «Beno, zuhur jokatu dudala erakusten du horrek. Bai, pentsatzen nuen ez zenuela atsegin izango.»

«Hori oso gauza serioa da, Felix,» esan zion Wentworth jaunak.

«Abegi onaz abusatzea dela usteko duzu?» esan zion Felixek, berriz ere irribarre eginaz.

«Abegi onaz... abusatzea?» errepikatu zuen osabak oso astiro.

«Horixe da Felixek esan zidana,» esan zuen Charlottek berariaz.

«Hori uste duzu, noski; ez duzu zertan ukaturik!» jarraitu zuen Felixek. «Abusua da; garbi dago; gehienara ere, abusu barkagarria dela esan ahal izango dut. Baina hara: maitemindu egin naiz zeharo, eta horri ezin zaio buru egin. Gertruderen aita zaren arren, ez dut uste zure alaba zein erakargarria den konturatzen zarenik. Osaba maitea, Getrudek oso emakume bereziaren —bitxiaren, esango nuke nik— osagarriak ditu!»

«Gertruderen ardura handia izan dut nik beti,» esan zuen Wentworth jaunak. «Haren zoriona bilatu dugu beti.»

«Bada, hemen nauzu!» adierazi zion Felixek. «Nik egingo dut zoriontsu. Gertrude ere horretan dago. Ez al zara konturatu?»

«Oso aldaturik dagoela konturatu naiz,» adierazi zuen Wentworth jaunak, eta erabili zuen tonu motel grinagabeak desadostasun sakon bat adierazten zuela iruditu zitzaion Felixi. «Behar-bada, zuk diozun emakume xarmagarria bihurtzen ari delako izango da, ez bestegatik.»

«Gertrude, bihotzez, oso serioa da, oso egia-tia,» esan zuen Charlottek apalki, begiak aitarengan itsasten zituela.

«Poz handia ematen dit zu Gertrude goraipatzen entzuteak!» esan zion Felixek.

«Oso izaera berezia du,» esan zuen Wentworth jaunak.

«Zera..., hori ere goraipamena da!» erantzun zuen Felixek. «Badakit ez naizela zuk espero izango zenuen gizona. Ez dut posiziorik ez ondatsunik; ezin diot Gertruderi munduan leku bat

eskaini. Leku bat munduan: hori da Gertrudek behar lukeena; horrek eragingo lioke aurrera.»

«Bere egitekoa betetzeko lekua!» ohartarazi zuen Wentworth jaunak.

«A! Eta bai ederki betetzen duela, bere egitekoa!» esan zuen Felixek, aurpegi argiz. «Zein ideia fina duen horretaz! Baina bere zintzoak eragiten diolako, osaba maitea!» Bai Wentworth jaunak eta bai Charlottek erbi-zakur baten lasterketa ikusten ari balira bezala begiratzen zioten. «Nirekin, gaitzerupean estalitako argia bezalakoa izango da, noski» jarraitu zuen. «Ni gaitzerua izanik! Bestalde, badakit atsegin nauzula: ondo baino hobeto erakutsi duzu. Baina kaskarina eta sorgabea eta narrasa naizela pentsatzen duzu. Onartzen dut..., onartzen dut..., mila bider onartuko dut. Oilo ibiltaria izan naiz: biolin-jole, pintore, antzezlarri. Baina hau ere esan behar da: lehen-lehenik, uste dut handitu egiten duzula; izan ez ditudan dohainak ezartzen dizkidazula. Bohemiarra izan naiz, bai; baina Bohemian jauntzat hartu izan naute beti. Nahia-go nuke nire garai bateko *camarade* haiekin egon ahal bazina: haiek esango lizukete! Askata-

sunu nuen gogoko, ez egokierak! Nire bekatuak bekatutxoak izan dira denak; beti errespetatu ditut lagun hurkoaren ondasuna eta lagun hurkoaren emaztea. Ikusten duzu, osaba maitea?»  
Wentworth jaunak beharko zukeen ikusi: haren begi urdin hotzak tinko begiratzen zioten. «Eta orain *c'est fini!* Bukatu da dena. *Je me range.* Trostatxo lasaiera ekarri dut pausoa. Uste dut mundua korrituz eta erretratu txarrak eginez poliki atera dezakedala bizibidea. Ez da aintza handiko lanbidea, baina bai errespetagarria. Hori ez duzu ukatuko, ezta? Mundua korritzea? Bai, hori ezin dut ukatu, mundua korritzen ibiliko naizela uste dut, beti, modelo atseginen bila. Atsegin esaten dudanean, zera esan nahi dut: leunki lausengatu ahal direnak eta pagatzeko prest direnak. Gertrudek nire ibilaldietan parte hartu nahi duela dio, eta modeloak egoki jartzen lagunduko didala. Zoragarria izango dela esaten du; eta horrek hirugarren puntura nakar. Gertrudek atsegin nau. Pixka bat bultzatzen baduzu, berak esango dizu.»

Felixen mihia entzuleen irudimena baino askoz bizkorrago zebilen, noski; haren etorriak,

txaluparen kulunkak aintzira sakon bare batean nola, isiltasun-zurrunbilo luzeak egiten zituen. Eta isilik ere argudiatzen eta berriketan jarraitzen zuela ematen zuen, irribarre bizi argia aurpegian, bekainak jasorik, ahoa adierazkor, hitz egiteari utzi eta, begiak aitarengandik alabarengana arin aldatzen zituela, egin zuen deiaren eraginaren zain geratu zenean. «Ez da modurik ez duzulako,» esan zion Wentworth jaunak uzkurraldi gogor baten ondoren.

«Pozten nau hori entzuteak! Baina ez iezada-zu esan nortasunik ez dudalako dela. Badut-eta nortasuna; bai horixe: txikia, oso gauza nimiñoa, baina haztagarria, hala ere.»

«Ez al zenioke esan behar Brand jaunarengatik dela, aita?» galdetu zion Charlottek, leuntasun mugagabez.

«Ez da Brand jaunarengatik bakarrik,» adierazi zuen Wentworth jaunak solemneki. Eta belaunari begira geratu zen denbora luzean. «Zaila da adierazten,» esan zuen. Bistan zen oso zuzen jokatu nahi zuela. «Arazoa, Brand jaunak esaten duen bezala, moralaren arlokoa da. Ger-

truderentzat gauzarik onena hori ote den da arazoa.»

«Onena! Zer da onena, osaba maitea?» erantzun zuen Felixek presaka, presaren presaz altxatu eta Wentworth jaunaren aurrean zutik jarririk. Osaba belaunari begira zegoen; baina Felix mugitu zenean, aurrez aurre zuen atearen eskulekura luzatu zituen begiak. «Neska bat berak maite duen gizonarekin ezkontzea ere oso gauza ona izaten da gehienetan!» esan zion Felixek.

Felix hizketan ari zela, Wentworth jaunak atearen eskulekua biratzen hasi zela ikusi zuen; atea zabaldu zen, eta erdi zabaldurik egon zen Felixek oraintxe aipatu den axioma alaia jaulki zuen arte. Orduan oso zabaldu zen, eta Gertrude agertu zen. Aztoraturik zirudien; distira bat ageri zuen begi itzal gozoetan. Astiro sartu zen, baina halako itxura erabakior batez, eta atea poliki itxi eta han ziren hiru pertsoneri begiratu zien. Felix samur eta galai hurbildu zitzaion, eskua luzatzen ziola, eta Charlottek sofan leku egin zion. Baina Gertrudek eskuak atzera eramanez eta ez zuen esertzekorik egin.

«Zutaz ari gara!» esan zion Felixek.

«Badakit,» erantzun zion Gertrudek. «Horregatik etorri naiz.» Eta aitarengan itsatsi zituen begiak, eta aitak ere oso begirada tinkoa itzuli zion. Wentworth jaunaren begi urdin hotzetan arrazoiketarako halako erregu baten argia ageritzen.

«Hobe da zu ere aurrean egotea,» esan zion Wentworth jaunak. «Zure etorkizuna eztabaidatzen ari gara.»

«Eta zergatik eztabaidatu behar da?» galdu zion Gertrudek. «Utz ezazue nire etorkizuna neure esku.»

«Nire esku, alegia!» esan zuen Felixek.

«Guk baino jakituria handiagoa duenaren esku utziko dut, azken finean» esan zuen agurreak.

Felixek bekokia igurtzi zuen emeki. «Baina *en attendant* azken fin hori, zure aitari konfiantza falta zaio,» esan zion Gertruderi.

«Ez al duzu konfiantzarik Felixengan?» Gertrudek bekokia zimurtu zuen; aitak eta Charlottek ordu arte ikusi ez zioten zerbait zuen Gertrudek. Charlotte jaiki eta Gertruderengana joan



zen, hura besoaz inguratzeko bezala; baina, bat-batean, hura ukitzeko beldurrez bezala geratu zen.

Baina Wentworth jauna ez zen beldur. «Konfiantza gehiago dut Felixengan zuregan baino,» esan zion.

«Egia, niregan ez duzu inoiz konfiantzarik izan, ezta inoiz ere! Ez dakit zergatik.»

«Ahizpa, ahizpa!» xuxurlatu zuen Charlottek.

«Aholkuaren beharra izan duzu beti,» adierazi zion Wentworth jaunak. «Izaera zaila izan duzu.»

«Zergatik esaten diozu zaila? Otzana izan zitekeen, nahi izan bazenute. Ez didazue naizen bezalakoa izaten utzi. Ez dakit zer bihurtu nahi ninduzuen. Eta Brand jauna izan da okerrena.»

Charlottek, azkenean, heldu egin zion ahizpari. Besoan jarri zizkion bi eskuak. «Brand jauna asko arduratzen da zutaz,» esan zion ia xuxurlan.

Gertrudek adi-adi begiratu zion pixka batean; musu eman zion hurrena. «Ez, ez da arduratzen,» esan zion.

«Ez zaitut inoiz horren gartsu ikusi,» esan zion Wentworth jaunak, halako haserre itxura bat erakusten zuela, hatsapen jasoek ematua.

«Barka, mindu bazaitut,» esan zion Gertrudek.

«Mindu nauzu, baina ez dut uste damu zarenik.»

«Bai, aita, damu da,» esan zuen Charlottek.

«Ni harago joango nintzateke, osaba maitea,» sartu zen Feliz. «Duda egingo nuke benetan mindu zaituen. Nola min zaitzake Gertrudek?»

Wentworth jaunak ez zion horri bat-batean erantzun. Handik pixka batera esan zuen «Ez du eman espero genuena.»

«Eman? *Ah voilà!*» esan zuen Felixek.

Gertrude oso zurbil zegoen, behera begira. «Felixi berarekin joango naizela esan diot,» esan zuen hurrena.

«Gauza miresgarri asko esan duzu!» esan zuen mutilak.

«Hemendik kanpora, ahizpa?» galdetu zion Charlottek.

«Hemendik kanpora, bai; atzerriko herrialde-  
ren batera.»

«Zu ikaratzeagatik esaten du hori,» esan  
zuen Felixek, Charlotteri irribarre eginez.

«Zera..., nola da?» galdetu zuen Gertrudek,  
Felixengana itzultzen zela. «Bohemiara.»

«Eta aurretik egin beharrekoak egin gabe  
joateko asmoa al duzue?» galdetu zuen Went-  
worth jaunak, zutitzen zela.

«Osaba maitea, *vous plaisez!*» esan zion  
Felixek. «Aurretik egin beharrekoa da orain egi-  
ten ari garena ere, nik uste.»

Gertrude aitarengana itzuli zen. «Eman,  
eman dut,» esan zion. «Nire nortasuna moldatu  
nahi bazenuen, aski moldaturik da, dudan adine-  
rako. Badakit zer nahi dudan. Egin dut aukera.  
Eta jaun honekin ezkontzeko erabakirik nago.»

«Hobe izango zenuke baimena ematea,  
jauna,» esan zion Felixek, amultsuki.

«Bai, jauna, hobe izango zenuke baimena  
ematea,» gaineratu zuen beste ahots batek.

Charlottek jauzi txiki bat egin zuen, eta gai-  
nerakoak ahotsa etorri zen aldera itzuli ziren.  
Ahotsa Brand jaunarena zen, zeina loriora ema-

ten zuen kristalezko ate handi zabalduetik sartu baitzen. Han zegoen Brand jauna zutik, esku-zapiaz bekokia xukatzen; gorri-gorri eginda zegoen; adierazpen berezi bat zuen aurpegian.

«Bai, jauna, hobe zenuke baimena ematea,» esan zuen berriro Brand jaunak, aurrera egiten zuela. «Badakit zer esaten duen Gertrude andreñoak.»

«Lagun maitea!» murmuriatu zuen Felixek, eskua ministro gaztearen besoan laztanki jarri-rik.

Brand jaunak Felixi begiratu zion; hurrena Wentworth jaunari; azkenik Gertruderi. Charlotteri ez zion begiratu. Baina Charlotteren begi serioak haren aurpegian itsatsirik zeuden; galdera itzel bat egiten zioten. Galdera haren erantzun osoa ez zitekeen bat-batean iritsi; baina erantzunaren osagai batzuk han zeuden. Osagai horietako bat zera zen: Brand jauna oso gorriturik zegoela, burua oso tenteturik eta begiak dizdiz eta larri zituela, eta halako itxura ausart traketak bat ageri zuela: erabaki bat hartu eta erabakia burutzeko baliabideak —ez moralak, pertsonalak baizik— falta zaizkiola ulertzen duen gizo-

naren itxura. Oso itxura prestua zuela iruditu zitzaion Charlotteri; eta ezin da ukatu Brand jauna prestu sentitzen zela. Hura zuen, egia esan, bere bizitzako unerik handiena; eta normala zen horrelako une batean mutil handi, sendo, apal bat aldika moldakaitz egotea.

«Aurrera, jauna,» esan zion Wentworth jaunak, eskuari tenkada bat eraginez. «Oso egoki etorriko zaigu zu aurrean egotea.»

«Badakit zertaz ari zareten,» esan zuen Brand jaunak. «Entzun dut zure ilobak esan duena.»

«Eta osabak ere entzun du zuk esan duzuna!» esan zion Felixek, berriro ere besoan xaflaxafla egiten ziola.

«Ez dakit ulertu dudan,» esan zuen Wentworth jaunak, bai ahotsean eta bai keinuetan tenkadura bat sumatzen zitzaiola.

Gertrude bere gorteatzaile ohiari tinko begira zegoen. Zur eta lur geratu zen bera ere, ahizpa bezala; baina Gertruderen irudimena Charlotterena baino bizkorrago ibili zen. «Felixi ni hemen-dik eramateko baimena eman diezaiozula eskatu dizu Brand jaunak,» esan zion aitari.

Ministro gazteak begirada bitxi bat zuzendu zion Gertruderi. «Ez da aurrerantzean ikusi nahi ez zaitudalako,» adierazi zuen, aurrean zirenak ohartarazteko helburua-edo zuen tonu batean.

«Ez dut uste ni ikusten jarraitu nahi izango duzunik,» erantzun zion Gertrudek emeki.

Wentworth jauna begira-begira zegoen. «Ez al da hau egundoko aldaketa?» galdetu zion Brand jaunari.

«Bai, jauna.» Eta Brand jaunak inguruko guztiei begiratu zien; Charlotteri ez beste guztiei, orain ere. «Bai, jauna,» esan zuen berriro. Eta esku-zapia ezpainen parean eduki zuen pixka batean.

«Eta non dira gure arrazoi moralak?» galdetu zuen Wentworth jaunak, zeinak beti pentsatu izan baitzuen ezen Brand jauna zela alaba gazte, izaera bereziko hark behar zuena.

«Aldatzea ere oso morala da batzuetan,» iradoki zuen Felixek.

Charlotte ahizparen ondotik emeki-emeki urrundu eta aitarengana joana zen; orain aitari heldu zion besotik. Wentworth jaunak estu-estu bilduta zuen *Advertiser*; esku batekin eutsi eta

bestearekin gogor estutzen zuen paper kiribildua. Brand jauna Wentworth jaunari begira zegokion, baina Charlotterekin ez zuen begiradarik gurutzatzen, nahiz eta hura aitaren ondoondoan egon. Gertrudek, berriz, ahizpari begiratzzen zion.

«Ez diezaiogun aldaketa deitu,» esan zuen Brand jaunak. «Alde batera, ez da aldaketarik izan. Gauza bat nahi nuen, eta eskatu egin nizun; gauza bat nahi dut orain ere, eta eskatu egiten dizut.» Eta isilaldi bat egin zuen. Wentworth jaunak nahasturik zirudien. «Nire ministroaren ahalmenez bikote gazte hau elkartu ahal izatea eskatzen dizut.»

Gertrudek, ahizpari begira zegoela, Charlotte gorri-gorri egiten ikusi zuen, eta Wentworth jaunak Charlotteren estutua sentitu zuen besoan. «Alajainkoa!» xuxurlatu zuen Wentworth jaunak. Eta horixe izan zen bere bizitzan esan zuen birao-antz handieneko hitza.

«Adeitasun handia erakusten duzu: eskuzabaltasun handia!» esan zion Felixek Brand jaunari.

«Ez dut ulertzen,» esan zuen Wentworth jaunak; baina bistakoa zen beste guztiek ulertu zutela.

«Zoragarria da hori, Brand jauna!» esan zion Gertrudek, Felix imitatzen zuela.

«Atsegin handiz ezkonduko zaituztet.»

«Gertrudek esan duen bezala, ideia zoragarria da,» esan zuen Felixek.

Felix irribarrez zegoen, baina Brand jaunak ez zuen irribarre ahaleginik ere egiten. Hark oso serio egin zuen proposamena. «Pentsatzen aritu naiz, eta horixe egin nahi nuke,» baieztatu zuen.

Charlotte, bitartean, begiak zabal-zabalik zegoen. Charlotteren irudimena, esan dudan bezala, ez zen ahizparena bezain bizkorra, baina orain emanak zituen pauso txiki batzuk aurrera. «Aita,» xuxurlatu zuen, «emaiezu baimena!»

Brand jaunak hura entzun eta beste aldera begiratu zuen. Wentworth jaunak, bistan zenez, ez zuen batere irudimenik. «Gertruderen izaerak» hasi zen esaten astiro, «garabide berezi bat behar zuela pentsatu izan dut beti.»



«Aita,» errepikatu zuen Charlottek, «emaiezu baimena.»

Orduan, horratik, Brand jaunak Charlotteri begiratu zion. Eta aitak Charlotte sentitu zuen beraren beso tolestuaren gainera inoiz baino estuago lotzen; eta horrek eta Charlotteren aho-tsean nabaritu zuen halako eroritasun gozo batek zer gertatzen ote zen pentsarazi zioten. Begiratu zion alabari eta haren begiak teologo gaztearen begietan jarririk ikusi zituen; baina horrek ere ez zion ezer argitu eta nahasturik jarraitu zuen. Baina, nolana ere, «ematen dizuet baimena,» esan zuen azkenean, «Brand jaunak hori aholkatzen duenez gero.»

«Ea zeremonia berehala egiteko egokiera dudana,» adierazi zuen Brand jaunak, halako xalotasun solemne batez.

«Baina, baina... hori zoragarria da!» esan zuen Felixek profanotasunez.

Wentworth jauna aulkian hondoratu zen. «Hala izango da, baldin ulertzen bada,» esan zuen halako laztasun kritiko batez.

Gertrude ahizparengana joan zen eta kanpora lagundu zion, eta, Felix, Brand jauna besotik

harturik, harekin batera kristalezko ate luzetik kanpora irten zenean, agurea han geratu zen eserita, argitu gabeko nahasmenduan murgildurik.

Felixek ez zuen lanik egin egun hartan. Arratsaldean Gertruderekin ibili zen, txalupa batean sartu eta ur gainean, axalka-maxalka arraunei eraginez. Asko hitz egin zuten Brand jaunari buruz, baina ez hari buruz bakarrik.

«Oso duin jokatu du,» esan zuen Felixek. «Jokabide heroikoa izan du benetan.»

Gertrude gogoetatsu zegoen, begiak uraren uhinetan jarririk zituela. «Hori nahi zuen; gauza handi bat egin nahi zuen.»

«Ez da lasai egongo ezkontzen gaituen arte,» esan zion Felixek. «Hainbat hobe.»

«Eskuzabal agertu nahi zuen; plazer moral handi bat sentitu nahi zuen; oso ondo ezagutzen dut,» jarraitu zuen Gertrudek. Felixek begiratu egin zion; Gertrude astiro mintzo zen, ur garbiri begira. «Horretan pentsatzen zuen etengabe, gau eta egun. Zoragarria izango zela pentsatzen zuen. Azkenean, beraren egitekoa horixe dela erabaki du: ez gutxiagorik; bere burua goraturik

sentitu du; ezin bikainago. Sentipen hori du atsegin. Nik onartu izatea baino hobea da berarentzat.»

«Niretzat hobe,» egin zuen irribarre Felixek. «Baina, sakrifizioari dagokionean, badakizu zer? Uste dut erabakia hartu zuenean ez zintuela miresten hamabost egun lehenago miresten zintuen adina.»

«Ni ez nau inoiz miretsi. Charlotte miresten du; nik pena ematen nion. Oso ondo ezagutzen dut.»

«Bada, hortaz, ez zenion hainbeste pena ematen.»

Gertrudek begiradatxo bat zuzendu zion Felixi, irribarrez. «Ez zenuke haren ekintzaren edertasuna apaltzen saiatu behar. Charlotte miresten du,» esan zuen berriro.

«Hori da behinena!» esan zion Felixek barrez, eta arraunak uretan sartu zituen. Ezin dut garbi esan Gertruderen esaldiaren zein atalengatik esan zuen hori; baina Felixek arraunak uretan sartu zituen berriro, eta ur gainean hara-hona jarraitu zuten.

Egun hartan ez ziren ez Felix eta ez arreba Wentworth jaunaren gaueko otordura bildu. Borko bi bizilagunek elkarrekin afaldu zuten, eta mutilak beraren ezkontza orain gauza ziurra zela jakinarazi zion Eugeniari. Eugeniak zorionak eman zizkion, eta gaineratu zion ezen, oro har, neba bezain senar zentzuduna izaten bazen, emazteak ez zuela kexarik izango.

Felix pixka batean begira egon zitzaion, irribarrez. «Ez nuke,» esan zion «zentzuan bakarrik geratu nahi.»

«Egia da» esan zuen Eugeniak. «Zentzua oso tristea eta hutsa da. Matalazik gabeko ohearen antzekoa.»

Beranduago, ordea, etxe handira joan ziren neba-arrebak, baronesak koinatagaia zoriondu nahi zuela eta. Lorioan aurkitu zuten ohiko lagunartea, Clifford Wentworth eta Lizzie Acton izan ezik; eta baronesari ongietorria egiteko, denak, ohi bezala, zutitu zirenean, Eugeniak miretsirik izan zuen entzuleria, Gertruderi konplimenduak egiten zizkion bitartean.

Robert Acton lorioaren ertzean zegoen, zutabe zurietako batean bermaturik, eta, beraz,

Eugeniarengandik oso hurbil egotea egokitu zitzaion, hark zorion-hitz txukun labur batzuk jaulki zituenean.

«Poz handia emango dit zu hobeto ezagutzeak,» esan zion baronesak Gertruderi; «nik nahi baino gutxiagotan ikusi zaitut. Jakina, orain ulertzen dut zergatik! Maiteko nauzu pixka bat, ezta? Uste dut, behin ezagututa gero, irabazi egiten dudala.» Eta ahotsaren kadentziarik gozoenaz hitz horiek esaten bukatu zuenean, baronesak halako musu ofizial harranditsu bat eman zion Gertruderi bekokian.

Familiartekotasun handiagoak ez zion Gertruderi Eugeniaren nortasunaren indar misterio-tsua eragiten zion zirrara gutxitu, eta Gertrude lausengaturik eta goraturik sentitu zen zeremonia txiki harekin. Robert Actonek ere miretsirik zirudien, Madame Münsterren ele biziaren beste hainbeste adierazpen finen aurrean miretsi zen bezala.

Actoni egonezina sortzeko dohaina zuten adierazpen horiek eta aldi horretan aldendu egin zen, bat-batean, eskuak sakelean sarturik; geroxeago berriro itzuli eta lehengo zutabearen kon-

tra jarri zen. Eugenia orain osabari ari zitzaion alabaren hitz-emateagatik konplimenduak egiten, eta Wentworth jaunak bere betiko gizabide soil baina araztuaz entzuten zion. Uste izatekoa da ezen Wentworth jaunak inguruan zituen gazteen arteko harremanen ikuspegi argiagoa izango zuela ordurako; baina, hala ere, oso serioski hartzen zuen gauza, eta ez zegoen inolaz ere pozez gainezka.

«Senar ona izango du Felix,» esan zion Eugeniak. «Oso lagun atsegina izango du; bertute handi bat du Felixek: alaitasun suntsiezina.»

«Bertute handia al deritzozu horri?» galdetu zion agureak.

Eugenia pentsatzen geratu zen, begiak osabarengan jarririk. «Azkenean pertsona horretaz ere aspertu egiten dela uste duzu, ezta?»

«Ez dakit hori esango nukeen,» esan zion Wentworth jaunak.

«Esan dezagun, hortaz, aspergarria dela besterentzat baina ederra norberarentzat. Badakizu emakumeak bere bigarren izatea ohi duela senarra; eta, beraz, Felix eta Gertruderi dagokienean, bien ondasun komuna izango da alaitasuna.»

«Gertrude ere oso alaia izan da beti,» esan zuen Wentworth jaunak, arrazoibide horri jarraitzen ahaleginduz.

Robert Acton, eskuak sakeletik atera eta Baronesaren ondoraxeago joan zen. «Behin ezagututa gero, irabazi egiten duzula diozu,» esan zion baronesari. «Irabazi, zu ezagutzen zaituenak irabazten du.»

«Eta zer irabazi duzu zuk?» galdetu zion Eugeniak.

«Jakinduria handia.»

«Onura eztabaidagarria da hori lehendik hain jakintsu den gizonarentzat!»

Actonek ezetz egin zuen buruaz. «Ez, ni inozo galanta nintzen zu ezagutu aurretik!»

«Eta inozo izanik egin duzu nire ezaupidea? Konplimendu polita egiten didazu!»

«Utz iezadazu jarraitzen,» esan zion Actonek, barrez. «Espero dut, gu guztion atseginerako, zure nebaren ezkontzak hemen geraraziko zaituela.»

«Nola geraraziko nau nebaren ezkontzak, neronenak ere ez ninduke-eta geraraziko?» galdetu zion baronesak.

«Batera zein bestera, zergatik ez zinateke geratuko, noiz eta, orain, esaten duzunez, Euro-para lotzen zintuen lokarri mekaniko hori askatu duzunean?»

Baronesa begira geratu zitzaion pixka batean. «Esaten dudanez? Badirudi duda egiten duzula.»

«A!» esan zion Actonek, begirada itzultzen ziola, «nire lehengo inozokeriaren hondar bat da hori! Baina beste erakargarri batzuk ere baditugu,» erantsi zuen. «Beste ezkontza bat ere izatekoak gara.»

Baina baronesak ez zirudien aditzen zionik: tinko begiratzen zion. «Nire hitza ez da oraindai-no zalantzan jarri,» esan zion.

«Beste ezkontza bat ere izatekoak gara,» errepikatu zuen Actonek, irribarrez.

Orduan ulertu bide zion baronesak. «Beste ezkontza bat?» Eta besteengana itzuli zen. Felix Gertruderekin zegoen solasean; Charlotte, urrutixeago, haiei begira; eta Brand jauna, beste izkina batean zegoen, bizkarrez, eskuak jaka-hegalen azpian sartu eta bere buru handia alde batera okerturik, ilargi-goraren zati nimiño sotilari



begira. «Brand jaunaren eta Charlotteren artekoa izan beharko luke,» esan zuen Eugeniak; «baina ez du itxurarik.»

«Hor,» erantzun zion Actonek, «kontrako faktoreak hartu behar dira kontuan. Eta ematen duen baino gehiago dago. Espero dut egun hauetako batean gertatuko dela elkarketa hori; baina ez nintzen horretaz ari.»

«Beno,» esan zuen baronesak, «neure maitaleak zein diren inoiz ez dut asmatzen eta, nola asmatuko ditut besteenak!»

Actonek algara egin zuen, eta zerbait erans-teko puntuan zegoela, Wentworth jauna hurbildu zen ilobarengana. «Jakín ezazu,» esan zion agureak ilobari, une bateko pozaldiari amore eman ez, «beste ezkontza baten asmoa ere badela gure lagunarte txikian.»

«Horixe esaten ari nintzaion baronesari,» esan zuen Actonek.

«Acton jauna bere ezkontza jakinaraztera zihoakidan, antza,» esan zuen Eugeniak.

Wentworth jaunaren pozaldia areagotu egin zen. «Ez da hori; baina familiakoa da ezkontza. Cliffordek, gaur goizean, Brand jaunak Gertrude

ezkontzaren uztarriaz lotzeko desira azaldu duela jakin duenean, egokiera baliatu du, eta pentsatu du bideak egitea Lizzie eta berarentzat ere gure lagun onak horrelako beste zeremonia bat egin dezan.»

Baronesak burua atzera bota eta irribarre egin zion osabari; eta gero, are irribarre distiratsuagoz Robert Actonengana itzuli eta «Oso ergela izan behar dut horretaz konturatu ez izateko!» esan zuen. Actonek bere botetara behe-ratu zituen begiak, beraren esperimentuak arrazoizko mugak agian iritsirik izango zituela pentsatu balu bezala, eta Eugeniak ez zuen pixka batean ezer esan. Kolpe gogorra izan zen, izan ere, eta bere onera etortzeko denbora behar zuen. Baina, hala ere, azkar asko etorri zen. «Eta non da bikotea?» galdetu zuen.

«Nire amarekin arratsa pasatzen dira.»

«Ez al da ustekabe handi samarra?»

Actonek begiak altxatu zituen. «Oso ustekabe handia. Elkar hartze bat bazuten, nahiz adierazi gabea; baina badirudi Cliffordek egun baten edo biren buruan afera azkartzeko eragin miste-riotsuren bat izan duela.»

«Eragina,» esan zuen baronesak, «zure arreba politaren xarmena izango zuen.»

«Nire arrebaren xarmak, ordea, ez dira gaurkoak; Cliffordek betidanik ezagutzen du Lizzie.» Acton esperimentuan hasia zen berriro.

Oraingoan, ordea, garbi zegoen baronesak ez ziola lagunduko. «Ez dago jakiterik! Clifford oso gaztea da. Baina oso mutil atsegina.»

«Mutil jatorra da, eta gizon aberatsa izango da.» Hori zen Actonen azken esperimuntua; Madame Münster beste aldera itzuli zen.

Baronesak bisita labur bat besterik ez zuen egin, eta gero Felixek eraman zuen etxera. Saloi txikian sartu eta ia zuzenean tximinia gaineko ispilura joan zen baronesa, eta kandela jaso eta ispilura begira egon zen. «Ez dut itxarongo zu ezkondu arte,» esan zion nebari. «Bihar hasiko da neskamea gauzak biltzen.»

«Arreba maitea,» esan zion Felixek, «berehaxe ezkonduko gara! Brand jauna ez dago bate-re lasai.»

Eugeniak, ordea, kandela eskuan zuela itzuli eta saloitxoko pitxileria, errezela eta kojinei begiratzea besterik ez zuen egin. «Biltzen hasiko

da neskamea,» esan zuen berriro. «*Bonté divine*, hau zaborreria! Batetik bestera dabilen antzezlaria dirudit; hauek dira nire “ondasun” guztia».

«Amaitu al da antzerkia, Eugenia?» galdetu zion Felixek.

Begirada zorrotza bota zion arrebak. «Jokatu dut neure papera.»

«Txalo handiak eraginik!» esan zion nebak.

«Txaloak... txaloak!» xuxurlatu zuen Eugeniak. Eta barreiaturik zituen oihaletatik bi edo hiru bildu zituen. Brokadu-oihal eder haiei begiratu zien, eta, gero, «Ez dakit nola jasan ahal izan dudan!» esan zuen.

«Jasan ezazu beste pixka batean. Gera zaitez nire ezkontzarako.»

«Eskerrik asko; hori zure aferara da. Nire aferak beste nonbait daude.»

«Nora joan behar duzu?»

«Alemaniara..., lehenengo ontzian.»

«Acton jaunarekin ez ezkontzea erabaki al duzu?»

«Errefusatu egin dut,» esan zion Eugeniak.

Neba begira geratu zitzaion isilik. «Damu dut,» esan zion azkenean. «Baina ni oso diskre-

tua izan naiz, eskatu zenidan bezala. Ez dut ezer esan.»

«Jarrai, bada, mesedez, isilik,» esan zion Eugeniak.

Felixek erreberentzia bat egin zion, serio. «Obedituko zaizu. Baina Alemanian izango duzun egoera?» jarraitu zuen.

«Egidazu mesede: ez iezadazu gai hori aipa.»

«Egoera aldatu zelakoan nengoela esan nahi nuen soilik.»

«Bada, oker zaude.»

«Baina uste nuen sinatu zenuela...»

«Ez dut sinatu!» esan zuen baronesak.

Felixek ez zion ahalegin gehiagorik egin, eta lehenbailehen ontziratzen lagunduko ziola hitz eman zion.

Brand jaunak, itxura zenez, presa handia zuen bere sakrifizioa burutu eta dena ederki konpondurik utziko zuen ezkontza-bedeikapena emateko; baina harena bezain ukaezina zen Eugeniak berak espero zuen fortuna eskaini ez zion lurraldetik alde egiteko zuena ere. Egia da ez zela asko saiatu, baina ematen zuen ezen jeneralizaziora jota zuritzen zuela bere burua:

kontinente probintziano hartako ekintza-baldintzak emakume benetan gorenentzako egokiak ez zirela erabakita. Mundu zaharra zen, azken finean, haien eremu naturala. Ondorio zentzudun horiek trabarik gabe praktikara eramateko Eugeniak erakutsi zuen irekitasuna bizitzako eskarmentuak malgutasun paregabea eman dion nortasun baten erakustaldi gorena besterik ez zela pentsatu zuen gure kontakizunean parte hartu duen ikusle talde txikiak. Eragin nabarmena izan zuen jarrera horrek Robert Actonengan, zeina, Eugeniaren partieraren aurreko bi egunetan, oso urduri eta erreta ibili baitzen. Baronesak osabarenean igaro zuen azken gaua, eta inoiz baino amultsuago egon zen; eta Clifford Wentworthen andregaiarengandik despeditzerakoan, antigoaleko eraztun bitxi bat hatzetik atera eta opari egin zion, oso hitz politak esan eta musu ematen ziola. Gertrudek, bera ere andregai gisa Eugeniaren eskuzabaltasun dotorearen eskerdun baitzen, miragarria iritzi zion gertaera txiki hari, eta Robert Actonek pentsatu zuen ezen horrek agian, Lizzieren neba eta begirale zen aldetik, baronesari ordainetan opari dotore bat

egiteko eskubidea emango ziola. Baronesari opari dotore bat eskaini ahal izateak poz handia emango ziokeen; baina uko egin zion sentimenduak era horretara adierazteari, eta, ondorioz, askoz ere urduriago zegoen azkenerako. Ia azkenean unean ikusi zuen baronesa: Bostonera ontziratzerantz joan aurreko gau beranduan.

«Niregatik nahi nuen zu hemen gera zintezen,» esan zion. «Ez zuregatik.»

«Ez dut hainbeste bereizten,» esan zion baronesak. «Damu dut joan behar izatea; hori da dena.»

«Nirea baino askoz bereizkuntza sakonagoa da hori,» adierazi zion Actonek; «pozik zoazela esan nahi baitu horrek.»

Felixek ontzian agurtu zuen arreba. «Maiz ikusiko dugu elkar hara joaten garenean,» esan zion.

«Ez dakit,» erantzun zion baronesak. «Europa Amerika baino askoz handiagoa iruditzen zait.»

Ondorengo egunetan ez zen Brand jaunarena izan, noski, gogo urduri bakarra; baina esan daiteke ezen gertakizunean parte zuten gazte guz-

tien artean inor ez zela hura bezain grinatsu abaguneak eskatzen zuen maila iristeko. Gertrude Felix Youngekin irten zen aitaren etxetik. Zorionean iraun zuten, eta urrutira joan ziren. Cliffordek eta beraren emazte gazteak lagunarte txikiago batean bilatu zuten zoriona, eta Lizziek senarrarengan izan zuen eragina halakoa izan zen, ezen, harrigarria bada ere, egiaztatu egiten baitzuen Felixek Wentworth jaunari aurkeztu zion emakume argiekin harremanak izatearen eragin onuragarriaren teoria. Gertrude denboraldi batean urrun ibili zen, baina Charlotte Brand jaunarekin ezkondu zenean itzuli zen. Haien ezteietan izan zen, non ere ikusi baitzen Felixen alaitasunak ez zuela aldaketarik izan. Gero, desagertu egin zen, eta haren alaitasunaren oiantzuna, senarrarenarekin batera nahasirik, maiz iristen zen aurreko denboretako etxera. Wentworth jauna, azkenean, konturatu zen ezen hura noiz entzungo egoten zela. Eta Robert Acton, ama hil ondoren, oso neska atsegín batekin ezkondu zen.